

TXOMIN

(URIZAIN BATEN GORA-BEERAK)



Zubiri'tar Iñaki
(Euskerazaintzakoa)

“EUSKERAZALEAK” ALKARTEAK ARGITARATUA

TXOMIN
(URIZAIN BATEN GORA-BEERAK)

Zubiri'tar Iñaki
(Euskerazaintzako)

I.S.B.N.: 84-88464-12-6

Depósito Legal: BI-1674-96

Fotocomposición e Impresión:

FLASH Composition S.L.

Alda. Rekalde, 6

48009 BILBAO

“EUSKERAZALEAK” ALKARTEAK ARGITARATUA

AURKIBIDEA

AURKEZPENA	5
SARRERA	7
AITITAREN GAUZAK	13
AITITAREN IPUIÑA	31
ZEKORRA	37
ZERTZELADA BATZUK	43
BIRRESKOLAPENA	47
URIZAIN	61
ALDERDI ZAARREAN TXINEL	67
LENENGOZ SALATUA	71
BIGARRENEZ	79
IRUGARRENEZ	93
EL TXORO	101
“TXAKUR ERRENA” AUZOA	107
MINTXU	113
“TXAROPENA” AUZOA	121
AITITAREN AZKENA	129
URIZAINBURU	139
IRU BURUAUSTE	147
AGURETXEA	159
PERUTXU TA MANUTXU	165
GURUTZE	175
IDAZTOSTE	185

ELBURUA

Zubiri'tar Iñaki adiskideak irakurgai barri bat eskintzen dauku. Oraingo onetan be elebarria da, baiña ez lengoak lakoa, tankera barri batekoa baiño.

Liburu au irakurri dodanean, galdera au egin dausat neure buruari: Zein izan ete da idazleak oraingo onetan izan dauan elburua?

Lenengo begiratze baten, irakurteko gai bat eskintzea dala elburua dirudi, baiña sakon-sakonera begiratu ezkeru, elburu bi dakustaz argi-argi: Gaurko oituren nastean jokabide garbi bat eskiñi eta, batez be, zarren jokabideak izan bear dauan ikutua agertu. Au norki nagusiak aiteitaganako dauan onespen bizian agertzen da.

TANKERA

Elburu ori lortzeko bide lez, idazleak elebarria artu dau, eta elebarri-mota asko dagoan ezkeru, oraingoan bizitzako gomutakiak idaztea da bidea.

Ez da bardin benetan gomutakiak idaztea, au kondaira arlora sartu bearke genduke, eta idaz-tankera lez bide ori artzea. Au elebarri arloan sartzen dan idaz-tankerea da.

EDESLARIA

Elebarrietan, sarritan, idazlea bera izaten da edeslari, beste batzutan norki batek egiten dau lan ori.

Elebarri onetan idazleak ez dau iñoz bere burua agertzen, baiña oso-osoan bat egiten dau edeslari dan norki nagusiagaz eta onek "neu" lez egiten dau berba.

Elebarriaren azkenean berak agertzen dau argi, zartzaroan idatzitako bere bizitzako gomutakiak dirala.

TOKIA

Elebarriaren tokia ondo zeaztuta dator eta ez dau agertzen ezelako nasterik: Goiniz bere erria eta onen barruan Urrexola baserria 40 gizelan lur inguruan dituala. Etxe-

tik Km. batera erriko edatetxea ta alboan otzaragiñaren lan-lekua. Azoka-lekua agertzen da noizean bein eta tokiak zabaltasun aundiagoa artzen dau norki nagusia gudaritzara doanean: Gasteiz'tik, Iruña'tik, Jaka'ra.

Uri-burua eta bere auzoak agertzen dira eta bereziki "Txakur Errena" auzoa eta gero norki nagusiaren etxea, polita, orlegiz inguratuta.

ALDIA

Aldiak une garrantzitsu batzuk daukaz elebarrian: Urte bikoa zala aita il zaneakoa, gudaritzan urte bat eta erdi, ezkontza-eguna irailaren 14'an.

Egun eta urte orreitatik kanpora, aldiak bere bidea daroa eta ogei ta zortzi-bat urte dira.

Baiña azkenean, Txomin Agirre'k Kresala'n egiten dauan antzera, norki nagusiak, idazten dagoan zartzaroan, une aretan bere norkiak zertan diran gogoratzen dau.

NORKIAK

Norki garrantzitsuak ogei ta amar-bat agertzen dira eta oneik ekintzaz zeaztuten dira ez etopeiak eta prosopografiak egiñez. Badagoz, orregaitiño, prosopografi edo norki-zeazketa batzuk.

Norki-kopuru orren barruan, batzuk etxeokoa dira, beste batzuk lanean aurkitzen dira, or agertzen dira maixua, abadea, alkatea ta abar.

Ekintzetan laster ikusten da nor zelakoa dan, ez onak eta txarrak bereizteko, baiña bai jokabide onak eta erriaren aldekoak agertzeko.

Norkien artean uri-zaiñak eta ertzaiñak dauke toki berezia.

ARIA

Elebarriaren aria errez jarraitzen da, lerrobidekoa dalako. Gomutakiak izatea bera da orretarako bide.

Ipuin batzuk sartzen dira aritik albora, baiña ez asko eta ez luzeak.

Iñoz oiturak azaltzeko be alboratzen da, esaterako otzaragiñen lana.

IRARURLEARI

Zalantza barik, elebarria pozik irakurriko dozu eta euskerearen aldetik sarritan bururatuko jatzu esaldi, izen edo adizkiren batzuk aztertzea.

Emon lekua tentaldi orreri eta ona dana artu.

OLAZAR tar Martin'ek

Goiniz erriko Urrexola basetxean jaio nintzan, eta urte bikoa izanik, teillatua barrizatzen ziarduan, aita jausi ta il egin zan. Orduan, ama alargunarekin, iru anai-arreba aita barik geratu gintzazan: zortzi urteko nire anai Tomas etxeokoa oiñordea zana, bost urteko Yone gure arrebea, eta urte bikoa nintzan nerau.

Jazoera onek gure egoerea gainbeera aldatu eban, eta etxeokoaun barik billakaturiko etxeari laguntzearren, Erriko Taberna'ren ondoko etxe baten otzaragillea zan amaren aita, aitita Braulio, etxeokoa ugalak erabiltearren, ezinbestez etxera ekarri bear izan eban amak. Orduko, alaba ezkondu batekin bizi izaten zan aitita, ezbai txikiena be izan barik, dana lagata, Urrexola'ra etorri zan alabeari ta iru billobatxuai laguntzearren. Aldi aretan urte bikoa nintzanez, aitita alboan beti ezagutu dodala esan dagiket, eta aitita izanez gaiñera, onulari, maisu, eta aitatzat, dana era batean izan neban bizitzaldi luzean zear.

Etxean baegoan zeri begira, izan be. Urrexola etxaldea berrogei gizalaneakoa zan, eta etxe-inguruko ortuaz bestalde, enparau guztian zortzi bei alaten ziran larradi ederra genduan. Bearrekoa zan, beraz, etxeokoaun zentzudun baten eragintzea etxeokoa ugalak ondo erabilteko, eta izan be, etxaldeak bear eban esku irmoa, eta umeeak benetako maisu ta aolkularia, aititagan izan genduan.

Aitita etxera etorri zanean, urte bikoa nintzanez, aren kuttuna izan nintzan asiera batetik, besteai baiño ardura geiago emoten asi yatala, eta gero anditu arren be, aititaren kuttuna izaten jarraitu neban, bera il zan arte.

Luzaro barik, aititaren eragintzapean, etxeokoa arazoak lengora biurtu ziran, eta begiratutxuan bizi arren be, bearrekoenak ez euskun uts egiten. Etxe-inguruko sei gizalaneak, egunoroko lapikorako beste baemoskuen, guztitariko ortuari edo barazkiak batzen genduzala, au da: indiabak, lekak, lursagarra, zerbak, kuiak, azak, ugazak, tomateak, piperrak eta abar. Onezaz gainera, bagenduzan oikoak diran igaliondoak, eta urte guztiko janariari bizigarria emoteko, urtero azten genduan txarria.

Etxetik kilometro batera egoan bide-gurutzera, egunoroko esne-pegarrak eroan bear izaten genduzan, emen, esne-lankidetzat batek artu egiazan, eta lorketa onetarako, "Putxi" izeneko astoa gerabillen. Onezaz gainera, orgatxu batera buztartu oi genduan, etxe-inguruko lorketak egiteko, esaterako, bedarra, kuiak, arbiak-eta etxera ekarteko. Asiera baten ez genduan idirik, eta urteko egurketea ta iraketea egiteko, beiak erabilten genduzan, baita ortua goldatzeko be, bearreko zanean. Aldiaren bidean, baiña, esneak

emoskun obari edo ekarriaz, aititak buztarridi biko ederra erosi eban, lanari uko egin dako beiek, esne geiago emon egiskuen.

Aitaren eriotzak etxera ekarritako ondapena, aititaren etorteak laster ondu eban, eta bere eragintzapean, etxeak luzaro barik erakutsi eban lengo ibilliera egokia. Aititak, baiña, ezin egikean aztu urteetan zear erabillitako otzaragintzea, eta lengo etxetik, aulkia, ereduak (moldeak), eta bearreko beste tresnak Urrexola'ra ekarrita, baserrian lana urritzen zanean, neguan batez be, etxeko atadi zabalean, aztu ezin egikean otzaragintzeari emotsan buru-belarri. Etxerako bear ziran otzarak egiñez gaiñera, enparauak, Erriko Taberna'ren ondoko lengo etxera eroiazan, an bertan saltzearren.

Sarri askotan, aititaren ondoan jesarrita, bere antze bardinbakoa begiztatu oi neban. Saski edo otzaragintzarako, zazpi bat urteko gaztain-txara erabillen, ilbeeran mozutakoa, izan be. Nik ulertu ezin arren be, aititak garrantzi andia emotsen zertzelada oneiri, eta auxe zan aititak ornitzailleari eskatzen eutsazan baldintza uxa-eziñak. Ebatea, Gabonilla'n edo Urtarrilla'n egiten zan geienbat. Etxera eldutako enborrak, putzu batera sartzen ziran, barruko ezotasuna galdu ez egien erabilli aurretik. Etxe-ondoko laba baten, unerako bear beste enbor, otzaragintzatik sortutako txirloraz berotzen ziran, ez legortzeko, baiña, barruko ezotasunean egosi zeitezan, egur igarrak lan orretarako ez dau balio-ta. Onen ostean, labana bat, enborrari orpoan ozka bat egin, eta atzamarrak onetan sartuta, enborrak luzeeran erdibitzen dira. Oneitariko zati bat labara sartuta, "tenplea" galdu ez dagian, beste zatia lanerako erabilten da. Zati onen bidez amar bat zumitz lortuta, otzaragintzeari emon daiteke. Erdiko zumitzak zabalenak izanik, saiets-zumitz izendatzen dira, eta estuagoak, ostera, eio edo zear-zumitz. Zumitzok leundu bear dira, eta orretarako aulkian tinkaturik, "azia" izeneko labana bereizi batez, txirlorak kentzen yakez, bearreko leuntasuna lortu arte. Dalako "azia" ora-leku bi dituan aiztoa da, eta aulkian jesarrita, otzaragilleak esku biakaz darabil. Saski edo otzaren goikaldeko erestun edo uztai, gaztaiñez be egiten da, batzutan, orretarako urretxa erabilten bada be.

Aipatutako uztaiak oraleku bi ditu, saskia bear dan lez erabilteko. Saiets-zumitzak egiten yako bere eperdi edo ondo. Au eginda gero, dagokion eredu ipinten da, eta onen inguruan saiets-zumitzak eiotzen dira, nai izandako goi-neurria lortu arte, be-launakaz ereduaren aurka estutzen dirala. Orduan, saiets-zumitzen muturrak zorrotzen dira, eta erestun edo uztai ipiñita, esandako saietsen zorrozkiak uztai-gainetik barrurantz tolestu, eta eiotako zumitzen artera sartzen dira.

Iru motatako otzarak egiten ebazan aititak geien bat: esku-, asto-, eta lepa-otzarak, eta askotan, kaleko alabearen etxean salgai ebazan otzaren billa joan barik, base-rritar askok gurera artez etorri oi ziran, bearreko gaiak erostearren.

Trebetasun andia lortu izan eban aititak urteen bidean, eta sarri askotan, aulkitxu baten bere alboan jesarrita, aren eskuen igiera arin eta zeatza abo zabalik begiztatzen neban. Bazan, baiña, beste zerbait aregana erakarten ninduana, eta auxe alegia: lan egin bitartean, amaika ipuin edo jazoera edestu oi eustazan, amesen mundu zoragarri batera nindaroala. Zoritxarrez, baiña, sei urteko nintzanean, erriko eskolara joateko ga-

raia zala, aitita-amak erabagi eben, eta nire anai ta arrebearekin, goiz guztietan erriko eskolara joaten asi nintzan. Eguberdiko ikaste-etenaldian, bazkaria izekorenean izaten genduan, Urrexola kilometro bitara egoan-eta. Arratsaldeko bostetan, eguneko ikastaldia amaituta, Tomas, Yone ta irurok etxe-miñak jota, aldatz-gorako kilometro biak eginda, etxera biurtzen gintzazan.

Eskolako maisua On Daniel aragoitarra genduan oso zorrotza zana. Ezpanak erbiaren antzekoa ebazanez, erbi-mustur esaten geutsan. Ez euskun uts txikiena bera be barkatzen, eta gure obenak zigortzearren erabillen ol-zati lodiari bildur andia geutsan. Utsak egin eta bereala zigortu bear ebazalako ustekoa zan, eta pekataria beragana dei eginda, bere biziko zartadak emotsazan esku-arran, ezetariko erruki barik. Bala-bala ebillen gure artean, aren zartaden ibigarria, eskua berakatzaz igurtzitea zala, eta onezaz gaiñera, ol-zati madarikatua autsi zeitekeala. Baiña berakatz ugari erabilli arren be, nik ez neban inongo aringarrik ikusi, aitzitik, dalako gantzukia ol-zatiarentzat osasungarria billakatu zan, urterik-urte irauten eban-eta; nire ustez, On Daniel'eri zaar-saritu arte lagundu eutsan.

Onezaz gaiñera, gure buruan jakintzaren argi osasungarria sartu zeitekigun, zarta-koak biderik eginkorrena dirala, uste izaten eban Goiniz'eko maisuak, eta gure intxaur gaixoetara, aren irakaskintza sartu-eziña azaltzen zanean, dalako ol-zatiaz egundoko koskorrekoak emoskuzan auxe iñoala:

– ¡Pero qué bruticos que sois, maños...!

Jakiña, gure ezjakintasuna erderaz irakasten eskualari egotzi bear yako. Dana-dala, adin aretan gure oroimena zorrotza zan ezker, ainbeste entzuteaz, gaiak buruz ikasten genduzan, eta ezer ulertu ez arren be, ikaskaiak parra-parra jaurti oi genduzan, tutik ulertzeke. Era onetan ba, zaila izanik be, izkiak josten ikasi neban, eta olan, aldiaren joanean, irakurri ta idazteko gai azaldu nintzan, apurka-apurka erdal itzak ikasten nebazala.

Bein baten, egundoko ikaraldia artu neban. Ikas-gelako txoko baten irola kokatua egoan, eta larrialdietan, besoa jasorik, ara joateko baimena eskatzen geutsan maisuari, eta baimena emonda, ustiatzen genduan. Egun aretan, txisa-larriak artuta, dalako baimena eskatu neban, eta On Daniel'ek emonda, atea zabaltzean, lau-ankadun bat urten, eta bildur esan-eziñak menperatuta, ariñeketa zoroari emon neutsan, atzetik demoniño batek orpoz-orpo erraikidala. Inguraketa osoa egin neban ikasgelatik, oiu bizitan eta arnas-estuka, jazarren ninduan piztiagandik zelan jaregin ez nekiala. Alako baten, eta bigarren inguraketea asi-agiñean nintzala, barre-zantzo gortugarria aditu neban. Gelditu nintzan, eta musturraz aztalak ukutzen eustazala, bildots bat ikusi neban, ikaste-lagunak baita Erbi-musturrak berak be, arkuak austeraiñoko barre egiten ebela. Laster argitu zan jazorikoa... Goiz aretan, ikastaldia asteke orduan, mutiko baten aitak maisuari bildots bat ekarri eutsan, eta eguberdian etxera eroateko asmoz, eskolako irolara sartu izan eban. Zer esanik ez, ikaskideen eztenkadak aste osoan zear jasan bear izan ebazala nire zangartasunak. Edozelan be, arratsalde aretan etxekoak jakitun ipiñi nebazanean, nire lepotik amaika barre egin ebezan, lotseak artuta kortan ostendu bear izateraiño.

Zortzi urteko nintzala, Jaunartzea egiteko gerkunak asi nebazan. Erriko abadeak, On Karmelo'k, sakristegian irakasten euskun, euskeraz, jakiña, erderaz ez genduan ikasterik-eta. Bein baten, kristaubidea amaituta kalera urten gintzazanean, nire liburu-ruen zorroa aztu egin yatala oarturik, sakristegira biurtzean, gure abadeak maisuarekin izketan ikusi neban, eta aurrerago azartzen ez nintzala, "zeri nakio" gelditu nintzan. Une aretan, Erbi-mustur'ek abadeari auxe iñotsan:

– Barkatu abade Jauna, baiña ez deritxat ondo ikasbidea euskeraz emoteari. Begira: neureak eta bost jasan dodaz basa-mutikoi erderaz irakasten, gero zeuk nire ardura guztia ezereztu dagistazun, kristau-ikasbidea euskeraz emotean.

– Begira, On Daniel, mutikoek Jaunartu dagien, ulertu bear dabe ori zer dan, eta orretarako, eurok ulertzen daben izkuntzaz irakatsi bear yake.

– Ken ortik...! Orretarako biderik egokiena, kristauen izkuntza dan erdera izango litzake.

– Nork esan dautsu, baiña, gaztelerea kristauen berbetea danik...?

– Edozein izkuntza oba litzake, mutikuok darabilen basa-berbeta ori baiño.

– Noiztik ona dakizu, maisu Jauna, euskerea basatien izkuntza danik...? Edozein gauzari buruz eritxia emoteko, dalako gai ori ezagutu bear da, eta orain arte beintzat, ez yatzu otu euskerea ikastea, eta beraz, ez zara nor gure berbeteari buruz eritxia emoteko.

Asarrez, beeko ezpana ozkatuz, oldozkor geratu zan une batez Erbi-mustur, eta gero,

– Uste dozu Yosukristo'ri otuko litzakiola "vascuence" ori erabiltea, bere irakaskintzea zabaltzeko...?

– Ez, maisu Jauna, euskeraz ez, ezta gaztelerez be. Arameera erabilli eban Berak, erritarrek ulertu egitsoen, eta nik be, goinizarrek ulertu dagien, euskeraz itz egiten dautset.

– Ez dot ezelan be onartuko, aurten Jaunartuko dauan nire seme Julito'k Kristau-ikasbidea euskeraz artu dagian. Orretxegaitik etorri naiatzu gaur, jakin dagizun, ikasketak erderaz ez ba'dozuz emoten, talde orretatik atarako dodala.

– Zure semeak, baiña, ondo daki euskeraz, eta ez yako iñongo kalterik etorriko, beste mutikoekin jarraitzen ba'dau.

– Bai zera, ez dot beste ardurarik orixe baiño...! Aurrerantzean ez dozu emen ikusiko. Nire seme Julito'k gerkun ori euskeraz artu bear be...! Ez orixe...!

– Baiña Maisu Jauna, tamal andia da zure semea Jaunartu barik geratu daitela.

Oldozkor geratu zan une batez Goiniz'eko abadea, eta gero,

– Aizu, On Daniel –jarraitu eban–, Goiniz'eko arima guztien artzaiña nazan ezke-ro, ezin dagiket jasan, zure semea aurten Jaunartu barik geratu daitela. Augaitik ba, gerturik nozu egunoro, Abadenea'ra arratsaldeko zazpiretan etorri dakidan, ordubeteko ikastaldia erderaz artzeko. Zer deritxazu eskintza oneri...?

– Oba ez, abade Jauna...! Gaurdanik Abadenea'ra joango yatzu egunoro esandako orduan, gerkun ori "cristiano"z artzeko.

Olan jazo zan, eta Julito gure ikasbide-taldetik ostendu zan... Luzaro ez, baiña. Ozta-ozta astebetea igarorik, gurekin gertuerea euskeraz jarraitzeko barriro be etorri yakun, eta gure itaunai erantzunez, auxe jakiñerazo euskun:

Beste mutillekin izandako arremonakaitik, euskaldun jatorra biurtutako Julito'k, ez eban onartu ezelan be, gugandik banandu izatea erderaz irakatsia izateko. Jarki yaken gurasoi, eta Abadenea'ra joateari uko egiñik, astebete osoa etxekoekin mutur izanda gero, ama bigundu zan, eta mutikoa gure ikastaldietara biurtu zeiten, senarraren baimena jaritsi eban. "Erbi-mustur"entzat, ezin axe baiño irakaspn andiagorik. Bere semeak maite eban, berak gorroto izandako "basa-izkuntzea". Aldiaren joanean, euskaldun jatorra biurtutako maisuaren semea, euskaltzale porrokatua billakatu zan, euskal idazle sutsua biurtzeraiño izan be.

Aitita Braulio adimen zorrotzekoa zan, eta berari esker, eskolan artzen neban erdipurdiko ezkuntza, berak etxean emostazanaz biribilduz, baniñoan mutiko bateri dagokion garapena jaristen. Ez zan jakintza andiko gizona, orretarako bearreko ikasketak ez ebazan artu-ta, baiña uts ori bere asmamenak eta zuurtasunak geituaz ordaintzen eben.

Len aipatu dodan lez, etxeko lan utzi-eziñek lagaten ebenean, Urrexola'ko atadi zabalean otzaragintzeari emotsan, eta ni eskolatik biurtzean, askaritzat amak emoniko eskukada bete intxaur talo edo ogi-zati bataz jan bitartean, aititaren alboan jesarrita, onen ipuin eta jazoerak adikunerik andienaz entzuten neutsazan, tarteka-marteka eten eginda, berak niri eskaturiko tresnaren bat eskuratzearren. Olan ba, nik oartu barik, nire adimen samurrean aititak irakatsirikoa sustraitzen yatan, eta autortu bearrean naz, bizitzaren bidegite latzean gitxi izan arren be, zeozer izatera eldu ba'naz, neurri andi baten berari zor dauosat, eta orain bera joana danean, bere jakintzea uts emoten dot.

Asmamen aberatsekoa zan aitita, eta arazo bat burura sartzen yakonean, ez zan gelditzen asmoari egokion urtenbidea aurkitu arte. Arratsalde baten otzara bete artaburu ekarrela, lurrean ipiñita,

– Artatxori madarakatuok –esan eustan– badabiltze oi lez, aal dabezan arto-garauak jaten, eta gaiñera, ase diranean, umotzen asi yakuzan zenbat-gura iko lapurtzen dauskue, gure izerdiaz irabazitakoa eurena dalakoan. Txori lotsabakuok...!

Onen jarraian, esne-suillak artuta, kortara joan zan beiai eguneko bigarren jatsialdia egitearren. Badirudi, ango erdi-illunpean, bere asmamenak billatzen eban etorri edo idarokia garatzen asten yakola. Andik egun batzutara, eskolatik biurtzean, koskabiloen txilin-otsak aditu nebazan, eta aititagana joanda, arrituta itaundu neutsan ots arein zergaitia. Ezer esan barik nire eskuari oratu, eta alorrera eroanda, artotzaren erdian ikusten zan tramankulu baterantz besoa luzaturik,

– Begira ezak –esan eustan–.

Izan be, zur eta lur geratu nintzan. Alorraren erdian, zutoin baten goikaldean, aize-erota batena zirudian gurutz bat bira-biraka ikusi zeitekean. Gurutzari lotuta, aizeak eragindako koskabillo batzuk bira-biraka txilin egiten eben. Une luze batez isillik iraun neban zer esan ez nekiala, eta isilluneari eten egifnez, aititak,

– Zer yeritxak –itaundu eustan–, nire tramankuluari...?

– Aitu baten, polito egiten dau, zaldi baten idun-inguruko koskabilloen txilinkadea emoten dau-ta.

– Lengo egunean, artatxori denganiño orrein lotsabakokeria ikustean, nire buruari auxe esan ñeutsan: “Braulio, txori barrabasok gure lepotik barre egin yaigiela, ezin yok jasan”. Buruari ekin eta ekin, noizbait, urtenbidea otu yatoan, eta astirik galtzeke arazoari emon ñeutsan. Zumitz zabal eta lodia artuta, aize-errotaren kurutzaren itxurea emon, eta ganbaran yeuguazan len erabillitako koskabillo batzuk gurutzari josi, eta orra or txori lepotar orreintzako bildurgarri bikaiña. Zer yeritxak nire asmakizunari...?

– Ondo derist, aitita, baiña koskabilloen txilinkada atsegiña, txoriok uxatu-bearean, ez ete da izango erakarteko...?

Une aretantxe alkartu izan yakun Tomas'ek, nire ezbai berberak azaldu eutsazan aititari, eta orduan onek,

– Guretzat atsegiña dana, ez da nai-ta-ez txorientzat bardin azaldu bear. Begirai-zue: txoriok arrak-eta jan oi dabez, baiña ortik ez dogu atara bear, geuri be olako zikin-keriak atsegin bear yakuzala. Atsegin yatzue belaren karrankadea...? Ezelan be ez, baiña berarentzat atsegiña izan bear dau, bestelan ez leuke olako zaratarik egingo. Txoriai bardin, ez yake nai-ta-ez atsegin izan bear koskabilloen txiliña, euron entzumen gurea lakoa ez dalako eratua. Dana-dala, ez dagigun ondoreak aurreratu, eta itxaron nire asmakizuna eginkorra dan ala ez egiztatu arte.

Onen ostean, une luze samar batez antxe iraun genduan, eta egiari zor yakon begirunez, autortu bearrean naz, artatxori bat bera be, ez zala azaldu, eta illuntzean etxeratu gintzazan aitita pozaren-pozez ler egiteko zorian.

Biamonean, baiña, eskolatik eldutakoan, aize-ezagaitik, aititaren aize-errota geldituta, artatxoriek egundoko asebeteari buru-belarri emotsoen, eta artaburuetan ez ziardenak ikondoko adarretan ikusi zeitekezan. Aititagana joan gintzazan ba Tomas eta biok, eta ikusitakoaz jakitun ipiñi genduan.

– Badakit ori –erantzun euskun–, aize madarikatuak eguberdian eten egin dauanetik. Baiña biar ikusiko dabe, ikusi be, Braulio nor dan, tximista gorria...!

Orduko, beien eguneko bigarren jatsialdia izanik, suillak artuta kortara joan zan, artatxori lotsabakoen aurka iñon diran iñondikoak jaurtiten ebazala. Biamonean, Tomas'ek eta biok ikusi aal izan genduan, badirudi jatsialdi aretan idarokiaren ego illaunek, aititari asmamena argitu eutsoela. Etxera eldutakoan, astirik galtzeke, oiko askaria artuta, arin baten aititaren aize-errotara joan gintzazan, eta orduan zur eta lur gelditu gintzazan. Kurutzaren erdian, kartoi-zati biribil baten gaiñean, basa-pizti izugarriaren burua itxuratu nai eban marrazki bat ikusten zan. Irudi ikaragarria zeñena izango ete gogoan nerabilela, aitita urreratu yakun, eta,

– Zer deritxazue –esan euskun itxura alaiaz– nire asmakizunari...? Basa-pizti baten buru izugarriak txori lepotarrok uxatu legikizala otu yatan bart, eta gaur goizean illenti batez otsotzar baten burua usigi egiteko zorian marraztu dot. Olako letagintzarrok, deabrua bera uxatuko leukie. Zer diñostazue orain...?

Tomas'ek baietz, burutapen bikaiña zala esan eutsan, eta basabere aren itxureak inpernu guztia bildurtuko leukela. Nik, baiña, otso batena baiño, bildotsarena itxurazten ebala uste izan neban, eta egiari zor yakon begiruneak isillik egoteko eragiten eustanez, ez neban txintik esaten. Orduan aititak,

– Aiko, Txomin –esan eustan–, zer yiñostak...? Ez niri esan, gero, itzela ez dokana.

– Aitita, zuk beti esan daroazu, benetako gizon batek zor nai lor egia baiño ez dauala besterik esan bear, eta zure burubide orreri jarraituz, basa-piztia baiño, orrek bildotsa emoten dauala esan bear dautsut.

Aititak marrazkia begiztatu eban barriro, eta burua txorkatuz,

– Bayakiat marrazlari bikaiña ez nazala, baiña nirekin bat etorri bear yok, buruztar orrek itxura ikaragarria yokala. Begirazak zelako agintzarrak yaukozakan. Nire ustez, txoriok ikusi baiño ez, bildur baten igesari emongo yautsiek.

– Letagiñak eta guzti, aitita, bildotsa beti bildots. Aiko, Tomas, –nire anaiari mintzatuz–, zer yeritxak marrazkiari...?

Tomas ni baiño askozaz maltzurragoa zan, eta aititari mintzo palagariaz,

– Nai otso nai bildots, aitita –esan eutsan–, irudi orren itxurea izugarria da, eta ni neu txoria ba'nintz, arrapalada baten emendik iges egingo neuke beste iñora. Edozelan be, gizakiek eta egaztiek ez dira nai-ta-ez ikuspegi bardiñekoak izan bear, eta ba'liteke guk barregarria deritxagunak, arei bildur itzela sortzea.

– Ondo yiñok, Tomas –esan eutsan aititak–, zentzunaren aboz berba egin yok, eta etorkiak esango yauskuk, marrazki orrek txoriai begirune eragiten dautsien ala ez.

Eta izan be, etorkiak aitita zuzen egoalako erabagia emon eban, eta noiz aizeak eragindako koskabilloakaitik, noiz bildots izugarriaren itxurea zala-ta aizea baretzen zanean, aspaldi aretan artotzak eta ikoak bakean laga ebezan artatxoriek, eta iñoizkorik artabururik ederrenak, baita ikorik lodi ta gozoenak be, batu genduzan. Uzta ori amaituta, aititari tramankulua leku aretan itxitea eskatu neutsan, koskabilloen txiliña gozo ta alai zalako, baiña berak urrengo urterako gorde nai ebala-ta, ez eustan jaramonik egin, eta ganbarako txoko baten ipiñi eban, eguraldiak alperrik laskitu ez egian. Egiari zor yakon begirunez esan bear dot, urrengo urteetan be, aititaren asmakizuna oso lagugarria azaldu zala, eta olan, aldiaren joanean, bere esan-egiñak aintzakotzat artzen ikasi neban, eta gaur, bera gugandik joan izan arren be, nire buruari autortu bear dautsat, izan nengikean maisurik jakintsuena, aduak emon eustala.

Bagenduan etxean katu bat, baiña zaarra billakatu zalako-edo, ez eban sagurik arrapatzen. Aititak iñoanez, gure katuak etxean zenbat-gura janari bere aukeran eban ezker, “kapitalista” edo aberatsa biurturik, ez eutsen saguai ezetarik jaramonik egiten, onek aalegin egitea eskatzen ebalako, eta gure katuaren inguruan saguak ibilli arren be, bost ardura emotsen.

Bein baten, ezustez, Tomas eta bion lo-gelako txoko baten, sagu bat atzitu neban, eta buztanetik dingilizka katuagana joanda, bibotearen aurrean ipiñi neutsan iruntsi egian. Baiña bai zera...! gure sukaldeko zaindaria sutondoan etzanda, marrazkari gai-xoari jaramonik ez. Orduan sagua aititagana eroanda,

– Aizu, aitita –esan neutsan–, ona emen gure lo-gelan atzitutako sagua.
 – Emon ezaiok katuari eta kitto, orretarako dok etxean -eta.
 – Eroan dausat, baiña ez-ikusi egin dau.
 – Katu denganiño barrabas ori...! “kapitalista” biurtu yakuk, eta bere egitekoa aztu egin be. Goserik jasango ba’lleukek, orduan edozertarako izango zoon, baiña katu orreri “zer gura ta a” emoten yautsak ire amak, eta jakifiña, sagu orreik zapuzten yozak, etxeko milixka biurtuta.

– Aitita zer egingo dogu saguaz...?

Onen bitartean, buruz-beera eskegita irauan saguari, egoerea ez yakon aukerakoa, antza, eta alperrik biurkatzen zala, aiteitaren aurpegian erruki-antzeko zeozer nekuskio-la begitandu yatan. Une batez ausnar egon ondoren, aiteitak,

– Orrentzat, “katalandar” txonboa onena izango litzok.

– Zer da ori, aitita...?

– Ara, buztanetik eutsita, sagua txitxi-putzura une batez sartzen dok, eta gero, arrapatu enduan lekura eroanda, aske lagako yok.

– Orretarako, baiña, atzitu egin dot, azken baten jaregiteko...? Ori ergelkeri andia izango litzake.

– Ez uste olakorik, Txomin. Begirazak... sagu ori ire gelako zulo baten bere sendiarekin bizi izango dok, eta jaregin baiño ez, arrapalada baten senitartekoakana joango dok. Etxekoek, baiña, “katalandar” txonboak emoniko kiratsa, ezin jasan, eta bide guztiakaz saiatuko dozak etor-barria uxatzeko. Ire sagutxua, baiña, ezetz eta ezetz, bakarrik bizi izateari jarkiko dok, eta sendia nora bera be ara. Eta orduan zer jazoko dok...?

– Zer, aitita? –jakingurarik andienaz itaundu neutsan–.

– Ara... sendiak batzar bat izango yoek, eta euren sagutxu barrabasagandik aska-terik ez yoekala ikusirik, andik iges egitea erabagiko yoek, eta ire sagutxuak yarraikek-ala, danok beste leku batera joango, eta an beste zulo egokia aukeraturik, alkarrekin barriro bizi izango dozak, orduko ire sagutxuari “katalandar” txonboaren kutsua ezabatu izango yakok-eta.

Aiteitak esondatua lez egin neban, eta txitxi-putzuan saguari sar-urten bat eginda gero, lo-gelara igonda, aske laga neban. Tximista lakoa oepetik ostendu zan, sendiaren ziurtasun-billa, urrean.

Onen ostean, nire buruari itaundu neutsan, aiteitaren “katalandar” txonboarena, guzur utsa izango ez ete, nai andi nai txiki abere guztiak eraspina eutselako, eta bane-kan, ondo jakin be, aitita gai ez zala sagu bateri be bizitza kentzeko. Baiña egu-nak joan egunak etorri, gauza bat agirian ipiñi zan, eta auxe alegia: kutsututako sa-guari askatasuna emon neutsanetik, argi-argi egiztatu aal izan neban, saguen lo-gela-tiko joan-etorriak gainbeera bakandu izan zirala, eta aspaldi luze batez ez neban sagu bat bera be ikusi. Eta orrek burutara emon eustan, aiteitaren ustea ez zala guzurra izan, eta siñisgatxa izan arren be, egiaren zantzuak baebazala. Bein baten, auxe itaundu neutsan:

– Aitita, zelan jakin dozu “katalandar” txonboarena...? Guzurra emon arren be, arrezkero ez da sagurik ikusten Tomas’en eta bion logelan.

– Txonboarena nire aiteitari entzuna yoat, eta euk be egunen baten ire billobai esango yautsek.

– Aitita, Urrexola egunen bat Tomas’entzat izango da, eta nik ez dakit zer billakatu-ko nazan, ezta billobarik izango ete dodan be.

– Ori bere garaian ikusiko yoagu. Bitartean jokatu zintzo ta zuzen, eta Jaungoiko-koagan ipiñi ezak ire uste osoa.

Bein baten, iñork bertan-bera utzitako txakur-eme bat agertu zan gurean. Gosez eta auleriz dardar baten egoan, eta erruki andiak artuta, aiteitaren baietzaz, nire ardura-pean artu neban. Bere eritxiz, mustur uletsuak txakur ernai ta zintzoa adierazoten eban, eta ondo irakatsia izatekotan, lagungarria izango litzakigula. Aiteitaren eritxiz sei bat illabeteko izango zan, eta asko ez izanik be, oraindiño asiko litzakela. Izan be, zuzen egoan aitita, eta aurpegiko uleak zirala-ta, “Bizar” izena emon neutsan. Garapen osoa jaritsi ebanean, oso lagungarria azaldu yakun, eta aren bereiztasunik agiriena, arratoiak arrapatzeko gaitasuna zan. Gure kortan marrazkari iguingarri orreik erruz ikusten ziran, baiña “Bizar” anditu ta laster, banan-banan ostentzen asi ziran, eta, noizbait, ez genduan bat bera be ikusi. Dirudianez, bizirik irauten eben urriek azken baten beste iñora joatea erabagi eben.

Eskolatik etorrita gero, illuntze guztietan niri yatordan egunero, alagunetan bazkatzen ziarduen beiek kortara ekarte. Argitu bear dot emen, eguzkia nai euria, gure abelgorria goizaldetik illuntzerarte egunoro lekorean alatzten zala. Aiteitak aginduta, nire betekizuna zan illuntze guztietan zortzi beiak eta txalak edo zekor-bigantxak korta-ratzea. “Bizar” nirekin etorri oi zan, eta bein baten otz andia izanik bei-taldea etxera nenkarrela, nire otz-itxurea-edo ikustean, aiteitak auxe esan eustan:

– Aiko, Txomin, zergaitik ez irakatsi txakurrari, beik kortara ekarten...? Zentei-lla baizen ernai izanik, irakaste-ardura ori eugan artuko ba’endu, luzaro barik dalako ekarketea ez eunke euk egin bear. Zer yeritxak orreri...?

– Ondo derist, aitita, eta biar bertatik irakasteari emongo dausat.

Biamonean, oi baiño goizago abelgorriaren billa joanda, keiñuz eta aboz irakas-taldiari asiera emon neutsan. Txakurraren ernai...! Lenengotik oartu zan beragandik gura nebana, eta olan, ekin eta ekin ozta-ozta astebetea igarorik, nire agintza-oiua entzunda, ‘Bizar’ beitaldeagana joian, eta onen atzetik zaunka ta zaunka edo aausi bizi-tan andikorik ortikora ebillela, neu baizen ondo ta arin ekarteko gai azaldu zan. Txaku-rraren gurera etorri izatea bedeinkapen andia billakatu zan, eta berak gure alde egiñi-koa, ordaintzarik onenaz saritu geuntsan: maitasunaz, alegia. Sarri askotan txakurra ai-patuz, aiteitak auxe esan eroian:

– Ori dok bat...!

Bagilla’ko (Ekaiña’ko) arratsalde baten, asarre-itxuraz eskaratzera sartu zan aitita, auxe iñoala:

– Etorri dira, etorri be, betiko lapurrok...!

Aparia atontzen ziarduan amak, arrituta begiratu eutsan, ulertu eziñik zeri buruz ziarduan, eta orduan,

– Zeintzuk lapur, aitita...? – itaundu neutsan– Nik ez dot iñor ikusi ba, Tomas eta Yone'kin eskolatik nentorreanean.

– Zeintzuk izango ba, sasoi onetan umotu-agiñean yozakan etxeko keriza lodi ederrak jatera yatozakan, zozo denganiñuok baiño...? Igaz be bardin jazo zolan; doi-doi kerizok jasoteko erabagi gaienduanean, egazti ijito orreik saldoka etorri, eta kerizen bila joan gintzoazanean, ez gaienduzan besterik idoro, aillak eta azurrak baiño, txori barrasok gure lepotik barre egin naiean lez. Aurten, kerizok, astebete baten buruan umotuko yozak, baiña aurregunean baietz garbituko, egazti denganiñuok...!

– Aitita –esan neutsan–, zergaitik ez jarri kerizondoan aurrean, igaz ipiñi genduan koskabilloen tramankulua...?

– Ez yoat uste dalako asmakizuna gai azaldu lleikekala, zozo maltzur lepotarrok uxatzeko. Orreik, Euskalerriko egaztirik amarrutsuenak dozak, eta iñongo Ikastola Nagusirik ezagutu ez arren be, zenteilla gorria baiño ernaiagoak dozak.

– Nire ustez, aitita –palagari esan neutsan–, zeozer asmatzeari emongo ba'zeunskio, luzaro barik zerbait otuko litzakizu.

Beragan orren uste ona ipintegaitik, eskerronez begiztatu ninduan, eta gero buruari azka,

– Ikusiko yoagu ba...

Eta au esanda, esne-suillak artuta, kortako atetik ostendu zan. Ziur nintzan zeozer otuko litzakiola, beien jaisteari emotsanean, bere adimena argi bereiziaz pizten yakola, ondo nekian gauza zan-eta. Lengo urtean be, artatxoriak aizatzeko tramankulua, olako jaistaldi baten bururatu yakon. Aititagan uste osoa jarten neban beti, eta orretan zuzen nengoala erakutsi eusten ondoreek.

Guzti au bariku baten jazoten zan, eta urrengo egunean eskolatik biurtu nintzanean, banazean artuta, aititak auxe esan eustan:

– Biar illeko irugarren Domeka (Igandea) dan ezkerro, Artxuri'n oiko azokea egiten dok, eta eu ta biok joango gozak eguna emotera.

Artzuri gure barrutiko uriburua zan, eta edozein jazoera garrantzitsua ospatzeko, goizniztarrok ara joan oi gintzazan. Aititak ango azokara eroango nindukela iragarri eustanean, pozaren-pozez ikotika ta txaloka asi nintzan. Amar urteko izanik, oraindiño ez neban ezagutzen gure barrutiko uriburua, eta urrengo egunean aititarenkin ara joango nintzakelako oldozkunak eztitan jarten ninduan, eta areago, aren azoka entzutetsua ikusiko nebala jakitean.

Urrengo egunean ba, Igande izanik, nire soñekorik apaiñenez jantzita, aitita ta biok kalera jatsi gintzazan lenengo mezea entzutearren. Aititak be, jaiegunetako janzki-barruan, Goiniz'eko erritar ospetsuenetarikoa emoten eban, eta aren itxura itzalgarriak eraginda,

– Aizu, aitita –esan neutsan–, zure apaintasuna dala-ta, gure alkateari gaur gaiña artuko zeunskio.

– Ken ortik, palagari ori –iribarrez esan eustan–, janzkia ez dok ezer norberaren balioari yagokionetan. Txorimalo bat jauntzat jantzi arren be, beti txorimalo. Barruko aberastasuna dok gizakia andi egiten yokana, eta ez itxurakeriak. Amaika “kanpo eder” ezagutzen yoadaz, ezetarako gauza ez dozakanak, euren uskeria erakusteko baiño. Edozelan be, orrek ez yok esan gura arlote izan bear yoagula, ez urrik emon be...! Gaiñera, garbitasuna gauza goragarria dok, eta gaur ire aurpegiaren itxurea ikustean, baietz egingo ñeukek eure buruaren garbiketean egitean, jaboñi ugari erabilli yokala, eta belarri gaixook egundoko igurtziketea jasan yoekala, oraindiño gorri-gorri yozak-eta...

– Bai, aitita –eten egin neutsan–, ez dot gura ezelan be, geuk Goiniz'ekoak ugerdo galantak gareala esan dagiela Artzuritarrek.

– Egi andia yñok, Txomin, benetako gizonek euron erria aintzakotzat artu bear yoek, beti ta nonai aren alde aaleginduz.

Atan-orretan, eleizara eldu gintzazan, eta gutariko bakotxa egokion lekura joanda, mezea amaitu zanean, eleizpean alkartuta, Artzuri'rako zazpi kilometroak oiñez egin genduzan, eta eldutakoan, erriaren anditasun eta edertasunak arritu ninduen. Amaikak izango ziran orduko, eta azokarantz ibilli genbiltzala, genkusanaren barria emostan aititak. Udaletxearen edertasunak txunditu ninduan, eta gero eleizara eltzean, sartu gintzazan, eta iru “Agur Miren” esanda, urten gintzazanean, aititak,

– Aizak, Txomin –esan eustan–, Zeruko Amari ez yautxaguk gauza andirik eskiñi, baiña gure ikerraldia laburra izanik be, “Ama emen gaiozak” esatean, poztuko zolan, eta bere eskerrona geugan ipiñiko be. Orain gaiuzak azokara

Ibilli genbiltzala, erriko egurastegi ederra zearkatu genduan, eta andik laster idien dema-lekua ikusi neban. Ordu aretan ez zan leiaketa edo probarik ospatzen, arratsaldean izaten ziran-eta, baiña eretia ustiatuz, aititak idi-demari buruz guztitariko argibideak emon eustazan, eta amaitzean auxe geitu eban:

– Ez uste, baiña, leikideari ziria sartzeko ez yagokala iñor; bai zera...! Dirua jokatzen yokanetan, amarrutsuak ez yozak utsik egingo. Orain urte batzuk, idi-aurrelari baten ekintzeak zarata andia sortu yeuan. Txeru eritxan dalako aurrelariari, agirian ipintea oso zaila zolan burutapen bat otu yakon. Abarketen azpikoak koipez igurtzi yoazan, eta eskuan akuillua idien aurretik yebillela, arriak koipetzen yeuazan, olan ba, arri-narrazketeari lagunduz. Dema batzutan erabilli yeuan iruzur ori, baiña bein baten, suzmo txarrak eragindako galtzaille batek, burua urratu ostean, marrokeria agirian ipiñi yeuan, eta arrezkerro, dalako Txeru'ri dematan tarteko izaten galazo yeutsien.

– Olakorik asmatu bear be...!

– Diruak dana ondatzen yok, eta larregi maite yokanean, gizakiak ataz yabetzearen, arimea deabruari salduko lleuskiok. Gaiuzan, baiña azokara, orretarako etorri gozak-eta.

Andik laster, azokara eldu gintzazan, baiña an erakusten zan abelgorri bikaiña begiztatu-bearrean, zati onen albo baten baserri ta itsasoko gaiak saltzen ziran lekunetara abiatu zan aitita. Arrituta begiztatzen nebazan baserriko ekarriak, baiña nire eskuari eutsita, berak ez eutsen jaramonik egiten, eta noizbait, arrainkiak saltzen ziran lekuan, an

eskintzen ziranak astiro ta zeatz aztertzen asi zan, bidebatez salneurria eskatzen ebala. Bera, baiña, gerturik ez, eskatzen eutsona ordaintzeko, noizik bein, auxe iñostan:

– Lebatz-zati ziztrin orregaitik, ogerleko bi eskatu bear be...! Ori dirua ostutea la-koa da.

Olan ba, zeiazen azkenerantza giñoazan, eta dana larregizat uste izanik, azken saltunera eldu, eta gure aukera bakarra zanaren aurrean gelditu gintzazan. Erakusten zan azken egaluzearen aurrean gelditu zan aitita, eta orduan emakume saltzailleak:

– Eroan egizu, Jauna –esan eutsan–, egaluze onen zati bat, itsasotik arako arrainkia data-ta.

– Zenbatean emongo zeunskit...?

– Amabost ogerleko kiloa.

Aurpegia miñezko keiñu bataz zimurtu yakon aititari, eta au ikusita, emakumeak,

– Zer, karutzat dozu ezerezkeri ori...? –itaundu eutsan–.

– Ez dot ukatzen itxura onekoa danik, ezta karua be, baiña...

– Baiña zer...?

– Arrainkia jateko ez dot gura, eta augaitik ba...

– Jateko ez, diñostazu...? Zertarako gura dozu ba, ortuan sartzeko arrainkumeak sortu dakizuzan-edo...?

Eta au esanik, emakumeak karkar itzela jaurti eban. Barre-gurea baretu yakonean, aititari barrero,

– Esan, Jauna, zertarako nai dozu ba...?

– Ara... ezin dagiketsut esan zertarako gura dodan, ori nire isilpea da-ta, baiña barrero be badifotsut, jateko ez dala, asmakizun bat egiteko baiño.

– Jateko ez izanik, eta zure asmotarako edozein zati gauza izatekotan, ona emen ondakin oneik.

Au esatean, maipetik egaluze-buztan eder bi erakutsi eutsazan, eta txeratsu:

– Gauza izango litzakizuz –itaundu eutsan– buztan-zatiok...?

Ondakiñak izan arren be, naikoa arrainkia itsasita ebezan, eta aititak orduan,

– Izan be, ondakiñok nire asmotarako erara datorkidaz. Zenbat kenduko daustazu buztan bi orreikaitik...?

Emakumeak ainbaketa sakon bateri emotsalakoa egin eban, eta gero irribarre txeratsuz,

– Begira, Jauna –esan eutsan–, zeintzuk asmo darabiltzuzan jakin ez arren be, asmalariari lege andia dautsedan ezkerro, munduari aurrerapena dakartsoe-ta, ondakin oneik duan emongo dautsudaz.

Au esanik, zati biak paper lodipean bilduta, eskuratu eutsazan auxe iñotsala:

– Eutsi, Jauna, eta lagungarri izan dakizuzala.

Zur eta lur geratutako aititak, noizbait mintzamina irabazita, eskerrik sutsuena emon eutsan emakumeari, eta andik alde egitean,

– Agur, Andrea, Jaungoikoak zaindu zagizala urte askotan.

– Baita zeuk ikusi be.

Andik laster erriko egurastegira joanda, aulki baten jesarri gintzazan, eta jakin-gurea ezkutatu eziñik,

– Aitita –itaundu neutsan–, arrainki ori jateko ez ba'da, zertarako gura dozu...?

– Ori bere garaian agiriko dok.

Une aretan eleiza-dorreko joaleak ordu batak iragarri ebazan, eta jagiten zala, aiti-tak,

– Uri eder onetara etorri gaiozakan ezkerro, eta otordua izanik, aukera bi yoguzak: Goiniz'era erri-berebillez biurtu, ala emen jatetxe baten bazkaldu, eta gero etxerakoa oiñez egin. Bietarikotik zein aukeratzen yok...?

Une aretan gose andia nintzan. Etxetik Artzuri'raiñoko bederatzi kilometroak, baziran gauza neu lako amar urteko mutiko bateri gose gorria eragiteko, eta aititak eskiñitakoa bapatean erabagi neban: an bertan bazkaria izatea. Onezaz gainera, egundo ez ezagaturiko jatetxe bateko bazkariak lillura jarki-eziñaz erakarten ninduan, eta aukera au zapuztea, mundu onetan egin nengikean ergelkeririk andiena izango zan.

– Ondo da, Txomin –abiutzen zala esan eustan aititak–, goazen ba ezaguna yoadan “Arratiarra” jatetxera, ondo ta merke samar jaten emoten yoek-eta.

Atan-orretan, ordu bata ta erdiak emontxuak ziran jatokira abiatu gintzazanean. “Arratiarra”ren beekaldea ardandegia zan, eta emen asten zan zurubiaren bidez, jatokia zan lenengo maillara igoten zan. Igon gintzazan ba, eta ara eltzean, gizon lodikote bat urreratu yakun, eta aurpegi gorritan irribarre amultsua dizdir egiten yakola,

– Kaixo, Braulio, aspaldiko ori...! –esan eutsan aititari– Noizean bein izan arren be, pozgarria da adiskideak agurtzea.

– Bardin esan bear dautsu, arratiar maite ori. Gaur, Txomin, nire billobeaz etorri naz bazkaltzera, janari ona eskiñiko dauskuzulakoan.

– Badakizu, Braulio, emen betiko janari ona, osasuntsu ta merkea emoten dogula. Sartu jatokira, eta jesarri zaiteze zuen aukeran.

Orduko, jatokia erdi-utsik egoan, eta aititak bazter bateko maia aukeraturik, jesarri gintzazan. Andik laster neskame bat etorrita, jakiak banan-banan parra-parra aipatu euskuzan; jakien txirikordea entzutean, erdi-lelotuta geratu nintzan, eta izan be, ez zan gitxiagorako, geienen izenak ezezagunak yatazan-eta. Zorionez, aititak bion aukerea egin eban, neskeari iñotsala:

– Aizu, asteko, ekarri egiguzuz indiaba gorriak azagaz, eta gero lebatza saltzan.

– Eta edateko...?

– Gure mendietako ur ozkirri ta gardena, ori baiño obarik oraindiño ez da asmatu-ta.

Maitzaiña joan zanean, aititak alboko aulki baten gaiñean txapela ta arrainki-lotukia ipiñi ebazan, eta eskuak alkar igurtziten ebazala, betarik onenean auxe esan eustan:

– Gaurko bazkaria oikoa baizen ona ba'da, ez da makala izango, eta etxetik onaiño bide luzea egin ondoren, gure urdaillek merezi dabena artzeko gerturik doguz.

Luzaro barik jatokia beteten asi zan, eta neskameak lapikokoa ekarri euskunean, mai guztiak artuta ikusten ziran. Lapikokoa ona azaldu zan, etxekoa baiño mamintsua-

goa, izan be, txarriki ugariaz lagunduta zalako. Jarraian, adore barrituaz lebatzari ekin geutsan, eta nire buruari esan neutsan, ez nebala egundo be a baiño janari gozoagorik papar-lepo bitartera sartu. Esan bearrean naz, lebatza ta olakorik etxean ez genduzala ezagutzen, eta nire abo-sabai eskertsua ezitan yabildan, goibelak artutako nire begi gaixoez ikusten ebela, zelako arintasunaz lebatza-ta ostentzen ziran. Zorionez, baiña, jaki au amaitu zanean, aitatik auxe esan eustan:

– Arrainkia duan billakatu yokan ezkeru, bidezko yeritxat mai-azken bat artzeari, eta eretia ustiatuz, esan, zer gura izango eunke...?

– Izozki bat gura dot, aitita.

Neskameak itaundu eustan zelako nai nebana, eta nik barriro be, irmo ta zangar,

– Izozkirik andiena –esan neutsan–.

Eta jarraian, aitatik akeita artu bitartean, mai-azkenik ez eban gura izan-eta, izozki gozo ederrari adorerik andienaz ekiten neutsan. Amaitu nebanean, neskameari dei egiñik, aitatik bazkal-saria ordaindu eutsan. Gero, jagi zan, eta txapela ta arrainki-lotukia artuta,

– Gauuzan, Txomin –agindu eustan–, etxerakoa egiteko ta geiagorako indargarria papar-lepo bitartera sartu yoagu-ta. Oraintxe bertan dorrean irurak jo yozakan ezkeru, abiatzeko garaia dok...

Itzok ozta-ozta esanik, ondapena jazo zan... Iñusturi ikaragarri baten antzekoa jatokian zear aditu zan, eta bapatean autuen zurrumurrua eten egiñik, maikideek alkarri itauntsoen, durundu izugarri aren jatorria... Aitita ta biok aterantz abiatzen gintzazala, eta orru egindako trumoi akitaren korrokada bat izan zala oartzean, jatokia bazkailiaren barre-zantzo zaratatsuakaz bete egin zan. Erraztasun itzela eban aitatik korrok egiteko, eta samatik urtetan yakozan orruak egundokoak ziran. Baiña egun aretan “Arratiarra”ren jatokian ler egindakoak, marra guztiak birrindu ebazan. Akitaren barkagarritzat autortu bear dot emen, lapikoko mamintsuaren eta lebatz bikaiñaren indar batuai jarki gura izan arren be, egun aretan burrukatik aitita azpitik urten zala, eta maikideak oartu ziranean, jatokiko sabaia amiltzeko zorian jarri eban lur-ikarea, akitaren korrokada durundutsua baiño ez zala izan, bildurra bapatean barre-gurea biurturik, maikideen barre-zantzoak ler egin eben.

Akitaren atzetik jatokiko aterantz niñoala, ezin nengikean bere aurpegia ikusi, baiña neurea lotsaren-lotsaz etxeko tomateak baiño gorriagoa baietz egingo neban une aretan. Ibitasun-oarpenaz atea zearkatzen nebanean, izandako astrapalaren zaratak erakarritako arratiarra bera neskameak jakitun ipiñita azaldu zan, eta irribarretsu aitari auxe esan eutsan:

– Ta, zer diñostazu, Braulio, ondo bazkaldu dozue...?

– Ondo bazkaldu ete dogun...? –irribarreka be aitatik– Ez al-dozu entzun nire urdail eskertsuaren aldarri sutua, maitik jagi garanean...?

– Bai, trumoi lako zerbait entzun dot, baiña maitzain neskameak orren azalpena niri emon ondoren, esan bearrean nozu, jazorikoa nire sukaldarako ederrespen andi-anditzat dodan ezkeru, gaurkoak zoriontsu egiten nau, eta aurrerantzean gurera etorri zai-

tezanetan, etxeko adiskide anditzat artuko zaitugu, sukaldekorik onena eskintzeko gerturik.

– Eskerrik asko arratiar maite ori; Artzuri’ra natorrenetan ez dot beste jatetxerik ikertuko auxe baiño. Agur.

– Agur, Braulio, urrengorarte.

Kalera urten gintzazanean, igarotako larrialdiak eraginda,

– Aitita –esan neutsan–, nik jasan dodan lotsa...

– Lotsa yiñok...? Gauza txarren bat egiten dokanean, bai, lotsa izan bear... baiña gure izateak nai-ta-ez egitera beartzen gaiozakana, ez dok iñongo pekatu-rik, orretarako naimenik ez yoagulako, eta beraz, errurik ez. Jakin bear yok baita be, arratiarraren lapikokoa ta lebatza gozo-gozoak, urdaillean ekaitzak sortzen yozakala, eta ezustean artuta, nire gurariaren aurka alkartuta, ezegokia dokana egitera beartu ñaudiek, eta begiraiak, guztien umore ona sortuz gainera, jatetxeko ugazabak nire korroka bere sukaldari-ertiarekiko goragarritzat artu egin yok. Eta olan izanik, zergaitik lotsatu bear...?

Edu onetan luzaro samar jardun eban aitatik, oi eban lez eretia ustiatuz, ona dana ta ez dana agirian ipinteko. Ni, baiña, ez nintzan betarik onenean bere itzaldia ederresteko. Urdaila bete izatea ez da egokia ibilteko, eta onezaz gaiñera, goizean izandako ibilketeak oraingo nire urratsak astunagoak egiten ebazan. Janaria barik, erri-berebilla aukeratu ba’neu... Edozelan be, bazkaria, eta izozkia batez be, oso onak azaldu izan ziran, baiña ori orain ur joana izanik, ez neban besterik ikusten etxeraiñoko ibilketa aspergarria baiño. Olan giñoazala, Goiniz’erako erri-berebillaren lenengo geltokia ikusi neban, eta ezustean, amarru batek eraginda, mintzo erostariaz,

– Aizu, aitita –esan neutsan–, bildur naz erriko bezperak galduko ez ete dodazan... bakizu, bezperetara berandu eldutea edo uts egitea, On Karmelo’ri ez yako bape atsegin, eta nire utsegitea oartzean, akar egingo daust, eta baliteke belarritik teink dagistala (au guzur utsa zan), baiña gaurko ikasbidea galtzea txarrena litzake.

(Azaldu bear dot emen, bezperak amaituta, gure abadeak neskato-mutikoai berbaldi laburra egiten euskuala, jolas egitera urten aurretik).

– Orren garrantzitsua da ba gaurko irakaspena...?

– Bai, aitita, gaurko autua pekatuari buruz izango da, eta augaitik on litzakigu orko geltokian erri-berebilla artzea.

– Pekatua, pekatua... –berekiko lez mintzatuz esan eban aitatik–, benetan tamal izango iretzat, olako gai jakingarria galtzea; augaitik beraz, aitita Braulio’ren egazkiñez joango gozak.

– Zer da akitaren egazkiñez joatea edo ori...?

– Ara... batzutan ibilliz eta bestetan oiñez, eta tamal andia dokan ezkeru pekatuari buruzko irakastaldi zudugarri ori galdu yaiakala, gauuzan lenbailen.

Eta au esanik, nire eskuari eutsita, ibillera arindu eban, nire buruaren aurka itzelak jaurtiten nebazala, eta aitita Braulio’ren egazkiñari iñon diran iñondiko madarika-zioñok opa izaten neutsazala, Goiniz’erako zazpi kilometroak ordubetea igaro ta laster

atzean geratu ziran. Errira eldu gintzazanean, bezperatarako azken joale-jotea aditzen zan. Eleizpean banandu gintzazanean aitita korura joatearren eta ni aurreko aulkietara, auxe esan eustan berak:

– Gero esango yaustak pekatuari buruz zer yiñokan On Karmelo'k.

Asarre baten mutikoen lekunera joan nintzan, eta egokitzean, egun aretan dana buruz beera jazo izan yatala nire buruari autortu bear izan neutsan. “Arratiarra”nean izandako bazkari mamintsua egosketa betean, bazirudian urdaillaren gaiñean kintaleko arri bat kokatu izan yatala, eta bidegite neketsuak eraginda, On Karmelo'ren berbaldia pekatuari buruz, beste mundutik lez yatordan, noizbeinkako lokuma batek menperatzen ninduala. Eta gero, aititaren korrok durundutsua zala-ta nik jasandako lotsa gorria, eta gero bezperatara mugonez eldu bear arek, erri-berebillez etorri-bearean, zazpi kilometroko arinketea ekarri eustan... Izan be, egun aretan jasatekoak jasan nebazan....

Eta ori dana gitxi bai'litzan, etxera biurtu gintzazanean, eldu baiño ez, jaisketea egiteko suil bat eskuratu eustan aititak, auxe ziraustala:

– Gaur zeozer nekatuta naiagokan ezketiño, ire laguntzaz beiak jatsiko yoadaz, eta bitartean eginbearra atsegiñagoa biurtu dakigun, pekatuari buruz On Karmelo'k esanikoa azalduko yaustak.

Eta gure abadearen irakatsia gomutatzerik ez nebanez, jainkolari edo teologo biurturik, neronek asmatu bear izan neban gaiari buruz otu yatana. Gure barrutiko uriburuari egindako ikerraldia, ez yatan edozelan be ain erraz aztu egingo, eta dana egaluzen bien ondakin ziztriñak etxera ekartearren. Zergaitik, baiña areik lako ondakin ezaiñak gurera ekarri...?

Itaun orren erantzuna, biaramonean emon eustan aititak. Nire arreba Yone ta biok eskolatik biurtu gintzazanean (Tomas amalau urteko izanik, etxeko lanetan ziarduan onezkero), aititak dei egin eta esku-mailladia ekarteko agindu eustan. Kereizondo eder bi genduzan sukaldeko leioen aurrean, eta esku-mailladia areitariko baten enborrean ipiñita, egaluzen-buztan bat adar batetik eskegiteko agindu eustan, eta jarraian, bigarrenez bardin. Amaitu nebanean, eta bion artean esku-mailladia etxe-ondoko lanabesen estalpera geroiala, auxe esan eban:

– Orain ikasiko yoek zozo lepotarrok, iñoren kereizak ostutea zer dokan.

Eta orduan nik xalo-xalo,

– Aitita –itaundu neutsan–, uste al-dozu zozoek gogoko dabela arrainkia...?

Irribarre maltzurraz aurpegia argitzen yakola, berak,

– Ori, laster ikusiko yoagun gauza izango dok, egazti denganiñuok...! Urte guztian zear kereizak umotu daitezenari itxaron, eta gero blindiblaust...! euron kolkorko...! Olakorik be...!

Bagilla (Ekainilla) zan, eta sasoiari egokionez egun berotsuak izanik, luzaro barik arrainkien dingilizki biok usteltzen asi ziran, eta arein kiratsa ingurutik barreiatu zan, giroa jasan-eziña biurtzeraiño. Irugarren egunean, amak sukaldeko leio biak itxi bear izan ebazan, eta aititari,

– Aita –itaundu eutsan–, nik ez dakit zer izango, baiña leiostatik sartzen dan usaiña jasangatxa da. Begira egizu, ia katuren bat-edo ortik il ete dan... Edozelan be, larriak bota-agiñean nozu.

– Nasaitu zaitez, Kattalin. Itxi egizuz leio biok, eta laster jakingo dozu orren zergaitia.

– Eta ezin dagikedazu orren azalpena oraintxe berton emon...?

– Ara... Egunokaz, kereizak jateko umotasunera elduko dira, baiña beti-beti etxerako batuketaren aurregunean, zozo madarikatuok garbitzen dabez, kiderra ta azurra baiño uzten ez daukuezala, gure lepotik barre galantak egiñez. Eta olakorik aurtan jazo ez daiten, neurriak artu dodaz. Bai orixe...!

– Non ikasi dozu, baiña, kirats orrek egaztiak uxatzen dituala...?

– Ori, prantzitarren asmakizuna ei'da.

– Ez nekian ba, orren adimen argikoak zirala prantzitarrok.

– Bai ba... ori berez dator. Egaztiok moko fiñekoa dira, eta kirats orrek ospa egi-tera beartzen dauz...

– Olan jarraitzekotan ospa egingo dauna, nerau izango naz. Edozelan be leioak itxiko dodaz

– Ez da luzarorako izango, Kattalin, iru bat egun soillik, au da, kereizok eldu arte.

Aititak iragarrita lez iru egun izan ziran, baiña amarentzat egunen luzea...! Bero zan sukaldean, baiña ez eban leio edegiterik lekoretik sartzen zan kiratsagaitik.

Irugarren egunean, ekintzea amaitutzat emon eban aititak, eta esku-mailladiaren bidez dingilizki biak kenduta, berak, Tomas'ek eta irurok kereiza-bildumeari emon geutsan buru-belarri, eta egun-argia luze izanik, gautu zaneke danak bildu genduzan, iru zaran andi bete etxera genkarrezala. Amaren aginduz, baiña, atadian laga bear izan genduzan, etxera sartzerik ez zan-eta.

– Kereizok –irmo-irmo esan euskun–, etxera ez dira sartuko ondo garbitu arte, beintzat.

– Zergaitik, baiña...? –itaundu eutsan aititak–.

– Ori be, prantzitar asmakizuna dalako.

Danok barre egin genduan gogoz, eta aldartetik onenean apariari ekin geutsan.

Biaramonean eskolatik biurtu nintzanean, iru zaran bete kereiza, Aititak, Tomas'ek eta irurok, etxetik ur egoan latseraiño lorratu genduzan, amaren agintzea bete-tearren. Eldu gintzazanean, aititari,

– Aitita –esan neutsan–, kereizai nire ustez oindiño ustel-kiratsa darie. Uste dozu euren eiñera biurtzeko ur utsa naikorik izango dala, jaboia erabilli barik...?

– Ken ortik, mutil...! Gure latseko ura kereizok garbitzeko gai ez ba'dok, ez dok munduan ori egin yaiketan jaboirik. Noiztik ona, jaboia ura baiño garbiagoa izan...? Ara, jaboirik erabilliko ba'gaienduk garbiketea urez amaitu bear jaboia kutsua kentzearren. Urez amaitzeko, urez asi ta kitto.

Olan ba, eta aititaren burubideari jarraituz, zaranak latsaren sakon-une batera sartu genduzan, eta urrengo egunean aititak garbiketea ontzat emonda, etxera ekarri gen-

duzan iru zaranok, eta kerezak txastau ondoren, abo batez, baita amak berak be, Urrexola'n egundo ez ezagaturiko kerezak gozoenak zirala, autortu genduan.

Andik egun batzutara, beien jaisketea egitetik aitita kortatik etorrenean,

– Aitita –itaundu neutsan–, zeuk beti esan daroazu, beien jatsialdian burutapenik onenak otuten yatzuzala. Zozen aurkako asmakizuna, beiak jatsi bitartean etorri yatzun...?

Une batez ausnar egonda gero,

– Egari zor yautsakan begirunez esan bear yauat ezetz. Ezagutzen yok Sasibe'ko Peli morroia, ezta...?

– Bai.

– Ori aspaldi luze batez Prantzian izan zoan, emengo erritarren arteko gudan. Bayirudik, dalako Peli asko ikusi ta entzuna dokala garai aretan, eta bein baten eleizpeko berbetan, egazti lapurren igalien aurkako erasoak ezerezteko, prantzitarrek arrainki ustelaren zatiak zugaitzetatik eskegi yarotziekala aipatu yeuan. Lengo baten ba, jaisketea bitartean Peli'k esanikoa burura etorri yatoan, eta orra or dana. Ez uste, beraz, niri otutako gauza yokala, olan esango ba'ñeukek, nire burua iñoren lumakaz apaintzea izango lleitekek-eta. Edozelan be, autortu bear yoagu asmakizun ori benetakoa dokala.

– Bai, aitita, eta gogoan artzen ba'dogu, arrainki zatiok Artzuri'n duan lortu zenduzala, burutapena akatsbakoa da.

•
•

Illuntze baten, gure txakur “Bizar”ek eragindako beiak etxera ez etozala oartu gintzazan, eta aititak aginduta, abelgorriaren billa abiatu nintzan. Luzaro barik, beitaldetik ur samar, gure txakurra etzanda ikusi neban. Alboratu nintzakion, eta biotz-ikarra batek artuta, il zetzala egiztatu neban. Begiak utsari zuzenduta ebazan, eta aboaren ingurutik lerre bellegixkaren aztarnak ikusi zeitekiozan. Negar-zotin larriak astindu ninduan, eta beitaldearekin batera aalik azkarren biurtu nintzan, eta didar bizietan etxeok jakitun ipiñi nebazan. Gero, sukaldeko zizailluan jesarrita, negar etsi bateri emon neutsan, amak txeratsu ni baretzen aalegintzen zala. Apalostean, “Bizar” lurperatu genduan, eta gero, atadian jesarrita, eguraldia ederra zan-eta, gure txakurrari jazorikoa iruzkindu genduan. Alako baten, luzaro isillik irauten eban aititak, auxe esan euskun:

– Gure txakurra baten batek garbitua izan da.

– Garbitu diñozu...? –itaundu eutsan Tomas'ek–, nork egingo olakorik, inguru onetan gu bakarrik bizi garanean...?

– Ez dakit nor zeitekean gure txakurra il egin dauana, baiña abo-inguruko lerre bellegixkak edendua dala adierazten dau. Urte asko bizi izan naiatzuenez, makiña bat txakur ilda ikusi dot, eta augaitik, badakit edendua izan dala, baita estrikiñiñaren bidez be...

– Baiña zergaitik –eten egin neutsan–, gure “Bizar” lako txakurra erail, iñori egundo usigi egin ez dautsanean, batez be...? Eta gainera, emen, Urrexola'n, erriitik baztertuenetariko leku baten...?

Aititak ausnartzeari emon bitartean, burua txorkatu eban, eta gero mintzo astiro-tuz,

– Orixe da nik jakin gura izango neukeana, eta burua urratu arren be, ez dot beste ziorik ikusten, lapurretea baiño. Bai, gure txakurra garbituko eben, aausi edo zaunka ez egian, olan, gabeko isilla ustiatuz gurean ostu egiteko...

– Baiña aitita –eten egin eutsan Tomas'ek–, gurean ez dago lapurreta-gairik, eta gaiñera, ateak eta leioak ondo itxita izanik, nor sartuko barrura...?

– Etxetik-at dagoan zerbait izan ezik –esan neban–, ez dakit zer zeitekeanik. Gurdia, goldea, eta beste lanabesak astunak izanez gaiñera, ez dira saltzeko egokiak.

Ordurarte isillik irau izan eban Yone'k, bapatean autura sartu zan urduritsu auxe iñoskula:

– Ez ete dira izango ijito areik...?

– Zeintzuk ijito...? –itaundu eutsan aititak–.

– Ara, gaur, arrastiko ikastaldia amaituta, Txomiñ'en begira etxera biurtzeko enparantzan nengoala, Urrexola'ko bidetik ijito bikote bat jaisten zala ikusi dot, eta ez dakit ba, gure txakurrari jazorikoa zer-ikusi ete dauan....

Orduan, zizatua bai'litzan, aititak didar baten,

– Badaukat, badaukat, eta ez dakit zergaitik ez yat gogora etorri lenago. Bai, gure otzaren billa etorriko dira, ementxe, atadiko babespean aspaldi onetan metaturiko otzaraketa...!

Aititak iñoana egia zan, etxeok lanak zirala ta ez zirala, gure otzarak errira barik, eretiren baten begira etxean metatuta egozan. Egun areitan, antza, ijitoek oi daben lez, gure erriko inguruak aztertu izan ebezan, eta gure etxeok atadian bildutako otzaraketea usnaturik, aretzaz jabetzea otuko yaken. Txakurraren aausiak, baiña, euren asmotarako oztopoa izanik, garbitzea erabagiko eben, eta egun aretan bertan, etxetik urrun samar beitaldea zaintzen eban gure txakurra edenduko eben.

Auxe zan aititak azaldu euskun burubidea, eta amaitzean,

– Gau beranduan –jarraitu eban–, isil-ostuka otzaren billa biurtuko dira, eta etxean txakurrak ez dan ezker, euren aukeran, zaranak, eta otzarak, begien itxi-edegi baten zamarietan jarri, eta gero anka egin ez dakigu nora. Orregaitik ba, astirik galtzeke gure egitekoari emongo dautsagu.

Orduko, gabeko bederatzia izango ziran, eta Yone ta ama apalosteko garbiketea egiñik oeratu ziranean, aititaren agindupean Tomas'ek eta biok gerkunai emon geutsen. Kui edo kalabaza bateri mamiña kendu, eta gero oskolean, begi, suur eta aboko zuloak egiñik, gazezur bildurgarria itxuratu genduan. Barruko utsean kandela bat piztu genduan, gizakirik azartuenari uleak azkortzeko gai azaldu zan. Gero, aga baten muturrean jarrita, izara zuri bat az inguratu genduan, eta gau aretako jaiari azken ego-kia emotearren, ganbaran egoan zizpea ekarririk, kartutx batzui berun-txirriak kenduta,

gatzaz ordeztu ebazan aiteitak, eta gero gutariko bakotxari bein eta barriro egitekoa azalduta, jazoko zanari itxaron geutsan.

Gau-giro ederra zan, eta sapailloko bazter baten kukurio jarrita, une aretako urduritasunak atzarri iraun-erazo ninduan, baiña gabeko gantzapean, oartu barik loak artuta, begiak batu nebazan... Alako baten, aiteitak iratzarri ninduan, eta nire senetara biur-tuta, gabeko erdi-illundietan zear, etxera urreratzen ziran mulko itzaltsuak somatu nebazan. Ekiteko eretia urreratzen zan, eta kui-barruko kandelea ixioturik,

– Oraintxe, Txomin –abopeka agindu eustan aiteitak–.

Orduko, mulko itzaltsuak ataditik amar bat metrora izango ziran, eta sapaillotik jaisten zan mamua ikustean, untzatuta lez gelditu ziran, nire abotsik erostarien eta goibelenaz, eriotz-araindiko mintzoz, auxe aletzen nebala:

– Ulu... ulu... ulu... Beneno pide bengantza, beneno pide triskantza, beneno tiros a la pantza...! Ulu... ulu... ulu...!

Eta au esan bitartean, sapaillotik izaradun buru-azurra aiteitak beeratzen ebala, etxeko albo batetik, Tomas'ek jaurtitako zizpakadak aditzen asi ziran... Orduko, eta illuntasunari artaratuta, gizon bi eta beste ainbeste zamarien mulkoak, begi bete-betean ikusi aal izan nebazan. Une aretan, gizonetariko batek didar bizitan,

– Vámono, Tololo, salgamo por pié, que son la ánima der Purgatorio, vámono que nos van a abrasá...! Ay, que me han atizao candela...!

Orduko, zamariak eta lapurrak lau-dardan, arin eta didar baten bidean beera joia-zan, zizpak jaurtitako gatzak atzekaldean erremin jasan-eziña egiten eutsela. Aitearen egin orduko, baiña, zamarien lauazka ta lapurren izu-didarrak, gabaren altzoan ezabatu ziran... Orduan, aitiba, Tomas, eta irurok sukaldean batuta, gure biziko barre-santzoen artean, ijitoai sartutako lakatza ospatu genduan, Tomas'ek bein eta barriro auxe iñoala:

– Eperdian artutako gatzakadak dirala-ta, aste bi igaro barik ez dira gai izango je-sarrita irauteko...

Eta ostera be, arkuak autsi-agiñean, barreari emoten geutsan. Noizbait, betarik onenean oeratu gintzazan.

Gau aretako ekintzea arrakasta andikoa billakatu zanez, aspaldi baterako autu-gai atsegiña izan genduan, baiña luzaro barik, “Bizar” uts emoten asi nintzan, eta zelan, gero...! Eskolatik etxera etorrita, illuntze guztietan beitaldearen billa joan bear izaten neban, eta batzaz beste ostereak ez eban ordu-erditik beera egiten, jai ta asteguneko betekizun uxa-eziña zala. Bein baten, aspertuta, aiteitagan asazkatu nintzan.

– Begira, aitiba, egunoroko betekizun orrek aspertu-eragiten nau. Jaiegunetan be, bezperak amaituta laster, lagunak bertanbera utzita etxera biurtu bear izaten dot, gure bei denganiñuok kortara ekartearren...

Aiteitak ez-entzunarena egin eban, baiña andik egun batzutara,

– Aiko, Txomin –esan eustan–, atzo, meza nagusiaren ostean, eleizpean lagun batzukin autuan niarduala, Uribene'ko etxekojaunak, etxean txakurkume-talde bat izan dauala esan eustan, eta gure txakurraren ezbeharraz jakitun ipiñi nebanean, txakurkume

bat emongo leuskigula agindu eustan. Badakizu, beraz, “Bizar” ordezteko non dagoan bear dozuna.

Biamamonean, arratsaldeko ikastaldia amaitu baiño ez, arin baten Uribenera joanda, txakurkume baten billa nentorrela etxekojaunari esan neutsan, eta onek orduan,

– Txakurkume bat soillik geratu yakuk –esan eustan–, eta eme berau, izan be, beste guztiak banandu yoaguz-eta. Kumetaldiko azkena dok, eta augaitik, urrean, ez yok iñor eroan gura. Ez dok beste munduko gauza, eta taldeko mirriñena yokalako, geratu yakukan bakarra dok. Beiak erabilteko gura dozuela esan yaustak Braulio'k, eta orretarako gauza izango dokalakoan ñagok. Eroan gura yok...?

Ez neban beste aukerarik, eta baietz esanda, txakurkumea besoetan artuta, etxerakoa egiteko abiatu-agiñean, Uribene'koak auxe esan eustan:

– Begiraik, mutil, yaroakan txakurkume ori enda onekoa dok, eta ondo irakatsita, lagungarria azalduko be, baiña ez ariñegi ibilli, txakurra gazterik ezigatzak dozak-eta. Itxaron urtebete bat, eta orduan edozertarako gauza izango dok, ondo ezitekotan.

Eskerrak emonda, txakurkumea besoetan neroiala, etxerako bidea artu neban. Urrexola'ra eldu baiño len buruan nerabilen, zein izen txakurrari emon, eta orra or, buruan azka egiten neutsala, pozaren-pozez txau bat urten yakola, eta orduan “Txau” izena emotea erabagi neban.

Uribene'ko etxekojaunak esana lez, laster oartu nintzan “Txau” txakur urtena zala adimenari egokionetan, eta sei illabete egin-egiñean igarota, etxeko beitaldea lengo “Bizar”ek baizen ondo agindu egian jaritsi neban. Txakur apala ta maitetsua azaldu zan, lengo txakurraren gomutea ezabatu egiteraiño. Maite izandako txakur batek iltean eragiten dauskuan atsekabea arintzeko, ez da obarik, beste txakur baten maitasuna baiño, eta auxe izan zan “Txau”k ekarri eustan zoriona.

Eguraldi zakarreko jai bateko arratsaldean, ekaitzaren orru ta inñesturien artean, inñetasiak (kaskabarrak) teillatu ta leioak danbolinkatzen zituala, Urrexola'ko eskaratz epelean sutondo-inguruan etxeko guztiek berbetan giarduala, "Txau"nire magalera ikoti egiñez aurpegia miazkatzen asi yatan, eta samurtasunak artuta ule kizkurtsua laz-tantzen neutsala, auxe esan neban:

– Nork esango, il-barria zan "Bizar" ordezteko egun aretan txakur au Uribene'tik nenkarrenean, onen bizi maite izatera elduko nintzakela...

– Arlo askotan abereak maisutzat artu bear izango gendukez –tartetu zan aitita–. Begira txakur ori: janari-eskukada ezain baten ordaiñez, eriotzaraiño maite gaitu, eta gure abelgorria zainduz gaiñera, gabeau kuku egiten dau, etxera urreratzen dan edozein galtzoriaren barri emoteko, geugandik besterik ez dauala itxaroten, erabilte txeratsua ta noizbeinkako eskuaren laztana baiño. Txakur batek ez dau gogoan artuko, ugazaba gazte ala zaarra, andi ala txikia, ederra ala itsusia, aberatsa ala ezeukia ete dan. Ugazabari biotz osoaz gur egingo dautso, eta onen laztan bat edo mintzo amultsua oartzean, eskale zorritsu ta traskilla izanik be, zoriotsua izango da.

Isildu zan aitita unetxu batez, eta sutondoko mukurren garren eta txinparten artean, lekorean ekaitz basatiak asarre bizian ulu ta orruka ziarduala, mintzo astirotsuz onetaraxe jarraitu eban:

– Ez dakit nire amari entzundakoa, ala neronek ames egiñiko ipuiña izango ete, baiña erara datorrenez, ona emen, Andola'ko ama-semeai bein baten jazo yakena... Mendiko borda baten bizi izaten ziran Alazne alarguna ta bere seme Peli. Txiroak izanik, goizoro errira jaisten ziran ama-semeak, eta mutikoa ikastolako atean utzita, etxe baten orduka ziarduan Alazne'k bizi izatekoa irabaztearren. Arratsaldean lana amaituta, alarguna semearekin Andola'ko bordara biurtzen zan, eta urrengo egunerako ikastolan agindutako lanak Peli'k burutzen ebazala, sua piztuta gero, amak etxeko garbiketean egin bitartean, aparia sutan egosten zan. Amak irabazten eban urriaz begiratutxuan bizi bear izaten eben, baiña asko-nai ez izanik, zoriotsuak ziran.

Jaiegunetan aste guztirako egurketea egiten eban Peli'k Andola'ko inguruetan, bitartean, amak atsedean izan egian. Bein baten egurketan ziarduala, ezustean txakur baltz ederra agertu yakon. Mutikoaren lenengo eragintzea, bildurraren-bildurrez igesari emotea izan zan, baiña txakurraren jokaeran ekusan zerbaitek, an bertan jarraitzea eragin eutsan. Etxe oneko zirudian txakurrak, zidarrezko idunekoa erabilliz gaiñera, ondo

janarituaren itxurea agirian ebalako. Gaba baizen illuna zan, eta zorrozutako belarri tenteek "Schnauzer" endako txakurtzat bereizten eben. Une batez alkarri begira iraun ondoren, astiro ta otzan txakurra urreratu yakon, eta eskuaren elmenera zanean, Peli'k burutzarra laztandu eutsan, berba maitekorrak inotsazala.

Luzaro samar laztandu eban mutikoak, eta gero,

– Joan adi etxera –esan eutsan Peli'k–, berandutxu izanik, begira izango yozak etxe-koak-eta. neuk be amagana biurtu bear yoat illundu aurretik, bestelan larrituko litzake...

Au esanik, bildutako egur-sointxua lepoan ipiñita etxera abiatu zan, etorri baizen ustekabez txakurra ostenduko litzakelakoan. Ustea, baiña, ustel urten yakon, eta ostendu-bearrean, txakurrak orpoz-orpo erraikion, eta Andola bordara eldu zanean, bere atzetik etxera sartu zan. Alargunak txakurra ikusi ebanean, asiera baten bildurtu zan, baiña Peli'k jazorikoa edestu eutsanean, eta txakurraren itxura txeratsua ikustean, baretu zan. Otz andia zanez, ama-semeen artean txakurra etzanda jarri zan.

Apalostean, okondo ta ondakin batzuk emon eutsoezan, eta gogoz jan be txakurrak. Oera orduko, alargunak atea edegi eutsan txakurrari, adierazoz, bera be etxera joan zeiten, berandu zan-eta. Txakurrak baiña, ez-entzun egin, eta beste biderik ezean, ama-semeak lotara joan ziranean, mutikoaren oatze-ondoan etzanda, txakurrak gau osoa emon eban, Peli'ren loaldia jagon gura izango bai'leuan.

Urrengo egunean oi zanez ama-semeak errira jatsi ziran, Txakurra beste inora joango zalakoan, baiña bai zera...! Errira sartuta, amak oiko zeregiñetara emotsela, txakurrak mutikoari ikastolaraiño lagundu eutsan, eta sartzerik ez eban ezker, kanpoan geratu zan eguberdirarte. Ogitarteko bat jan oi eban Peli'k an bertan, ikastolako aterpean, eta egun aretakoa jaten asi zanean, txakurra poz baten urreratu yakon, itxura go-setiaz ogitartekoari begira ta begira. Errukituriko Peli'k aren erdia emon eutsan. Arrastian, txakurra atzetik ebela ama-semeak etxera biurtu ziranean, Peli'k ogitartekoaz jazorikoa amari esan eutsan. Apaitarako, eta txakurrak andik joan nai ez eban ezker, alargunak lapikoa lursagar bigaz osotu bear izan eban, guztientzako aparria egosi zeiten.

Biaramonean, ogitarteko bi atondu ebazan alargunak, bata Peli'rentzat eta bestea txakurrarentzat. Egunoro olan egin bear izan eban Andola'ko alargunak, mutiko-txakurrak goserik jasan ez egien, baiña gaixoak txarto ikusten eban bere burua irurontzako janaria lortzeko, eta edu onetan astebete bat igarorik, gau baten semeari auxe esan eutsan:

– Begiraik, Peli, ezeukiak gaituk, eta irurontzako beste janari lortzeko nekez naia-bik. Biar bertan, udaletxean txakurra utziko yoagu jagon yaieren, eta gauzak lengora biurtuta, nasaitxuago biziko gaituk.

Orduko, txakurra maite-maite eban mutikoak, amaren erabagia entzutean, etsiak artuta negarrari emon eutsan. Gero, burutapen batek jota, malkoak txukatuta, esan eutsan,

– Begira, ama: ikastolatik urtetean ordubete bi itxaron bear dot zuk lana amaitu arte. Zer deritxazu bitarte orretan nik lan egiteari...?

– Zeozer irabaziko ba'eunke, orduan ba... txakurra onartuko ñeukek.

Urrengo egunean, ikastolatik urten baiño ez, Peli'k erriko etxe batzuk ikertu ebazan, eta aroztegian, noizbait, arratsaldean ordubete biko lana emongo leuskiola, agindu eutsan jabeak. Egun aretan pozik biurtu zan etxera amarekin, eta ordutik beretzat artu eban txakurra Peli'k. Txakur baten ugazaba izanik, izen bat emon egion bidezkoa zan, eta gau aretan deitura egoki baten billa burua urratu ondoren, "Ikatz" izena otu yakon, eta amak ontzat emonda, gau aretan txakurraren idunari besarkatuta, lo egin eban mutikoak.

"Ikatz" enda bikaiñeko txakurra zan, "Schnauzer" dalako jatorri yaukalekoa, izan be, eta txakurren arloan Peli'k tutik ulertu ez arren be, laster oartu zan, aduak ekarrirako txakurra onenatarikoa zala. Aroztegian egin bear izaten ebana, epaikiak metatu, serrauts eta txirlora isastu, eta zorrotara sartzea zan. Laster ikasi eban "Ikatz"ek epaikiak aboan artuta, egokien lekura eroaten, txirloraren artean galdutako lanabesak arin baten idoro, baita eskegitakoak arotzen keiñu bateri jarraituz, ekarte be. Pozik artzen ebazan aroztegiak mutiko-txakurrak, eta azken onen gaitasuna ikustearren, lagun asko etorri oi zan. Olan ba, esan geinke, "Ikatz"ak bere burua janaritzeko beste irabazten ebala, eta Peli'rentzat oso lagungarria azaltzen zala. Eta olan, aldiaren joanean, mutiko ta txakurraren arteko maitasun-lokarria etenbarik sendotzen zan.

Izan be, "Ikatz" Andola'tik urruntzako jauregi bateko txakur kutuna zan. Leiñugarbi-garbikoa zanez, bere ugazaba aberatsa laster oartu zan, gain-gaiñeko txakurra zala, eta adiskide batzuk eraginda, bein baten, enda-leiaketa batera eroan eban. Epai-maikoek abo batez lenengo saria emon eutsoen, eta pozaren-pozez, garai-ikurra zan zidarezko lepokoa idunaren inguruan ipiñi eutsoen. Arrezkero, txakurraren ospea bala-bala ibilli zan, eta jauregiko ugazaba arrotasunez ler egiteko zorian, ludiko gizonik zoriontsuena oartzen zan. Arazo onek aldakuntza andia ekarri eutsan txakurrari, eta otzitu edo kutsatu ez zeiten atxakiaz, egun osoan etxe-barruan egon bear izaten eban, etxeokoen etenbarik eskukatzen ebela.

Bein baten, baiña, bizimodu onek gogait-eraginda, iges egitea erabagi eban, eta zabaldian zear alderrai ibilli ostean, irugarren egunean Andola'ko bordan azaldu zan, eta an emotsoezan janari arrunta, askatasuna, eta mutikoaren maitasun biziagaitik batez be, inoizkorik zoriontsuen oartzen zan. "Ikatz"ek ez leuke Andola'ko bizimodua aldatu, jauregiko aberastasun eta eregu guztien ordaiñez.

Jauregiko nagusiak, baiña, ezin egikean txakurraren aldegitela jasan, eta eskura ebazan bide guztiakaz, aren igesa iragarri eban, baita birrirabazteko lagundu egitsanak sari andia artuko leukela be. Eta edu onetan Peli'ren errian, iragarki batzuk ormetan itsasi ziran. Andik egun batzutarra, aroztegiako jabea dalako iragarki bat irakurrita, laster oartu zan, billaturiko txakurra "Ikatz" zala, eta saria bereganatzeko asmoz, aipatutako lekura urrutizkiñez dei egin eban.

Biaramoneko arratsaldean, Peli'k eta txakurrak aroztegian ziarduela, berebil bikaiña gelditu zan, eta gizon bi barrura sartuta, txakurrak jabetu, zidarezko iduneari ede bat lotu, narraz eta bultzaka berebillera sarrerazo, eta txakurrak intziraka ziar-

duaia, arin baten urrundu zan, negar-zotinka Peli'k atetik begiakaz erraikiola ostendu arte.

Gau aretan, etsiak artutako Peli, jangar eta nakar apaldu barik oeratu zan, amaren aalegiñak mutikoa baretzeko alperrik azaltzen zirala. Arrezkero, alaitasuna ta bizi-naia galdurik, ikastolatik urtetean ez zan egundo be aroztegira biurtu, eta onen orde, kale ta bideetatik norabarik ebillen, txakurra agertuko ete itxaropen zoroaz, baiña dana alperrik...

Mutikoa atsekabez bizi izaten ba'zan, "Ikatz" ez zan bera baiño zoriontsuagoa, eta bildurraren-bildurrez, urten barik iraun-erazoten eban ugazabak, guztitariko bigun-kerien artean txakurra eregauten ebala, onen maitasun eta ederrespena erakarteko asmoz. "Ikatz"ek, baiña Peli'ren maitasun eta zabalduko askatasuna irrikatzen ebazan, eta berarentzat espetze lakoa zan jauregian, gero ta goibelago, gero ta lur-jotago, egunen joanean argaltzen asi, eta noizbait geisotu zan. Ugazabak albaiterua eratorri eban, eta onek, txakurrarena maitasunaren makurra zala, eta aske lagatea osabide bakarra ebala esan eutsan azken baten.

Biaramonean ugazabak askatasuna emon eutsan, eta arin baten txakurra baratz bikaiñean zear ostenduta, urrengo egunean Andola'ko bordan egunsentian azaldu zan. Estu-estu besarkatu eban Peli'k, eta bidegiteagaitik nekatuta ikustean, erratillu bete janari atondu eutsan, eta jaieguna izanik, biok mendira joan ziran, "Ikatz"ek ain maite eban askatasuna gozatearren. Illunabarrean biurtuta, txakurraren begietan zorionaren txinpartak ikusi zeitekezan; gau aretan Peli'ren ondoan etzanda jarrita, lo atsedengarriak artu eban, eta egunsentian eguzkiaren printzek Andola'ko borda urreztatzen ebeanean, "Ikatz" osatuta itxartu zan.

Txakurra ostendu zala ikusirik, laster somatu eban jauregiko nagusiak non aurkitu legiken, eta berebilla artuta, Andola'ko bordara joateko agindu eutsan erabiltzailleari. Arrats-beeran eldu ziran bordara, eta Peli txakurrarekin atean jolasten ziarduala ikusi eben. Beragana etozela ikusirik, mutikoak negar baten besarkatu eban txakurra kendu ez egioen. Ugazaba alboan jesarri yakon, eta mintzo txeratsuz,

– Aizu mutiko –esan eutsan–, ez negarrik egin, oraingo onetan txakurra ez dautsut kenduko-ta. Maite dozu, baita nik be, eta zuk eta biok "Ikatz"en maitasuna gozatzeko, ona emen zuri ta amari eskintzen dautsuedan auxe: nirekin jauregian bizi izango zarie, eta etxean neskame-buru bat bear dogun ezkerro, jardun ori zure amarentzat izango da, eta zu ikastetxe on batera joango zara, bizibide bat jaritsi dagizun. Txakurra aske izango da bere aukeran bizi izateko, eta aldiaren bidean gai izan naiten txakur bikain orren maitasun apur bat irabazteko.

Ama-seeek pozez gaiñezka eskintzea onartu eben, eta andik egun batzutara jauregira bizi izatera joan ziran. Ugazabandraren agindupean Alazne alargunak laster ikasi eban bere jarduna, guztien oneritxia irabaziz. Peli mutil ernai ta urtena azaldu zan, eta ikasketa onak egiñik, bein baten jauregiko etxalde zabal eta aberatsaren ardura bere gain artu eban, "Ikatz"ek nora-gura laguntzen eutsala.

Ugazabak be, aldiaren joanean, ain ederresten eban txakurraren atxikitasuna ira-

bazi eban, eta Ikatz" biotz andi-andikoa zan ezkerro, bere barruan lekurik izan eban, ugazabari maitasun-zati bat emoteko.

Auxe izan zan eguraldi zakarreko arratsalde aretan, aitikak edestu euskun ipuiña. Nire altzoan kukurio jarritako "Txau" laztandu neban, eta onek pozez gaiñezka eskua miazkatu eustan.

– Aitita –esan neutsan–, uste dozu dalako "Ikatz" gai izango litzakela beiak agintzeko, "Txau"k egiten dauan antzera...?

– Ez dakit, Txomin, baiña auxe badiñotsut: "Txau" lako txakurrik nekez aurkituko litzakela, eta etxera dakarkigun onurea ordainteziña dala.

– Bai aitita, eta nik beintzat, ordaintzen dautsat diruak baiño geiago balio dauanaz: maitasunaz, ezta "Txau"...?

Eta "Txau"k zaunka alaiaz erantzun eustan.

Urte batzuk igaro izan ziran, eta bein baten, amabost urteko nintzala, egun aretan geisorik egoan aititak deitu, eta auxe esan eustan:

– Begiraik, Txomin: etxeko zekor gorri ederra biar Artzuri'ko azokan saldu bear yoagu. Etxeko teillatuak barriztapen osoa bear izaten yok aspalditik, ire aita il zoanetik, izan be, iñongo atonketarik ez yoagu egin-eta. Lengo baten, erriko etxegillea ona etorrita, atontze-domua jakin-erazorik, ontzat emon naiotsan, eta datorren astelenean, dalako lana asteko, bat etorri gintzoazan.

Isildu zan une batez, eta gero,

– Orain yatok kontua –jarraitu eban–; oean geisorik naiagokan ezkerro, Artzuri'ko azokara joaterik ez yoat. Onezaz gaiñera, ire anai Tomas'ek barruti onetako pelota-txapelketan jardun bear yok, eta zekorrra saltzera eroan yaikekan bakarra eu az. Ernaitzat aut, baiña eu lako mutiko batentzat zekor bat ondo saltzea, ez dok gaberdiko auntsaren eztula, eta areago, azoka orretara, barruti guztiko erosle-saltzaillerik amarrutsuenak yatozakanean. Ezinbestez, baiña, teillatu-atonketeari aurre egiteko, biar “Gorri” gure zekor bikaiña Artzuri'ra eroan bear izango yok...

Barrero be, isildu zan aitita, eta gero,

– Entzun egik ondo auxe: ez adi arin baten ibilli zekorrra saltzeko, aztertu egizak osterera, azokan yabikan prezioak, eta gero, eskatu zeozer gorago, beeratzeko astirik bayagok-eta. Lengo astean, meza-osteko eleizpeko autuan, erraldeak irurogei ogerleko egin yoazala entzun naiuan. Augaitik, beraz, jakiñaren gaiñean ipinten aut, gitxi gora-beera zenbat eskatu bear izango yokan jakiteko. Orain joan adi kortara, eta oiko zurdakiaz igurtzi ondo “Gorri”ren narrua, bera lako zekor bikaiñari yagokon itxurea artu yaian.

Olan egin neban, eta beiak jatsi ondoren, zurdakiaz garbiketa arduratsua egin neutsan etxeko zekor ederrari. Biaramonean goizean goizik jagita, etxetik urten aurretik aititagana joanda, aurreguneko ta beste oar barri batzuk entzunda gero, “Gorria” gorroiki batz lotuta, errira jatsi nintzan, eta eleiz-aurretiko enparantzako zugaitz batera zekorrra lotu, Igandeko lenengo mezea entzun, Artxuri'rako bidea artu, eta tikitaka-tikitaka bitarteko zazpi kilometroak, txorien eresien artean eta goiz eder aretako eguzki printzek agurtuta, eleizako joaletegiak amarrak joten ebazanean, Artzuri'ra sartu gintzazan. Oraindiño goiz samarra izanik, zekorrra lotuta, aulki baten jesarri, eta iradu bari etxetik ekarritako amarretako mamintsuari ekin neutsan. Onen ostean, kalean gora azokara abiatu nintzan.

Alako baten, itxuraz osaba-lobeak ziran bikote bat urreratzen yatala ikusi neban, eta gero egiztatu aal izan nebanez zuzen nengoan. Eurotariko zaarrena berrogei ta amar urteko zanak, "indiano"aren itxurea eban. Lastozko kapel dotorepean, ondo zaindutako suurpeko baltzak, idun-ingurutiko paparreko apaiñak, gorantxaren botoi-zuloe-tan zearko urrezko kate lodi ta luzeak, kaiñaberazko makillari eusten eutsoen atzama-
rren erestun bikaiñek, eta ondo burdin-lisatuen praka-barrenen azpitik eguzki-argia ispillutzen eben oiñetako dizdiratsuek, itxura apaiña emotsoen. Onezaz gaiñera, aren ibilte arranditsuak, bere buruari garrantzi andia emotsan orreitarikoa zala adierazoten eban. Alboan ebilkion laguna, ostera, askozaz gazteagoa zan, eta belaren egoa baizen baltza zan itsasgaiaz ondo orrazturiko adatsak, aurpegi zurizkan erabilen suurpeko meeak, betaurreko illunek, azken erabilteko janzkiak, oiñetako kiroltsuek, eta beragan igarri zeitekean zerbait bereziak, eztimetxaren itxurea emotsoen.

Bikote ikusgarriak, nigandik amar bat metroa, alkarrí txutumuka begiratu eus-tan. Erderaz ziarduenaz, gauza andirik ez neutsen ulertu, baiña "borono" ta "jebo" berbak argi-argi aditurik, baita euron arteko irriñoak be ikusirik, adarra jo nai eustela be-gitandu yatan. Bikote arek ez ekian, antza, Urrexola'ko aize gardenak entzumena zo-rrozten ebalá, eta "borono" ta "jebo" berbak txitean-pitean erabillezala gure erriko maisuak, menperatzen ginduzan ezjakintasuna agirian ipinteko.

Bikotea neugana elduta, gelditu ziran, eta gazteak irriño isekariáz,

– Aizu, mutil –esan eustan–, nora zoaz onen goizetik...?

– Azokara.

– Abere ederra benetan. Zer da, zekorra ala bigantxa...?

– Oraindiño –iñuzenteren itxuraz nik– oso zailla da jakitea, baiña aititak diñoa-
nez, biderik onena itxarotea da. Ara, esnea emoten ba'dau, ziur-ziur bigantxa dala
esan lei...

Gazte eztimetxari, antza, ez jakon atsegin nire erantzuna, eta,

– Dirudianez –asarre antzean esan eustan– zure aitita gizon apartekoa dogu; erri-
ko alkatea-edo izango da, urrean...

– Ez, otzaragillea da, eta berak diñoanez, askozaz zaillagoa da alan-olango otza-
rak egitea, alkate ona izatea baiño.

– Zelan daiteke ori, baiña...?

– Ara, aitita alkate ona izango litzakela, erriko guztiek abo batez autortzen dabe,
baiña alkateak otzara bat egin dagiala, eziña da.

– Agidanez, adimenaren aldetik aititagan emon dozu. Esan, zein erritakoa zara...?

– Goiniz' ekoa naz.

Izen au entzutean, begiak zuringotuta, eztimetxa "indianoa" gana biurtu zan, eta
arrituarena egiñez,

– Entzun dozu, osaba –itaundu eustan–, bein edo bein izen ori...?

Indianoaren ezpanetan irriño bat agertzen yakola, suurpeko naroa erestunez bete-
riko atzamarrakaz leundu eban, eta,

– Baiña loba maite ori –sasi-arritasunaz esan eustan–, zelan daiteke munduan zear

ain ezaguna dan erri orren izena ez ezagutzea...? Ez al-dozu iñoiz entzun Goiniz'eko
piperren ospea...?

– Bai orixe, osaba...! Piperrok aipatu dozuzan ezkeru, burura yatort erri orren la-
terri-arteko ospea. Orain gitxi dala, erri orretan Piperraren Ikastola Nagusia irasteko
asmotan ei'dabilela, nonbait irakurri neban...

Izan be, Goiniz'eko piperren ospea bala-bala ebillen gure lurraldean, eta ori dedu
andikoa izanik be, une aretako adar-joteak asaldatzen asten ninduan. Eta olan erdi-asa-
rre nengoala, eztimetxak,

– Lekutatik zatoz, mutil...! –esan eustan– Zein etxetakoa zara...?

– Urrexola'koa.

– Non dago ori, baiña...?

Orduan oartu nintzan niri be eldu izan yatala, arein lepotik barre egiteko eretia,
eta benatsu:

– Begira, Jauna –esan neutsan–, Ikastola Nagusia eraikiko daben tokiaren ondoan.

Musturra okertu yakon gazte eztimetxari, eta asarre antzean begiztatu ninduan.
Isillunea eten egitearren, auxe itaundu eustan osabeak:

– Aizu, mutiko, zelan etorri zarie andik...?

Tximista baten antzera, urte batzuk lenago leku aretan bertan aititak esanikoa go-
gora etorri yatan, eta,

– Aitita Braulio'ren egazkiñez –erantzun neutsan–.

– Ze arraio da ori...?

– Ara... batzutan ibilliz eta bestetan oiñez.

Eta au esanda, barre zaratatsua jaurti neban, osaba-loben aurpegi ozpinduak ikus-
tean. Orduan osabeak ateka barregarri aretatik urtetearren, antza, erestunez beteriko es-
kua zekorrerantz luzatuz, mintzo arranditsuz esan eustan,

– Aizu, mutil, abere ederra azokara daroazun zekor ori.

– Ez da makala, Jauna.

– Zerez janaritu dozue...?

Erantzun nengikean aurretik, loba andi-erexia, tartetu zan, eta,

– Zerez itauntzen dautsazu, osaba...? –eten egin eustan ziñotso– Ez al-dakizu goi-
niztarrek abelgorria sabelera aizea puztuz loditzen dabela, berebil-gurpillen antzera...?
Orretarako goiniztarrak mutillak ei'dira.

Eta au esanik, neurritz gaiñeko bere asmamena ospatzeko, kaleko bakea astinduz,
barre-santzo itzela bota eban. Barre egiteari utzi eustanean, irriño maltzurraz begizta-
tzen nebala,

– Ameriketan orixe bera egin ei'dabe –esan neutsan–, oso aurreratuak dira-ta, bai-
ña gurean bestera jokutzen dogu. Ara... astelen guztietan, kortatik ganadua ataraten
daunean, aititak bei bakotxari bost ogerleko damotsaz, eta "On dagizuela" esanda, ba-
kotxa beretara konpontzen da urrengo astelen arte.

Eta au esanik, eztimetxak kokoloaren itxuraz begiztatzen ninduala, zekorrari itz
egiñez,

– Goazen “Gorri” –goroikiari eutsita esan neutsan–, goazen azokara lenbailen, onein lelotasuna kutsutu dakigun aurretik.

Eta osaba-lobak abo bete agiñakaz atzean utzita, kalean gora abiatu gintzazan zekorra ta biok. Azokara sartu-agiñean, Goiniz’eko errotaria urreratu yatan, eta,

– Azokara...?

– Bai, Jauna.

– Zekor ederra benetan daroazuna.

Eta abelgorriaren azterketea amaitzean.

– Ogerleko ederrak emongo dautsuz onek

– Zenbatean dabil gaur erraldea...? –itaundu neutsan–.

– Ara, lenengotan irurogei ogerleko egin dauz erraldeak, baiña gaur ganadu gitxi etorri dan ezketiño, astia igaro ala, nire ustez gora egingo dau. Ez ibilli arin baten, astiro baiño, gaur eskaerak eskintzak baiño andiagoak dira-ta. Edozelan be, irurogeitik beera ez eskatu ezelan be ez.

– Eskerrik asko –esan neutsan–.

– Agur, Txomin, eta goraintziak aitari.

– Zure aldez amongo dautsadaz.

Luzaro barik, utsik egoan lekune baten “Gorri” ta biok kokatu gintzazan. Andik igaroten ziranak, zekorraren bikaintasunak erakarrita, salneurria eskatzen asi yatazan, eta irurogei ta amar eskatzen nebala jakitean, aurrera jotzen eben. Eguberdian, ekarritako ogitartekoa gogoz jaten asi nintzan. Alako baten, okeldegi batzuk jabetzen ebazan gizon bat urreratu yatan. Lenengotik antz emon neutsan gure zekorrek erakarten ebala, eta une luze batez ari begira egonda, noizbait,

– Zenbatean...? –itaundu eustan–.

– Erraldea irurogei ta amar ogerlekotan.

– Ez al-deritxazu zeozer karutxua...?

– Ori zelan dan. Urrexola’ko alagunetan azitako abelgorriak zeozer esan gura dau. Begira egizuz onen giarrak, bizkar andi biribildua, saiets beteak, eta mokor zabalak.

– Ez dau makal emoten, baiña zeuk eskatzen dozunari larregi deritxat.

Jarraian, bera ta biok gangaillenez asi gintzazan, eta noizbait, irurogei ta bost ogerlekotan bat etorri gintzazan. Jarraian, abereen aztakiñean larrogei erralde azalduta, onen giñoan ordaindu eustan, eta bost milla ta berreun ogerleko eder kolkora sartuta, etxerakoa egiteko kalean beera abiatu nintzan. Zekorra orren ondo saldu ondoren, erri-berebillez biurtzeko beste eskubidea banebala begitandu yatan. Erriko enparantzan egoan berebillen geltokira urreratzen nintzala, bapatean burura etorri yatan urte batzuk lenago aitari etxera berebillez biurtzeko eskatu neutsanean, “Aititaren egazkiñez” biurtzea eskiñi eustala, eta orduan, eragin bakanak artuta, etxerakoa oiñez egitea otu yatan, eta betarik onenean Goiniz’era abiatu nintzan.

Etxera eldu nintzanean illuntzea zan, eta etxeakoak eskaratzean batu gintzazanean, oetik jagi-barria zan aitatik,

– Ta, Txomin, zelan joan yatzu...? –itaundu eustan–.

– Polito esan bearko, aitiba.

Au esanik, kolkotik ataratako diruketea mai-gaiñean ipiñita, egun aretako gora-beerak edestu neutsezan. Orduan amak besarkatu ninduan, auxe iñostala:

– Au da bat...! Au da mutilla esan bear dana...!

Onen ostean indianoaren eta onen loba eztimetxarena edestu neutsen, eta amaitu nebanean, arkuak austeraiñoako barreak egin genduzan. Orduko gau betea zan, eta aitatik,

– Ordu onetako beien jaisketea, Txomiñ’eri dagokio –esan euskun–, baiña gogoan artzen ba’dogu, salketa garrantzitsutik datorrela, eta Tomas’ek, ostera, pelota-txapelketan egun osoa emonda iraun dauala, egokitzen jotzen dot oraingo bearra egin dagiala, ondo irbazitako atsedena Txomiñ’ek izan dagian.

Benetan eskertu neutsan aitari burutapena, nekatuta oartzen nintzalako, eta andik laster aparria izanda, astirik galtzeke oeratu nintzan lo-gureak erreta oartzen nintzan-eta.

Urrengo astean, etxeari teillatua barriztu yakon, eta onezaz gaiñera, arkondara ta prakak erosi eustazan amak, berak iñoanez, zaarrakaz txorimaloa jantziteko.

Amairu urteko nintzanean, erri-eskolara joateari uko egin nengiola erabagi zan, eta arrezkero, etxeko lanetan jardun neban egun osoan. Orduko, Tomas emeretzi urteko, eta Yone amasei urteko ziran. Banekian, etxaldea bere garaiari Tomas'ek jarauntsi-ko leukela, eta aitita bide guztiakaz aalegintzen zan, Tomas orretarako gai izan zeiten, eta izan be, bazirudian etxaldeko ugalak bere garaiari ondo erabilliko leukezala. Augaitik ba, aititak Tomas'en agindupean jarten asi ninduan, eta nire anaia sei urtez ni baiño zaarragoa izanik, ez yatan neketsu billakatu esanekoa izatea, eta are gitxiago ni ondo erabillia nintzan aldetik.

Negua izan ezik, baegoan zeri eutsi Urrexola'n urte osoan zear. Sasoi onetan, etxeko betebearrak egiteko Tomas naikoa izanik, atadian otzaragintzeari emoten neutsan aititak lagunduta. Bekit zillegi esatea, aldiaren bidean maisua izan neban aititak baizen ondo niarduala, eta negu-miñeko argi-aldi laburra ustiatuz, alkarren leian giarduala, bai ontasunean bai gintza-kopuruan. Astean bein, idiak buztartuta, kalean bizi izaten zan izekonera lorratzen nebazan egiñiko gaiak, eta onen ordeztutako dirua aititari nenkarkion. Aro onetan izan ezik, bazan gurean zeri begira: lekadunak eta artoa erein, landarak sartu, abelgorria zaindu, beiak jatsi, lanabesak eta aterpea atondu, igitaldian bedarra ebagi ta eguzkitan ondu, gero metatan batu, satza aterpean pillotu udabarrian alorrak-eta ongarrizeko. Neguko egurketea etxera ekarri ta zatitu, kortarako azpigarrizat udazkenean menditiko ira ta otaketea egin, amabost egunez auzolanetan jardun, bideak atontzen batez be, igaliak jaso ta ganbaran batu, etabar...

Yone gure arrebea amazapi urteko zanean, amaren eragintzaz, Artxuri'ko joskille on batenean ikasten asi zan arratsaldeetan. Abo batez, "aitita Braulio'ren egazkiña" ez egian erabilli erabagi zan eta orretarako, "eroan eta ekarri" a erri-berebillez egiten eban. Amak iñoanez, egunen baten ezkontzeko garaia etorrita, josketea lagungarria izango litzakio etxekoandra maratza billakatzeko. Edozelan be, esan bearrean naz, Yone neskatilla ona ta polita zala, eta berarekin ezkondu zeitena, bitxi ederraren jabe izango litzakela.

Tomas'eri gudari-otseintza etorri yakonean, alargunaren seme izanik, orduko legegari jarraituz, jare azaldu zan, guztien baiña amaren pozerako batez be. Arrezkero, sari askotan amak eragiten eban neskatilla on batekin arremonetan asteko. Amaren eritxiz, bide irriskoiak uxatzeko, ezkontzea baiño gauza obarik ez da. Eta urteen bidean, ogei ta bost urteko izanik, Arrola etxeko Pantxike neskatilla begiko ta onarekin arre-

monetan asi zan. Orduko, ogei ta bi urteko zan Yone, Etxegoien basetxe aberatseko oiñordearekin ezkondu zan. Arrio bikaiña atondu genduan Urrexola'n, eta ereña etorri zanean, lau gurdi bete bidean beera abiatu ziran galgen kirrink-otsaren artean, ni aurreneko burtzaiña izanik, bide-ertzeako leioetan andrazkoak metatzen zirala, arrioz gaiñe-ria idien oial eta apainkiak ederresteko.

Eta noizbait, gudari-otseintza egiteko garaia eldu yatan. Oiko gudalgaien zozke-tea egiñik, Jaka'ko mendi-talde baten jaurri yatan. Aldi aretan, niri buruz arrenkuratuta ikusi neban aitita, gure arremonetan lenengoz eregatzen ninduala. Eta uxaeziña, etxetik alde egiteko garaia urreratu zan. Aurreguna jai izanik, kaletik etxera biurtu gintzazanean, aitita ta biok etxeko atadian jesarrita itz laburreko autu bateri emoskuala, arrenkuratsu zirudian aititak, isillune baten ostean begietara so egiten eustala,

– Begiraik, Txomiñ –esan eustan txeratsu–, gizona billakatu az, eta biar lenengoz ire kabuz egan egingo yok. Etxetik urrun emon bearreko aspaldi luze orretan, ez yak atsegiña izango, morroitza gogorpean bizi izango az-eta, askotan ondo ulertuko ez yokana egiñez, eta gogokoa yakana ezin egiñik. Sarri askotan etxe-miñak artuta bizi izango az, eta ire gomuta atsekabetuak etxeraño egan egingo yok, Urrexola ta etxe-koak laztantzeko. Une larri orreitan, jakin egik irekin lotuta iraungo yoagula iñoizkorik maiteen eta alkartuen, eta larrialdia jasangatxa biurtu yaikanean, otoi egik bearreko ba-ke ta poza aurkitzeko.

Isildu zan aitita une batez, eta gero urrutira begiratuz,

– Euskaldun baserritarrentzat batez be –jarraitu eban–, gudari-otseintza jasanga-txa billakatu lleitekek, batetik eurok ondo ulertzen ez yoen izkuntzaz erabilliak doza-kalako, eta bestetik, gudaletxeako bizimodu zaratsua baserrikoaz erkatuta txit bestela-koa yokalako. Urrexola'n ire buruaren jabe bizi izan az etxeko zeregiñai lotuta, baiña maitasunez eta oneritxiz inguratuta. Erdal kutsuaz inguratutik bizi izango az, eta asko-tan, eurea ez dan berbetea ezagutu ezagaitik, irri ta barre egingo be, bigarren maillako gizakia bai'intzan, eta askotan barregarri erabilliko aute, gudaletxeako narritaria biurtu-ta: Ereti orreitan, eutsi ire euskaltasunari, eunurteetan zear gure erriak arbasoakandik yarauntsiriko bitxia dokalako, eta zelako bitxia, gero...! Ez artu aintzakotzat txolin orreirin irri ta barrea, eta olakoetan iraun egik aalik isillen, atxakirik aurkitu ez yaiei n txingotetzat erabilteko.

Onezaz gaiñera, ez egik ire burua zirtolari edo xelebretzat nabarmendu, aitzitik, iraun beti isillik ta aztua, barrikeria beti ordaintzen dok-eta. Bayakik gure esaera: “Abo itxian eulirik ez”. Gudaletxea txartoen itz egiten dokan lekua dok, toki orretara sartzen dozakanek, gizon jokatu nai yoelako, eta orretarako euren adimen motxak aalik eta ai-ñen-birao lodienak jaurtitera eragiten yoezak. Barrutik gizontasun urrikoa dozakanak, euron ezgauza ordaintzeko edo orekatzeko, berba zantar eta zakarrak yarabillezak, pei-tzen yakekan gizontasuna aalik eta merkeen lortzearren. Berba zikiñek gizakia zitaltzen yoek, abere-azpitiko maillara yaroela. Aboa gogoaren ispillua dok, eta eure ezpanetan arimearen zelakotasuna agertuko dok. Gizakiaren anditasuna, urentasuna, itzen ederta-sun eta egokitasunean neurtzen dok.

Gudalkideek zelan edo alan aaleginduko dozak eurokn ardandegirik-ardandegi joan aitezan, eta emen be gizonen ergelkeria agirian jarten dok, edarikeria gizontasun-neurriztat artzen yoekala, buruan beste ganora andiagoko gaiñezta lekuri ez doka-nean. Toki oneitan, adimena kamustuz eta sakela ustuz gaiñera, osasuna alperrik gal-tzen dok, alkarrizketa ganorabakoen eta kebedar-usaiñen artean. Ire txolarteetan egu-rastu egik eu lako adiskideekin, aal izatekotan euskaldunekin, izan be. Eta noizean bein eleiza baten aurretik igarotear, sar adi unetxu batez, “Emen nozu, Jauna” besterik esateko ez izanik be.

Ona elduta isildu zan aitita, eta gero aalegin andia egiñez, zeozer garrantzitsua esateko dauanaren itxuraz, mintzo astirotsuz, eta berbak ondo neurtuz, onetaraxe ja-rraitu eban:

– Azkenerako laga egin dot gudari-otseintzan griña txarra biurtzen dana: lizunke-ria. Ereti onetan geienbat, emakumeekiko arremonak asten yoezak gazteak, eta arre-mon yiñodanean, ez yoadaz besterik aipatzen, lizunkeriak sortutakoak baiño, besteak, adiskidetasunak sortutakoak bidezkoak dozak-eta. Gudaletxean geien erabilten dokan autugaia, lizunkeria dok, batetik guda-morroitza eragin andikoa dok “zeri naskio” edo alperkeritan egoteko. Bestetik, gazte txoriburu askok uste izaten yoek, arlo onetan na-barmentzen ba'dozak, gizonago izatetik urrago yagozakala. Iñuzenteok...! Txanpon batzuen ordaiñez emagaldut dirugose bategandik jaritsi dagikena, beste munduko ekin-tza goragarritzat aldarrikatzen yoek, lau aizeetara sakabanatuz, lotsaren-lotsaz isildu bear lleukiena...!

Adin irristakorrera sartu az, Txomin maite ori, eugan itxartu asi dokan gizontasu-nak emakumeakana eroaten audalako, eta irrika edo lei ori Jaungoikoagandik gizon-emakumeai yatorke, maitasun betearen babesean sendi bat sortu, eta ondorengoan eurok jarraitzearren. Eugan azi ori yagok, ez emagaldutan eralgiteko, egunen bat, ire begira yagokan neskatilla garbi bategan zuen ondorengoak sortzeko benetako maitasu-nez, benetakoa ta betirakoa. Eutsi gogor garbitasunari, eta ire lagunek “kokolo” “erre-primido” ta beste olako bitxikeriak iri esan arren be, jarraitu egik irmo, emon yakazan siñiste ta aginduen pean, eta orduan iñoizkorik gizonen oartuko az, bear enduan inda-rra erabilteko gai izan intzalako.

Eta ire garaia elduta ezkondu aitenean, ik eta emaztegaiak alkarri emon yaikezuen emoitzarik ederretsiena izango dok.

Isildu zan aitita, urrutiraño galtzen ziran mendien ebakunean begiak jarrita. Kuntzeko (seksu) arazoa lenengoz aipatzen eustala zan, eta barrutik eskertu neutsan benetan, mutiko aroa atzean utzita, gizon egiñatzat mintzatu ekidan, onek nire garran-tzia goratzen eustalako, eta nire buruari zin egin neutsan, zor nai lor bere burubideai jarraituko neuskiela.

Illuntzeko itzalak Urrexola besarkatzen asten ziran, eta oitureari jarraituz, aspaldi luze batez azken jaisketea izango litzakena egiteko, suillak artuta kortara joan nintzan, eta ango argi motelpean suillak etxeko beien esne pikaintsuaz beteten zirala, ezin negi-keazan aititaren burubideak gogotik kendu. Jaisketea amaituta, banan-banan beiai le-

poa laztandu neütsen, eta gero sukaldera joan nintzan. Urrengo egunean erabilliko neüken janzkia, amak burdin-lisatzen eustan, nire aldegiteak sortzen eutsan atsekabea begietan agiri ebala.

Biaramonean goizean goizik jagita, negar baten egoan amak besarkatu ninduan, eta Karmen'go Amaren kutuna idun-inguruan ipinten eustala,

– Agur, seme –esan eustan–, ez aztu gabero iru Agur Maria esatea lotara aurretik.

Jarraian, lotuki baten eskuartekoak eta bidegiterako jangai batzuk neroiazala, Tomas'eri urrengorarte esanda, aitita ta biok erri-enparantzara jatsi, eta erri-berebilleari itxaron geutsan. “Txau” gurekin zan, etxeko txakur emaiari aspaldi luzerako ostendu aurretik, azken agurra esatearren. Berebilla urreratzen yakunean, aititak eun ogerleko emon eustazan, eta estu-estu ni basarkatu ondoren, barbarik esateke, etxerakoa egiteko biurtu zan, nik uste, aurpegian beera eriozan malkoak ikusi ez nengiozan. Zaunka bizi-tan “Txau” bide-erdian jarrita, ikusi neban azkena izan zan.

Artxuri'n uribururako erri-berebilla artuta, eguberdian ango gudaletxera eldu nintzan, eta bazkaldu ondoren, gaberarte aske utzi ginduezan, eta an lo egiñik, urrengo eguneko goizean, Gazteiz'en zear Iruña'ra trenez joan gintzazan, eta emen gaba emonda, urrengo egunean, txanda aretako gudalgaiak Jaka'ra eldu gintzazan.

Urtebete ta erdiko egotaldia emon neban mendi ederrakaz inguraturiko uri polit orretan. Aspaldi luzea benetan baita gogaikarria be. Ez naz luzaro edatuko an jasandako gora-beerak edestearren, aipurik merezi ez dabe-ta. Niretzat atsegiñena, mendietan zear egiten genduzan txangoak izan ziran. Gaiñerakoan, aititak niri iragarritakoak jasan bear izan nebazan, baita zorionez zintzo iraun aal izan be. Gaberoko iru Agur Maria ta kutuna izango ete, ala aititak emondako burubideak...? Batek-baki...! Dana-dala, autortu bearrean naz, etxera biurtzean, izandako nire jokaereak bake ta atsegiñez beteten ninduala, baita nirekiko ederrespenez be. Eta guzti au ez da sari makala, izan be.

Eta udazkeneko arratsalde baten, Andoi izeneko ganetxua igarota, aurrean Urrexola maitea aurkeztu yatanean, barruko zarrastadeari eutsi eziñik, zorionezko malkoak eridazala, aurrera jarraitu baiño len, une luze batez gelditu bear izan neban, eta gero, etxekoen besarkadea artzearren, aurrera oldartu nintzan.

Etxekoen abegia oso txeratsua izan zan, eta amaren aginduz iru eguneko oporraldia artu bear izan neban, berak iñoanez, nire mamiñak lengora biurtu zeitezen. Etxean aldakuntza andia gertatu izan zan nire gudal-otseintza bitartean, eta auxe izan be: Tomas ezkondu izan zan, eta etxekoandra gazteak etxeko ugalak erabillezan nire amarekin, bakotxak arlo ondo mugatuta erabillela, euren artean ezetariko eztabaidarik sortu ez zeiten.

Egiari zor dauksadan begirunez, Pantxike, nire ezkon-arrebea, maratza ta ona zala autortu bear dot. Nirekin oso arraia azaldu zan asieratik, eta au ezkertzeko da, etxean ezetariko agindurik ez nebala gogoan artzen ba'da. Ez, ez neban iñongo aalmenik jaiotetxean, eta ez neuke iñoiz be. Gure baserriko legeari jarraituz, etxean iraun nengikean nai baizen luzaro, eriotzararte izan be, baiña mutilzartat, janarirako ta lo egiteko eskubide beteela izanik, edozein morroiren antzera.

Egoera au betidanik ondo jakin arren be, orain garraztasun beteaz aurkezten yatan, eta banekian, jakin be, edozein gizakiren antzera, urtenbidea aurkitu bear izango neukela nire esku izateko, sendi bat sortzeko irrika gogotik yabildan-eta, gero ta indartsuago izan be. Ez nekian, baiña, nondik asi, eta egunek alkarririk irraikioen “zeri narkio” irauten nebala, egoera kezkatu arek zelan edo alan amaitu bear leukela, gero ta agiriago nenkusala. Eta oikoa zana, aitita izan zan kinka larri aretan laguntza emongo leuskidana.

Negua zan, eta egun aretan otaragintzan jardun ondoren, etxeko atadian autu bateri emoskuala, alako baten, oi eban baizen argi ta garbi,

– Aiko, Txomin –esan eustan bapatean–, arrenkura andipean ikusten aut egunokaz, eta jakin nai ñeukek, zer dokan larritzen audana.

Azkenean bayatordan etortekoa, eta une batez esatekoa ausnartu ostein,

– Begira, aitita –esan neütsan–, ondo dakizunez, laster ogei ta iru urteko izango naz, eta oraindiño nire etorkia illuntsu agertzen yat. Etxean ondo narabiltzue, baiña nik nire esku izan gura dot, eta edonork lez, sendi bat sortu aal izateko eskubidea. Badakit, zirt edo zart dagokidan erabagia artu bear dodala, baiña ez dakit nondik asi...

Une batez oldozkor geratu zan aitita, eta gero amultsu begizatzen ninduala,

– Ertorteko zoana etorri dok –esan eustan–, eta oba orain geroago baiño, arrenkura bizipean bizi izan ba'az, nire buruaustea ez dok makalagoa izan, Gero ta gero be, aurkeztu bear zoan arazoa dok ori, eta nik neuk amaika gogoeta emon yautsadaz orreri, eta

ona emen korapillo ori askatzeko burutan ipinten yaudana: ire kabuz egan egiteko garaia etorri dok, eta ire joatea niretzat atsekabe andia izanik be, ogibide baten billa joan aitela esondatzen aut, ez edozelakoa, baiña, ondo egokitu yakana baiño. Orretarako ire adimena gertau bear, eta biderik onena ikastea dok. Zoritxarrez, umetarik artutako ezkuntza oso urria izan dok, ozta-ozta irakurri ta idatzi baiño ez. Onezaz gaiñera, badozak amar urte erri-eskola laga enduanetik, eta ez jakiat zenbat ezagupen eta noraiño-koak izango dozakan, baiña baietz egingo ñeukek utsaren antzekoak izango dozakala.

Pipeari su emoteko isildu zan une batez, eta kearen biribilki urdinzkak gorantz joiazala, onetaraxe jarraitu eban:

– Augaitik ba, birreskolatu bear az, eta aalik laisterren be. Otzaragintzeari ataratako dirutxu batzuk “Zer dan eztan” aurreztu yoadaz, eta ona emen eurok ustiatzeko eretia etorrita. Biar, eu ta biok erriko maisuagana joango gozak, eta iretzat egunoroko ordubete bateko ikastaldia akuratuko yoagu. Ire gertakizuna biribiltzeko, etxean ez yok iñongo lanik egin bearko, eta olan buru-belarri ikasteari emonda, nik uste, luzaro bariik, bear yokan ezagutze-maillara elduko az. Zer yeritxak nire eskintzeari...?

– Oba ez, aitita –poz baten erantzun neutsan–. Ez dakit neugan bearreko adimendargia dagoan ala ez, baiña auxe bai ziurtzat artu dagikezu: aalegiñik andienaz saiatuko naz zezozer izatera...

– Begiraik, Txomin –eten egin eustan berak–, gura izatea aal izatea dok. Ezagutzen audan ezkerro, mutil argi ta ernaitzat aukat, eta gure zioa jaristeko ezinbesteko baldintzak yozakan ezkerro, txulut egitekotan, errua irea bakarrik izango dok.

– Ez orixe aitita...! Zin dagitsut ez nazala errudun izango.

– Ederto mutil...! Biar arrastian maisuaren etxera joango gozak, eta ikusiko yoagu...

Gau aretako apalostean, asmoa etxeokoi azaldu eutsen aititak, eta danok ontzat emonda, nire arrenkurak lenengoz ezabatu yatazan azpalditik, lo atsedengarriak artzen ninduala.

Ebatzita lez, urrengo eguneko illuntze-aurretik, aitita ta biok errira jatsi gintzazan maisua ikustera. Aragoitarra zan berau, eta ogetak urte-edo izango ziran Goiniz'en ziarduala. Emazteak atea edegi euskun, eta maisua eskolatik etorbarria zala esanda, gelatxu batera sarrerazo ginduzan, eta andik laster, maisua azalduta,

– Vaya, vaya –esan eban–, nada menos que Braulio y su nieto. ¿A qué debo el honor de su visita...?

Eskuen artean txapela erabillela, aititak noizbait, auxe esaten lortu eban:

– Sí, pues, amos pensao que el chico edá ya te tiene pa lustrarse. Igual si te sale un trabajo, pues entonses más fasil pa colocar y...

On Daniel'ek begiz-begi so egin eustan, eta nire ikastaldian adimen argikoa ez nintzala iñoiz izan, gogoratuz, urrean,

– Ya me acuerdo del chico –nagusitasun mintzoaz esan eban–, y la verdad que tenía la mollera más dura que un adoquín de la plaza.

– Claro, chico no conoser bien el castellano y...

– ¡Con lo fácil que es hablar en cristiano...!

– Fásil ya te será, pero si a ti enseñar en chino, ¿entonses qué...? ¡Pa los chinos fásil es pués...!

Laster igarri eban Goiniz'eko maisuak, aitita jakintsua izan ez arren be, zentzun andikoa zala, eta autu-gai labankor a saiestuz, auxe itaundu eutsan:

– Bien, ¿qué podemos hacer por este joven...?

– Ya tẽ he dicho pues; darle lustración pa encontrar luego trabajo; Leer y escribir ya sabe, pero algo erroñau ya te tendrá. Luego pués cuentas y eso, erregla del tres, y tamién quebraos o esos números enrebesaos que disen que ahora te suelen llevar mucho...

– En definitiva –eten egin eutsan maisuak–, escritura, dictados, números y las cuatro reglas, y si tercia, las leyes proporcionales, además de decimales, quebrados y sistema métrico, no es así...?

– Eso largo ya parese, como lukainka o así, pero si tú dises así tendrá que ser.

– En mi opinión, para todo lo expuesto será necesaria una hora todos los días laborables, después del horario escolar.

– Y ¿cuánto nos quitarás por esa lustración...?

On Daniel'ek ainbaketa sakon batera murgiltzen zalakoa egin eban, eta uneak igarola, aititari arrenkurea andiagotzen yakon, eta noizbait, adimen-indarraldia amaitutzat emonda, auxe esan euskun:

– Cinco mil pesetas al mes.

Diruketa au entzutean, txapela eskuen artean gelditu yakon aititari, ezusteko elbarriak jota lez, eta betoskoa zimurtuta, une batez txundituta geratu zan, berekiko iñoala, urrean, eskatutakoa Urrexola'ko zekor gizen eder baten salsaria zala. Noizbait, mintzamina irabazita,

– Ñooooo...! –esan eutsan–, ¿algo caro no te parese pues...? Con tantos diñeros las mantecas nos vas a sacar...

– Eso es una miseria comparado con el enriquecimiento espiritual que supondrá para el chico. El saber no tiene precio. Mire usted Braulio: ahora me acuerdo de lo que le pasó una vez a mi difunto padre que en gloria esté y que también era maestro. Pues bien, un día le vino a casa un tío muy bruto que le llamaban el Tío Celemín. Venía con su hijo para que mi padre le diese clases particulares, y cuando mi padre que en gloria esté, le dijo el precio del desasnado, entonces el Tío Celemín va y dice digo dice: “Córcholis (pero más a lo bruto) por ese precio me compro yo una mula, y entonces mi padre que en gloria esté va y dice: – Pues cómprese usted esa mula y con ésta tendrá para una buena yunta”. Jejejeje...!!!

Goiniz'eko maisuaren barre zaratatsuak aititagan ez eban eragin andirik sortu, eta izan be, eskaturiko illabetekoa azartuarena kikiltzeko beste bazan. Noizbait, bere lengora biurtuta, aititak,

– ¿No te puedes rebajar algunos ogerlekos pues...? Yo tamién cuando te bajo al pueblo a vender sestos, ya te suelo rebajar algo...

– Mire, Braulio, los cestos que usted hace son sólo cestos, y pueden ser objeto de

regateo, pero el enriquecimiento espiritual no tiene precio, y un regateo lo envilecería, así pues quedamos en que son cinco mil al mes.

Laster oartu zan aitita gure erriko maisuarekin gangaillenez ibilterik ez ebalá, eta noizbait amor emonda, urrango astelenean asita, arratsaldeko seiretan egunoro maisu-nera joango nintzakela, berbaturiko irakaspena artzearren.

Ettxera biurtzen gintzazanean, aitita gelditu zan, eta,

– Milla ogerleko illero guri kendu bear be –asarre jaurti eban–. Eta gaiñera ortik ogerleko bat bera be ezin beeratu...!

Oso zaletua zan aitita gangaillenez egiteari, eta ereti aretan ogerleko gitxi batzuk gitxitu aal izateak, zoriontsu egingo leukean.

Andik laster barrero gelditurik:

– Ez yakiat ba, Txomin –zirtoka esan eustan–, Urrexola saldu bear izango ez yoa-gun ba...

– Aitita –benetan iñoalakoan esan neutsan–, Indarraldi itzela egiteko gerturik no-zu, baita loaldiari zatiak kentzeko be. Tamal dot benetan zuei olako buruaustea ekar-tea, baiña nire ikastaldia aalik laburrena izan daiten aaleginduko naz, bai orixe...!

Laster oartu zan aitita, estu ta larri niñoala, eta etxetik ur samar azkenengoz geldituta, auxe esan eustan irribarreka:

– Edozelan be, otzaragintzeari esker, ba'yaukuat aurreztuta ire irakaspenaren bes-te ordaintzeko.

Itz oneik entzutean, gogoá alaitu yatan, eta etxera sartzean, aurrean neban eupadea garaitzeko, erraldoi baten indarraz oartzen nintzan.

Berbatua lez, urrango Astelenean Goiniz'eko joaletegian arrastiko seirak emon-txuetan, maisuaneko atea jo neban, eta andik laster, gela bateko mai baten ondoan, maisua ta biok aurrez-aurre gengoan, eta iru illabete iraungo eban ikastaldiari asiera emon neutsan. Iraupena ordubete bikoá zan, eta generabiltzazan gaiak oneixek ziran: Eliztia, ludiztia, kondaira, eta zenbakiztia, bakotxa-ordu erdiko iraupenekoá izanik. Lenengotik ikusi zan, irakurketea ta idazketea, neronek obatu nengikeazan gaiak ziran ezkeru, etxean nire kabuz egingo neukezala, baiña egunoro iradazpen laburra egingo neukela, idaztarauak zelan nerabillezan jakiteko.

Asiera batetik, naikoa buruauste b, v, g, j, q, c, eta h'ak emon eusten, eta aldiaren joanean, alkarrekiko ezagutzea sendotu zanean, uts-egite bat ikusten ebanean,

– Pero que bruto eres, maño –iñostan maisuak–, “Inteligente y pauca, al buen entendedor con una sola palabra basta” pero no sé cómo no te entra en esa mollera, que “haber” se escribe con h y b, y “a ver” sin h y con v. Has de saber que la h es muda, entiendes...?

– No entiendo, Don Daniel. Si te es muda, pa qué se escribe pues...? Lo que no se dise, tampoco hay que escribir.

– Pero qué bruto eres, maño...! Hay unos señores muy pero que muy sabios que han dicho que “haber” se escribe así, y nada más, y lo que esos académicos dicen, se cumple y ya está...!

– Sabios ya te serán, pero zentzunbakos tamién. El abuelo tampoco te entiende lo de la h, dise que es igual que tomar ducha con abrigo puesto.

– Vaya hombre –irriño batáz iñostan–. No sabía yo que Braulio tuviese aspiraciones a un sillón en la Academia de la Lengua.

Edozelan be, ez neban beste biderik izan, erdal idazkerearen burubako arauak onartu baiño, eta aspaldi luze batez, istillu gorriak jasan bear izan nebazan, ekiñaren-ekiñez idazkera ori menperatu arte.

(Urteen joanean, euskal irakurle porrokatua billakatu naz, eta jakin dot, jakin be, lengo Euskaltzaindiko idazkera jator, erraza ta senaz beterikoa, oraingo jakin-tsuek aldatu egin dabela, eta beste astakerien artean, oguzten ez dan h ori, erderaz baiño amar bidar geiágo guztia idaztera beartzen gaituala batasunaren izenean, iño-lako buruauste ta zailtasuna sortuz. Zorionez, bada euskal idazleen talde ugaritsuak olako lelokeria onartu ez dauana. Dirudianez, ez dabe txirrioa (dutxa) soingaiñekoaz artu gura.

Aititik aginduta lez, etxean ez neban lanik egiten, nire aukeran neban astia, eliz-tia, ludiztia, kondaira, eta zenbakiztiaren etxerako lanai buru-belarri emonda. Oso garrantzitsua zan parra-parra irakurten eta idazten jakitea, eta egunean ordubete batzuk emoten nebazan irakurteari lotuta, auxe biderik ziurrena da-ta, ondo idazten ikasteko. Orretarako, lagun andia neban udaleko idazkariak, guztitariko aldizkariak emostazan, irakurgairik izan nengian. Onezaz gaiñera, beste gaiak ikasten nebazan, biaramonean maisuari, buruz emoteko. Egunero be, zenbakiztiko gaiak etxean nerabillezan, eta aldiaren bidean lau arauak ikasiz gaiñera, amarkaren arauak, zenbaki zatidunak, eta guztitariko gogo-ainbaketak egin oi nebazan. Gauzak polito ikasten nebazala oartzen nintzanean, geiágo ikasteko irrika nitzaz jabetzen zan, eta adore barrituaz areago ikasteari emoten neutsan. Bein baten, maisuak,

– Sabes una cosa, maño...? –esan eustan–. Pues que no eres tan bruto como parecías. Cuando te vi entrar por esa puerta con tu abuelo y luego supe a lo que venías, pensé que meter algo en esa mollera sería lo mismo que sacarle jugo a un adoquín, pero ¡ya ya...! No llegarás a ser uno de los siete sabios de Grecia, pero tampoco tan bruto como el hijo del Tío Celemín, ¡que ridiez! La geografía, historia y aritmética las dominas bastante bien, pero la ortografía aún te cuesta bastante, y por eso vamos reforzar los dictados.

Maisuaren eritxiz, bazan idazkerearen gaillurra zan esakun bat, eta auxe alegia: “Ahí, en un hoyo de la venta de la Albahaca, hay un herrero que dice ¡ay!”. Amaika bidar idatzi bear izan neban esakun au, eta beste onen itxurako batzuk, baiña len aipaturikoak, On Daniel'en eritxiz zailtasunaren marra guztiak gainditzen ebazan. Eta olan, ekiñaren-ekiñez, idazkerea menperatzen asi nintzan.

Iru illabete barik, nire gertakuntza amaitutzat emotea erabagi neban, illeroko ordaintzea gogoan arturik batez be. Ondo nenkusan baita be, aurrerantzean maisuak irakatsi egikedana, bere ezagueraren mugan egoala, eta etxekeokin itz eginda gero, nire erabakia ontzat emon eben.

Burutara emon neutsen, zerbait agertu arte nire kabuz ikasteari jarraituko neuskiola, orretarako bearreko liburuak banebazan etxean-eta. Olan ba, irugarren illabetea ozta-ozta amaituta, maisuaren irakaskintzeari uko egiñik, etxean, nire gelako maitxuaurrean aurrean ikasteari jarraitu neutsan.

Illabete bi-edo igarorik, bein baten udaleko idazkariagandik mezu bat artu neban, berarekin egoteko eskatzen eustala. Astirik galtzeke, urrengo egunean aratu nintzan, eta auxe jakiñerazo eustan:

– Aizu, Txomin, uriburuko udalean dodan adiskide baten bidez, ezaguerara eldu yat, ango udalbatzak ogei ta bost urizain barrientzat leiaketea atondu dauala, eta nai izatekotan, zure izena emongo dot leiaketa orretara aurkeztu zaitez. Zer diñostazu...?

Ezusteaz artzen ninduan itaunari erantzun aurretik, burura etorri yatan aititari entzundako auxe: urizain edo txinel geienak alper andiak zirala, eta etxeko mutillik ganorabakoan jardun orretarako oso egokiak zirala. Isillik nirauala ikusirik, idazkariak barriro,

– Zer deritxazu orreri, Txomin...?

– Ara, Jauna –ezpaitu erantzun neutsan–, ez dakit ba... Aititak diñoanez, jardun ori egokia da nekatuta jaio diranek ogibidea izan dagien, mundu onetan bizi izateko eskubiderik danok dogu-ta...

Barre egin eban idazkariak, eta,

– Begira, Txomin –esan eustan–, Braulio'k burua lengo lepotik beti, eta eritxi orretan guztiz oker egon ez arren be, txinelen artean guztitariko aiurri edo jasak aurkitu daitekez. Egiari bagagozkio, esan bearrean nozu, urizaiñek beste lagunak baiño zaletasun andiagoa dabela luzarago lo egiteko, baita edozein ekintza bateri emon aurretik, gora-beera guztiak ondo ta zeatz gogoan erabilteko, baiña norbera dan bezela izanik, eta esamesak alde batera saiesturik, orretan be, beste jardunetan lez, langille ta burutsua danak, aukera andiak izango ditu bizitzaren mailladian gora andia egiteko, eta ni neu ziur naz, Braulio'ren billobea azken oneitarikoak dala.

Au esanda, irribarretsu begiztatu ninduan, baita nik bera be, eta,

– Begira, Jauna –esan neutsan–, adiñeko naz bertanbera erabagia artzeko. Oarrikasteak, baiña, irakatsi daust aititaren burubideak ontzat artzea, eta oraingo eretian be, olan egingo dot.

– Ondo derist orreri, Txomin, baiña “zer-dan-eztan” on izango litzakizu, erantzuna astebete baten epean niri jakiñerazotea, izen-emoteak amaitu aurretik.

– Bai, Jauna. Gaur bertan arazoa etxean aztertuko dogu, eta biar, Jaungoikoak lagun, erantzuna emongo dautsut.

– Agur ba, biarrarte.

Etixerakoa egin bitartean, nire buruari niñotsan zelan artuko leuken aititak idazkariaren eskintzea. Niketz baietza emongo neuskion, sei illabete igaroak baiziran gudaletseintzatik biurtu nintzala, eta irrika bizian aurkitzen nintzan bizibide bateri oratzeko.

Bazkalostean arazoari etxekoen aurrean ekin neutsan, eta asiera batetik ikusi aal izan neban, eskiñitako jarduna aititaren gogokoa ez zala, luzaro isillik iraun eban-eta.

Ama, ostera, oso barritsu azaltzen zan, eta ikusi nengikeanez, seme bat uriburuko txinel izateak pozezko kili-kiliak egiten eutsazan. Aititak isillik irauala ikustean,

– Aitita –itaundu neutsan–, zer deritxazu idazkariaren eskintzeari...?

Burua txorkatuz, noizbait,

– Ez dakit ba –esan euskun oldozkor–, ez da txarretetiko jarduna, ezta onenetariakoa be... Ez ur ez ardao, esango neuke... Alperrentzat bizibide egokia ei'da... edozelan be, kale-garbitzaillea baiño obea beti. Orren ardaozaleen ospea ez ba'lebe...

– Ze ardaozale ta ardaozale-oste...! –eten egin eutsan amak– uste al-dozu baten bat txurrutaria dalako, beste guztiak bardin izan bear diranik...? Eta orrezaz gaiñera, ez dozu burura ekarten, zelako itxura elegantea izango dau gure Txomiñ'ek, txinel-janzki edo “uniporme” baten barruan...?

– Emakume iñuzentek...! “uniporme” ganorabako baten barruan dagoanek, txormaloa izan arren be, zuen lelotasuna erakarriko dau beste munduko gauza bai'litzan, benetako baldintzak gogoan artu barik. Mutilletan erromerietara giñoazala, erderaz abesti askok ezagutzen ebazan sakristauaren semeak, sarritan irri-abesti auxe jaurti oi euskun:

A la jota Matxin
eres un borrachín
que por no trabajar
te has metido aguacil...

Barre galantak egiten genduzan. Erri-kantai, geienetan egi biribillak dariezala autortu bear dogu...

– Baita guzur asko be –eten egin eutsan amak–. Esan, bear egiteko nor gure Txomin baizen gogotsu ta gerturik...?

Eta gero, “uniporme” baten barruan nire jasa bardinbakoa asmatuz,

– Ziur naz, txiñel janzkiaren barruan uriburuko kaleetan zear gure Txomin igaro daitenean, jende guztiak begi argia egingo dautsala, eta ango apaingarria izango be. Ezin dagikezue asmatu, zelako brontzezko botoiak, eta gibilidun (hebilladun) gerrikoa darabillezan, baita ondo burdin-lisaturiko prakak be oiñetako dizdiratsuen gaiñean. Eta ori dana gitxi izanik, erdian urrezko biribilkia josita daroan txapel gorri bikaiña. Bai, ango alkatea bera baiño dotoreagoa joango da. Sarri askotan ziziriko ta bolanderak botaten diarduan Peru'k Goiniz'eko txinelak, alkatea baiño geiago ez dau emoten ba...?

– Zuok emakumeok –erantzun eutsan aititak–, itxurakeriak benetakoa baiño ederretsiago dozuez, ganorabakuok...!

Ordurarte, baiña, isillik iraun izan eban Tomas'ek, etxekoen autuan tartetu zan onetaraxe:

– Nire ustez, erara berba egin bear dogu, txinelen ardao-zaletasuna alde batera utzita, baita “uniporme” edo janzkiaren eragiña be. Badakizue: “Txakurrari buztarria ipiñi arren, beti zaunkaria”. Orobat, txinel batzuk alper eta txurrutariak izateagaitik,

beste guztiak ez dira nai-ta-ez olan izan bear, txinel izate soillak olako baldintzarik ez dautso iñori ekarri bear-eta. Baiña beiñena auxe da: Txomiñ'en eritxia bere etorkiari buruz ez dogu iñork aintzakotzat artu, eta bere orde z geurok erabagi nai dogu, berberak emon bear dauan urratsa. Au dala-ta, laga dagiogun bear dan beste sakon arazoa ausnartu dagiala, eta onen ostean, bere erabagia jakiñerazoko dausku.

Itz zentzudunok entzutean, benetan eskertu neutsan barrutik nire anai nagusiari, nirekiko eban eritxia, eta onekin batean, Urrexola etxaldeko edeak buru zentzudun batek erabilliko leukezalako.

Arrezkero, ez genduan arazoari buruz besterik esan, eta amak eta Pantxike'k sukaldea ta ontziteria garbitzen ziarduela, oiko jaisketea beiai egitearren Tomas kortara joan zan, eta oi neban lez nire lo-gelara joan nintzan, lo-aurreko astia ikasteari emotearren.

Oeratzeko zorian nintzala, bere lo-gelara bidez, aitita etorri yatan, eta maitxuaz bestaldean jesarten zala,

– Barkatu egistazu, Txomin -eskatu eustan-, gaur ergelkeri batzuk esan dodaz-eta.

Isildu zan une batez, eta gero,

– Zeuri burubide zentzudunak emon-bearrean, kaikukeriak baiño ez dodaz esan-eta. Naikoa gazte izan arren be, zu zara gizon bat esan bear dana, naiz urizaintzat naiz beste edozein jardunari emonda. Au dala-ta, zure bearra ederto beteko dozuna ziurtzat emoten dot, baita gora andia egingo be, etxean egin dozun lez, lanari buru-belarri emonda. Augaitik ba, dagokizun aukerea zerorrek artu bear dozu, eta nik neuk ebatzi dagizuna ebatzi dagizula, ontzat artuz gaiñera, aurrera eroateko lagunduko dautsut.

Isillune bat sortu zan, eta gero,

– Gau onetan –jarraitu eban–, bear dozun burubidea loari eskatu egiozu, eta ondo oldoztuta gero, biar ebatziko dozu.

– Kaletik etxera biurtzen nintzanean, dagokidan aukerea artu dot.

– Eta...?

– Baietzean nago, aitita. Orain artean aurkeztu yatan abagune bakarra da, eta zorakeria litzake baztertzea. Edozelan be, beste aukera bat aurkeztuko ba'litzakit, orduan ikusiko neuke.

– Ederto, Txomin, eta baietzean izanik, biar bertan gure udaleko idazkariari esan bear dautsazu, “zer jazoko be” zure izena leiaketarako emon dagian..

– Olantxe egingo dot.

– Gabon, Txomin, eta Jaunak bedeinkatu zagizala.

Biamonean eguberdi irian, udaletxera jatsi, eta idazkariagana joanda, auxe esan neutsan:

– Jauna, atzo eskiñi zeustana gogoan erabilli dot, eta onen ondorioz, baietzean nozu. Augaitik ba, bearreko urratsak emon dagizuzala eskertuko neuskizu.

– Ederto, mutil, nire ustez aukera ona egin dozu. Oraintxe bertan, urrutizkiñez nire adiskideari zure izena emon dagiala eskatuko dautsat. Onezaz gaiñera, bearreko zu-

re agiriak bidalgotz igorriko dautsadaz, eta onen ostean zeozer jazoko ba'litz, jakiñaren gaiñean ipiñiko zaitut.

– Neuganako oso ona izan zara, Jauna, eta bene-benetan eskertzen dautsut nire alde egiña.

– Ez da zergaitik, mutil. Leiaketearen eguna etorri dakizun arte, ekiozu ikasteari, eta biotz on...!

– Agur, Jauna.

Adorez gaiñezka etxera biurtu nintzan, eta aspaldi aretan egiña lez, ikasteari emon neutsan buru-belarri, idazkerea ta zenbakiztia obatzearren batez be. Andik egun batzutara, idazkariagandiko mezu bat etorri yatan, eta udaletxera joanda, zertzelada oneik jakiñerazo eustazan: urrengo asteko egubenean, uriburuko udaletxean leiaketea ospatuko litzakela goizeko bedaratzietan.

Bagenduan Goiniz'en, uriburura egunoro joaian mandatari bat, eta leiaketearen aurreguneko gaba an emotea bearreko yatan ezker, izeko Garbiñe'rentzat mezu bat emon neutsan jakiñerazoz, dalako egunean, lotarako etxean izango nindukiela. Aita zanaren arreba zan izeko Garbiñe, uriburura ezkondua zan ikatz-baltzu garrantzitsu baten ziarduan osaba Lon'ekin. Urrango egunean baietzeko mezua eldu yatan, eta noizbait eretia etorrita, arratsaldean Artxuri'n erri-berebilla artuta, illuntze barik izekoren bersarkada maitekorra artuta, nire etortearen zergaitia azaldu neutsan. Andik laster osaba Lon eldu zan, eta jakiñaren gaiñean ipiñita gero, etxekoan barriak emon neutsezan. Aurpegiz soillik ezagutzen neban osaba Lon, baiña asiera batetik lege andia artu neutsan, eta geroago azaldu zanez, ez nintzan oker ibilli.

Etxe aretan, gela txukun bat lo egiteko eskiñi eusten, eta biaramonean, goizean goizik jagi, garbitu, eta jaiegunetako janzkiaz apainduta, gosalduta gero, osaba Lon lanera joan zanean, izeko Garbiñe'k nire janzkiari azken erraxkadea emon eutsan, eta jarraian, udaletxe ederrera lagundu eustan. Etxetik gertu samar egoan, eta genkusanaren barri zeatzak emostazala, atan-orretan udaletxera elduta,

– Entzun, Txomin –esan eustan–, eguberdi zatoz etxera bazkaltzeko, eta orduan zure gora-beerak jakiñerazoko dauskuzuz.

Eta leiaketa-aretoko atean alkarri agur esanda, sartu nintzan. Gudalburu baten duin zan janzkiaz apaindutako ango ogipeko batek nire gora-beerak artuta, mai bate-riño eroan ninduan, eta idaztekoak emonda, itxaroteko agindurik, joan zan.

Bederatzi-bederatzietan, izen-zerrenda bat irakurri eban ogipekoak, eta uts egin-dakoen izen urriak marratu ondoren, albo bateko aulkian jesarri zan. Orduko, aretoko zeatzaz jabetu izan nintzan. Banakako maitxuen aurrean berrogei bat jardun-gai gengozan, isillean alkarri begiratzen geutsala. Leiaketea ogei urizain aututeko zan, eta gutariko erdia, beraz, ezetsia izango litzake. Gogoeta oneitan niarduala, alboko ate bat edegi zan, eta iru jaun sartuta, mai baten aurrean jesarri ziran. Erdikoa, maipurua zanak urrean, urruma egin ondoren, auxe esan euskun:

– Jardungaiok: leiaketa au zati bitakoa izango da. Goizean iradazpen (dictado) bat, eta gero, jakintza orokorreko itaunak. Arratsalde osoa, ostera, zenbakiztiari emon-

go dautsagu. Esan-bearrik ez da, zuen artean alkarrekiko argibideak eskatu ta emotea galazota dagoala, eta olako lege-auspina dagiana, eskubide guztiak galduta, aretotik-at jaurti izango da.

Onen ostean, mai-idazkaria zirudianak, barrero be guretariko izen-zerrendea irakurri, eta ontzat emonda, maipuruak iradazpenari asiera emon eutsan, eta isiltasunik andienaz idazten asi gintzazan, gai laburrak baiña guztitarikoak izanik. Iru ordu laurendo igarorik, dalako jarduna amaitzeko zorian, zur eta lur eginda, zati auxe iradatzi euskun maipuruak. “Ahí, en un hoyo de la Venta de la Albahaca, hay un herrero que dice ¡Ay!”. Goiniz’eko maisuak niri amaika bidar iradatzitako esakizun au, buruz nekian, eta nire leikideek lerrenak eginda itxura ezbaitsuaz idazteari emotsuela, nik eskutik-abora zeatz-meatz idatzi neban, gure erriko maisuaren gomutea bedeinkatzen nebala.

Onen jarraian, irarki bana emon euskuen guztitariko itaunak ebazala. Oneik, jakintza orokorrari egokioen, eta itaun bakotxaren ostean erantzuna jarri bear genduan. Asko ziran, eta bertanbera ez ekiazana, ezin guztiari erantzun. Niretzat baziran banaka batzuk ezezagunak, baiña “zeri nakio” egonez astia galdu-bearrean, urrengoari ekiten neutsan. Olan ba, jardunaldia amaitutzat erabagi ebenean, ozta-ozta itaunketea burutu neban, berrogeitsu artean bi edo iru soillik uts egiñik. Irarkiak jasota, leiaketeari ete-naldia egiten yakola iragarri euskun maipuruak, eta arratsaldeko lauretan biurtzeko, zenbakiztiatz jarraitzearren.

Etxera biurtu nintzan, eta bazkaldu bitartean, izandako gaiak buruz osaba Lon jakitun ipiñita, nire erantzunak egokitatz ebazala esan eustan. Onen pozean adoretuta, osaba idaztegiari biurtu zanean, eta izekok ontziteriko garbiketeari emotsala, udaletxera biurtu, eta leikideekin goizeko aretora sartuta, gutariko bakotxari irarki bana emon euskuen. Onetan, guztitariko batuketak, kenduketak, ugariketak, eta zatiketak, oiko zenbakiakaz, baita amarki ta zatikiakaz eskatzen ziran, eta amaitzeko, lain-arau (regla de tres) ta obari-arauaren (regla de interés) ainbaketa batzuk. Ondo menperatzen neban zaiak izanik, asiera batetik mamiñera joanda, banan-banan garbitu nebazan, eta emondako epea amaitu aurretik egiñak, bada-ezpadan birraztertu nebazan, bear izatekotan utsegiteren bat artezteko. Arratsaldeko seirak izango ziran kalera urten gintzazanean, baiña onen aurretik, andik astebete batera-edo, udaletxeko iragarki-oltzan aukeratu en zerrendea agertuko litzakela, iragarri euskun maipuruak.

Etxera biurtzean, polito jardun izan nebala nire kolkorako niñean, baiña olan eta guzti be, baikorregi ez izatea arrenkura antzeko batek iñostan, beste leikideak ni beste edo areago izan zeitekezala-ta. Edozelan be, ezin nengikean barrutik yabildan poza ni-gandik uxatu. Elduta laster, idaztegitik biurtu izan zan osaba Lon’ek, uriburuan zear osterata bat egitera dei egin eustan, eta bertanbera baietza emonda, kaleetan zear egurastu atsegiña izan genduan irurok, izeko be gurekin etorri zan-eta.

Ibilli genbiltzala, osaba-izekok genkusanaren barria emosten, eta uriburua berreun milla biztanleko zala jakin neban, Alderdi Zaarra ta Barrian bizatitua zala. Ibai batek erditik zearkatzen eban, eta kaietan ontzi lorketari asko ikusi zeitekean zama-ustuketeari emonda. Jendea andikorik-ortikora arin samar ebillen, eta agiri zan uri lankorra

zala, portutik ta onen ingurutik yatorkuzan ekin-zaratak zirala-ta. Uri andi bat lenengoz nenkusala zan, eta izan be, ango otsak eta joan-etorrien zurrumurruek arritu ninduen, zapalketaren antzeko zerbaitek menperatzen ninduala. Aize bigunpean, lantegietatik ke-mordoak nagi jagiten ziran, aldiaren eragintzaz etxaurreak keatzen ebezala. Onezaz gaiñera, amaika usaiñen naasketea oartzen zan, kale ta egurastegiai zerbait esan-eziña emotsiela. Ordubete biko osterea eginda gero, etxera biurtu gintzazan, eta izekok aparia atondu bitartean, osabak guztitariko gora-beerak niri emoten jarraitu eban. Apaldu bitartean,

– Ta, Txomin –itaundu eustan–, zer deritxazu gure uriburuari...?

– Aitu baten, osaba, zaratatsu, aberats, indartsu, eta zikiña begitandu yat.

– Eta emen bizi izatea, atsegin izango litzakizu...?

– Naiago dot Goiniz’eko bake ta aize garbia, baiña aitatik diñoanez, norberaren aukerea ogibidea aurkitzen dan lekuan dago. Edozelan be, uriburu oneri zerbait esan-eziña dariola, esangc neuke...

– Bai, Txomin –eten egin eustan osabak–, nik uste, aldiaren joanean uriburu onen sorgindurea zutzaz jabetuko dala.

– Ez dakit, osaba, baiña oraingotz beintzat, Goiniz’eko zabaldia naiago dot. Emen, ito-antzeko zerbait oartzen dot.

– Ona bizi izatera ba’zentoz, laster ostenduko litzakizu oarpen ori –irribarretsu esan eustan osabak–. Ziur naz, baiña, urizaiñaren jardun ori lortuko dozula, eta orduan emengo giroari oitu bear izango zaiakoz.

Edu onetan jarraitu genduan, eta atan-orretan oeratzeko ordua eginda, nire gelako illazki astiñean lo atsedengarriak artu ninduan.

Biamonean goizean goizik jagita, idaztegiari joan aurretik, gozaltzen ziarduan osabari batu nintzakion, eta Artzuri’rako berebillaren ordurarte ordubete bi nire aukerari izanik, idaztegiari lagundu neutsan. Ibilli genbiltzala, osabak,

– Aizu, Txomin –irautsi eustan–, esan daustazunetik, argi da niretzat, urizaiñaren jarduna jaritsiko dozula, eta olan izanik, ostatico bat bear izango dozu. Izeko ta bioi Jaungoikoak umerik ez dauskuenez emon, gurean kokatu zaitekez, eta olan guztion onerako izango da. Zuk, maite zaitugunon erabilte txeratsua izango dozu, eta guk, uts egindako umeen betegarria izango genduke. Zer deritxazu nire eskintzeari...?

– Niketz, ondo derist, osaba. Baiña zeozer erantzun aurretik, etxekoen ustea jakin gura izango neuke. Edozelan be, baietzean, illabeteko sariaren ordaiñez izan bear, bes-telan...

– Ez zaitez larritu orregaitik –irribarrez eten egin eustan osabak–, ziur naz bat etorriko gareala-ta.

Andik laster, idaztegiari elduta, alkarri agur esanda, banandu gintzazan, eta iradu barik izekogana biurtu nintzan. Eskuartekoak artuta, erri-berebillen geltokira joateko urten-agiñean nintzala,

– Itxaron zatitxu baten –esan eustan berak–, eta geltokiraiño lagun joango naiatzu.

Luzaro barik kalean gora giñoazala, izekok,

– Aizu, Txomin –itaundu eustan–, gurekin kokatzeari buruz, zeozer esan dautsu osabak...?

– Bai, izeko eta niketz oztoporik ez, baiña etxekoen eritxia jakin bear izango dot.

– Ederto, mutil, etxekoakana esanekoa izan bear dozu, eta azaltzen dozun menpe-tasun orrek asko esan gura dau zure alde. Edozelan be, jardun ori lortzen ba’dozu, orretzaz berba egingo dogu.

Alkarri besarkada estua emonda, laster nintzan erri-berebillan, eta gero Artxu-ri’tik etxerakoa oiñez egiñik, otorduko, etxean nintzan. Bazkaldu bitartean, uriburuan izandako gora-beerak edestu neutsezan, eta zuurra zan aititak, auxe esan euskun:

– Edozelan be, joaleak iraulka jaurti aurretik, itxaron dagigun irabazleen zerren-dea agertu arte, eta lanerako zaletasuna galdu ez dagizun, Txomin maite ori, egunokaz Urtxinde’tiko oiko egurketea egiteko lagun izango zaiakuz, orretarako sasoia izanez gaiñera, atzo bertan ilbeera asi dan ezketiño, etzi arloari ekingo dautsagu.

Eta etxeko idien laguntzaz astebete bat iraun eban egurketea amaitu zaneke, gure udaletik ara joateko mezua artu neban. Arin baten kalera jatsi nintzan, eta bereala artu ninduan idazkariak, irribarretsu,

– Poztu zaitez, Txomin –esan eustan–, Kukuak ondo jo dausku-ta. Onartu izan za-reala jakiñerazo daust ango udaleko nire adiskideak, eta jardun barriaren artzea egite-ko, datorren illeko lenengo egunean, uriburuko udaletxean aurkeztuko zara.

Eskerrik biziena emonda, ibillera azkarrez biurtu nintzan, eta etxekoai barri ona emon neutsen. Aititak eztitan zirudian, eta albistea ospatzeko, ni etxetik joan aurretik, azken jaiegunetan izan be, etxeko oillasko eder bikaz gure biziko otoruntzea ospatuko gendukeala agindu euskun.

Uste izandako baiño azkarrago igaro zan illabetea, eta oartu orduko, etxetiko nire joatearen aurreguna zan, Otsailla’ren azken Igandea izan be. Aititak agindutako bazka-ri bereiziaz ospatu genduan, eta arratsaldean, oi baiño goizago etxera biurtu izan zan aititak, niri banazean dei eginda, Urrexola’ko sapaillotik urrutiraiño edatzen zan gure ibarreko edertasuna, esmeralezko bitxi yaukalaren antzera zabaltzen zala, biok aulki banatan jesarrita, mintzo astirotsuz, berak,

– Ez dakizu zein mingotsa azaldu yatan zure etxetiko joatea. Urte biko zintzazan zure aita ilda, etxe onetara etorri nintzanean, eta arrezkero nire kuttuna izan zara, egu-nean baiño egunean maiteago izan zaitudala, eta orain zure aldegitza urreratzen da-nean, ezerk bete aal izango ez dauan utsa biotzean oartzen dot...

Isildu zan apur baten, eta gero,

– Zure aitaren utsunea beteten saiatu naz. Ez dakit ondo ala txarto burutu dodan eginkizun ori, baiña benetan diñotsut, ondoen egiteko aalegindu nazala. Baleiteke, as-kotan bear baiño zakarrago edo bortitzago erabilli zengidazan, baiña olan izan ba’da, siñistu egidazu, zure onurea billatzearren izan da. Ara... bigun edo eregutari erabilli izaten dana, bizitzearen gogortasunari aurre egiteko ez da gauza. “Zer gura ta a” lor-tzen dauana, astin edo belaxka billakatuko da biarko zailtasunai aurre egiteko. Zeugan

benetako gizona sortzen aalegindu naz, ondo nekialako, jakin be, egunen baten etxe onetatik joan bear izango zendukela, bizitzaren ekaitzen erasoak jasateko. Ez dakit no-raiño egin dodan aparta, baiña egi-egitan benetako gizontzat zaitut.

Ostera be isildu zan, eta gero,

– Gaur –jarraitu eban–, etxe onetatik joateko zorian zaranean, nire azken burubi-deak emon gura dautsudaz. Gomutan al-do zu gudal-otseintzaren aurretiko nire onuak...? Edateari emon ez zengiola esan neutsun, orrek gizakia aberetzen eta zakarten dualako, osasunari eragiten dautsan kalteak aipatu barik... Esan neutsun baita be, li-zunkeritik alde iraun zengian, ori Jaungoikoaren legea izanez gaiñera, egunen baten emaztetzat artuko dozun maite kuttunari, zintzo izan dakiozun, bere zeuganako zintzo-tasuna ordaindu dagiozun, eta ezerk eten egingo ez dauan alkartasunean bizi izan zai-tezen, eriotzak banandu zagiezan arte... Begira, Txomin maite orrek, sarri askotan la-gunek barre egingo dautsue edateari edo lizunkeriarri uko egiten dautsezulako, eta bi-txikeri asko esango be, ara, “lotsati” “bildurti” “ipotx” eta abar, baiña auxe benetan di-ñotsut: goiburu baten alde bere buruaren atseginkeriarri uko egiten dautsana, ori da gi-zon esan bear dana, eta ez guztitariko atseginietara irrist egiten dauana. Lenengoa, in-dartsu, errimea da... bigarrena, ostera, aizeak edonora daroan luma galdua, bere griña txarren jopu ezaiña, zoribakoa, azken baten, bere buruaren iguiña oartzerañi.

Une aretan, teillatu-gaillurrean kokaturiko txindor batek udabarria aurretiaz iraga-rrri nai bai’leuan, arrats-beerako bakean bere maitasun-amesak aletzen asi zan, eta ere-siak lilluraturik, aitita isildu zan; noizbait, abesteari eten egin eutsanean,

– Eta amaitzeko –jarraitu eban aititak–, emen baizen eleizkoia izaten jarraitu egi-zu... Bada baiña, beste zerbait zure jardunean oso beiñena izango dana: maitasuna, izan be. Kristauok auxe agindurik andiena dogu, eta zure betekizunean, amaika ereti izango dozuz maitasun ori besteakan isurtzeko.

Illuntzea asi-agiñean, arratsbeerako azken argi-izpiak sapaillloan zear irrist egiñik, aititaren aurpegia agirian jarri eban. Une aretan, bitxi isilla bai’litzan, malko baten diz-dira aurpegian beera ikusi neutsan. Izar bat begitandu yatan, eta ostendu zeiten aurre-tik, nire biotzean betirako gordetea erabagi neban...

Urrengo eguneko bazkalostean, jaietako soiñekoaz jantzita, aldagarri bat, eta eskuartekoak bide-zorroan sartuta, etxeokandik agurtu nintzan, eta bide-okergune batek ostendu ninduan arte, amak sapaillan iraun eban. Oiko ordu-erdia igarorik, aitita ta biok erriko enparantzara eldu gintzazan, eta aulki baten jesarrita, Artxuri'rako berebilleari itxaron geutsan. Aitita ez egoan betarik onenean berba egiteko ezta neu be. Noizbait, erri-berebilla elduta, itz egiteko gauza ez zala, aititak besarkada estuaz agurtu ninduan. Biurgune baten atzetik ostentzeko zorian, atzerantz so egin neban. An egoan aitita enparantzan zutunik, soin makurtuta geldi-geldi, eta orduan oartu nintzan nire maitasunaren anditasunaz, eta eztarran korapillo bat sortzen yatala, atsekabe bi-ziak menperatu ninduan.

Artxuri'n beste erri-berebilla artuta, noizbait uriburura eldu nintzan. Illuntzea zan osaba-izekoen etxera sartu nintzanean, eta nenkarrean eskuarteko urriak arasara sartuta, izekoarekin sukaldean alkartu nintzan. Laster iritxi zan osaba, eta izekoak aparria atondu bitartean, osteratxu bat egiteko urten gintzazan. Apalostean, autu bateri emon geutsan, eta nire ostatu-sariaren arazoa geroratzen gura ez neban ezkerro, aipatu neban, eta eztabaida luzearen ostean, illekoa erabagi genduan. Asiera baten, ostatu-sarizat eskatu eustena ezerezkeria begitandu yatan, eta ezinbestez sari egokiagoa, au da, goragoko saria ez izatekotan, beste ostatu bat billatzeaz zemaitu nebazan. Noizbait, luzaro eztabaidatu ondoren, bat etorri gintzazan. Edozelan be, guztiz merke iruditu yatan, eta jardun-ordaintzat emostena gogoan artuta, illero diruketa polita aurreztu nengikean.

Len esanda lez, osaba-izekok ez eben umerik izan, eta etxea txikia izan arren be, txukun eta erosoan zan. Lau maillako ta esku bitako etxe bateko irugarren soruan bizi izaten ziran. Jatoki ta iker-areto apaiñak izan arren, etxeke lekurik kuttunena sukaldea zan, eta emen emoten genduan astirik geiena. Euron lo-gela ta iker-gela kalera emoten eben, eta nire lo-gelea atzekaldean egozan jatoki ta sukaldeko alderdian. Oe apain eta astiñeko gela aretan, arasa zabalez gaiñera, txoko baten idaz-mai ta aulki bi egozan leio argi baten ondoan. Nire lo-gelea etxeke atzekaldean aurkitu arren be, zabal-di-zati baten aurrean egoanez, leioan zear bedar-zati garbia ikustea atsedengarria zan. Lege andia artuko neutsan nire gelari, gero ta geiago izan be, eta sarri askotan mai-aurrean jesarrita, irakurteari emongo neutsan.

Urrengo egunean, Epaila'ren lenengo eguna zana, goizeko bederatzietan udal-txean azaldu bear izaten nebanez, gosalduta gero osaba idaztegiara joan zanean, izekori

agur esanda, udaletxera abiatu nintzan, eta emen bearreko argibideak eskatuta, andik urrun ez egoan aterpe andi batera bideratu nintzan. Bederatziak ozta-ozta emonda, aterpeko gela zabal baten ogei ta bost urizain barriak alkartuta gengoanean, amarkari (cabo) batek lagunduta urizainburua azaldu zan, eta gu lerro-lerro jarri-crazorik, gure izenak irakurrita gero, onetaraxe asi yakun:

– Urizaiñok, onenak zarielakoan aukeratu izan zarien ezkerro, zuokan udal onek ipinten dauan uste onari, erantzun egokia emongo dautsazueta ez dot iñongo zalantzarik. Illabete batez, urizaindegia dan aterpe bikain onetan, zuen betekizuna ikasiko dozue. Gertakizun au bikotxa izango da: batetik, ezagutu bear dozuezan arauak eta beste gaiak, eta bestetik, bearreko soin-iñarkunen bidez, edozein atekari aurre egin dagiozuen. Augaitik ba, goizean soin-gertakuntzeari emongo dautsazue, eta arratsaldean udaltzaingoaren arauak buruz ikasiko dozue. Esan bear dautsuet, gertaldia igarorik bearrekoak ikasi ez dagiazana, etxera igorriko dogula, eta zerrendako urrengoak aren utsunea artuko dauala. Illabete bat igarorik, kaleetan jardungo dozue, batzuk osterea (traficoa) aginduz, eta besteak izendatu dakizuezan alderdiak zainduz, eta beste talde batek udaletxean bertan otseintza egiñez.

Isildu zan urizainburua, eta banan-banan gu begiztatu ondoren,

– Or ormaren luzean ikusten dozuen janjki-kutxatan –jarraitu eban–, zuetariko bakotxak jardun-janjkia (uniformea) gordeko dau, eta zaintzaldia asi aurretik ipiñita, kalekoa gordeko dau, zaintzaldi amaitu dakion arte. Zaintzalditik-at, ez dozu beste janjki erabiliko, kalekoa baiño. Urtero janjki bi emongo yatzuez: neguko ta udakoa. Oneik, garbi ta apain irau-erazoko dozue, udal oneri dagokion duintasunez, eta guztien eredugarri.

Asteko sei egunetan zazpi ordubeteko jarduna beteko dozue, eta zazpigarrena, jai nai asteguna, atsedenekoa izango da. Jardunaldia aste batetik bestera aldizkatuko dozue, au da: aste baten goizean lan egin ba' dozue, urrengoan jardunaldia arratsaldean izango da.

Zuetariko amarrek, amarkari baten agindupean jardungo dozue, eta berez doa, esaneakoak izanez gaiñera, bearreko lotsea izango dautsazueta. Edozelan be, ikasteko dozuen arauetan, orreri dagokiozanak irakatsiko yatzuez, baita beste gai asko be.

Eta orain amaitzeko, esandakoari buruz zuetariko baten batek, argibide geiago nai dau...?

Abo batez, naikoa argi egoala erantzun geutsan, eta onen ostean, bakotxari egokigun arasaren giltza emonda, arratsaldean biurtzeko agindua emon ostean, kaleetan zear sakabanatu gintzazan. Goizeko amabiak baiño ez izanik, urian zear osteratxu bat egin neban, onen bereiztasunak ikasteko. Autortu bearrean naz, uri ederra ez izanik be, beragandik erion zerbaitek zauskada esan-eziña eragiten eustala.

Arratsaldean, urizaindegiko beste gela baten, aulkitan jesarrita gero, ingurraztitxu ta luma bana emonda, amarkari irakasle bat lenengo ikasketea aletzen asi yakun. Adiadi iñoskuanari nerraikiola, ikastaldia arin baten igaro zan, eta oartu orduko etxera joateko garaia egin yakun. Urten aurretik, gutariko bakotxari liburu bana emonda, auxe esan euskun:

– Ementxe dozue arauai buruz ikasi bearrekoa. Illabete au amaitu barik, or dagozan atal guztiak buruz eta parra-parra esateko gauza izango zarie. Egunoro etxean zati labur bat ikasteari emoten ba' dautsazue, gaiok oartu barik menperatuko dozue.

Etxera biurtzean, apal-aurreko astia emotearren, nire gelako mai-aurrean liburuxka irakurten asi nintzan, eta laster oartu be, euskaldun jatorra izanik, erderaz azaldutako gai areik ulertzeko, nireak eta bost jasan bear izango neukezala, baiña zin egin neutsan nire buruari, eupada aretan Braulio'ren billobea gaiñetik urtengo litzakela. Bai ortan...!

Andik laster, sukaldeko mai-aurrean jesarrita apariari ekiten geutsala, egun aretan ainbeste erdera entzun ostean, osaba-izekoekin euskeraz jardutea atsedean esan-eziña begitandu yatan. Aparia amaituta, osabak iker-aretoa eroan ninduan, eta ormeari itsasita egoan apal bat erakutsirik,

– Aitu, Txomin –esan eustan–, ez dot uste orain arte, beintzat, euskeraz irakurteko aukera andirik izango zendukeanik. Ona emen, Kirikiño'ren “Abarrak”, Txomin Agirre'ren “Kresala” ta “Garoa”, Arrese Beitia ta Lauaxeta'ren olerkiak, eta beste idaztiak. Zure aukeran irakurri dagikezuz, eta orduan ikasiko be, subazterrean txokoraturiko gure Errauskiñea, erregiña baten jasa ta edertasunekoa dala; bai, urretxindor baten duiña, izan be.

– Eskerrik asko, osaba Lon. Irakurriko dodaz atsegin andiz.

Osabaren abotsean dardar baten itzala iragarri neban auxe iñostanean:

– Txomin, euskerea dan ederra...!

Biamonean gosalduta gero, agindutako orduan ertzaindegira joanda, oarkari (monitor) batzuen ardurapean, guztitariko soin-iñarkunak egiten irakatsi euskuzan, onein artean izanik: soka baten gora lau-azka igon, egurrezko asto baten gaiñean eskuak ipiñita zapart egin, buruz-beera eskuen gaiñean ibiltea, oin-geldika luzean zapart egin, aga-ikotika, iru zapladako ikotia, eta abar. Gero suezitar soinketea, eta azkenean “Karate” izeneko jardunketea. Onetarako, gain-gaiñeko ei'zan Erroke izeneko oarkari erakusle genduan, eta asiera batetik oso begikoa azaldu yatan txit ondo alkartu gintzazan. Aipaturiko soin-iñarkunok goizean izaten genduzan, eta batzutan, eguraldi ona zanean batez be, ertzaindegi-alboko larrain zabalean, ariñeketa-kiroletan tartekoak izaten gintzazan.

Lenengo egun aretako arratsaldean, arauen ikastaldia asi genduan, baita gure jardunari egokiozan beste gaiak. Jardun onek ordubete bi irau eban, eta arratsaldeko seiretan, urrengo egunerako etxean egiteko ziran-lanak azalduta, jaregin ginduezan. Apalordurarte iru ordubeteko epea izanik, etxera eldu baiño ez, nire lo-gelako mai-aurrean jesarrita, ikasteari emon neutsan buru-belarri. Zaila azaldu yatan lenengo egun aretako ikaskaia menperatzea, baiña izeko Garbiñe'k aparia artzeko dei egin eustanean, arloa buruz nekian.

Olan emon neutsan asiera aspaldi barri bateri, ludiari buruz, baita nire jardun bariari egokionetan be, ikuspegi zabalagoaren jabe biurtzen nintzala, goizeko soin-iñarkunak eta arratsaldeko irakaskintzea aldizkatuz. Gau-otordurarteko iru ordubeteak on-

do nerabillezan ezkeru, ikaste-saillean baniñoan polito. Soin-iñarkunetan be aurrerape-nak egiten nebazan, eta "karate" dalako irakasleak, asieratik lege andia erakutsi eustan, eta kuttuntzat artu ninduan. Bere irakaskintzapean (eta au ez artu arrokeritzat) ikasta-roa amaitu zaneko, "karate" arloan txapeldun billakatu nintzan.

Eta olan igarri barik, illabetea igaro zan. Azken egunetan azterketak jasan gendu-zan, bai ikastekoak bai soin-iñarkunekoak, eta onein ostean etxera biurtzen nintzanean, urizaintzat jarduteko gaitasun-agiria aldean neroian.

Gau aretan apaltzen giarduanean, osaba Lon'ek auxe esan eustan:

– Zure jokaerea ikusita, asiera batetik banekian gaiñetik urtengo zintzakezala.

– Baita neuk be –eratxiki eban izekok–. Aititagana emon dozu, Txomin maite orrek, eta axe bai, gizon argia esan bear dana...!

Aitita Braulio aipatua zan ezkeru, aren "gauzak" burura etorri yatazan, eta orduan, artatxoriak uxatzeko asmatuiko tramankulua, baita zozoak kerezondotik zelan urrundu be arrain-zati ustel baten bidez edestu neutsezan. Gau aretako barre-zantzoak eta aldarte ona...! Osaba Lon'ek esan eustanez, ez eban iñoiz a baiño une atsegiñagorik ezagutu.

Urrango egunean jardun-janzkiak banandu yakuzan, eta noizbait, nire neurriari egokiona aurkituta, txapel gorri ta guzti, urizain bikaiña antzaldatu nintzan. Jarraian, amarreko taldeka banandu ginduzen, eta egokigun amarkaria urreratu yakun. Itxura berezikoa berau, suurpeko itzelekoa zan, nik iñoiz ez ikusiriko beste andia, matraille-tan zear edatzen yakona, belarrien arrera ona billatu naiez bizarrakin bat egiñik. Itxura txireneko amarkari oneri, "Zurdaki" (brocha) esaten eutsoen, eta guztien aburuz, arro-potz andia izanez gaiñera, oso zorrotz eta garratza ei'zan menpekoekin. Iñoiz barre egiten ez ebalako aipua eban, eta asiera batetik nekostea baiño itunagoa begitandu ya-tan. Aurkezpen egun aretan, gure aurrean jarrita, itxura arranditsuaz, amarreko taldeari mintzatuz,

– Jakin bear dozue –esan euskun–, talde onek amarreko guztien eredua izan bear dauala, eta beste urizaiñen artean, esanekoan eta eginkorrena. Ikasi dozuez urizaiñen arauak, eta utsik txikiena bera be ez dauzuet onartuko. Zuen janzkien garbitasuna bes-teena baiño beti agiriagoa; prakak ondo burdin-lisatuak, erdiko tolesa nabarmenduz; metalezko botoiak eguzki dizdiratsuak lez; txapela ondo jarrita aurpegiari duintasuna emonez; oiñetakoek ez dabe lokatzaren izpirik txikiena be erakutsiko, eta orretarako bearreko ba'litz, suur-zapiñoak erabilliko dozuez; zuen jasa ta ibillerea uri eder oneri dagokiozanak izango dira, eta igaroko zarien edonondik, ederrespen eta begirunea iño-regan eragingo dozuez. Niri zuzendu zakidazenetan, beti "Jauna" esango daustazue, eskua bekokian ipiñita.

Isildu zan une batez, eta gero mintzo arroputzaz,

– Egunoroko jardunaldia amaituta urizaindegira biurtu zaitezenean, udalaren janzkia kenduta, kalekoa ipiñiko dozue, jarduneko loitu ta altzitu ez dakizuen, eta urrango jardunaldirako jantzi aurretik, autsa ta orbanak kenduko dautsazue. Ulertu daustazue...?

– Bai, Jauna –abo batez gure amarreko taldeak–.

– Dakizuenez, jardunaldia astero aldizkatuko dozue goiz eta arratsaldean artean. Igandeetako irutatik baten lan egingo dozue, urrango asteguna jai izanik. Eta orain, amaitzeko, zuetarikoren batek, beste zeozer itaundu gura dau...?

Danak isillik gengozala ikusirik, berak,

– Orduan, biar goizeko zazpiretan, aurkeztuko zarie emen, zuen jardunaldiari asiera emotearren, goizeko txandan lan egingo dozue-ta.

Zazpirak lauren gitxiago izango ziran biaramonean ertzaindegira eldu nintzanean. Arin baten jardun-janzkia ipiñi ta kalekoa arasara sartuta, "Zurdaki" gana joan nintzan. Une aretan amarrekoari azterketa zeatza egiten eutsan, eta urreratu nintzakionean, burutik beatzeraiñoko begiraldi astirotsua egin eustan. Banekian nire itxurea akatsbakoa zala, baiña berak zeozer esan bear, eta erremuska auxe esan eustan:

– Jarri egizu txapela ondo...!

– Barkatu, Jauna, baiña nik ez dakit...

– Ez zara oartzen, metalezko ezaugarria albo batera okertuta darabiltzula...?

Esanekoa, txapelaren jarrera aztertzen nebalakoa egin, eta berak ontzat emonda, beste bategana joan zan. Andik laster, bosteko erreskada bitan, udaletxeko ordulariak zazpirak joten ebazan uriko alderdi zaarrera joaten gintzazanean. Biñaka giarduan urizaiñak, eta aurreratu-ala, "Zurdaki" k emen bikote bat eta an beste bat jarten ebal, ni ta beste lagun bat azkenak billakatu gintzazan. Noizbait, amarkariak nire lagunari mintzatuz,

– Martin –esan eutsan–, barruti au, barria dan Txomiñ'ekin zainduko dozu. Ondo ezaguna yatzun ezker, erakutsi egiozuz zati onen gora-beerak, eta ordu bietan ordezte-lagunak etorri dakizuezenean, nirekin biurtuko zarie ertzaindegira.

– Bai, Jauna –erantzun eutsan Martiñ'ek–.

– Badakizu –esan eutsan "Zurdaki" k–, Enparantza Barri'ko lekaide orrein ikastetxeari buruz, nire aginduak bete bear dozuezala. Dendak doi-doi jarritako orduetan edegi ta itxi bear dirala, bakotxari dagokion espaloi-unea garbi ta txukun iraun-erazo bear dabela. Ez dot ondakiñik ikusi gura, eta lege onen ausleai amar ogerlekoko isuna emongo yake. Ardandegietatik zaratarik ez, eta are gitxiago didar eta abestiak. Edoze lan be. Martin, zure laguna jakitun ipiñiko dozu, zelako arauak jagon bear diran nire alderdi onetan. Geroarte ba.

Gure amarkariak alde egin ebanean, eta kaleetan zear giñoazala, ikusten gendua-naren zeatzak emostazan Martiñ'ek. Olan genbiltzala, lekaideen ikastetxera eldu gintzazan, eta bederatzia laster izango ziran ezker, mutikoak multzoka sarrerara abiatzen ziran. Ikastetxea laukidun enparantza baten egoan, eta albo banatara arkupedi ederra edatzen zan. Uri-enparantza izanik, euron joan-etorrietan erabilten eben oinkariek. Albo bateko aurrekalde andi samar erabilten eban ikastetxeak, eta enparauan guztitariko dendak kokatzen ziran. Ikastaldien arteko atsedun-unetan, mutikoek jolasteari

emotsoen, baiña lau aldetako arkupediak oinkariek ustiatzen ebezanez, euria zanetan batez be, ikasleek debekatuta eben arkupekotan jolas egitea.

Gora-beera onein barri emostazala, auxe geitu eban nire lagunak:

– Begira, Txomin, zerbaitek “Zurdaki” bere onetik ataraten ba’dau, mutikoak ar-
kupetan jolas egiten ikustea da. Olan egitekotan, jostailluak kendu ekiezan agindu dau,
baita birregilleak isunen bidez zigortzea be.

– Aizu, Martin –itaundu neutsan–, ez al-deritxazu orreri geiegi...? Mutikoak beti
mutiko, eta geldirik ezin-egonak artuta, zeozer egin bear dabe. Ez dot ulertzen “Zurda-
ki”ren mutikoakanako gogortasun ori. Zergaitik ete...?

– Ara... bere semetariko bat biurrikeri andi baten ondorioz, ikastetxetik-at jaurti
izanik, ezin-ikusi ori beragan sortu ei’zan. Augaitik ba, goizeko ta arratsaldeko ordu-
erdiko jolasaldietan kuku egiteko agindu zorrotza emon dausku “Zurdaki”k.

Isillean jarraitu genduan gure zaintzaldia, eta gero, nire lagunak Alderdi Zaarreko
Zeira (Merkatura) lagundu, eta auxe esan eustan:

– Orain, ikastetxeko jolasaldia izanik, aratuko naz, eta bitartean, aztertu egizu
Zeia, ederra ta ikusgarria da-ta.

Martin joan zan, eta ibaiaren ertzean eraikia zan zeian zear ibilli nenbillela, ardura
andiz aztertu neban. Iru maillakoa zan. Kale-sestran egoanean, barazki, igali ta leka-
garauak saltzen ziran, eta goiko bietan okelak eta arrainkiak. Lekua atsegin yatan, eta
alako baten, “Elene” izena eban barazki-saltune baten ondotik niñoala, mintzo batek
auxe esan eustan euskeraz:

– Aizu, txinel barri ori, baietz euskalduna zaitudala...!

Biurtu nintzan, eta berrogeitsu urteko emakume batek irribarrez begizatzen nin-
duala ikusi neban. Urreratu nintzakion, eta,

– Zelan igarri dozu ori, ba...? –itaundu neutsan–.

– Talo-usaiña dariozun ezkeru, erraza da jakitea, eta onezaz gaiñera, aurpegiko
ebakuneak euskaldun jatortzat salatzen zaitu. Nongoa zara...?

– Goiniz’eko seme naz.

– Artxuri’ra bidez ezagutzen dot erri polit ori.

Une labur batez jardun genduan, eta nire betebearra gogoraturik, andik alde egi-
tean, berak,

– Aizu, Txomin –esan eustan–, emendik igaro zaitezaneetan, gelditu zatitxu baten,
euskeraz egiteak ez dakizu zelako poza dakarstan-eta.

– Baita niri be –erantzun neutsan–.

Eta nire jardunari emon neutsan, jendearen joan-etorriak zaintzen nebazala, ostu-
ketak eragozteko batez be. Olan niarduala, nire atzetik “Zurdaki”ren mintzo ozpintsua
aditu neban, auxe iñostala:

– Jakin bear dozu, Txomin, urizain zintzo batek ez dauala jendearekin berba egin
bear, orrek gure duintasuna gitxituz gaiñera, benetako elburua dogun erriarrak babes-
tetik baztertzen gaitualako. Aurrerantzean, beraz, iñorekin itz egiten ez zaitut ikusi gu-
ra.

– Barkatu, Jauna, baiña ez dot berarekin berba egin, berak nirekin baiño. Onezaz
gaiñera, dalako Elene nire ustez ez da iñor, saltzaille adeitsu ta begikoa baiño.

– Ixo, berbalapiko ori...! –aginkor esan eustan atzamarrakaz aurpegiko zurdakia
orrazten ebala–. Gure araudien 27’garren atalak argi ta garbi diñosku, nagusien agin-
duak itsuki ontzat artu bear doguzala, ezetariko osterarik bage. Entzun...?

– Bai, Jauna.

– Jarraitu egiozu ba ibillaldiari, eta ertzaindegira biurtzeko, ordu biak lauren gi-
txiagotan itxaron egistazu praille madarikatu orrein enparantzan.

– Bai, Jauna.

Joan zan, eta zeiko goiko maillatik jarraitu neban nire zaintzaldia, bidebatez, an-
go zertzeladak ikasten nebazala. Gero, kaleetan zear astiro niñoala, “Zurdaki”k agin-
dutako orduan enparantzan nintzan, eta gure amarrekoarekin alkatuta, urizaintzai ego-
kien duintasunez, amarkiaren agindupean urizaindegira biurtu, eta janzki-aldaketea
egiñik, eguneko zeregiña amaitutzat emonda, kalera urten nintzan. Bidean zear niñoa-
la, Martiñ’ekin bidalkaturik, gure amarkariakin jazorikoa edestu neutsan, eta berak,

– Arduraz ibilli, Txomin –esan eustan–, “Zurdaki” arropuz eta prakerre itzela da-
ta. Begitan artzen ba’zaitu, zureak eta asto baltzarenak jasan-erazoko dautsuz. Orain
asko ez dala, bere kabuz jardun nai izan eban gutariko bateri arerioa artu eustan, eta
irugarren salakuntzea egin eutsanean, ertzaindegia isastera zigortu eban alkateak, eta
oraindiño an dirau gaixoak, iñarraz autsak batetik bestera astinduz...

– Aizu –eten egin neutsan–, alkateak be gure arazoetan esku-sartzerik ete dau...?

– Jarraituz eta ekanduz ez, baiña gutariko norbait irugarrenez salatua danean, aren
gain-gaiñeko epaia jasan oi dau. Augatik, beraz, egunen baten udaletxeko leioak gar-
bitzen zure burua ez ba’dozu ikusi gura, aalegindu zaitez “Zurdaki”ren asarrea ez ira-
tzarteko.

Etxera biurtzean, osaba-izekoai urizaintzat nire lenengo jardunaldia edestu bear
izan neutsen. Bazkalostean, osaba bere idaztegitara biurtu zanean, nire gelako bakean,
“Kresala” elebarri ederra irakurten asi nintzan, eta gero illuntzean, uriburuan zear ibi-
llaldi bat egin neban.

Bajoiazan egunak aurrera, nire zaintzapean ipiñitako barrutia ezagutuago billakatzzen yatala, augaitik nire jarduna gero ta errazagoa birtuz. Ez neban zailtasun bereizirik nire eginkizunetan, eta "Zurdaki"ren aginduari jarraituz, ango jendearekin alkarriketa luzerik izan ez arren be, agiri zan danek txeratsu ninderabilela, dendariiek eta zeiko saltzailleek batez be. Aldiaren joanean, eleiz-ateetako eskaleek be nire agurrai erantzun oi eutsien, baita kalean joten eben ereslari gaixoek be. Olan ederretsia izateak benetako atsegiña ekarstan, nire egitekoa errazago biurtuz.

Nire buruaustea, baiña, "Zurdaki" zan. Gitxi gora-beera egunoroko ibillaldia neur-tuta neban, eta Enparantza Barri'ko ikasleak begikoak yatazala oartu zanean, onein jolasaldietan zaindari izatea beartu ninduan, eta goizeko edo arratsaldeko jardunaldia izanik, mutikoen atsedenaldua kuku egiteko agindu zorrotza emon eustan. Bera zan, benetan, niri kuku egiten eustana, eta enparantzaz zear batetik bestera niñoala, arkupeko arrizko zutoiñen artean isil-ostuka yabildan, bere jazarkuntza errukibakoari etenbarik emonda.

Len aipatu danez, mutikoak arkupetan jolastea debekatuta eben, andik ebiltzen oinkariiek oztoporik izan ez egien. Askotan, baiña, euria zanean batez be, ezinbestez arkupetan jolasten eben. Olakoetan, baiña, urrumaka ta zarataka urreratzen nintzakien, zutoin-arteke zabalunetan erabilezan zibak, bostarriak, xaflak, eta abar, garaiz ezkuta-tu egiezan.

"Zurdaki"ren nirekiko jazarkundeaz oartu izan zan Martin, bein baten,

– Arduraz ibilli, Txomin –esan eustan–, gure amarkariak begitan artu zaitu-ta. Or-tik txutxumuka dabil, urizain kaxkarra zareala esanez, eta badakiala mutikoak oso bi-gun artzen dozuzala, eta aal izatekotan, eurokin jolasean jardungo zendukela.

Au entzutean, barreari emon neutsan, eta gero,

– "Zurdaki" ez da igarle makala ori diñoanean. Ez dakizu zein pozik eurokin jolasean asiko nintzaken, nire umetaroko olgetak gogoratzean. Edozelan be, Martin, egunoro esaten daust gure amarkariak, urizain izateko ez nazala jaio, baiña entzunaren-entzunez niri bost ardura.

– Zer jazoko be, ibilli arduraz –eta gero irribarreka jarraitu eban–. Urizaindegiko autsa astintzen ez zaitut ikusi gura.

Barre egin genduan biok. Izan be, lege andia neutsan Martiñ'eri, adiskide ona izanez gaiñera, baserriko jatorrikoa izanik, euskeraz egiten genduan beti.

Goiz euritsu baten, ikastetxeko atsedenaldua izanik, enparantzaren arkupetan oiko

zaintzeari emonez andikorik ortikora niñola, alako baten uso-arrautzaren kaizukoa zan altzairuzko bostarri eder bat txirindolaka etorkidala, oiñetako baten jo egin ninduan. Makurtu nintzan, eta lege-auspeneren gaia baituta, sakelera sartu neban ibiltetari jarraitzen neutsala. Bapatean, prakana teinkada bat oartu, eta begikadea beeratuz, sei bat urteko mutiko baten aurpegi negartsua nigana zuzenduta ikusi neban, mintzo erabetiz auxe iñostala:

– Jauna, Jauna, ez daustazu atzera emongo nire altzairuzko bostarri andia...?

– Ez al-dakizu, arkupe onetan jolastea galazota danik...? Amaika bidar esan dautsuegun gauza da.

– Begira, Jauna, ez neban jolasean jarduten, ibilli bitartean sakeleko zulo batetik iges egin daust...

– Ez dakit ba, benetan diñostazun-ala...

Mutikoak orduan, negar baten sakeleko zulo andia erakutsi, eta barriro be arrenkatu eustan,

– Jauna, emoidazu atzera... nire jaiotegunean aitak emonikoa da-ta..

Ezin nengikean mutikoaren negarra luzaroagorik jasan, eta bostarria atarata, atzera emon neutsan auxe itaunduz,

– Zein da zure izena...?

– Patxo.

– Ederto, Patxo, gorde egizu urte askotan.

Ez dot egundo be aztu egingo mutikoaren irribarre dizdiratsua, bostarria artuta auxe iñostanean:

– Eskerrik asko...!

Eta arin baten oinkarien artetik pozez ikotika ostendu zan. Une aretan bertan, norbaitek sorbalda ukutu eustan, eta “Zurdaki”ren mintzo garratza aditu neban auxe iñostanean:

– Neure begiokaz ikusi ez ba’neu, guzurra izan dala uste izango neuke.

Isildu zan une batez, eta gero,

– Ikastetxeko mutikoai galazotako jolasak zeuk ez-ikusi egiñez gaiñera, arein jostaillu baten baitura eginda gero, lege-ausleari atzera emoten dautsazu, berak eginda-koak zure onespina merezi bai’leuan.

– Barkatu, amarkari Jauna, baiña mutikoak ez ziarduan jolasten, bostarria sakeleko zulo batetik irazi egin yako. Orra or dana.

– Ez niri ipuin ori iruntsi-erazo gura, sakeleko zuloa dala ta ez dala. Ikusi zinduzanetik zelakoa zarean oartu nintzan, eta nire buruari zin egin neutsan, zuga uste onik ez ipintea. Ez zara duin uri gain-gaiñeko onen janzkia eroateko, eta bein betiko, gure arauk merezi daben begirunea izan dagiezun, gaur bertan, gure jardunaldia amaituta, ertzainburuaren aurrean dagokizun salakuntzea egingo dot.

“Zurdaki”k esandakoari jarki nintzakion, baiña dana alperrik; jas arranditsuz atzea emon eustan, beste iñora abiatzen zala, uri gain-gaiñekoaren legeak iñork ausi ez egiazan, eta austekotan, zuzentza utseziñaren arauz zigortzeko.

Eguberdi beranduan ertzaindegira eldu gintzazanean, etxera biurtu aurretik, amarkariak ertzainburuagana eroan ninduan, eta baimena eskatuta sartu gintzazan. Idazgela garbi ta txukuna zan, eta sartu ondoren aulki bana eskiñi euskun. Jarraian, “Zurdaki”k nire aurkako salakuntzea aletu eban, barkatutako mutikoa denganiño biurri ta zitaltzat aipatuz, eta ni udal gain-gaiñekoaren ardi baltza bai’nintzan, gizadia babestearren jarritako lege guztiak austeko gerturik. Amarkariak edesteari emon bitartean, ertzainburuaren aurpegian argi ikusi zeitekezan aspertzearen aztarnak, aboa eskuaz estaltzen ebala, arrausiak ezkutatzearren. Salatariak edeskia amaitu ebanean, une batez isillik iraun eban ertzainburuak. Berrogeitsu urteko aurpegi atsegiñeko gizon garai ta ante onekoa zan, eta aurpegiaren karantzaz agiri zan niretzat, “Zurdaki” kokoloaren salakuntzeari ez eutsala ardura andirik emoten.

Isilluneari eten egiñez, eta niri mintzatuz, berak,

– Orain, Txomin, emoidazu zure ikuspegia.

Asi nintzan ba, jazotakoaren barri emoten, eta aurrera joan-ala, baneritxon ertzainburuak begi argia egiten eustala. Edeskia amaitu nebanean, auxe esan eban:

– Egia esateko, urizain onen obena ezin dagiket anditzat artu, eta augaitik ez dot uste salakuntzeak idatzia izatea merezi dauanik. Edozelan be, jazokizun au epaitzeko gai ez nazan ezkerro, naiago dot, zerorrek, Jaun amarkariak, zigorra erabagi dagizula ariña izatekotan. Zatoz biar neugana, eta urizain oneri zelako zigorra emon erabagiko dogu. Biar arte, beraz.

Onen ostean etxera biurtu nintzan, eta bazkaldu bitartean osaba-izekoai jazotakoaren barri emon neutsen. Beste amarkari baten agindupean jarri nindegiela onena litzakela, esan eustan osabak, baiña damu gatxez, ori ez egoan nire aalmenean.

Urrengo egunean, barrutiz aldatuko litzakidala jakiñerazo eustan “Zurdaki”k, eta arratsaldeko jardunaldia gabeko amarrak arte, “Igela” izeneko auzoan izango neukela. Dalako auzoan uriburuko gau-jolasak kokatzen ziran, eta egunez naikoa aspergarria ba’zan, gabaz, zarata, eztabaida ta astrapalakaz beteten zan, lizun-antzokietan emoten ziran agerraldiak eta edariakaitik. Zorionez, gautzaiñek ordeztuta, gure jardunaldia amarretan amaitzen zan. Auzo onetan jardungo neuke ba aste oso batez, “Zurdaki”k iñoanez zentzutu neinten, eta esanekoa izaten ikasi nengian.

“Igela” auzoko jardunaldia aspergarria yatan, lengoaz erkatuta batez be. Emengo uritarrek egunez lo egiten eben, eta gabaz arratoiak lez urtenda, uriko leku guztietatik etorritakoekin, biziera zaratsuari emotsoen, emagalduen dantza zantarrek eta ardoak sututa, azken baten geienak areitariko urdanga baten besoetan amaitzeko. Olan ba, auzo onetan jarduten asi nintzan arrastiko orduetan, andikorik ortikora niñola, eta auzo aretako bereiztasunakaz nire zaintza-lagunak jakitun ipinten ninduala. Arratsaldeko bederatzietan erdipurdiko antzokitxuak edegiten ziran, eta amarretan “Igela” auzoa keiñu-argiakaz eta ikerleen joan-etorriakaz piztuten asten zan, zuloen antzeko areitatik irazten ziran soiñutxu motelakaz kaleak irakiten.

Aste aretako arratsalde aspergarriak alkarri erraikiela igaro ziran, baiña Larunbatean gu ordezteko etorteko ziran gau-zaiñak, “Igela” auzora bidean, lapur bikote

bateri jazartu bear izan eutsoen, eta biurtu arte, gure zaintzaldiari jarraitzeko agindu euskun amarkariak. Nire laguna ta biok argizko iragarki keiñularien artetik giñoazala, arek,

– Aizu, Txomin –esan eustan–, ezagutzen dozuz orko antzokitxuak...

– Ez, ez naz iñoiz sartu.

– Ara ba, lagun, sartu gaitezen argi-keiñuka yabilkun “Saguzaarra” izeneko zulo orretara.

Ezpaitsu, ez nintzan azartzen barrura, baiña berak nire besoari oratuta barrura eragin ninduan. Keiñu-argi gorri ta orlegiakaz erdiz argituriko areto txiki baten mai batzuen inguruan, emakumeek lagundutako gizon batzuk edaten eta barre-santzoka ziar-duen. Kebedarraren usain eta edari bizien lurriñek inguratuta, geienak itsastarrak begitandu yatazan. Sartu gura ez neban ezker, atean geratu nintzan, eta praktaxu laburraz jantziriko papar zabaleko neska batek:

– Pasa guapo –esan eustan–, no te quedas ahí como pasmao.

Sartu nintzan, eta aretoko txoko baten nire laguna ta biok zutunik geratu gintzazan, “Cascabelito”ren abesti batek lagundutako soin-biurketak begiztatuz. Dalako “Cascabelito” gazte samarra zan, eta margoturiko aurpegiak dizdir egiten eban sabaitiko argipean. Polita emoten eban, eta malgutasunez beteriko soin liraiñaren iztar eta besoak, etenbarik astintzen ebazan, aizerrota baten egalak bai’litzazan. Ango ikusleek txaloka ta orruka neskearen antze gorena ederresten eben adorez sututa, “Cascabelito”, “Cascabelito”...! oiukatuz. Antxe geratu nintzan une batez neska aren biurketak begiztatzen nebazala, baiña bere antze bikaiña ulertzeko gai ez izanik, eta kebedarrak eta ikusleen oiuek nazkatuta, kalera isil-ostuka urtenda, lekorean lagunari itxaron neutsan. Andik laster alkartu yatan, eta kalean beera zaintzeari jarraitu geutsan.

– Ta, zer deritxazu...? –itaundu eustan lagunak–.

– Zaratatsu, sundatsu, eta aspergarria. Baleiteke ni kaiku atzeratua izatea, baiña neska orren ikoti, keiñu, eta didarrek ez nabe erakarri, aitzitik, erruki izan dautsat.

– Ori norberaren ikuspegiari datza. Batzuentzat jarki-eziña dana, bestetzuentzat aspergarria. Edozelan be, Txomin, mutil apartekotzat zaitut, au da, geienak ez lako.

– Eta zuri zer iruditu yatzu, lagun...? –itaundu neutsan–.

– Alan-olan. Egia esateko autortu bear dautsut, ez deritxadala gain-gaiñeko ikuskizuna. Naiago dot erestaldi bikain bat gozatzea, erdipurdiko abesti ganorabakuok entzutea baiño.

– Orduan, zeu be kaiku atzeratua zaitut...?

Barre egin genduan, eta gero berak,

– Benetan esateko, adiskide, ikuskizun orreik ez nabe beteten. Griña txarren atzetik utsa ta gogaitaldiak datoz.

– Orixe bera esan oi eustan aititak. Griñai leku emoten dautsena, benetako jopu zorigaiztokoa biurtzen da. Norberaren nagusia izateak zoriona dakar baita benetako askatasuna be.

Edu onetan giarduala, andik ez urrutiko lekaimetxe bateko joaleek amaikak jo

ebezan, “Saguzaarra”ren aurretik barriro be igaroten gitzazanean. Ozta-ozta gure atzetik geratzen zanean, astrapala ikaragarria aditu genduan, eta arin baten bertararuta, itsastar-talde batek inguratuta, aiñen eta biraoen artean, lagun bik “Cascabelito”ren beso banari oratuta, andik ez dakit nora eroan gura eben. Neska gaixoa didar baten jarkiten yaken, sorosi-eske “Saguzaarra”ren morroi dei egiñez. Laster azaldu ziran ango morroi bi, baiña itsastarrek ukabilka uxatu ebezan.

– Goakiozan, Txomin –agindu eustan nire lagunak–.

Abotik eskura “Cascabelito”gana joanda, talde aretakoekin onezkoak egin gura izan genduzan. Alperrik, baiña, nork baretu talde aren amorrua ta oiua...? Luzaro sammar aalegindu gintzazan lagun eta biok, gauzak euren eiñera ekartearren, baiña eperdiraiño moskorak artutako talde a otzandu-eziña azaltzen zan, izuak artutako “Cascabelito”k etenbako karraxi bateri emotsala. Orduko, jakeko metalezko botoi bi erauzi izan eustezan erasotzailleek, eta nire txapel gorria ostendurik, zor nai lor burruka zentzunbakoari amaia emoteko garaia zala erabagi neban.

Begien itxi-edegi baten, taldeari eraso neutsan, eta udalzaingoa ikasitako “kate”a erabilliz, ots baten itsastarrak aizatu nebazan. Egia zor yakon begirunez esan bearrean naz, gizon areik uxatzea ez yatala zaila billakatu, ez gain-gaiñeko aukaria nintzalako, mozkorrak artutako aurka gaiñetik urtetea, oso erraza dalako, eta zer esanik ez, neuk lako aukalegeak ezagutzen ebanarentzat. Laster jareitu zan “Cascabelito” baitu egin ebenakandik, eta nire idunari besarkatuta, bein eta barriro eskerrak emostazan, aurpegia mosu-malkoakaz estaltzen eustala. Jarraian, nire besoari eutsita, “Saguzaarra”ra sartu gintzazan, eta andik laster, alboko gelatxu bateko apain-maitxu (tocador) baten aurrean, aurpegi ta janzkiaren ondapenak atonduz batean, etenbako eskerrak emostazan. Luzaro barik gizon bat sartu zan, ango arduraduna, antza, eta “Cascabelito”k jazorkoa edestu bitartean, noizbait, amarkariak lagunduta gau-zaindariak eldu ziran. Areiri itz laburrakaz jazotakoa edestu neutsen, eta orduan nire jarduna amaitutzat emonda, ertzaindegira biurtzeko agindu eustan amarkariak.

Urten aurretik, nire idunetik barriro eskegita, bere alde egiñeko eskertu eustan “Cascabelito”k, andik biurtu neinten eskatuz. Baietz esanez, nigandik uxatu neban, eta nire lagunakin ertzaindegira biurtzen nintzala, erakus-leio (escaparate) baten aurrean geldi-erazorik, lagunak auxe esan eustan:

– Aizu, Txomin, begiztatu zure aurpegia.

Ain zuzen be, “Cascabelito”ren mustur gorriek irarrita neban aurpegiak, itxura barregarria emostan. Kale-iturri baten aurpegia igurtzita, ertzaindegira biurtu gintzazan, eta andik laster etxean, osaba-izekoai jazorkoa edestu neutsen. Zorionez, egun aretan nire zaintzaldia “Igela” auzoan amaitu izan zan, eta urrengo astean, Alderdi Zaarreko auzoan oiko nire jardunari emongo neuskio.

Urrengo astean, lengo barrutira biurtu nintzan, eta “Zurdaki”ren kuku-egite arren, ez neban beste oztoporik izan. Iru bat egun igarorik, urizaindegira biurtzean, gizon batek ekarrirako eskutitz bat emon eusten. Estalkia urratuta, auxe irakurri neban:

“Txomin urizaiñari:

Millesker emon bear dautsudaz, lengo Larunbetean “Sagu-zaarra” aretoari ta guri egiñiko laguntzagaitik. Zeugaitik ze, txarto ikusiko eban bere burua gure “primadona” “Cascabelito” bardinbakoak. Augaitik, zuri eskertzeko, eta bidebatez, beste arazo garrantzitsu bat erabilteko, pozik artuko zindukeguz gau baten gure erti-aretoan.

Laster ikusiko zaitugulakoan, agurtzen zaitut adeitsu,

“Saguzaarra” erti-aretoaren arduradunak.”

Dalako arduradunaren izenpetzea irakurteziña izanez gaiñera, “Cascabelito” “primadona” ta bardinbakotzat goraltzea apur bat geiegitxu begitandu yatan, eta zer esanik ez, “Igela” auzoko zuloari “erti-aretoa” esatea. Baiña gero ta gero be, ango arduraduna ikertuz gauza andirik galduko ez neuken ezkerro, urrengo Barikuan alkarrikustea ospatzea erabagi neban.

Eguna elduta, abiatu nintzan ba, “Igela” auzuneko “Saguzaarra” erti-aretora, eta ango morroi bateri nire ikerpena arduradunari iragarteko esan neutsan. Andik laster, idaztegi txukun batera eroan ninduan, eta atea itxita, bakarrik geratu nintzan. Luzaro barik, albo-ate batetik arduraduna ta “Cascabelito” berbera azaldu ziran. Alkar agurtuta gero, besaulki eroso baten jesarteko niri aginduta, eurok beste ainbeste egin eben. Orduan arduradunak,

– Aizu, gazte –esan eustan–, lenengo ta bein, gure eskerrik beroenak lengo egunean gure alde egiñagaitik. Nik, beintzat, ez dot barbarik zure ekintzak merezi dauan beste goraltzeko...

– Ezta neuk be –begi zoragarriak nigana zuzenduta, eten egin eutsan “Cascabelito”k–. Egia esateko, ez dodaz egundo be ikusi zureak lako indar eta zangartasuna, ezta barriro be ikusiko. Izan be, gau aretako siñisteziña izan zan, zuk bakarrik beste guztien aurka egin zenduana. Zaldun bildurbakoa zazpi buruko erensugearen aurka...

Eta arritasuna itzez adierazoteko gai ez bai’litzan, isilduta, begi-ezpanakaz irribarre argitsua jaurti eustan “Saguzaarra”ren “primadona” dizdiratsuak. Une aretan, antza, goikaldeko istar-mamiñean ardi edo kukuso lotsabako batek kili-kilika asi yakon, eta alako azarkeri zigortzearen, gona jasota, leku debekatuan atz egin eban. Egia esateko, ez yatan argi azaldu, kukuso baten ziztadea ala “Cascabelito”ren trikimaillua ete zan, soin-barruti aren bikaintasuna agirian ipinteko. Edozelan be, ez dakit zelako uste izango eban aititak, “primadona”ren jokoa ikusi ba’leu, baiña aren aurpegiaren itxurea asmatzean, ezpanetara irribarre bat etorri yatan. Berarekiko erantzuntzat artzean, “Cascabelito”ren irribarreak are lilluragarriago dizdir egin eban, goratutako gona bere lengora biurtu aurretik. Nire buruari beste itaunik egin aal izan aurretik, arduradunaren mintzoa aditu zan ostera be, auxe iñostanean,

– Gure eskerrak adierazota gero, beste ziozaitik eratorri zaitugu, eta auxe alegia: gure erti-aretoa gizon sendo ta azkar baten bearrean aurkitzen da, oraingo morroiburua

ez dalako gauza. Augaitik ba, jardun ori eskintzen dautsugu atsegiñez, ontzat artuko dozulakoan. Zure betekizuna, aretoa bakean iraunerazotea izango litzake, eta orretarako zure menpekoak ustiatu, neurritz gaiñeko astrapalea sortu dagiana, bigunkeri barrik kalera jaurti ta kitto.

Isildu zan une batez, eta gero,

– Begira, gazte –jarraitu eban–, zure illeroko saria, onenbestekoa izango litzake.

Onen ostean eskiñi eustan diruketeak arritu ninduan, urizaintzat irabazten nebanaren bikotxa zan-eta. Ezetza emoteko zorian nintzala, baiña, berak auxe geitu eban:

– Ez daustazu erantzuna oraintxe bertan emon bear. Nai dozun beste astirik artu egizu erantzun baiño len. Nik ez dakit zenbat irabazten dozun orain, baiña nekez bardiñduko zenduke emen lortu zengikeanaz. Datorren astean morroi bat bialduko dautsut erantzunaren billa.

Gero, “Cascabelito”ri mintzatuz,

– Oain, lagundu Jaun oneri aretora etxeakoaren pentsuz zenbat gura jan-edan dagian. Agur, gazte, gogoan erabilli eskintzea, nire ustez obarik ez dozu aurkituko-ta.

Eskua alkarri emonda, andik alde egin neban, eta “Cascabelito”k besotik nindaroala, beean egoan aretora jatsi gintzazan. Goiz samar izanik, erdiz beterik egoan soilik, eta txokoratutako mai baten aurrean jesarri gintzazan. “Cascabelito”k edari batzuk agindu eutsazan urreratu yakun maitzaiñari, eta nik andik alde egiteko gogoa nekez menperatzen nebala, berak irribarre lilluragarriaz begiztatzen ninduala, mintzo gozoaz,

– Aizu, Txomin -itaundu eustan-, nire bizitzaren gora-beerak ezagutu gura izango zendukez...?

Ez neutsan erantzunik emon, eta orduan berak begikada errubakoa nigan josita,

– Ara... umetandik zoribakoa izan naz. Aitak edateari emotsan, eta amak nazkatuta, etxetik iges egin eban. Onen ondorioz, izeko batek etxean artu ninduan. Neskatilla izanik, auzoko mutil zintzo bataz maitemindu nintzan, baiña niretzat egokia ez zala atxakiaz, izekok uxatu eban, nire zorion-amesa ezerezturik. Ordutik, izeko ta biok ezin alkaturik bizi izan gintzazan, eta egoerea ezin luzaroagorik jasan, etxetik iges egin neban, eta gizonak ezagutu nebazan; guztitarikoak izan be, onak eta txarrak, baiña zitalak geien baten. Noizbait, areitariko batek abesteko ta dantzan egiteko benetako baldintzak nebazala uste izanik, antzokirako gertatu ninduan, eta noizbait, urrundik, uriburu onetara eldu nintzan, areto onetan neska nagusitzat jarduteko.

Isildu zan bera, eta nik be isillik nirauala ikusirik,

– Zer diñostazu, Txomin –nire eskua laztanduz itaundu eustan–, ez daustazu itz bat bera be esango...?

– Ez dakit adu txarrekoa izan ete zareanik, ala zure buruarekiko bigunegia. Badira bizitzak garratz erabilitakoak, baiña barruko indarrak bilduta, aduak eroandako kinka larritik urtetan aalegindu diranak. Nire aititak beti esan eroian oso erraza dala, gure bigunkeriaren ondoreak patu edo aduari eragozte. Zergaitik ez zenduan jardun zintzo garbia aukeratu, ainbat eta ainbat egiten daben lez...?

Soiñak jaso ebazan “Cascabelito”k, eta,

– Beranduegi niretzat. Jausi nazan zulotik ez dot urteterik, eta gaiñera ez dot urten gura. Jendeak ederresten nau, eta aberasteko bidetik noatzu. Esan, Txomin, ez zenduke nire gizona izan gura...?

Ez neutsan ulertu, eta,

– Zure gizona...? –tolesbako esan neutsan–.

– Begira, adiskide: neu lakoak gizon eder, sendo, zangar baten laguntza bear dogu, eta onen ordaiñez, gure maitasun eta dirua damotsaguz. Ez zenduke nire kuttuna izan gura...? Ziñez diñotsut ondo bizi izango zintzakezala, bai orixe...!

Txundituta geratu nintzan neskearen eskintza entzutean, eta une batez arazoa alde barregarritik artzea otu yatan, eta,

– Baiña “Cascabelito”, zer billakatuko da zure oraingo gizona...? –arrenkuratuarena egiñez itaundu neutsan–.

– Ez litzakizu zailla izango erditik kentzea.

Eta au esatean, keiñu adierakorraz oillasko bateri iduna biurrikatzen eutsalakoa egin eban. Arrituta aurkitzen nintzan, arazoa atontzeko neskeak erakusan nasaitasunaz, eta orain benatsu mintzatuz,

– Begira –esan neutsan–, ni ez naz jaio neska baten leptok bizi izateko, eta are gitxiago zeu baizen zoribakoa danean. Niretzat, duintasuna, zintzotasuna, eta garbitasuna oroz gaiñetiko altxorak dira. Gure bideak osterakoak dira, “Cascabelito”. Laga egizu daroazun bizikera ori, orretarako iñoiz ez da berandu-ta. Urten zaitez zulo onetatik, eta bizitza oraindiño ederra izan daitekela ezagutuko dozu...!

– Beranduegi, Txomin. Indarge aurkitzen naz nire igarotakoari uko egiteko. Lena-go ezagutu ba’zindust...!

Au esatean, eskuari oratu eustan, eta sakon begiratu ninduan, negar-anpuluen errezelaz betseiñak laiñotzen yakozala. Joateko ordua zala oartu nintzan, eta jagita,

– Agur “Cascabelito” –mintzo txeratsuz esan neutsan–, ordua da aldendu gaitzen, baiña gogoratu auxe: bizimodua besteratzeko beti aurkituko zareala mugonez.

Makurtu nintzan, eta aurpegia eskuen artean artuta, musu biguna jarri neutsan bekokian. Aurpegian beera malko bi eriozan, azal-apaiñaren artean ildo dizdiratsuak marraztuz. Gogor yatan, olan beste barik, alde egitea, eta mintzo amultsuz,

– Begira, “Cascabelito” –esan neutsan–, gau oro etxean apalostean, osaba-izekoe-kin agurtza edo errosarioa aletzen dot. Orreitariko ale bat zuretzat esango dot egunero, bearreko bake ta argia aurkitu dagizuzan...!

Eta argi aldakorrek etenbako zurrunbillotan dizdir gorri ta orlegiakaz aretoa irai-zean musukatzen ebela, neska zorigaiztokoa gogotik kendu eziñik, etxerako bidean lekoreko itzaletan murgildu nintzan.

Bere garaian “Sagu-zaarra”ren arduunaren morroia nire erantzunaren billa etorri zanean, zer esanik ez, nire ezetzaz biurtu zala.

Bajoiazan egunak ezer bereizirik jazoten ez zala. Aspaldi aretan, ikastetxeko mutikoek iñoizkorik benatsuen azaltzen ziran, auzoko erabilte onerako jarritako arauai begirune andia eutsiela. Augaitik ba, “Zurdaki”ren aurpegi uletsua nigandik urrun samar ikusten neban. Enparantzako ikasleek ni adiskidetzat ikusten oitu izan ziran, eta nire jokabide txeratsuari, ibilte gizontsuz ordaintzen eutsoen. Onek asti luzeago lagaten eustan auzoko beste zatiak obeto zaintzeko.

Bein baten, “Kapelategi” kaletik bazterrak zaintzen niarduala, bapatean, gero ta lodiago biurten zan gizatalde batetik, oi u batzuk aditu nebazan. Arin baten urreraturik, jakin-gura batzuen erdian, emakume bat lurtean erdi-etzanda ikusi neban, txonkatillea eskuen artean, aieneka etenbakoari emotsala. Ango “non-ze-barri” hatek berba ugariakaz bein eta barrero iñoan, espaloitik jaistean txonkatillea biurkatu egin yakola, eta gero lurrera jausi. Irurogei bat urteko zan emakumea aurpegia zurbilduta izan arren be, karantzaz euskaldun jatorra zala agiri zan. Kinka orreitan oikoa dana, ikusle bako- txak bere osakai utseziña esondatzen eban. Batzuen eritxiz, kafetegi batetik larranbilloa ekarte egokiena litzake; bestetzuk, ostera, lokiak zapi batez estutzea, eta baziran be, aurpegia aizatzea biderik onena zala iñoenak.

Agiri zan niretzat, zaurituak min andia jasaten ebela, aurpegia errauskara biurtez gaiñera, bere aienekak gero ta min geiago adierazoten ebela. Laster oartu nintzan, zirt edo zart zeozer egiteko zala, eta bigarrenez oldoztu barik ardurarik andienaz beso- etan artu neban, eta astirik galtzeke, kale bi gorago egoan sorostetxera, (Casa de Socorro) urrats ariñez abiatu nintzan. Izan be, zamea ez yatan neketsurik azaldu, emakumea argalaren-argalez oso arin egoalako. Besoakaz lepota inguratu eustan berak, eta kalean gora giñoazala, mintzo dardartsuz,

– Aizu, txinel –itaundu eustan–, nora narozazu...?

– Sorostetxera, angosagilleak aztertu zagian.

– Nire miña dan andia...! Kalea zearkatu gura izan dot, eta bapatean zorabio batek jota, blindi-blaust...! lurrera jausi egin naz. Ai ene bada... nireak egin dau...!

Atsoa adoretzen saiatu nintzan, bere zauriari garrantzia kendurik. Atan-orretan, sorostetxera eldu gintzazan, eta bereala esku-oe baten gaiñean ipiñita osagilleagana eroan eben azertua izatearren. Onen bitartean, angos arduradun bateri oiko txostena beteten lagundu neutsan, jazotakoa idatziz iraun egian. Amaitzean, une batez an geratzea

erabagi neban, atsoarena zer zan jakiteko. Luzaro barik, atsoa ekarri eben eri-berebil batera sartzeko, eta nire ondotik igarotean,

– Eskerrik asko, txinel –esan eustan adoretu–, nire alde egiñagaitik. Orain erri-geisotegira naroe antxe osatu naiten. Ez zaiataz ikustera etorriko, gazte...?

Atsoaren begietan laguntza-miñaren antzekoa zan zerbait igarri neban, uri andietan ain sarri billakutzen diran areitariko bat zalakoan, eta biotzetik abora,

– Bai, Andrea –esan neutsan–, joango naiatzu, baita pozik be. Esan, zein da zure izena...?

– Laure.

– Ederto Laure. Luzaro barik joango naz, orren aurretik osatutzat emonda, etxera bialtzen ez ba'zaitue.

Eri-berebillera sartu-agiñean zala, eskuari oratu eustan, auxe iñostala:

– Mutil on eta begikotzat zaukat, eta gaiñera euskaldun utsa. Ezin dagikezu asma-tu artu dodan poza euskeraz egin daustazunean... Ain luzaro gure euskera ederra entzun barik...! Etorriko zaiataz, ezta...?

– Bai, Laure, atsegin andiz joango naiatzu.

Erri-geisotegira abiatu zanean, osagilleagana joanda, Laure'ri buruz itaundu neutsan, eta berak,

– Ez da gauza larria –argitu eustan–. Txonkatillea lokatu edo trukatu egin yako, baiña orain, bere lengora biurtu ta lotuta, ez dau miñik jasango. Txarrena, aztal-azur-rean agertu yakon arrakala da. Edozelan be, beste korapillorik ez ba'da sortzen, iru astebete igarorik, etxera bialduko dabe. Argala izanik, au alde andia da bere eifera laster biurtzeko.

Andik iru bat egunera, goizeko jardunaldia amaituta, arratsaldean Laure ikertzea erabagirik, erri-geisotegira bidez gozoki batzuk erosi nebazan. Laure izena oikoa ez dan ezker, laster artu nebazan bearreko argibideak, eta areto luze bateko oe-erreskad-dan billatzen nebanean, oe batetik,

– Txinel, txinel –dei egin eustan mintzo batek–, ez nozu ezagutzen...?

Laure zan, eta urreratzean, besarkada maitekorraz abetaldu ninduan. Nenarkio-zan gozakiak ikustean, aren pozean txaloka asi zan ume baten antzera, auxe iñostala:

– Urtebetea-edo izango da, olako milikeriak txastau ez dodazala. Karu izango dira oneik, ezta...?

– Alan-olan, ez larregi, baiña.

Eta gero irribarrez,

– Ez zaitetz larritu, Laure, augaitik ez dot erre kara joko-ta.

– Baiña zein izeneko zaitut, gazte...? Ez deritxat ondo zuri txinel esateari, arrotz emoten dau-ta, maite izaten dan bateri esateko batez be.

– Txomin dot izena.

– Izen polit eta erraza. Baiña jesarri zaitetz gor nago-ta. Pozik entzungo neukez zure gora-beerak, Txomin. Nongoa zara...?

– Goinzkoa nozu, Laure, eta ona emen nire zertzeladak.

Jarraian, nire gora-beerak edestu neutsazan, eta luzeak izango ziralakoan, labur izaten aalegindu banintzan be, ikerraldia amaitu zaneko, ozta-ozta edeskia amaitu aal izan neban.

Joateko jagi nintzanean, Laure'ri auxe esan neutsan:

– Orain ezagutzen dozuz nire gora-beerak. Urrengoan, zeureak jakitea gura izango neuke.

– Biurtuko zara, Txomin...?

– Bai benetan.

– Baiña ez egistazu ekarri gozakirik, karuak dira-ta.

Besarkada bat az agurtu genduan.

Urrengo astean, ikertzera joan nintzakion barriro be, eta len lez gozaki batzuk eroan neutsazan; oneik ikustean akar egin eustan olako “milikerietan” dirua eralgitearren, baiña agiri zan begi argia egiten eutsela.

Laure'ren edeskia iru ekitaldikoa azaldu zan, eta egun aretan lenengoa aletu eban. Ona emen, esan eustana:

– Jakin bear dozu, Txomin, arratiarra nazala, eta gurean seme-alaba asko izanik, amazortzi urteko nintzanean, neskametzat lan egiteko, gurasoek baseritik uriburura bialdu ninduen. Emen, arratiar emakume batek, bitartekoa zana, etxe aberats, apain batek neskame gaztea bear ebala-ta, ara igorri ninduan. Etxe aretan iru neskame gengo-zan: Eustakie, otseinburua zana, Keltse, sukaldariñea, eta nerau. Otseintza-maillan az-kena izanik, ni agintzeko danek eben eskubidea. Ugazabak, onak eta adeitsuak ziran, lau seme-alaba izanik.

“Nire jarduna, gelak atontzea zan, etxea burutik buztanera isastu, autsak kendu, azpi-oialak sapailotik astindu, maian otseindu, eta bazkalostean, janzkiak-eta adabatu, miesak birjosi, eta onen ostean, kanpotik ekarritako bogadea burdin-lisatzea. Bazan etxe aretan zeri begira, eta ganbarako nire oean etzanda jarri baiño ez, ots baten lo egiten neban urrengo goizeko zazpirak arte. Eustakie'k iñoanez, nagitasuna oso kaltegarria dan ezker, ziltza pekataritan jausi ez neinten, ziriñaren antzera ninderabillan goizetik gaberrate. Eta bere atzaparretatik jaregiten nintzanean, Keltse'k, sukaldariñeak, ontziteria garbitzen lagundu nengion dei egiten eustan.

“Etxe aretan ez nintzan oben-ziltzatan jausi, bai zera...! Jaiegunetan, etxeko lanak amaituta, arrasti-erdian kaleetan zear egurastuteko eskubide bete neban, jakiña, bederatzia jo barik etxeratzekotan. Ez eusten dirurik emoten, otsein-sari osoa nire gura-soentzat zalako, eta besterik ezean, neu lako beste neskameekin kalean gora ta beera genbiltzen, eta eguraldi txarra zanean, arkupetatik egurasten gintzazan, bide batez den-datako erakus-leioak begitatzuz.

“Ugazabandrea naiko alper izanik, eguneroko janari-erosketea, Keltse'k, sukaldariñeak egiten eban. Bein baten, baiña, sukaldeko lanak atzeratzen zirala-ta, dalako jarduna neronek bete nengian agindu eustan ugazabandreak. Arazoa ondo menperatu arte, astebete batez Keltse'ri lagunduko neuskio, eta epea igarota, egunoroko janari-erosketea nire kasa egiten asiko nintzake.

“Laster menperatu neban eginkizuna, eta Keltse’k berak baizen ondo ta arin egiten jaritsi neban. Erosketea egitetik lenengoz biurtu nintzanean, Eustake’k banazean artu ninduan, eta,

“– Aizu, Laure –esan eustan–, non dozu atzimurkadea...?”

“– Ze atzimurkadea ta atzimurkada-oste...?”

“– Ez dakizu, ez dauzu ezer esan Kaltse’k...?”

“– Niri ez –xalo-xalo erantzun neutsan–.

“– Ara... etxe onetan, aspaldiko oiturea da, eroste-diruari ogerleko bi kentzea. Oneri atzimurkadea esaten yako. Ogerleko biotatik, otseinburua nazan aldetik, bat niri dagokit, eta bestea zeuri.

“– Baiña –arrituta erantzun neutsan–, ez ete da ori ostu egitea...?”

“– Begira, Laure, etxe onetan, jarraituz eta ekanduz dalako atzimurkadea egiten da, eta oituraz egiten dana lege biurtzen da. Eta legea dana ez da iñongo pekaturik

“– Ez dakit ba, baiña lege ta guzti orreri pekatu-usaiña dario.

“– Entzuidazu auxe ondo, Laure –esan eustan berak–, gure gizartean, dalako atzimurkadea lanaren-lanez jaritsitako eskubidetzat artzen da, eta eskubidea danari ez dario ezetariko pekatoren usaiña. Entzun dozu...?”

“– Entzun bai, entzun dot, baiña zergaitik ez dauskue emoten illeko saritzat, olako errebeskeriak asmatu barik...?”

“– Nik al dakit...! edozelan be, gizarteak ontzat emon dauana ezin dagikegu ez-baian ipiñi, lelokeri utsa izango litzake-ta. Augaitik, beraz, otseinburutzat niri egunoro ogerleko bat dagokit, eta zuri beste ainbeste.

“Arazoa ez neban argi ikusten, baiña garai aretan oar-ikaste gitxikoa izanik, Eustake’reñ azalpena ontzat emon neban, eta astebete bakotxean sei ogerleko nire lapikorako. Aldiaren bidean, Erri-kutxan aurrezki-kontu bat edegi neban.

“Aspaldi luze batez, gauzak gora-beera andi barik igaro ziran, baiña zekenkeriak zorroa ler egiten ei’dau, eta egunoroko ogerlekoa gitxi-etsirik, antza, arratsalde baten burdin-lisatzen niarduala, Eustake’k,

“– Aizu, Laure –bestela-baitakoan esan eustan–, biartik asita, eroste-saskitik egunoro ogerleko bi emongo daustazuz.

“– Gizarte-lege biurtu ete da ori...? –zirtolari esan neutsan–.

“Pipertu egin zan otseinburua, eta asarre-gorrituta,

“– Zuk egingo dozu etxe onetan nik agindu dagitsudana, bestelan, ospa...!”

“– Begira, Eustake –esan neutsan irmo-irmo–, egunoroko eroste-zerga ori, gero ta itsusiago derist, eta zeuk zillegia dala esan arren be, ori ezin dagiket iruntsi, eta ugazabandreak berak orretarako baimena ez emotekotan, gaurdanik atzimurkadea amaitutzat joten dot.

“Esan ba’neutsan, esan neutsan...! Asarre gorripean jagi, eta begiai txinpartak eriezala urreratu yatan, eta didar baten, furrustada auxe jaurti eustan:

– Biar, etxe onetatik joango zara bein betirako, txatxala, ganorabako, txolin ori...! Oraintxe bertan jaurtiko zindukedaz, baiña gogan arturik aldagarri asko dogula burdin-

lisatzeko, arratsalde osoa lanean emongo dozu, eta biar lenengo orduan, esku-artekoak artuta, etxe onetatik alde egingo dozu, txatxala, besteren txatxala...!

“Eustake, ogei ta amabost urteko emakume mardo, gordiña zan, bere adiñerako ante onean egoana, eta gizon batekin arremonetan ei’ebillen eskontzeko asmoz. Larunbat izanik, biaramonean, Igande-arratsaldean soingaiñeko ederraz apainduta, bere se-nargaiarekin urtengo litzake, oiko egurastu ta askaria izateko. Eta alako baten, erremuskada bizipean aldagarri-mendi bat burdin-lisatzen nebala, burutapen uxa-eziña etorri yatan... Bai, otseinburu pirri arek merezitakoa artuko leuke...

“Izara-pilloaren azpian, azken gaitzat, Eustake’reñ soingaiñeko eder, biguna, bere txandearen begira zetzan, eta ziltzeari jarki eziñik, aduaren esku ikusgatxa izatea erabagi neban. Izarak-eta amaitu ziranean, lisa-burdiñari beren-beregiko gori-aldia emon neutsan, eta soingaiñeko eperdi-aldean ipiñita, gardostu arte zapaldu neban. Jarraian, Eustake’reñ arasan eskegi, eta etxe aretan iraungo neban azken orduak emon nebazan, aurretiatz txastatuz biaramonean Eustake’k eskiñiko leuken itxurea, kale nagusian zear bere ezkongaiarekin egurastuz, soingaiñeko eperdi-aldean lisa-burdiñaren irudia irarritu.

“Urrengo egunean, etxe aretatik alde egin neban, eta naikoa diru aurreztuta izanik, ostatu-etxe baten kokatu nintzan, zer etorriko litzakidanaren begira”.

Onaiño izan zan Laure’k bigarren ikerraldian edestu eustana, eta urrengo asterarte agurtuta, etxera biurtu nintzan. Urrengoan ikertzera joan nintzakionean, oiko agurrak alkarri esanda, eta gozakiak eskuratuta,

– Aizu, Laure –esan neutsan–, zer gertatu yatzun, etxe aretako neskametzari uko egin zeutsanean...?

“– Ara... aspaldi batez “zeri nakio” iraun ondoren, egunkarietako lan-eskintzak egunero irakurrita, noizbait, denda bateko ogipeko jarduna idoro neban, uri onetako Alderdi Zaarrean. Dalako dendan, euritakoak, egurastu-makillak, eta esku-zorroak saltzen ziran. Jaubea On Justiño zan, baiña oso estimetxa izanik, On Milika esaten eutsoen. Ondo jantziten zan, eta egunoro paparrekoa aldatzen eban, aztu egin barik diamantedun zear-orratza. Aren jake ta prakak ez eben orbanik txikiena be erakusten, eta burutik beatzetaraiño garbitasunaren erdua zan. Bela baizen baltzak ebazan billoak itsasgai dizdiratsuz igurtzita ikusten yakozan, eta bere irudi itzalgarriari auntz-ostoa-ren usaiña erion.

“Pozik asi nintzan lanean denda aretan, baiña egunak igaro-ala, lengo adorea pot egiten asi yatan. Nire burua saltzaillerik onenatarikoa neban, baiña On Milika’k ez eustan orretarako aukerarik emoten, eta len etxe baten neskametzat jarduten ba’neban, orain denda baten bardin. Nire egitekoa auxe zan: dendea, apalak, erakus-maia, sorua, eta leiarrak aalik garbien iraun-erazotea. Onezaz gaiñera, euritakoai egunoro autsa kendu, makillak zapi batatz igurtzi, eta kaleko espaloi-unea isastu. Eta ori dana gitxi bai’litzan, sarri askotan, etxerik-etxe joan, saldutako gaiak eskuratzeko. Maiz, nire buruari niñotsan, munduko saltzaillerik onenatariko bat alperrik galtzen zala, baiña On Milika’k ez eustan iñongo aukerarik emoten, eta noz edo noz ori aipatzen neu-

tsanean, burutik joanda bai'nintzan, arritutako itxuraz begiztatzen ninduan auxe iños-tala:

“– Saltzaille ona izateko, jaio egin bear da, eta milloitik, bat soillik urteten gara. Begira, Laure, ez zaitez aalegindu zuretzat ezina dana lortzeko, eta onartu egizu emon izan yatzun abagunea denda on bateko otseina izateko.

“Asiera baten zailla billakatu yatan nire ames orreri uko egitea, baiña besterik ezean, egokidan patu illunaz etsi bear izan neban. Beste neska batekin oe biko gela bat akuratu izanik, egiñagaz polito bizi izaten nintzan, aurrezkiak egiteraiño, izan be. Baiña olan eta guzti be, lur-jota aurkitzen nintzan.

“Goizoro, zaramalaria bere gurdiaekin igaro oi zan, bildutako zamea gurdia sartzeko. Etorrerea iragartzeko, kirimatraka andia erabilen, Zaramalaria, zaramalaria..j” didar baten aldarrika. Orduan, etxe guztietatik, neskameek edo etxeoandreek ondakin-kutxak zaramalariari emotsoezan, gurdian ustu egiazan.

“Gure dendak, baiña, bereiztasun auxe eban: irolik ez izatea. Baeban denda-oste zabala, baiña bere garaian etxegilleari ez yakon bururatu dalako irola egitea, eta orain arazoak ez eban atontzerik. Niretzat ez zan oztopo andirik, alboko denda bateko nagusiak ustaldiak egiteko baimena emon eustalako. Baiña On Milika'rentzat, arazoak alde garaiteziña eskintzen eban, eta auxe alegia: bera lako gizon dotore, apain, garrantzitsuak, ezin egikeazan bere larrialdiak agirian ipiñi, iñoren denda baten sar-urtenak egiñez, ogipekoen irriño maltzurak jasateko. Baiña milloitik bat bere doaiatz jaiotako batentzat, berez doa, korapilloa askatzeko laster gai izan zala, eta ona emen zelan:

“Ustuketea isurkoia ba'zan, latontzi baten egin, eta gero konketan beera ustu, eta kitto. Ustuketa lodiak, baiña, beste urtenbide bat eskatzen eban, eta On Milika'ren adimen urtenak, korapilloa laster garbitu eban. Denda-osteko txoko baten metatutako kutxa batzuen atzetik, paper baten gaiñean egin, eta gero ondo bilduta, zaramalariaren igaroteari itxaron.

“Goizoro, onen kirimatrakea aditzen zanean, eskuan bildukia ekarrela, dendako atean On Milika azaltzen zan, eta bat, bi, iru...! aidean zear jaurtita, kirolari bikain baten aparari dagokionez, igorki egoduna txairo ta ziur gurdi-barruan kokatzen zan. Izan be, ikusgarria zan dendariaren antze gorena bere jaurtiketea egitean. Bazirudian antxiñako grezitar kirolaria azta edo pisu-jaurtiketan.

“Ugariak ziran On Milika'ren ate-agerpenak, eta onek ez leuke iñor arrituko, aurrez-aurre egoan dendariña ezagutu ba'leu. Bai. Justiñe, izarak saltzen ebazan emakume maratz, ederra, eta begikoa. Alderdi zaarreko dendariña ospetsua zan, bai edertasun eta begikotasunaren aldetik, baita askoen aburuz bere dirutxuak ebazalako be. Baiña benetan esan bearrean naz, txakur txiki bat bera be izan ez ba'leu, Justiñe'k gizonen adikunea erakarten ebanetarikoa izango litzakela. Ez zan, beraz, arritzeko, beratzak maitemindu zeiten On Milika, eta bezeroek lagaten ebenean, atean jarrita, kolkotik asperen sakonak urteten yakozala, aurrez-aurreko dendariñeari begikada sutxuak jaurti egitsazan.

“Bein baten, baiña, siñisteziña zirudiana jazo zan. Goiz aretan, oi baiño gosari mamintsuagoa papar-lepo bitartera sartuko eban, edo-ta Justiñe'gananko maitasun sutxuak bere beso kirolkoari ezusteko-indarra eragin ete eutsan, baiña zana-zala, auxe gertatu zan: On Milika'ren bildukiak zarama-gurdiaren gaiñetik egin eban, eta bestaldeko Justiñe'ren erakus-leioan, plautada motelaz ler egin eban, leierra goitik-beera barruko gaiatz zipriztinduz. Gorpu baizen zurbilla, On Milika'k eskuak burura eroan ebazan zer egin ez ekiala. Laster, baiña, milloiaeren artetik berari bakarrik egokion adimen zorrotzaz, urtenbidea idoro eban. Dei egin eustan, eta Justiñe'ren zikindutako leierra niri erakutsirik, auxe agindu eustan:

“– Zoaz arin baten Justiñe Andreagana, eta esaiozu erakus-leioarena barkatu dautsula. Zure “ori” jaurtitean apararik ez, eta benetan damu dozula egiñikoa. Onen ostean, suil bete ur eta belakiaz, lorrindutako leierra garbituko dozu, eta bere lengora biurtuta, “Zoragarri” okoretzean (pasteldegian) gozoki-kutxa ta lore-txorta bat erosita, nire alde eskuratuko dautsazuz, barriro be barkapena eskatuta gero.

“Ezin nengikean siñistu On Milika'k agintzen eustana, eta une batez zur eta lur eginda mintzo barik geratu nintzan. Gero, nire eiñera biurturik, asarre bizian auxe esan neutsan:

“– Ez orixe, Jauna...! Zure menpekoa izateak ez dautsu eskubiderik emoten ni jopu baten antzera erabilteko. Dalako “ori” zeure jabetasuna da, eta kale guztian badakie egunoroko bildukiaren jaurtilaria nor dan. Zeuri dagokizu, beraz, barkapena eskatzea, “ori” garbitzea, eta gozokiak-eta Andra orreri eroatea, eta gaurkoak emen jarraitzeko gogoak kendu egin daustazan ezkerro, asi zaitez, Jauna, euritakoai autsa kentzeko beste bat billatzen, ni neu okotzeraiño nago-ta.

“Eta au esanik, nire lan-txabuxa kenduta, mai gaiñera jaurti, eta andik anka egin neban bein betirako”.

Laure'k edeskia amaitu ebanean, arkuak austeraiñoako barre egin genduan. Andik laster, ikerraldia aituta, alkar agurtu ondoren, berak,

– Urrengo baten –esan eustan-, orren ostean jazo yatana esango dautsut, Jaungoikoak lagun. Agur, Txomin.

– Datorren asterate, Laure, eta ondo izan.

– Zoaz ondo, Txomin.

Etxera biurtzen nintzala, nire buruari autortu bear izan neutsan, gauzak edesteko Laure'k eban gatza ta piperra. Bereiztasun au adiñekoen artean idoro daiteke soillik, gaurko egunetan gazteagoek ainbeste irrati ta ikustirratiz, alkarrizketearen doia galdu dabelako. Tamala da gazteagoen ezintasuna alkarrizketearen ertiaz gozatzeko, eta adimena aberasteko. Norberaren orde bestek oldozten dabenean, gure adimen eta mintzarena kamusten dira, polliki-polliki ostendu arte. Oraingoan zoritxarra...!

Jakingura biziak artuta, urrengo astean Laure ikertu neban. Politu samar bere lengora biurtzen zan, igarobidean zear ibilteko gai izanik. Oi eban txeraz artu ninduan, eta eguraldi ederra zanez, baratzeko aulki baten jesarrita, eta oiko gozakiak emonda, auxe esan neutsan:

– Jakin gura izango neuke, Laure, On Milika'ren dendea laga ondoren jazo yatzuna.

Oroitzak argitzearren une batez bere barruan bilduta irauan ondoren, onetaraxe asi zan:

“Orduan, ogei ta bi urteko izanik, ezkontzeko garai betean nintzan, eta senar ona aurkitu arte, beintzat, aurrezkiak egitea on litzakidala erabagi neban. Orain, baiña, lanean nire esku izan nai neban, eta billaketa arduratsua egin ostean, baltzu garrantzitsu baten idaztegiaren garbiketea nire kabuz artu neban. Dalako idaztegia iru maillako edo sorukoa zan, eta izan be, arlo andia gizaki bakar batentzat, baiña gero ta gero be, ondo ordainduta. Idaztegi aretan, lana arratsaldeko iruretan amaitzen zan, eta ordutik gabeko zortzirak arte lanean niarduan buru-belarri, baita aurrezki mamintsuak egiñez be, Praisku'rekin ezkontzeko eretia etorri yatanean. Asi naiten, baiña, lenengotik, dalako Praisku nor zan azalduz.

“Praisku, mutil eder, indartsu ta maratza zan. Jatorriz sendi apalekoa, ogei urteko zanean, lan-billa uriburura etorri bear izan eban. Arazoak estu samar aurkitzen ziran aldi aretan, baiña ekiñaren-ekiñez, noizbait, uriko kale-garbitzaille billakatu zan. Bera lako gizon batentzat ezerezkeria zan, baiña besterik ezean, esku orgatxua ta iñarra aal eban ondoen erabillirik, bere eginkizunari emoten asi zan. Beñola, zaramalari baten jarduna uts izanik, berarentzat eskatu eban, eta bere zintzotasuna ezagutua zanez, abo batez jardun barria emon eutsoen.

“Arrezkero, kalerik-kale ebillen Praisku, kirimatrakea josten, etxeoandreek ondakin-kutxak jatsi egioezan, dalako zamea gurdira jaurtiteko. Ondakiñen artean, noizean bein, amataubako txingarrak etozan, eta bein baten, erregai batzukaz batean txingar bat etorri, eta bapatean gurdia sutan asi zan. Asikeran, endaitza-jotez sua amatatzen saiatu zan Praisku, baiña erregai barrabasek gero ta su andiago sortuz, azken baten bazirudian udaleko gurdia zuzi biurtuko litzakela, eta olan izango zan, Praisku'k gurdiaren zaintza ez ba'leu izan.

“Gurdiak gero ta biziago sutan irauan, eta egoera larriaz oartuta, zirt edo zart, adimen argiko bateri egokiona erabagi eban. Andik ur samar, ibai-ondoko kai luzea edatzen zan, eta ugaletik artuta, zaldia aizatuz arin baten ibairantz jo eban. Kaiaren luzean, txalupak-eta uretaratzeko, erreska-bideak egozan, eta oneitariko batera joanda, zaldia atzeraka beartuz, gurdia uretara sartu, erraldoiak biurtutako garrak begien itxi-edegi baten amatatzen zirala.

Egun gogoangarri aretan, zaldi-gurdiak ondapenetik gaizkatuz gaiñera, Praisku uriburuaren edesti-atetik sartu zan. Kai-luzean, askok ikusi izan eben zaramalariaren ekintza azkarra, eta abo batez ikusle guztiek txalo jo eutsoen eskuak keetan asi arte. A lako ekintza azarta, ezin zeitekean isillean igaro, eta biaramonean, uriko egunkaririk garrantzitsuenaren izparkari batek, alkarrizketa bat izan eban Praisku'rekin, eta onen ondorioz, zaldi-gurdiak gaizkatzeagaitik, udalbatzak idatziz jarri eban bere eskerrona, eta onezaz gaiñera, abere-aldeko alkarteak deduzko bazkide izendatu eban, zaldi gai-xoa eriotz kiskalgarririk onik atara ebalako.

“Praisku, baiña, zangar baizen apala izanik, bere ekintzeari ez eutsan merezi eban ardurarik emon, eta betiko zaramalari maratza eta isilla jarraitzen eban. Urriburuak, baiña, ez eban aztu bere lengo ekintzea, eta andik laster, su-amatzailleen taldean uts bat sorturik, abo batez jardun ori Praisku'ri eskintzea erabagi eban udalbatzak, eta berak oiko xalotasunaz onartu eban, egindakoari iñongo garrantzia emon barik. Jardun barrian, asko ta nabariak izan dira uriburuari egin eutsazan ekintzak, baiña niretzat aztueziña izan zana aipatu bear dot, Praisku zelako jasekoa zan adierazoteko.

Bein baten, idaztegia garbitu bitartean, kearen usaiña oartu neban; asiera baten ez neutsan garrantzi andirik emon, baiña gero ta andiago biurtzen zanez, niarduan irugarren maillatik, beekoetara jaitea erabagi neban, suaren sortzea jakiteko. Zurbian beera niñola, baiña, ke-bafada batek aurpegian emon eustan, arnas-artzea eziña biurtuz. Ez neban jaisterik, eta gora biurtuta beti zirt edo zartekoa izan nazanez, urrutizkiñez su-amatzailletegira dei egin neban. Alperrik baiña, suak aria eten egiñik, ez neban alkartzetik. Orduan, astirik galtzeke, leio bat edegi, eta didar baten kaletik ebiltzen oinkariai elka asi nintzakien. Atan-orretan, oinkariak jazoten zanzan oartu ziraneke, asti luzea igaro izan zan, eta irugarren maillako goiko zabalune bate-tik, keak inguratzen ninduan arnas-artzea zailla egiteraiño. Ez neban beste biderik izan, leio batetik burua atara baiño, kea gero ta lodiago, itogarriago biurtzen zala. Olan nengoala, eta konortea galtzeko zorian, su-amatzailleen gurdien larri-jotea aditu neban...

“Alako baten, gurdi bat leiopean gelditu zan, eta su-amatzailleek zurubi luzea niganantz goratzen asi ziran, niretzat, baiña, beranduegi, zorabio batek artu nindualako. Gomutan izan neban azkena, teillatutik jaisten zan ur-oditik, lau-azka urreratzen yatan su-amatzaille baten irudi azkarra izan zan. Gero dana illundu zan nire inguruan, eta noizbait, erri-geisotegian senetara biurtu nintzan. Oe-alboan geisozain bat ikusi neban, eta bestean, txeratsu begizatzen ninduan su-amatzaille baten itzok:

– Nasaitu zaitez, neskatilla. Dana igaro da onezkero, eta biar etxean izango zara. Egia esateko, ito ez zaranean gitxik egin dau, eta orain galtzoria igarota, laster biurtuko zara lengora.

Itzok esan bitartean, amultsu begizatzen ninduan, ordurarte iñork ez beste. Urrengo egunean etxera igorrita, lanari ekiteko gai oartu nintzan, eta idaztegian ugazabaren zorionak artu nebazan, nire azkar ekiteak idaztegia onik atara ebalako. Ezin nengikean, baiña, nire askatzaillea gogotik kendu, eta lanean niarduala, Praisku'ren irudi sendoa irudimenean txitean-pitean agertzen yatan, neugan zarrastada esaneziña iratzarri. Amesetan bizi izaten nintzan, berarekiko irrika biziak jangar eta nakar biurtzen ninduala.

Zorionez, ekintza au zala-ta, bere alde goratarre bat atondu eban udalak, eta ni arazo aretan norki nagusitariko bat izan nintzanez, niri dei egin eusten. Udabarriko Igande argitsu aretan, apainkirik ederrenakaz jantzita su-amatzailletegira eldu nintzanean, an egoan Praisku bere jardun-soiñeko ederraz, guztien zoriona irribarretsu artzen ebalako. Buru-babeski ditzikorra, metaldun botoiak, eta beste apaingarriakaz, eguzki ar-

gitsua emoten eban. Ni ikusi baiño ez, urreratu yatan, eta agurtu ondoren, auxe esan eustan adeitsu:

– Ona emen, jaiaren erregin zoragarria. Badirudi, ipuin-liburu batetik datorkigun printzeme eder-ederra.

– Eta zeuk, zazpi burutako erensugea erail dauan zaldun zangarra.

Ikusleek txalotu eben nire ateraldia, eta jarraian, alkate Jaunak udalbatzak Praisku su-amatatzaillen amarkari egiten ebala iragarri ondoren, itzaldi labur bat jaurti euskun. Laburra, baiña mamintsua izan be; ni lanean ziarduan Errauskiñe apal-eta zoragarria irudikatuz, eta Praisku zangarra erensugeagandiko su erailkorretik, printzeme zoragarria onik atara eban zaldun bildurbakoa. Onen ostean, alkate Jaunagandik artutako domiñea, Praisku'ren bularrean josi neban, uriburuko erestaldiaren jote alaiaren artean, eta jaiari egokion amaia emoteko, guztitariko ogitarteko, gozoki ta edariak banandu ziran. Egu-berdian ekitaldia amaituta etxera biurtzen nintzala, baten batek erraikidala oartu nintzan, eta... nork eta Praisku'k...! Nire atxakiak eta guzti, etxeraño lagundu eustan.

“Eta olan, Txomin, aduaren esku ikusteziñak bizitzaren bidegitean alkartu ginduzan, eta izan be, Praisku'ren eriotzak banandu ginduzan arte zoriontsuak izan gintzazan. Ez dogu umerik izan, baiña onen bestalde, mundu onetan izan daiteken beste zoriontsuak izan gara. Orain iru urte alargundu nintzan, eta alargun-saria naikoa mamintsua izanik, lan egiteari uko egin neutsan, eta Keltse, aspaldiko neskame lagunarekin bizi izaten naz. Orain zenbat-gura jabetzen dot, baiña beiñena peitzen yat: Praisku'ren laguntza ta maitasun zintzoa...”

Ona elduta, aurpegian beera malkoak eriozala Laure isildu zan, eta leioan zear urrutira begiratzen ebala, bere amesak eten ez egitearren, jagi, eta isillean andik urten nintzan, urrengo astean ikustera etorteko asmoz.

Baiña urrengoan biurtu nintzanean, ez neban ikusi, joana zan-eta. Bere osasuna ontzat emonda, etxera bialdua zan. Aren elbidea eskatu neban, baiña egokion agiria galduta, ez eusten argibiderik amon aal, eta abo bete agiñakaz etxera biurtu nintzan.

Oiko bizimoduari emon neutsan, “Zurdaki”ren suurpekoa oi lez, niri kukuka igariten nebala, uts bateko saltsaren erdian ni ezustez artzeko. Aspaldi aretan, ikastaroa udaren etortez amaituta, isil eta baketsu, Enparantza Barriko ikastetxeak ez eustan iñongo buruausterik emoten, askeago oartzen nintzala.

Goizeko zortziretatik, sapaillotiko azpi-oialen astinketea galazota egoan, oinkariak autsaren eta beste zikinkerien eraso jasan ez egien. Lege au zorrotza zan, eta errudunak ogei ogerlekoko isunaz zigortuak ziran.

Bein baten, goizeko jardunaldian or-emenka niñoala eta bederatziak igarota izanik, laugarren maillako sapaillu batetik, emakume batek azpi-oial bat jo ta ke astintzen ebala aditu neban, eta etxea ondo zeaztuta gero, nire egitekoa betetearren, zurubian gorra abiatu nintzan. Laugarren maillako atea jo nebanean, irurogei bat urteko emakume batek edegi eustan.

– Etxekoandrea –esan neutsan–, ez ete dakizu, ordu onetan azpi-oialen astinketea galazota danik...?

Emakumea barrurantz biurtu, eta,

– Laure, Laure –oiu egin eban–, zatoz beingoan, astinketea dala ta ez dala, txinel bat etorri da.

Ustekabez, Laure, uts-emoniko su-amatatzaillaren alarguna agertu yatan, eta ni ikustean besarkada andia emonez,

– Nor eta Txomin maitia...! –pozaren-pozez esan eustan–. Au nire atsegiña zu ikustean...!

Sarrerazo ninduan, eta iker-gelako aulki banatan jesarri gintzazanean,

– Zelan jakin dozu, gero, emen bizi izaten nazala...?

– Jakin, ez dot jakin, baiña azpi-oialari emoten zeutsazan astinketak erakarri nau. Ez al-dakizu, baiña, ordu onetan oialen astinketea debekatua danik...?

– Niri bost ardura debekua edo ori. Begira, Txomin: Keltse ta biok zortzitako mezatara goaz, eta arrezkero, beraz, lanari ekiten dautsagu.

– Zuk egiñikoa ogei ogerlekoko isunaz zigortzen da.

– Ze isun eta isun-oste...! nik zortzitako mezatara joateko eskubiderik badot.

– Bai, Laure, baita udalak zigortzeko be legea beteten ez danean.

– Begira, Txomin, zortzitako mezatan, On Koldo abadea autortegian dago, eta ez dot beste autorlerik gura, bera baiño.

Orduan gogora etorri yatan, aspaldian eroste-saskiari egiñiko atzimurkadak, eta,

– Aizu, Laure –itaundu neutsan–, onezkero autortuko zenduzaan etxe aretan egiñiko atzimurkadak, ezta...?

– Bai, bein baten On Koldo'k emon euskun garizumako sermoi baten, argi ta garbi atzimurkadearen pekatua agertu yatan, eta autortu neutsan.

– Ondo derist orreri, baiña egiñiko kaltea ordaindu bear...

– Baita geituaz ordaindu be. Bere garaian nire barruaz onezkoak egin nebazan, eta atzimurkadak, korritu ta guzti garbitu izan ziran.

– Orain ba –irribarrez esan neutsan–, zure barruaz onezkoak barriro egiteko, udalari ogei ogerlekuok ordaindu bear dautsazuz, bestelan ez dakit On Koldo'k barkapena emongo dautsun-edo...

– Begira, Txomin, ez dagiguzan Zesar'en eta Jaungoikoaren arazoak nastu. Udalaren auts-astinketea edo ori, Zesar'en arazoa da nireztat, eta beraz, ez nau beartzen.

– Baiña emengo uritarra zarean aldetik, udalaren legeak bete bear dozuz.

Au esanik, isun-liburuxka ataratekoa egin neban, baiña berak mintzo erostariatz,

– Baiña, Txomintxu –arrenkatu eustan–, uri onen alde ainbeste egin dauan su-amatatzaillaren amarkari baten alarguna, orren begirune barik erabilliko dozu...?

Agiri zan, Laure'k isunarena benetan artzen asten zala, eta bere arrenkurea kentzearren,

– Begira, Laure –esan neutsan–, gaurkoa lenengoz jazo dan ezkerro, ez da isunik izango, baiña beste urrengo baten jazoko ba'litz, alkateak berak be, ez leuskizu barkatu aal izango.

– Ai, Txomin, zu zara gizona esan bear dana...!

Besarkada batez agurtu genduan, eta osterako be etorriko nintzakiolako berba emonez, kaleratu nintzan. Ozta-ozta espaloitik urrats batzuk emonda, baiña, atzetik "Zurdaki"ren abotsa etorri yatan auxe iflostanean,

– Ondo merezitako isuna jarriko zeutsan laugarren maillako atso orreri, zillegi ez dan orduan autsaren astinketea egiteagaitik. Ez da lenengoz ori egiten dauala..

– Oraingo onetan –erantzun neutsan–, ez da isunik izango.

Arritasunez begiztatu ninduan, eta gero asarre bizian,

– Ez niri esan, gero, saltsaren erdian artutako lege-ausle bateri, beste barik barkatzen dautsazula.

– Begira, amarkari Jauna, –koipetsu esan neutsan–, lenengoz izan dala gogoan artzen ba'dogu, baita su-amatatzaile ospetsuaren alarguna dala be, ziur naz nirekin bat etorriko zareala, eta ainbat areago, zure biotzaren zabaltasuna ezaguturik.

– Ez dakit ba... Edozelan be, zu salatzea dagokit, zure eginkizuna bete ez izateagaitik, eta areago uriko agintarizat jarraibidea emon bear dozunean. Dana-dala, arazoa gogoan erabilliko dot, eta ikusiko be salatzen zaitudan ala ez.

Ez dakit zelako burubidea erabilli eban, baiña ereti aretan ez ninduan salatu. Banekian, baiña, ernai ibilli bear izango neukela, eta bigarren salakuntzea ari mee batetik dilindan egoala.

Eta izan be, aria eten egin zan... Bein baten kale-zaintzaketan ibilli nenbillela, ezustean Keltse arin baten etorkidala ikusi neban. Besoari oratu eustan, eta mintzo urduriz,

– Txomin, Txomin –arrenkatu eustan–, zatoz beingoan etxera; Laure geisotu egin da, eta zure billa joateko agindu daust...!

– Barkatu, Keltse, baiña geisotu dan ezker, ez dau urizain baten laguntza bear, osagille batena baiño.

– Ez dakit, baiña zugana joateko ta joateko eskatu daust.

Ez neban beste biderik, eta Keltse'rekin laugarren maillaraiño igon bear izan neban. Laure'ren itxura larria zan; aurpegi zurbillak eta begien moteltasunak ez eben gauza onik iragarten, eta arrenkurak eraginda, osagillearen billa igorri neban Keltse. Bitartean, oe-buruan jesarrita, Laure adoretzen saiatu nintzan. Sabeleko miñak jota, aiene luzeak iges egiten yakozan, eta zer egin ez nekiala, osagillearen etorrerea irrikatzen neban. Noizbait eldu zan, eta geisoa aztertuta gero, janari-betekadea zala iragarri eban, eta egokion osakaia aginduta joan zan, urrengo egunean etorriko litzakela esanez. Keltse osakaiaren billa joan bitartean, Laure'kin geratu nintzan, andik alde nengian ez eban gura-ta. Noizbait, Keltse biurtu zanean, etxetik urten nintzan, onen aurretik, baiña, Laure'ri aginduz, zaintzaldia amaituta, arratsaldean ikertzera biurtuko nintzakela. Ateraiño lagundu eustan Keltse'k,

– Jauna -esan eustan-, ez aztu, gero, Laure ikertzera etorri, zukan uste andia dau-ta. Sarri askotan zutzaz berba egiten dau, eta agiri da maite zaituala.

– Arrastian biurtuko naz.

Bataz beste, ordubete luzetsua izango zan etxe aretan emondako astia, eta egun

aretako zaintzaketeari jarraitu neutsan. Alako baten, atzetik "Zurdaki"ren abotsa aditu neban asarre baten auxe iflostala:

– Ederto, Txomin, ederto...! Jakin daiteke zertan erabilli dozu azken ordubete ta erdia...? Ikusi zaitut atso batekin 24' gneko etxera sartzen, lengo baten azpi-oiala astindu eban atsoaren etxera, izan be. Ez dakit ze arraio egin dozun etxe orretan, baiña...

– Barkatu, Jaun amarkaria –eten egin neutsan–. Andra ezagun bat geisotu egin da, eta...

– Uste al-do zu –zakarrantzun eustan–, urizain baten betekizuna danik, ezagutzen dituan geisoak lan egin bitartean ikertzea...? Uste al-do zu, uritarren diruak, jarduna beteten ez dakien urizaiñakan eralgi bear dirala, ainbeste ta ainbeste zaintzeko danean orko bazterretan...? Ez dot egundo ezagutu zeurea lako lotsabakokeria, andra geiso ezagunak ikertu bear ditualako atxakiaz, bere betebear laga-eziña bertanbera uzteko, uri onetako ziurtasuna gaizkilleen eskuetan ipiñirik. Ez orixe...! Oraingo onetan, eta zu lako urri diran urizaiñen jarraibiderako, salatuko zaitut, eta bigarrena izanik, kontuz ibilli gero...!

"Zurdaki"rekin arazoa eztabaidatzea alperrik zala ikustean, isildu nintzan, eta urizaindegira elduta laster, idatzitako salakuntzea zaintza-nagusiarri eskuratu eustan. Biarmonean, onek dei eginda, salakuntzea niri irakurri ondoren, auxe itaundu eustan:

– Egia al-da, emen salatzen dana...?

– Bai, Jauna, baiña...

Jarraian, jazorikoa edestu neutsan, eta nire garbiketea entzunda,

– Zure azalpena entzunda gero -esan eustan-, utsegiteari txikiagoa derist, baiña olan eta guzti be, legearen aurka jardun dozu, eta augaitik, oiko lanera biurtu aurretik, illabete batez agiritegian jardungo dozu. Oartu-erazo bear dautsut, irugarren utsegitean alkatea jakitun ipiñiko dogula, eta ereti orretan, urizaintzat jarraitzeko txarto ikusiko dozula zure burua.

Oneri jarraitu eustan illabetea ez yatan atsegin gertatu. Udaletxepean egoan agiritegiak ez eban giro onik eskintzen. Egun osoan tximistargipean lan egin bear izaten genduan, autsez estalitako lotukiak, apaletan jarri aurretik aztertzen eta sailkatzen. Lan aspergarri ta zikiña izanez gaiñera, ezin nengikean nigandik kendu, espetze baten niardualako oarpen itogarria. Zeregin au goizeko jardunaldian egiten genduan ezker, arratsaldean goizeko espexaldia aztu egiteko, uriko egurastegi atseginetan zear ibilli nenbillen, aztu barik Laure'ri noz-edo-nozko ikerraldia egitea. Orduko, bere lengora biurtu izan zan, eta atsegin andiz artzen ninduan ikustera niñoakionetan.

Illabete goibel aretan jasan neban atsegin bakarra, "Zurdaki"ren bibotetzarra ez ikustea izan zan. Zigorraldia igarota gero, urizaintzaren nagusiagana joatea, beste amarkaripean jarri nindegian onena izango ez ete nire buruari itaundu neutsan, baiña azkenean ez-egokitza zapuztu neban. Ziur nintzan, aititak ez leukela ontzat emon jokatxak bere aduari aurre egin bear eutsalako, eta orduan begiak klikx egin barik, neuk be eupadeari jarkiko nintzakiola, erabagi neban. Barriro be, "Zurdaki"ren agintza errukibakopean jarraitu neban, beraz. Ez neban irugarrenez salatu izan gura, eta augaitik, ardurarik andienaz jokatzen neban. Patuak edo aduak, baiña, triki-maillu bat nire aurka atondu eban...

Udaren azkena zan, eta ez neban oztopo berezirik izan nire jardunean, gogoan artuta, batez be, Enparantza Barriko ikastetxeak oraindiño oporretan ziarduala. Bein baten, urizain eta amarkari batzuk opor artu egien, "Zurdaki" ta gutariko batzuk beste auzo batera aldatu ginduezan. Barruti au, ostera (joan-etorri) andiko kaleak osotua, uriko kalerik ederrenak alde batetik bestera zearkatzen eben. Laster artaratu nintzan, eta bigarren astean, kale nagusiko berebillen osterea zuzentzea agindu eustan "Zurdaki"k. Atsegin yatan jardun barria, astia ariñago igaroten zalako, eta onezaz gaiñera, diru-geigarria emoten euskuen. Txistua ta besoak erabilliz, lan aretan mailla goreneko uritarra oartzen nintzan, berebillak eta oinkariak menpekotzat agintzen nebazala.

Areitariko egun baten, osterea zaintzen nebanean norbaitek praktik teink egin eustan, eta beerantz so egiñez, Yokintxu, Enparantzako ikastetxean ebillen mutikotxua ikusi neban negar baten, anpulu lodiak aurpegian beera eriozala.

– Joan zaitez, Yokintxu –esan neutsan–, ez al-dozu ikusten osterea agintzen diardudanik...? Gaiñera, leku au arrisku andikoa da. Ospa emendik...!

– Jauna, nire txilibitua, nire txilibitua...!

– Ze txilibitu ta txilibitu-oste...!

– Ara, Jauna: amabitxik nire jaiotegunean emoniko txilibitua galdu egin yat.

– Eta niri zer...? Begira Yokintxu, aldegin emendik lenbailen, berebillen batek jozagizan aurretik.

Mutikoak, baiña, nire prakari eusten eutsan, didar baten bere txilibitua uts emoten ebal. Azken baten aspertuta,

– Zer jazo yatzu, baiña...? –itaundu neutsan–.

– Kalea zearkatzean, lagun batek besoan jo egin, eta eskuan neroian txilibitua, orko estoldaren estalki-zirrikitu batetik ostendu egin da.

– Eta niri zer...? Ez al-dozu ikusten kaleko osterea agintzen diardudanik...?

– Jauna, osterea gelditu, estalkia jaso, eta txilibitua artu.

Ezin laburrago esan aitu baten eziña zirudiana, eta mutikoa andik uxatzeko zorian, nigananantz zuzenduriko malko lodiak, biotzera sartu yatazan, eta zorakeri utsa zirudiana egitera azartu nintzan. Larrialdirako txistua jo, eta laster urreratu yatan urizain lagunari,

– Aizu, urlia –agindu neutsan–, nik mutiko oneri laguntza emon bitartean, zati baten gelditu kaleko osterea.

Iñongo azalpenik eskatu barik, nire lagunak berebillen joan-etorria gelditu eban, eta Yokintxu eskutik artuta, kale-erdian egoan estoldara joan nintzan. Estalkiak zirritu batzuk ebazan, eta gorantza teink egin neutsan atarateko asmoz. Estalkia, baiña, estolda-aboari gogor itsasita izanik, espaloian begira egoan ikusgura bategana joanda, laguntza eskatu neutsan, baita berak gogoz emon be. Bion indarrak batuta, noizbait estalkia jaso, eta beso-elmenean egoan mutikoaren txilibitua jaso neban, ikusle ugarien txalo-joteak lagunduta. Bere txilibitua artuta, txistu bizitan Yokintxu kalean beera ostendu zan. Ekintza guzti onek bost bat miñutu iraungo eban, baiña epe labur onetan ainbat eta ainbat berebillariek jasapena galduta, turuta-joteaz egundoko astrapala egiten eben, guztitariko izen-ondo zantarrekin lagunduta. Sorturiko zoko-egitea alboko kaletaraiño edatzen zan. Apurka, baiña etenbarik, noizbait, osterea bere lengora biurtu zan, eta andik laster, bazirudian ezustea aztu izan zala.

Bazan bat, baiña, jazotakoa aztu ezin egikeana, eta urizaindegira biurtzen gintzazanean, bibotetzarra eskuaz orrazten ebala, “Zurdaki”k mintzo ozpinduaz,

– Dana ikusi dot, ganorabako ori –asarrez esan eustan–. Ezerezkeri bategaitik, gaur, uriburu onetan egundoko iskanbilla sortu dozu. Izan be, gaurko zoko-egiteak uritarren gogoan iraungo dau. Ez dot, uste, baiña, dalako astrapalea barriro be sortzeko gai izango zareanik, irugarren salakuntzea, eta nire ustez azkena, urizaindegira eldutean egingo dot-eta. Oraingo onetan alkateaz izango dozu, eta zure aurkako argibideak artu dagiazanean, uriburu onetako jardunari uko egin bear izango dautsazu, traskil, ganorabako, txoriburu orrek...!

Estu ta larri biurtu nintzan etxera, eta osaba-izekoai jazorikoa edestu neutsenean, arein berbetatik argi egoan udaletik-at jaurtitakotzat egiten ninduela. Niretzat zoezor idoroko leukela-edo agindu eustan osabak, gero ta gero be, urizainez gaiñera baziran beste jardun onuragarriak. Nik, baiña, ez neban gura udalzaingoari uko egitea, ori azpitik urteten lakoxea zan-eta, eta arratsaldean egurastuteko kalera urten nintzanean, aitita burura etorri yatan. Zer esango leuke nire txulut-egitea jakitean...? Eta indar guztiakaz nire oraingo jardunari eutsiko neuskiola erabagi neban, bai orixe...! Zelan, baiña...?

Kaleetan zear egurasten niñoala arazoari ekin neutsan, baiña urtenbiderik ez neban ikusten. Apaltzera biurtu aurretik, Laure ikertu, eta guztiz ondo ikusi neban. Bazi-

ran egunak osagilleak osatutzat emon izan ebala, eta izan be, aren itxureak orixe aldarrikatzen eban.

Urrengo egunean urizaindegira joanda, jakitun ipiñi ninduen, alkateak nire auzia epaitu arte jarduna kentzen eustela, eta ordurarte, beraz, aske nintzan astia nire aukeran erabilteko. Auzia iru egun geroago ospatzeko zanez, egurasten eta irakurten emotea erabagi neban. Irugarren eguneko illuntzean egurastegian zear niñoala, urrengo egunean zelako zuriketean emongo neuskion nire ekintzeari gogoan nerabillean, biurgune batetik urtenda, Yokintxu ikusi neban arin baten etorkidala ni agurtzearren. Eskuan txilibitua ekarren, eta aurpegi dizdiratsuz,

– Arratsaldeon, Jauna –agurtu ninduan–.

– Baita zeuri be, Yokintxu... Aizu, ez dozu txilibitua joko niretzat...?

Izetik-ortzera soiñu ezagun bat joten asi zan, eta entzun bitartean, alboko aulki baten jesarri nintzan, unetxu batez urrengo eguneko auzia gogotik ostentzen yatala. Olan gengozala, gizon bat urreratu yakun, eta ondoan jesarrita, jote-aldia amaitu zanean,

– Yokintxu’reñ aita nozu –esan eustan–, eta gaurko eretia ustiatuz, lengo egunean nire semearen alde egin zenduana eskertu nai dautsut. Urizain gitxik, iñor izatekotan, zeu lez jokatuko leukean. Baiña esan, zein dozu izena...?

– Txomin.

– Begira, Txomin, uri andietan alkarganako txera ta onginaia gitxitan ikusten dira onoinenak doguz. Arrotzak lez, gure bizitzak norberekeriak eraginda igaroten dira, iñoren bearrizan eta oiñazeak gogoan artu barik. Adiñekoak bakartasunean murgilduta bizi izaten dira; garerdikoez gure ogia irabazteko buru-belarri diardugu, astirik izateke adeitsuagoak izateko, eta umeak, euren gurasoak bestalde, nai-ta-ez jasan bear doguzan piztitzat askotan darabilguz, bear izaten daben ardurea emoten aztu egiten yakula. Ni gizartelari (sociologo) nozu, eta alor orretan sakondu-ala, gizarte-bizitzarako uri andiak benetako oztupoak dirala oartu naz. Jasan bear doguzan joan-etorri larriak eta gure arremonetan darabilgun norberekeriak, uritarrak alkarrekiko gero ta arrotzago biurtzen gaitu.

Isildu zan gizartelaria une batez, eta gero,

– Lengo egunean, ume baten malkoek eraginda zuk egiñikoa, gabean argi-izpi baten antzekoa, edo lora usaintsuaren laztana baizen atsedengarria da. Urizain zaitut, eta lengo egunekoak askori gogora ekarri dautso, zu lakoak uri oneri aize garbi, garden, eta pizgarria ekarri dagikeola. Urizainok, geienetan ez zarie aintzakotzat artuak izaten, baiña askori irakatsi dagikeguzue, uri andietako basamortuan, baratz atsedengarriak aurkitu daitekezala...

Isildu zan Yokiñ’en aita, eta gautu izan zanez, nigandik agurtuta, semearekin egurastegiko itzalen artean ostendu zan. Nik be, etxerakoa egin neban, apalordua laster izango litzake-ta, gogotik kendu eziñik gizartelariak esandakoak... Eta ezustean, oiñazkarra bai’litzan, neugan argi bizia piztu yatan, eta une baten, iru egun areitako idoro-eziña, orain argi-argi nenkusan...

- Etxera biurtuta, apariari ekiten geutsala, osabak,
 – Ez dakit gogoan zer darabiltzun, Txomin, baiña adorez beterik zakust.
 – Bai, osaba, biarko nire zuriketea argi ikusten dot.
 – Zelako zuriketea...?
 – Biar esango dautsut, alkateari aurpegia artu ondoren.

Urrengo egunean, aginduta lez amabi-amabietan urizaindegian nintzan. Andik laster, “Zurdaki” azaldu zan, eta mintzo latzaz alkateagana laguntzeko agindu eustan. Aurre-gela baten txandeari itzaron geutsan, eta noizbait, gela-zain batek alkateaganaiño eroan ginduzan. Jesarrita egoan, eta niri jaramonik egin bage, “Zurdaki”ri mintzo aginkorraz,

- Amarkari Jauna, zure salakuntzea entzuteko gerturik nozu.

Nire salatariak lengo bien salakuntzak aipatu ta azaldu ondoren, irugarrenaz asi zan, lengo eguneko nire ekintzeari buruz, izen-ondo zakar eta errukibakoenak erabilliz. Bazirudian, azken eun urte areitan, udalzaingotik igarotako txinelik gaiztoena nintzala, udaleko janzki dedugarria lorrinduz gaiñera, ezikaitza nintzala, nagusiakanako begirunerik txikiena be erakusten ez neutsela, etab, etab... Amarkariak amaitu ebanean, epaitu aurretik, urteteko agindu eutsan alkateak, eta bakarrik geratu gintzazanean, itxura ardurabakoaz auxe esan eustan:

- Entzutekoak entzun ondoren, zure azalpena artzeko gerturik nozu.

Alkatearen itxuratik argi egoan, erabagia artuta ebala, eta udaleko nire jaurtiketea unetxu bateko arazoa zala. Nire baitan bildu nintzan, eta aititaren zuertasuna emon egistala Jaungoikoari eskatu ondoren, nire ikuspegitik eta aalik egitien jazotakoa azaltzen saiatu nintzan. Agiri zan alkatearen itxura ardurabakotik, neureak egin ebala, eta esan nengiana esan nengiala, nire etorkia epaitua zala. Zuriketea amaitu nebanean, berak,

- Ez dozu besterik esateko...?

Eta au iñostanean, jagitekoea egin eban, gure alkarrizketea amaitutzat emonez, antza. Nire azken aukerea zan, eta orduan, aititaren zentzun eta zuertasuna nitzaz jabetu izan bai’litzazan, auxe esan neutsan:

– Alkate jauna, zure ontasun eta zuzentasuna ustiatuz, badot areago esateko, eta auxe alegia: lengo eguneko zoko-egitea larri izan zan, berebillari askori jasapena galdu-erazoteraiño, izan be. Onezkero, baiña, asti-galtze ori aztu egingo yake; zoko-egite guztien ostean jazo oi dan lez, andik laster unetxu bateko asarrea ez dau iñork gogoratzan.

Ain zuzen be, alkate Jauna, mutikoaren txilibituak ez eban iru errealetik gora balioko, baiña erri onetako uritar askorentzat, Udal Txit Goreneko urizain batek egiñikoa, ez da orren arin eurokandik ezabatuko, eta udal onetako zerbitzari batek, ume baten malkoak eraginda egin ebana, gogoan irarrita luzaro iraungo yake, eta onek, Alkate Jaunaren aldeko eragintza andia sortuko dau. Badakizu esaera zaarrak diñoan auxe: “Zelako zerbitzaria alako ugazaba”, baiña orain, nik onetaraxe esango neuke: “Zelako urizaiña alako alkatea”. Bai, Jauna, alkate baten zelakotasuna bere menpekoakan ispi-

lutzen da, eta uri bateko txinelek umeak maite ba’dabez, ziurtzat artu daiteke, alkatea gizon maitetsu, zuzen, eta iñoren uste ona merezi dauanetarikoa izango dala.

Ona elduta, bazirudian alkatearen niganako ardura-eza aldatzen joiakiola, eta adeitsu begiratzen asten ninduean, abaguneari onurarik andiena ataratea erabagi neban. Aulkitik jagi nintzan, eta beragana urreraturik, mintzo erakarkorraz,

– Begira, alkate Jauna –esan neutsan–, orain iru illabete, udalbatz barria aukeratzeko auteskundea egingo da, eta nire ustez, zeu lako gizon zuzenari barriro be bada-gokio alkate izatea. Dalako auteskundean makiña bat diru eralgiten da itzalditan, kale-iragarkitan, ozengailuz ornidutako berebilletan, irrati ta ikustirratitan, egunkari ta aldizkarietan agertzen dan ordaindutako zabalkundean, etabar. Ori dana, nire uste apalez dirua uretara botatea da, eralguntza andi orreri ataratako obaria ezer gitxi dalako, ainbeste lelokeri entzun eta ikusi ondoren, uritarrak asetzen diralako. Bada, baiña, ardura gitxi emoten yakon eta oso lagungarria dan beste ekinbide bat, baita txit merkea dana be: erabillibakoa dan umeen arloa. Oneik ez dabe iñongo autarkirik emoten, baiña ume bateri emoniko gozakia edo laztana, gurasoen biotzetan sustraiturik, ezerezkeria dan gozakia eurokan ontzurre biurtzen da. Bai, alkate Jauna, karamelu ezain batek urrearen balioa dakarkiguke, gurasoek euren umeen begiakaz ikusten dabelako.

Ona elduta, alkateak abo-zabalik begizatzen ninduala ikusirik, untzeari azken zartadea emotearren,

– Bai, Jauna –jarraitu neban–, erretolika-irudia erabilliz, uri onetan zear zorro bete gozoki egurastu zaitezala esondatuko neuskizu, baita kutxa bete txilibitu be alboan, umeen artean banatzearren, aztu egin barik, noizean bein seintxu potolo bat besoetan artuta, apa-laztan zaratsua aren matrail zuri-gorran ipintea. Bai, lerdea dariela ikusleek leku bat egingo dautsue biotzean, gure alkate-gaiaren jas eta nortasuna ederretsis...

- Uste dozu –eten egin eustan begiak dizdiraka–, barriro be...?

Apaltasun utsaz alkateak ez eban bere esaldia amaitu gura, eta orduan nik,

– Bai, Jauna –erantzun neutsan–, besaulki orren arrera maitetsua beste alkategorako ezagutuko dozu, eta uriburu onek barriro be ederretsiko dau alkate zuzen baten agintza-makilla.

Azken itzok entzutean, jagi zan, eta nigana etorrita, nire eskuai eutsirik, auxe esan eustan mintzo unkituaz,

- Zu zara urizaiña esan bear dana...! Zein da zure izena...?

– Txomin.

– Ara ba, Txomin –eskerronez gaiñezka eratsi eban–, urizain betea izaten jarraituz gaiñera, azken iru egunok ordaindu dakizuzala, sailburuari aginduko dautsat, eta zure laguntzea eskertu naiez, nire gelazain izendatuko zaitut. Zer deritxazu orreri...?

– Orrek zure biotzaren anditasuna agirian jarten dau, baiña naiago dot urizain aruntatzat jarraitzea. Ez naz jaio gela baten itxita bizi izateko...

Oldozkor iraun eban une batez, eta gero,

– Ondo da, olan gura dozun ezkerro, baiña zure amarkariaren geiegikeria zuri sa-

latzean, ezin dagiket olan beste barik utzi, salakuntzea irugarrenez izan dala gogoan arturik batez be. Zer deritxazu, udaleko bialgo-saillera igorri dagidalari, estalkia ikurratzak (sellos) itsasteko...?

Ez neban, baiña, arazo aretan esku-sartzerik izan nai, eta,

– Ez dakit ba... –esan neutsan–.

– Edozelan be, aurrerantzean ez dozu amarkaritzat izango, eta orain berandu samar dan ezkerero, joan zaitezkez etxera, eta biar oiko jardunari emongo dautsazu. Agur ba, Txomin, eta biotz on...!

– Agur, alkate Jauna, eta eskerrik asko.

Adorez gaiñezka etxera abiatu nintzan, eta berantetsitako osaba-izekoai jazorikoa edestu neutsenean, asikera baten ez eusten siñistu, baiña edeskia amaitu nebanean, barre-santzo zaratatsuak egin genduzan, egin be, eta jazokizunaren arrakastea ospatzearen, dei egin neutsen urrengo Igandean, Alderdi Zaarreko onenatariko jatetxe batera.

Arrezkerero, betiko barrutian jarraitu neban beste amarkari baten agindupean, eta aurrerantzean, “Zurdaki”ren aurpegi uletsua ez neban ikusi. Onezaz gaiñera, alkatearekin izandako alkarrizketearen ondorioz, Enparantza Barriko ikastetxeko mutikoai askatasun geiago emon ekien agindu eban alkateak, eta augaitik nire zeregiña arinduta, askozaz zorionsuagoa niarduan, auzoa ta auzokideak estuago ezagutzen nebazala. Orain niretzat lekurik sarrituagoa, zeia zan, ostuketak eragozteko batez be.

Andik laster, auteskundeko eragintza betera sartu gintzazan, urigune guztiak autagaien argazkiakaz, eskintzakaz, eta oiko leloakaz beterik agertzen zirala. Eta au gitxi izanik, etxeetako ormak iragarkiakaz lorrinduta ikusi zeitekezan, egilleen zentzun urria ta zantarkeria azal eta zabal ipiñirik. Edozelan be, nik itarauntzunikoa ez eban ateztean bota gure alkateak.

Bein baten, lanetik-at egurastegi ederretik niñoala, ikusle batzuk inguratuta, umetalde bat ikusi neban, eta onen erdian gozokiak bananduz, nor eta gure alkate Jauna...! Irribarre zabalak aurpegia argitzen eutsan, on-utsaren itxurea emotsala. Une artean, gozokiak eskuratuta gero, ume potolo bat besoetan artu eban, eta aurpegitxu mardo biguneko matrail bakotxean mosu bana ipiñirik, ikusleen ederrespeneko suzmur batek lagunduta, lurrean ipiñi eban, eta jarraian, laguntzaille batek eusten eban zorrotik, txilibitu batzuk atara, eta mutikoai emoten asi yaken, eta gero, beste zorro batetik neskatoxtuui andrakillak. Entzuteko ziran, ikusleen oneritxi ta ederrespeneko iruzkiñak autagaiaren oiezko ekintzaren aurrean. Adorea menperatu eziñik, ume baten ama izango zanari, urrean, itzok iges egin yakoan:

– Auxe da alkatea esan bear dana, eta ez bazterretan ikusten diran babalastuok...!

Eta biotzeko zarrastadeari aurre egin eziñik, txalo-jote sutsuari emon eutsan, inguruko begiraleak batzen yakozala. Txalo-zartadea baretu zanean, alkategaia eurokin berbetan asi zan, ardurarik andienaz iñotsoena entzunez. Noizbait, aurpegia irribarre txeratsuz argituta, zorrodun laguntzaille batzuekin beste iñora joan zan. Nire ondotik igarotetan, ni ezaguturik, antza, irribarretsu begi-keiñuka agurtu ninduan, eta nik bardin erantzun neutsan, berak egindakoari nire oneritxia emonez. Eta noizbait, zabalkundea-

ren epea igarorik, Igande baten auteskundeak ospatu ziran. Uriburuan autarkirik ez nebanez, Goiniz'en neban neurea emonda, eta etxeokokin eguna igarota gero, uriburura biurtzean, aitatik erri-berebillera iñño lagundu eustan, eta oiko burubideak-eta beragandik entzun ondoren, gabean osaba-izekoekin apaldu neban, egun aretako gorabeerak autugaitzat artuta.

Urrengo egunean, auteskundearen ondoreak ezagutu ziranean, lengo alkateak jarritsiko garaipen itzelaz abo batez mintzatu zan. Aurretiaz iñork uste izango ez eban autarki-kopuruaz gaiñetik urten izan zan, uritarrek alkarri itauntzen eutsoela, zein izan zeitekean arrakastaren zioa. Berak eta biok, baiña, bagenekian zeri egotzi bear yakon lortutako gurenda. Siñisteziña da, benetan, ondo erabillitako gozoki ta txilibitu batzuk ekarri dagikien obari andia. Beste lau urtebeterako adiskide bat izango neukela alkategoan uste izaten neban, baiña...

Eta alkatearen eperdiak uriburu-besaulkiaren txera astiña barriro be txastatzen ebala, nik nireari emoten neutsan, au da, uriburuaren kale-zaintzari. Baziran orduko, urtebete bi inguru jardun onetan niarduala, txinel baten betekizuna polito menperatuz. Betiko auzoan jarraitzeak jendearen ezagutzea errazagotzen eustan, eta sisi-apaltasun barik esan degiket, leku guztietan ederresten eta maite ninduela. Beste urizainkideekin ondo alkartzen nintzan, aal nebanetan laguntzen neutsela, baita eurok niri be.

Goizeko jardunaldia yatordanetan, ikastetxeko atsedenaldea zaintzen neban mutikoak gizontsu ibilli zeitezen, oinkarien eskubideai begirune izanez. Gero, zeira abiatu oi nintzan, leku onetan bizitasunik andiena izaten zanean. Ereti oneitan, Elen, barazki-saltzaille begiko ta euskaldun jatorra une batez ikerturik, zaintzaldiari jarraitzen neutsan. Bein baten, astiro ta arduratsu zeiko zaintzari emoten neutsala, bapatean, emakume baten didarra aditu zan, eta onen ostean, esku-zorro bateri oratuz, ijito-itxurako gizon batek ariñeketan igesari ekin eutsan. Laster oartu nintzan jazorikoaz, eta zaplada batzutan urreraturik, lapurrari besotik eutsi, eta esku-zorroa kendu neutsan.

– Lotsarik ez dozu, emakume zaar bateri olakorik egiteko...? –esan neutsan–.

Lapurrak teinkada bat azso bateri esku-zorroa kendu izan eutsan, eta au egitean, gaixoak lurrera jausita, miñaren-miñez aieneka ziarduan. Asiera baten, lapurra atzipe-nari jarki yakon, baiña igesbiderik ez, jaregin nengian erreguka eskatu eustan. Gizaki batzuk sorositako atsoari esku-zorroa biurtu neutsan, eta onen bedeinkapenak erraikidazala, lapurra urreneko baitegira eroan neban.

Emengo ertzaiñak baitua ikusi baiño ez,

– Baiña Txoro –akar egin eutsan–, ostera be emen zaitugu...? Ez da aspalditik ba, emen ikusi zindudazala. Noiz zentzutuko zara, txoriburu, besteren txoriburu...?

– Nire arazoetan esku-sartze ez ba'zendukie izango, eta bakean lagako ba'zintzaidaze, danok obeto bizi izango gintzakez.

– Bai, zeuk, lotsabako orrek, lagun-urkoa ez zenduke bakean utziko, atsoak eta ezinduak batez be. Lengo egunean nire buruari esan neutsan, bazala aspaldi ikertzen ez ginduzuzala. Eta orra or, ustekabez, zure aurpegi baltzarana barriro be dakusgula.

– Papao ori –niri begiratuz erantzun eutsan–, bost ardura dautsoen arazoetan ez ba'litz sartuko, nirekin asti-galtzerik ez.

– Ezin dot ulertu, Txoro, zergaitik ez zara zuzentzen, ogibide zintzo bateri ekiñez.

– Nork eskiñiko ba, ogibide benetakoa Txoro'ri...? Iñork be ez, eta zelan janaritu, beraz, txurunbelak eta emalaguna...?

Dalako Txoro, itxuraz beintzat, ijito utsa zan, ogei ta amar urteko gizon ertaiña, eta ikazkiñaren baiño baltzagoko aurpegi ernaiak, adimen argiko gizakitzat bereizten eban. Jakeak eta altzitutako prakak ez eutsoen laguntzen, baiña, zarrastada ona egitera, eta are gitxiago aurpegi-eskuek jaboi-ureri eutsien iguiña ikusirik. Oar oneik nire kolkorako egiten nebazala, ertzaiñak eskutur-burdiñak ipiñi eutsazan, eta ni banazean artuta,

– Aizu, lagun –esan eustan–, ekiogun txostenari, eta gero joan zaitezke oiko zure jardunari emoteko.

Jazotakoa edestu neutsan ertzaiñari, eta amaitu nebanean, ango nire eginkizuna amaituta, zeira biurtu nintzan zaintzari jarraitzeko. Ez zan lenengoz gaizkille bat baitzen nebala, baiña Txoro edo zalakoa nigan zarrastada andia egiten asten yatan. Lenengoz zan ijito bat ertzaindegira neroiala, eta aren begi baltz sakonen itxura goseti, etsia, aspaldi luze baterako gogoan irarri yatan.

Aldiaren joanean, baiña, ijitoaren irudi zoribakoa gogotik ezabatzen asten yatanean, auzitegitik mezu bat artu neban jakiñerazoten eustela, Antonio Jimenez, ezizenez El Txoro'ren epaiketara, onen egun eta orduan lekukotzat agertu bear nebala, eta utse-giterik ez neban ezkerro, agindutako egun eta orduan, epai-aretoan azaldu nintzan.

Amabietan asi zan auzi-aldia, eta El Txoro ijitoari egokion laburpen eta ardurazaz ospatu zan. Epaikaria, idazkaria, areto-morroia, salatuaren bizpairu lagun eta neu, ikusle bakarrak izan gintzazan. Idazkariak salaketea irakurrita gero, aipaturiko gorabeerak egi ete ziran itaundu eustan epaikariak, eta nik baieztu ondoren, Txoro'ri itaundu eutsan nik esandakoak baieztan ebazan ala ez. Salatuak, baiña, arrausi andi bat azaldu erantzun eutsan, epaikaritzari eutsan gitxi-eritxia azaldu naiean lez. Agiri zan, espetxean emondako aldia salatuarentzat onuragarria izan yakola, aurpegia beteago, eta begien lengo itxura gosetia baretu izan yakon-eta. Lengo beste ijito-itxurarik ez eban emoten orain eguzki-ezagaitik-edo, baita jaboi-urekin izandako arremonakaitik be. Edozelan be, zorionaren eredutik urrun emoten eban, bere endakoentzat askatasuna baldintzarik beñena dalako.

Legegizon aldezlariaren txostena ez zan elelderreko maisulana azaldu, gero ta gero be, salatuaren alde ez eban gauza andirik esateko-ta. Jarraian, epaikariak jazotakoaren laburpena egiñik, eta oitutako lapurra zanez, sei illabeteko espetxaldiaz zigortu eban, urrengoan epaiketa askozaz astunagoa artuko leukela zemaituz. Epaiketea amaitutzat emon aurretik, zeozer esateko ba'eban itaundu eutsan epaikariak, baiña ostera be, Txoro'k arrausitar bat azaldu erantzun eutsan. Eta onenbestez, ertzain bik alboratuta, espetxera biurtu eben. Auzitegitik iradu barik urtetean, baiña, ume bi ekarrezala ijitoeme bat azaldu zan, Txoro'ren auzialdiari buruz itaunduz. Amaitu izan zala atezaiñak esan eutsanean, negar eta oi egiteari emon eutsen, auxe iñoala,

– Zoritxarraren nirea...! Aspaldi onetan gaurko auzialdiaren begira, eta eguna etorrita, alanbear bategaitik berandu eldu bear be...!

Urreratu nintzakion, eta Txoro'ren emalaguna ete zan itaundu neutsanean, aikari

eten egin barik, baietz erantzun eustan, baita ekarrezan ume biak be euronak. Oneik begiztatzean, menperatu ezin izan neban biotz-ikara batek astindu ninduan. Altzoan eban urte bi inguruko alabatxua, aurpegitxu zikiña amaren bularrean ipiñita, lo-gurak artuta lotan zan, arnas-neurri bareak aren sointxu erkiña astintzen ebala. Baiña onen alboan jesarrita egoan lau urteko mutikotxua izan zan biotza autsi eustana. Ijito-endakoa izan arren, aurpegi zurixkakoa zan, eta begi andi, itun, baltzaranetan, kaden neurribakoa irakurri zeitekean, barruko makur batek atzitua bai'litzan. Burua, amaren besoan jarrita eban, eta oin ortotsiak, ubelduak, kulunkatzen yakozan astiro, noizean bein erdiz edegiriko abotik, aika bat iges egiten eutsala. Ondoan jesarri nintzakion, eta eskua buru-gaiñean ipiñita,

– Ze izena dozu, mutiko...?

Orduan berak, mintzo aul, auskorraz,

– Txorito –erantzun eustan–.

– Esaidazu, Txorito, miñik al-dozu...?

Baiña mutikoak erantzun aurretik, amak,

– Au beti miñak artuta dago.

– Zelako gatxak jota...?

Amak soñiak jazo ebazan, eta,

– Nik al dakit...! Geuk ijituok ez dogu gatxik ezagutzen, orretarako dirurik ez dogu-ta. Noizean bein, eriotzak gutariko bat jo, eta eroaten dau egoitza urruti batera, lurrak eta zeruak bat egiten daben lekura. Gure ildakoen obietan ez dozu lora askorik ez malko ugaririk aurkituko. Zertarako oroitu gure endako kimu ezain eta gitxietsiak...?

Une luze batez ama zoribakoa begiztatu neban, eta gero, berak negar egin bitartean,

– Aizu –itaundu neutsan–, non bizi zarie...?

– Non bizi garean, ala non pairatzen dogun jakin nai dozu...? Benetan, zelako ardua yatzu ori...? Urizain guztiek egiten dausten itauna da ori, eta beti guzurrak erantzun oi dautset, baiña zukan oi-ez-lako zerbait dakust, eta egia esango dautsut. Ara... “Txakur Errena” auzoan bizi naz.

Urrun egoan txabolategia zan, gengoan lekutik zazpi kilometrora-edo, eta egia esateko, araiño zelan joango litzaken ezin nengikean ulertu, umeekin batez be. Bazan erri-berebillen adar batek udaletxetik esandako auzoraiñoko joan-etorria egiten ebana, eta auxe itaundu neutsan:

– Zelan elduko zara etxera umeekin...?

– Zelan elduko nazan...? Anken eragiñez; uste al-dozu gu eroateko gerturik izatekotan, taxiz joango gareanik...? Etxera elduta be, oneik bioi zer emongo dautsedan ez dakidanean batez be...?

Umeak barru begiztatzean biotza iraulkatu yatan, eta korapillo bat eztarrian kokatuta, emakumearen besoari oratu neutsan, eta jagi zanean,

– Goazen –agindu neutsan–.

– Nora, baiña...?

– Udaletxeraño, erri-berebillez etxerakoa egiteko.

– Esan dautsut, baiña, ez dodala dirurik...!

– Bardin da. Nire pentzuan joango zarie.

Epaitegitik urten gintzazan, eta ibai gaiñetiko zubia zearkaturik, udaletxera jatsi gintzazan, berak ume txikia besoetan eroiala, eta nik mutikoa eskutik artuta. Andik laster, erri-berebilla igaro zan, eta ijitoemearen eskuan diru batzuk ipiñita,

– Begira –esan neutsan–, enparaukoaz jateko batzuk erosi egizuz.

– Jauna –berebillean sartzeko zorian itaundu eustan–, zergaitik egiten dozu au ezezagunen alde, eta gaiñera ijitoak izanik...?

Ez neutsan erantzunik emon, eta an bertan luzaro samar iraun neban, irukote aren itxura unkiagarria gogotik kendu eziñik.

Egun oso aretan eta urrengoan, etenbarik gogoan untzatuta izan nebazan zoribako arein irudiak, eta irugarren egunean nire jardunaldia amaituta, arratsaldean erri-berebillez “Txakur Errena” auzora abiatu nintzan. Osaba-izekoai ijitoen sendiarena esana neutsen, eta arazo oneitan emakumeak egokiagoak diran ezkerro, izeko Garbiñe’ri janari-erosketa mamintsua egitea eskatu neutsan. Olan ba, lotuki ederraz zamatuta, erri-berebilla utzi ninduan lekutik, ijitoen auzora oiñez bideratu nintzan, eta kilometro erdi edo ibilli ostean, “Takur Errena” izeneko txabolategian nintzan. Bizitegi ziztrin bateko atean egoan emakume bateri, El Txoro’ren etxeko elbideaz itaundu neutsan, eta andik laster, aren txabolaren aurrean Txorito ikusi neban, eta ni ikustean, begi argia egistala begitandu yatan. Burua laztandu neutsan, eta,

– Ama etxean al-da...?

– Bai.

Sartu nintzan, eta aparra-mantarra batzuk birjosten ikusi neban. Arrituta begiztatu ninduan, eta,

– Zeu, Jauna, barriro...?

– Bai, janari batzuk ekartea otu yat, eta emen nozu.

Au esanik, mai koloka baten gaiñean lotukia edegi neban, eta onen ugaritasuna ikustean,

– Onenbeste gauza guretzat...? –itaundu eustan, ekusana nekez siñisturik.

Janariketaz gaiñera, umeentzat janzki bana erosteko agindu izan neutsan izekori, eta oneik ikustean, emakumeak,

– Ezin dot ulertzen, Jauna, zergaitik gu lako ijito ezezagunak onen eskuzabal so-rosten dozuzan.

Bazala garaia egia esateko uste izan neban, eta,

– Begira, ostuketa baten ondorioz ni naz Txoro, zure laguna, baitu nebana.

Une batez begi zorrotzakaz begiztatu ninduan, eta gero,

– Orduan, gutarrak jazarten dabezanetarikoa zara...?

– Nik ez dodaz jazarten zure endakoak, gaizkilleak baiño.

– Bai, baiña geienetan gu gara errudunak. Esan, zergaitik nire gizona baitu, eta gero bere sendiari lagundu...?

– Lapur bat baitu neban nire betebearra zalako, baiña gero, zure ta umeen kinka larria ezagutzean, zuek sorostea erabagi dot. Arazo guzti onetan erruduna nor dan, ez naz epaitzera sartuko. Ez dakit zelako erantzukizuna dozun zure lagunaren txarkerietan, baiña zuen umeak errubakoak dira, eta bizimodu zoriontsuagoa merezi dabe.

Une batez begien itxurea bigundu yakon, eta ezer esan barik, ekarritako jangaik arasa baldar batera sartzan asi zan. Olan ziarduala,

– Aizu, emakume –itaundu neutsan–, zein da zure izena...?

– “La Txigurrera” esaten dauste, edo El Txoro’ren emalaguna.

– Orreik ez dira izenak, izengoiti zakarrak baiño. Aurrerantzean Mari esango dautsut.

Bazirudian, izen barria atsegin yakola, eta aurpegia irribarre argitsuak piztuta, auxe iges egin yakon,

– Mari, Mari, ez dau txarto emoten... Bai, badirudi nire nortasunari ondo yatorkola.

Jatekoak arasara sartu ebazanean, mai-gaiñean umeen janzkitxuak bakarrak geratu ziranean,

– Orain, Mari –esan neutsan– neurtu egiezuz janzkiok zure umeai ondo datorkien ala ez egiztatzeko. Ezetzean, dendariari atzera eroango dautsaguz, dagokiezanan ordaiñez.

Neurtu eutsezan janzkiak, eta ondo doitzen yakiezala ikusirik, Mari’k kendutekoa egin eban lengoak jantziteko.

– Mari, ez orixe...! –agindu neutsan–, lengo janzkiak zatarrak baiño ez izanik, oraintxe bertan metaturik, erreko doguz.

– Tamal andia da, baiña, erositakuok egunoro erabilli dagiezan, laster laskituko yakez-eta...

– Laskitu dakiezanean, barriak erosi, eta kitto.

Onen pozean aurpegia argitu yakon, eta lengo aparra- mantarrak pillo baten metaturik, su emon neutsen, umeen txalo-joteek lagunduta.

Txoro’ren txabola, txiki, zikin, eta ezaiña zan, ol zaar eta latontziakaz egiña, zaborreri ta sundea jaun eta jabe izanik. Gela bakarrekoa zanez, sabaitik eskegitako zorro batzuk erdibitua zan, alde bat sukalde, egongela, eta jatokia izanik, txikiagoa zan beste, lastamarraga batzukaz orniduta, lo-gela izan zeiten.

Atan-orretan naikoa berandu egin izan yatanez, urrengo astean biurtuko nintzake-la Mari’ri esan neutsan. Gero, umeai laztan bana egiñik, joateko zorian nintzala, begi itun andiak nigan josita, mutikoak,

– Jauna, biurtuko zara...? –galde egin eustan–. Beste mutikoek ez dabe nirekin jolastu gura, laster nekatzen nazalako, baiña zu lako adiskide bat izatea nai izango neuke.

– Biurtuko naz, eta biok jolastuko dogu.

– Au nire poza...!

Eta au esatean, eskutxu baltzaranakaz txalo-joten asi zan, begi goibelak argi-izpiño batez pizten yakozala.

Aginduta lez, urrengo astean auzo aretara biurtu nintzan, aurrekoan lez, beste janari-lotukia nenkarrela. Mari'k pozik artu ninduala, agiri zan bere aurpegiaren itxuraz. Oraingo onetan, lengoan nik ekarrirako janzkia erabillezan umeek, aurpegi garbiek eta ondo orrazturiko billoek ume atsegiñak biurtzen ebezala. Neskatotxua txikiegi izanik, ez eustan jaramon andirik erakutsi, baiña nebeak, ostera, irribarreka artu ninduan. Gero, amari mintzatuz,

– Aizu, Mari –esan neutsan–, zoriondu bear zaitut umeak garbi, eta etxea txukun ikusten dodazalako.

– Bai, Jauna, janaria billatu bear ez dodan ezkerro, astirik badot umeak jagoteko.

Udabarriko arratsalde ederra zan, eta giroak eraginda, mutikoa eskutik artuta, auzo-ingurutik osteratxu bat egiteko asmoz, etxetik urrundu gintzazan. Genkusanaren barri emostan berak, eta agiri zan nire laguntasunak arrotzen ebala, ango jendeek zelako adiskide dotorea eban ikusi egikielako. Ozta-ozta, baiña, ordu-erdi igarorik, nekearen ezaugarriak emoten asi zan, txitean-pitean arnasa artzeko gelditu bear ebala. Ez neban luzaroagorik itxaron gura, eta mutikoa besoetan artuta etxerakoa egiten asi nintzan. Besotxu argala idun-inguruan ipiñi eustan, eta ibilli genbiltzala, mintzo aul, meeaz,

– Ba al-dakizu gauza bat...? –esan eustan–. Txoria izatea gura izango neuke, nekatu barik ortzi oztifñean zear lumatxu baten antzera joatearren, eguzkiak besarkatuta, eta txio alaietan barruko nire amesak aletuz...

Mutikoa iñostana olerki utsa begitandu yatan, eta jakingureak zirikatuta,

– Aizu, Txorito –itaundu neutsan–, nork irakatsi dautsu gauza ederrok esaten...?

– Iñork be ez, gauzok berez yatordaz-eta. Gabaz, lotan ames ederrak parrastaka daktorkidaz, eta ni oartu barik txoria biurturik, gau osoan zear egan egiten dot goizalderarte, eta orduan itxartuta, egoak galduz gaiñera, barruko min orrek artzen nau barrero...

– Esan, Txorito, zelakoa da jabetzen zaituan min ori...?

– Jangar eta nakar biurtzen nauan gatxa da, eta beste lagunekin jolasten diardudanean, arnas-estuak menperatzen nau.

Etxera eldu gintzazanean, Mari gure begira egoan, eta mutikoa ate-ondoko arraulkian jesarten nebala,

– Badirudi, Txorito nekatu egin dala, eta ekarri egin dot.

– Atsegin yako ortik ibiltea, landetatik batez be, baiña bereala nekatzen da, itoaldiak yatorkozanetan batez be.

– Noiztik etorri yakon gatx ori...?

– Betidanik, nik uste –erantzun eustan Mari’k–, baiña azken aldiotan egunean baiño egunean makalago ikusten dot.

– Eta osagilleek zer diño...?

– Uste al-dozu, orreik gugana etorteko aalegintzen diranik...? Bai zera...! Begira, Jauna, auzo onetan ez dot egundo osagillerik ikusi, eta ez dot iñoiz ikusiko be. Gure enda, bizitzaren ekaitzan zear doan aizeak sakabanaturiko auts-pilloaren antzekoa da. Auts-kizi bat gorabeera bost ardura munduari...

– Eta zure gizona, mutikoaren gatxari buruz jakitun dago...?

– Ez da izango ba...? Begira, Jauna, betseiñak lez maite gaitu, eta jardun-ezagaitik gurean ogirik ez danean, arrapaketeari emon bear izaten dautsagu. Ori ondo ezagutzen dozun gauza da, lengo egunean zerorrek baitu zenduan-eta.

Errurik izan ez arren be, isildu nintzan, eta alako baten, Txorito’k,

– Aizu, Jauna –eskatu eustan–, esaidazu ipuin bat...!

Aititik edestu oi euskuzan ipuiñen artetik arakatu neban, eta jarraian mutikoak abo-zabalik entzuten eustala, ipuin polita jalgi neutsan. Edeskia amaitu nebanean Txorito’ren begietan ordurarte iñoiz ez ikusiriko dizdir bizia agiri zan, eta,

– Esan, Jauna –itaundu eustan–, olako ipuin polita edestuko daustazu, ikustera etorri zakidazanetan...?

– Bai, Txorito, edestuko dautsut.

Berandutxu zan arrezkero, eta illuntzeko argi-itzaletan etxera biurtu nintzan, osagilleai buruz Mari’k esanikoa burutik kendu eziñik.

Urrengo ikerraldian, oiko jangaiekin antzar-joko bat ekarri neban, eta Txorita’k (Txorito’ren arrebea) bide-ertzeko txibiritak eta zomorroak batzen ebazala, mutikoari antzar-jokoaren arauak irakatsi neutsazan, eta andik laster jokoari emon geutsan. Txorito’k ez ebazan ezagutzen zenbakiak, baiña seialdeko sei zenbakiak bereizten laster ikasi eban. Zorionsua zirudian, irabazten ebanetan batez be, eta aal nebazan amarruen bidez, gaiñetik urten zeiten aalegintzen nintzan. Egun aretan ipuiñik eskatzea aztu egin yakon.

Eta olan, astean bein sorostera ta ikertzera niñokiela, egunak eta illabeteak alkarri erraikioen. Aste guztietan Mari espetxera joian laguna ikertzera, bide batez jangai batzuk erotsazala. Nire sorospenari buruz jakitun ipintea Mari’ri itarantzun neutsanez, nire laguntza ezagutzen eban Txoro’k. Espetxetik urteteen zer billakatuko litzakela, sari askotan menperatzen ninduan buruaustea zan, eta berarekin alkarriketa bat izatea onuragarria izango litzakelakoan, bein baten ikertzera joan nintzakion. Burdin-sarearen atzetik laster ezagutu neban, eta Mari’ren bidez eskuraturiko janzki barria zala-ta, orain ante obeagoan ikusi neban. Berak be laster ezagutu ninduan, eta nirekiko gorroto-izpirik bage ikustean, bake-sentipenaz bete nintzan. Oiko lenengo agur eta itaunak alkarri esan ondoren,

– Aizu, Txoro –esan neutsan–, datorren illean emendik urtengo zerean ezkerero, zelako ustea dozu orduko...?

Soiñak jazo ebazan, eta,

– Nik al dakit...! –erantzun eustan–, bizitzen jarraitzea gauza erraza ez yatala izango, ori ziurtzat dot.

– Begira, Txoro, sendi baten burua zerean aldetik, zureak zaintzea dagokizu, eta beraz, burua ataratzeari ekin bear dautsazu.

– Bai, ekingo neuskio, baiña zelan, guretzat jardun bat lortzea ain zaila danean...?

– Begira, lagun, orreri buruz, Elene, zeiko barazki-saltzaillemearekin mintzatu naz, eta gurdi bete barazki egunoro ust, saltunera eroan, eta arratsaldeetan erratza ta urez lekua garbituko ba’zeuntso, lau orduko alogera emongo leuskizu. Zer deritxazu eskintzeari...?

– Egirik izango ete diñostazuna...?

– Benetan diñotsut, Txoro. Jardun orretan irabaziko dozunaz, zureak polito biziteko beste izango da, eta gaiñera, beste saltzailleakandik be ordu batzutako jardunaz biribilduko zenduke ekarria. Orren aurretik baiña, berba emon bear daustazu, bene-benetan jardungo dozula, lengo txarkeriak bein betirako baztertuz.

– Bai orixe...! Ziñez diñotsut, niri buruz ez dozula iñongo osterarik artuko. Pozik zirudian lan-eskintzaz, eta untzea tinkatzeko,

– Begira, Txoro –esan neutsan–, gogoan izan, epaikariak esandako auxe: beste urrengo baten arrapatu ba’zinduez, espetxaldia askozaz luzeagoa izango litzakizula. Bildur-antzeko itzala edatu yakon aurpegian zear, eta mintzo dardartsuz,

– Benetan diñotsut, Txomin –esan eustan–, niri buruz ez dozula osterarik txikiena be artuko.

– Ondo da; illabete baten ostean jare zaitezanean, astirik galtzeke Elene’gana joango zara, eskiñitako lanari buruz berba egiteko.

Laster igaro zan epe ori, eta Txoro jareginda, zeian lanean asi zan. Esan bearrean naz, guztien atsegiñez jardun ebal, eta irabazitakoa naikoa izanik sendia aurrera atarateko, janariz laguntzeari uko egin neutsan. Ez, ordea, “Txakur Errena” auzora astero joateari, eta izan be, sendiaren aurrerakadeak on-izatearen bidetik, azaldu ezin dagikedan poza ekarri eustan. Bazan, baiña, odei illuna ortzi garden aretan, eta ijitoen txabolara nindaroan eragin indartsua: Txorito’ren osasun-beerakadea, izan be. Nire sorospenaren bearrik ez eben leku aretan, baiña mutikoaren begietan irakurri nengikean, zelako poza ekartsan nire ikerraldiak, eta andik alde egiten nebanetan mutikoaren aurpegi ituna ta eskakizun etsia ezin nengikeazan nigandik uxatu.

– Txomin –agurtzen nintzanetan esan eroian–, noiz biurtuko zara nirekin jolastera...?

– Aste baten buruan etorriko naiatzu.

– Orren berandu...? Zergaitik ez zatoz biar barrero be, beste ipuin bat niri esateko, eta gero antzar-jokoan egiteko...? Ez ete yatzu atsegin jolastea...?

Eta umearen eskari orreri jarki eziñik, astean birritan etorten asi nintzan. Bein baten txabolategitik biurtzean, mutikoaren aurpegi zardaiak eraginda, bazala garaia osagille batek aztertu egian, erabagi neban, eta gau aretan osaba-izekoean osagillea-

gana joan nintzan. Adeitsu artu ninduan, eta zerk nindaroan beragana itaundu eustanean,

– Begira, On Yulen –esan neutsan–, mutiko geiso bat aztertu dagizula nai dot.

– Non bizi da...?

– “Txakur Errena” auzoko txabolategian.

– Lekutan...! Oba beste osagille bat billatu dagizula. Auzo orretako geisorik ez dot ikertzen, eta gaiñera oso urrun dago.

– Mezede anditzat eskatzen dautsut ori. Zu zaitut ezagutzen dodan osagille bakarra, eta ez dakit nogana jo.

Une batez ezpaitsu iraun eban, eta gero,

– Ezin dagiketsut ezetzik emon. Esaidazu mutikoaren elbidea.

– Ez da bear, neronek lagunduko dautsut-eta.

– Zatoz biar arratsaldeko seiretan.

Olan egin neban, eta erri-berebillez, eta gero oiñez, ordu-erdi igarorik, txabola-tegira eldu gintzazan. Eguraldi ederra izanik, ate-ondoko arrizko aulkian Txorito jesarrita egoan. Ikusi ninduanean aurpegiñoa alaitu yakon, eta irribarreka artu ginduzan.

– Aizu, Txorito –esan neutsan–, gaur adiskide bat dakartsut ikusi zagizan.

Une aretan Mari agertu zan, eta osagillearen etorrerea azaldu neutsanean,

– Lenengoz da, osagille bat etxe onetara sartzen dala, baiña ondo etorria bedi.

Azterketea egiteko, Txorito barrura sartu genduan, eta mai-gaiñean etzanda, argia sartu zeiten atea zabalik egoala, astiro ta zeatz On Yulen'ek azterketa luzea egin eutsan. Bildur zan mutikoa, eta soillik amaren eta nire eskuai eutsita, azterketea jasateko gerturik azaldu zan. Azkenean, ziztiki bat az odol-artzea egin eutsan, gero, onen kimi-azterketea egitearren.

Uriburuko erdigunera biurtzen gintzazanean,

– Ta, zer diñostazu...? –itaundu neutsan–.

– Mutikoak ez dau itxura onik emoten. Dana-dala, etzi odolaren kimi-azterketea ezagututa, eritxia emongo dautsut. Zatozkit, beraz, ordu onetan etxera, eta zeozer esango dautsut.

On Yulen'ek agindutako egun eta orduan etxera joan nintzakion, eta aurrez-aurre aulki banatan jesarrita,

– Nire suzmo txarrak egi biurtu dira, Txomin –esan eustan–. Mutikoaren gatxa odol-zurbilla (leucemia) da.

– Eta ze arraio da ori...?

– Odol-zurien (leucocitos) neurritz gaiñeko garapena da.

– Larri ete da ori...?

– Badira mailla batzuk, baiña mutiko orrena txarrenetarikoa da. Ez dot uste, beraz, luzarorako izango danik.

Korapillo bat eztarrian kokaturik, auxe itauntzen azartu nintzan:

– Zein luzaro...?

– Zeatz iragartea ez da erraza, baiña nire oar-ikastetik, iru illabete or-or ibilliko da.

Aurpegian igarri eustan nire naigabe bizia, urrean, eta zelan edo alan ni nasaitzearren.

– Astean bein ikustera joango natzaio –esan eustan–, eta gaizkatzerik izan ez arren, oiñazeak arindu, eta eriotz duiña emoten saiatuko gara: zuk maite dozun adiskidea ikertzen, eta nik bere miñari aringarriak emoten.

Etxera biurtzean, noraiño maite neban mutiko zoribakoa oartu nintzan. Eriotzak laster kenduko leuskidana jakitean, beraganako nire samurtasuna itxartu yatan, eta nire buruari zin egin neutsan, iru illabete areitan bere azkena zelanbait arintzearren, egunero ikertzera joango nintzakiola.

Gau aretan loa nigandik urrun ebilkidan, eta guztitariko oldozkun goibelak alde-erreskan yatordazala, bapatean, burutapen larriak menperatu ninduan, eta auxe alegia: olan, beste barik, Txorito gaixoa gugandik joango litzake, eleizearen ugutzapena, eta izen egokia artu barik...? Ezin nengikean olakorik jasan, eta arratsaldean, "Txakur Errena" auzora joan nintzanean, egitarau zeatza buruan nerabillen. Oiko alaitasunaz artu ninduan Txorito'k, eta eguneko ipuiña mutikoari esanda gero,

– Aizu, Txorito –itaundu neutsan– ugutzapena edo bataioa artu gura zenduke...?

– Zer ete da ori...?

Zailla yatan bera lako bost urteko ume bateri, ugutzapena zer dan adierazotea, eta nire baitan une batez bilduta iraun ondoren,

– Ara... Jaungoikoaren semetzat bereizten gaituana.

– Zer da Jaungoiko edo ori...?

– Ludia edo mundua egin dauana da. Mendiak, landak, eguzkia, geurok eta danadana, Jaungoikoak sortu ditu.

– Eta zeuk be artu zenduan ori...?

– Bai, neu be ugutzau ninduen erriko eleizean, nire gurasoek olan gura izanik

– Orduan, ugutzau izatea nai dot.

– Gaiñera, ereti orretan izen bat artzen da. Bataiatu nindueanean, Txomin izena emon eusten.

– Izenaren polita...! Eta niri zein izena emongo dauste...?

– Zure gurasoek edo zeuk aukeratu dagizuena

– Nik Txomin izan gura dot, eta anditu naitenean, zeu lez izango naz.

Zarrastada andipean burua laztandu neutsan. Iru illabete soillik, eta arrezkero ez litzake txabolaren aurrekaldean jesarrita egongo, inguruko landak eta mendi urrutiak begizatzen. Atsekabe biziak artuta, eskutik artu neban eta txabolara sartu gintzazan. Orduko, Txoro jardunetik biurtu izan zan, eta alabatxua belauen gaiñean jarrita onekin jolasten ziarduan. Sartu nintzanean, aulki bat eskiñi eustan Mari'k, eta astirik galzeke mamiñera joanez,

– Umeok, biok, ugutzau zenduezan...?

Buru makur iraun eben une batez, eta gero Txoro'k,

– Ez, Jauna.

– Ordua da, egin dagizuela.

– Zertarako, baiña...?

– Jaungoikoaren semetzat bereizteko.

– Zelako onurea atarako dabe ortik...?

– Zaila litzakit ori azaltzea, baiña ziur zaitekeze ortik ez litzakiela iñongo kalte-rik etorriko.

Orduan Mari tartetu zan auxe iñotsala:

– Nire ustez Txomin zuzen dago. Garaia da, beste umeak lez ugutzau izanez gaiñera, izen egokiak erabilli dagiezan, eta ez iñongo izenak ez diran Txorito ta Txorita.

– Olan izatekotan, niketz ez da oztoporik izango –erabagi eban Txoro’k–.

– Orduan, laga egidazue niri esku-sartzea, eta laster atonduko dogu dana.

Txabolatik urten-agifnean, mutikoak nire eskuari eutsirik,

– Nire poza dan andia...! –esan eustan–.

Eta orren pozean, eskuan mun egin eustan. Aurpegitxu zurbil, erkiña, bigun laz-tandu neutsan, eta biotz-ikara batek jota, urten nintzan.

Biaramonean, ugutzapen bien gerkunai emon neutsen buru-belarri. “Txakur Errena” txabolategiari egokion parrokira joanda, abadea ikertu neban, eta onen baietza artuta, emoteko ziran urratsai emon neutsen. Laster, baiña, oztopo bat aurkeztu zan, eta auxe alegia: gurasoak ez ziran eleizaz ezkontuta, eta arazo onetan aginduak zorrotzak izanik, umeak ugutzatzeko, gurasoak eleizaz ezkondu bearko ziran. Ona emen ba, beste korapillo bat, baiña ekin eta ekin, noizbait dana atondu zan.

Txabolategiaren arazoak, ijitoek oi daben lez, aitalen (patriarca) batek erabilten ebazan, eta “Txakur Errena”renak Kinto izenekoa, oso zuurra ta agurgarria zanak erabillezan. Beragana joanda ta jakitun ipiñi ostean, eskuen artean nerabillena atontzera lagunduko leuskidala agindu eustan. Gero, Txoro ta Mari’gana joanda, oneikandik, eleizaz ezkontzeko baimena lortu neban. Asmoa aurrera eroateko, beraz, ez egoan iñongo oztoporik, eta eguna berbatua, onetaraxe atondu genduzan ospakizunak:

Gurasoen ezkon-lagunak Kinto ta onen emaztea izango litzakez. Txorito’reñ aita-amabitxiak, izeko Garbiñe ta biok, eta Txorita’reñak On Yulen eta beronen emaztea. Ospakizuna, Txabolategiari egokion eleizan, eta Larunbateko eguberdiñan izango zan. Bakuna baiña niretzat biotz-unkigarria azaldu zan. Lenengo, Txoro ta Mari’reñ ezkontza, eta onen ostean, ume bien ugutzapena. Erabagi zan, mutikoak aukeraturiko, Txomin izena artuko leukela, eta bere arreatxuak, Elixabete, On Yulen’en emaztearena.

Ugutzapen bitartean mutikoa besoetan nebala, osatu zeiten Jaungoikoari eskatu neutsan, eta au eziña izatekotan, geiso ta eriotzaldi gozoak jasan egiazala. Elixabete ugutzau ondoren, eleiza-aurreko enparantzan bilduta, argazki batzuk egin euskuezan, eta amaitu ziranean, Txomintxu’ri urrezko gurutz, katea ta guzti idun-inguruan ipiñi neutsan, eta jarraian ipuin-liburu eder-ederra eskuratuta, auxe esan neutsan:

– Egunoro ipuin bat irakurriko dautsut, ames egitera ikasi dagizun.

Liburua eunetik gorako ipuiñekoa zan, guztitariko irudiakaz edertuta, eta egitura bikaiñekoa, izan be.

– Eskerrik asko, osaba (olan esaten eustan beti); pozik nozu esku-erakutsiakaitik, baiña niretzat atsegiñik andiena, Txomin izeneko izatea da.

– Ederto Txomintxu, baiña izena laburtzearren “Mintxu” esango dautsut. Zer deritxazu orreri...?

– Politagorik ez, osaba...!

Onen ostean, ospakizunkideek, abadearekin, jatetxe on baten gure biziko bazkari alaia izan genduan, eta gero, aldarterik onenean bakotxa bere etxera biurtu zan. Osaba-izekoai etxerañiño lagunduta, On Yulen’ekin autu bat izan gura neban ezkerero, bera ta emaztearekin egurasten jarraitu neban. Ibilli genbiltzala, udabarriko arratsbeera aren eguraldi bikaiña gozatuz,

– On Yulen –itaundu neutsan–, uste al-dozu Txomintxu osatu daitekeanik...?

– Nire ustez, eziña da. Badira odol-zurbil edo leuzemiaren mota batzuk, baiña mutikoarena txarrenetarikoa da; ez dot uste, illabete bitik gora iraun dagianik. Aztertzen dodan bakotxean, gero ta txartoago dakust. Odol-zuriak ugaritzen yakoz neurritz gaiñetik, eta beste ezaugarrien artean, oneixek aipatuko dautsudaz: azur-muiñen aldakuntzea, barruko odol-isurtzeak, eta akipen edo nekea. Ez, Txomin, damu gatxez mutikoak ez dau gaizkapenik. Bere alde egin daiteken bakarra, oiñazeak arintzea da, azurak min emoten asi dakiozanean batez be.

Egun atsegiña emon ondoren gabeen etxera biurtzen nintzanean, Mintxu’reñ alde ezer egin aal ez izateak, gogoia marrazkatzen eustan, eta nire buruari agindu neutsan, zor nai lor, mutikoaren azkena arintzearren aaleginduko nintzakela.

Ordutik, Mintxu ikustearren, egunoro niñoan “Txakur Errena” txabolategira, batzutan goizean, bestean arratsaldean, au da, jardunaldia zelan yatordan. Laster asteko zan udea, eta txabolaren ate-ondoko arrizko aulkian alkarren ondoan jesarrita, egunoro ipuin bat irakurri oi neutsan. Adimen ameskor eta samurrekoa zan, eta noizean bein etenaldiak egiñez, irakurritakoaren esangurea azaltzen neutsan. Sarri askotan, inguruko txoriak begizatuz auxe iges egiten yakon:

– Osaba, nork egoak izango txoriok lez, eguratsean zear egan egiteko...! Aizearen besoetan lumatxu baten antzera gora ta gora igongo nintzake izarrak laztantzeraiño...

– Egunen baten, Mintxu, irrikaturiko ego yaukalok izango dozuz, eta orduan iñoiz ez asaturiko zoriona ezagutuko be.

Ipuin-bildumaren artean bazan bat gogoia eroaten eutsala, eta auxe alegia: “Kilkerren Oiana”, eta auxe iñoan:

“Beiñola, bazan oian eder baten bizi izaten zan mutiko ameskorra. Bere txabolaren ondoan jesarrita, udako gau gardenetan izarrak begizatzen ebazan, eta aldia igaro-ala, areikana joateko jöran bizia sortu yakon, baiña urrutiko ñir-ñirraz, izarrak eldu-eziñak azaltzen ziran. Egunean baiño egunean anditzen yakon gurariak asperenak eragiten eutsazan.

Illunabar baten, Txirrita, kilkerren erregea andik igaro zan, eta umearen asperenak aditzean, auxe itaundu eustan:

“– Baiña, Gaizka, maite ori, zergaitik orrenbeste asperen...?”

“– Begira, Txirrita, izarrakanaiño joateko gurari bizia sortu yat, baiña zelan joan, egorik ez dot -eta...?”

Iru gabaz igaro zan Txirrita Gaizka'ren txabola-aurretik, eta noizbait, mutikoaren aiene biziak bigunduta, oianeko bazter guztietara mezulariak bidali ebazan, eta urren-go gabeen milla kilker erraikiozala agertu zan Txirrita. Urreratu-ala, milla kilkerren kirrika zoragarria aditzen zan gabaren altzoan. Soiñu zoragarria entzutean, lilluraturiko Gaizka'ri asperen egitea aztu egin yakon, eta txaloka ziarduala,

“– Aizu –itaundu eutsan Txirrita'ri–, zer ete da soiñu zoragarri ori...?”

– Nire erriaren soiñua da. Ego-arrabitak (violines alados) dira, udabarriko maitasun-eresia aletuz.

“– Oi, Txirrita, nork jaulkiko, eresi zoragarri ori...!”

Eta gero betiko guraria beratzaz jabetzen zala,

“– Orretarako, baiña, egoak izan bear, eta nik ezin, ai ene bada...!”

“Negarrari emon eutsan Gaizka'k, eta bere atsekabea ikusirik, kilkerren erregea errukitu zan, eta,

– Begira, Gaizka –esan eutsan–, gauoro nire egoak emongo dautsudaz, baiña egunsentia barik, atzera emongo daustazuz. Izarrek maite-maite dabe kilkerren soiñua, eta orain, zure bidez entzun aal izango dabe.

“Onen pozean txaloka asi zan Gaizka, bere ames bizia, noizbait, asetzen egikealako, eta eguratsean zear izarrakana abiatu zan, kilkerren soiñuak lagunduta. Gau bakotxean izar bana ikertzen eban, eta berarekin ekarren soiñuaren edertasunak lilluraturik, izarrak dardarka asten ziran ikara bigunetan, alkarri inotsoela, ames egiteko ezer ez kilkerren soiñua baizen eraginkorra. Egunsentia baiño len, Gaizka ludira biurtzen zan, eta eguzkiak gabaren azabatzea urratu aurretik, etxolaren aurrean begira eban Txirrita'ri, egoak atzera emotsazan.”

“Udabarría amaitu zanean, baiña, Txirrita, kilkerren erregea lo-gurak menperatuta, bere zuloan babestu, eta ego-arrabita isildu yakon. Naigabeturiko izarrek alkarri inotsoen zargaitik ez etorkien egodun mutikoa, euren loaldian amesak sortzeko, eta egun baten mutikoaren etxolara mezulari bat igortzea erabagi eben, orretarako euren arteko txikiena aukeratzuz.”

“Jatsi zan izartxua oianeko etxolaraiño, eta mutikoari,

“– Aizu, Gaizka –irautsi eutsan–, eurokana biurtu zaitezala nai dabe izarrek.

“– Kilkerren erregea nonbait ostenduta, ez dau nigana etorri gura, eta augaitik joaterik ez dot.

“– Goazen Txirritagana.

“– Ez dakit non bizi dan, baiña.”

“– Ikazkiñak, oianeko errege baltzak jakitun ipiñiko gaitu. Itaundu egiozu.

“Joan ziran ikazkiñagana, eta txondorraren ondoan ikusirik, Gaizka'k,

“Aizu adiskide, esango daustazu non ezkututzen dan, Txirrita, kilkerren erregea...?”

“Buruari atz egiñez, ikazkiñak,

– Landagarai'ko arte tantaiaren ondoko zuloan –erantzun eutsan–.

“Joan ziran ba izarñoa ta Gaizka aipaturiko lekura, eta tantaiaren ondoan, Txirrita'ren jauregia idoro eben, eta oles egiñik, kilkerren erregea arrausika azaldu zan, eta mutikoa ikustean,

“– Zer nai dozu nigandik –itaundu eutsan.

“–Ara, izarren mezularia dan izarño onek, barriak dakaz.

“– Zelako mezua dakarkit...?”

“– Begira, Txirrita –esan eutsan izarñoak–, emiozuz egoak Gaizka'ri gauoro etorri dakigun kilkerren arrabitzaz, geugan ames ederrak sortzeko.

“– Eta zer egingo dot nik egoak barik...?”

“– Ori baiño ederragoa dan gauza bat emongu dautsut. Ipurtargia biurtuko zaitut, gabaz basoan zear galdu diranek bidea aurkitu dagien. Urdir-orlegixka dan dizdir orre-ri, itxaropenaren argia esaten dautsoe.

“Au esanik, izarñoak ipurtargi baten itxura artu eban, eta lilluraturiko Txirrita'k zorionez dar-dar, auxe esan eutsan:

“– Torizuz nire egoak, eta emoidazu itxaropenaren argia.

“Eta egoak Gaizkari emonda, ipurtargi ederra biurtuta, basoan zear abiatu zan, bazter guztiak dizdir amesgarriaz argitzen ebazala. Kilkerren erregearen ego-arrabitzaz jantzita, Gaizka ta izarñoa urrutiko izartegira biurtu ziran, eta ordutik, gauoro, oianeko etxolatik izarrakana joian, bere ego-eresiaz ames egien, eta goizabarraren aurretik etxera biurtzen zan, eguzkiak ego yaukalak laskitu ez egiozan.”

Auxe zan Mintxu'k naiago eban ipuiña, eta sarri askotan edestu-erazoten eustan, buruz ikasi arte. Bein baten, baiña kilkerrek ezin dagikiela egan egin oartu zan mutikoa, eta auxe esan eustan:

– Baiña, Txomin, zelan izarretaraiño egan egin kilker egoakaz, oneik gai ez iza-nik egan egiteko...?”

Ausnar geratu nintzan une batez, eta gero,

– Begira, Mintxu, kilkerrek ez dabe egan egiten, baiña Txirrita kilkerren erregea izanik, bai, arranoak baizen ondo egikean.

– Zuzen zagoz, Txomin, aztu egin yatan, kilkerren erregea zala.

Bajoiazan egutegiko orriak ostentzen, eta onekin batera, Mintxu'ren osasun-beerakadea nabari egiten zan, jangar eta nakar gero ta argalago. Aurpegiaren larmintz baltzarana be, gero ta zurixkago. Txarrena, baiña, azurren miña zan, eta au agertu yakonean, jakitun ipiñita, On Yulen'ek auxe esan eustan:

– Ori gatxaren azken ezaugarria da, eta osagilletzat bere alde egin dagikedan bakarra, miñak kentzea da. Biar mutikoa ikertzera joango natzaio, eta bidebatez, amari irakatsiko dautsat zelan ipiñi bearreko ziztikiak.

Olan egin eban gure osagilleak, eta laster ikasi eban Mari'k semearen oiñazea barretzen. Eguraldi ederra izan arren be, ate-ondoko aulkian egoteaz mutiko nekatzen zan, eta On Yulen'ek berariz ekarritako besaulki baten erdi-etzanda, orduak emoten ebazan

lo-kuluxka. Ikustera nentorrenetan, eta oiko agurra ozta-ozta esanda, ipuin-liburua eskatzen eban, eta onetariko bat irakurri bear izaten neutsan. Bein baten, arnas-estuka ta mintzo aulez, Gaizka'ren ipuiña barriro be irakurri nengion eskatu eustan. Bere esku erkiñari eutsita, azken ipuin-irakurketea izango litzakena, abots astikorraz aletzen asi nintzakion, eta amaitu nebanean,

– Txomin, ipuiñaren ederra...! Nork egoak izan egurats garbian zear beti gora ta gora egan egiteko...

– Zeuk be egunen bat ego yaukalak ezagutuko dozuz...

Begi andi illunakaz begiztatu ninduan, eta suzmur biguna zirudian mintzoz,

– Izango al da...!

Arrezkero, ez eban oetik jagi gura, eta begiak itxita, noiz aieneka, noiz lokumak artuta, iru egun min-aringarriaren pean iraun eban. Gau aretan txabolatik urteteko zorian, Mari urreratu yatan, eta negarrez,

– Nire umea ilten da... –esan eustan–. Ez nau ezagutzen-eta...

Korapillo bat saman kokatuta, ezin nik erantzun, eta lekoreko itzalen artean etxera biurtu nintzan. Gau ederra zan, eta laster udea asiko litzake, izarrak garbi-garbi ikusten zirala. Etxera eldu baiño ez, On Yulen jakitun ipiñi nebanean,

– Atzo ikertu neban –esan eustan–, eta ordubete batzuen arazoa da. Ez dot uste biarko gaberaiño iraun dagikeanik.

Biaramonean, goizeko jardunaldia amaituta, bazkalostean “Txakur Errena” txabolategira joan nintzan, eta atea edegi eustan Mari'ren begietan dana amaitu izan zala irakurri neban. Gero, berak,

– Goiz-erdian joan yaku –esan eustan–, ikusi nai dozu...?

Sartu nintzan, eta ugutzapen-soiñekoz jantzita ikusi neban. Samurtasunez beteriko musu bat jarri neutsan bekokian, eta gero amak,

– Nire senarra parrokira joan da, lurperatzeari buruzkoa atontzeko.

Andik laster Txoro biurtu zan, eta,

– Biar arratsaldeko seiretan mezea esan ondoren, auzoko obitegian lurperatuko dogu.

– Entzun auxe, adiskide –esan neutsan–, gauzak duintasunez egin dagizuezala gura dot. Eralguntza guztia nire pentzuan izango da.

Azken gerkunak atontzeko Txoro obitegira joan zanean, soin-arimaz nekatuta, ate-ondoko aulkian jesarri nintzan. Illunabarra urreratzen zan, eta ortzi gardenean beera urre ta gorrimiñezko aintza betean eguzkia makurtzen zan. Goibeltasun esan-eziñaz jabetuta, begiak itxi nebazan, eta Mintxu'rekin bizi izandako zorian eta atsekabe-unekak gomutara ekarri nebazan. Olan nengoala, ustekabez, illunabarra lastanduz eguratsen zear kilker maitemindu baten soiñua aditu zan. Biotz-ikara batez, izarretaraiño joateko kilkeraren egoak oroimenera etorri yatazan... Mintxu'k beti ames egindako egoak noizbait jaritsi izan ebazan, izarrak baiño arantzago eroango leukien ego yaukalak, eta oartzeko, illuntzeko bakean malko bi aurpegian beera jausi yatazan. Txabolara sartu nintzan, eta ipuin-liburua artuta, Mintxu'ren esku gurutzatuen pean ipiñi neban,

Txirrita'ren egoak lastandu bai'leuazan. Baiña orain ez eban iñoren egorik bear, bereak ebazan-eta, aingeruen antzekoak ziran ego eder bikaiñak.

Lur-jota biurtu nintzan etxera. Banekian aspalditik Mintxu eriotzera galdua zala, baiña ume baten joatea beti mingarria da. Ausitako itxaropen dizdiratsua, itotzen dan urretxindor baten txio maitagarria, itzungiten dan irribarre samurra, galtzen dogun maitasun-bitxia...

Biaramoneko arratsaldean, ugutzau izan zan eleizan aintza-meza izan genduan, eta jarraian, andik urrun ez egoan obitegira. Obia gerturik egoan, eta laster, nire adiskide txiki maitea estaldu eben lur-mokillek. Zenbait egunen buruan, nik agindutako burdiñezko gurutza egokion idazkunaz, obi-buruan ipiñiko zan. Astiro, laguntzaileek banan-banan alde egin eben, eta obi-ondoan bakarrik geratu nintzan. Orduan, Mari ezagutu nebanean, berak esandako itzok gogora etorri yatazan. “Gure ildakoen obietan, ez dozu lora askorik, ez malko ugaririk ikusiko. Zertarako oroitu gutariko endako kimu ezain eta gitxietsia...?”

Eta bapatean, egun areitan jasandako naigabea, negar-zotin batez asazkatu yatan, eta une luzean an iraun neban, ijito-endako bateri neugan egoan onena eskiñiz. Gero, iñoizkorik bakartien oartzen nintzala, biurtu, eta bidean beera uriko erdigunera urreratzean, itaun auxe etorri yatan: zer egin nengikean nire adiskide txikiaren alde...? Ezustean, oiñazkarraren argitasunaz, burutapen bat etorri yatan, eta gau aretan oean atzarri nirauala, asmoari ekin neutsan, eta noizbait, lo-gurak erreta, begiak batu nebazan.

Iru egunez oiko nire jardunari emon neutsan, eta laugarrenean, nerabillen egitama naikoa umotuta uste izanik, “Txakur Errena” auzora joan nintzan. Lenengo, Mari ikertu neban, eta naigabe aztu-eziñak jota izan arren be, bazirudian bere eiñera biur-tzen zala. Senarrari buruz itaundu neutsan, eta zeiko jarduna zala-ta, bazirudian aringarria litzakiola semearen eriotza jasateko, esan eustan, eta barriro be niri eskertzeko bearrean zala, ogibide aren bidez etxeko bearrizan larria uxatu izategaitik. Azkenean, Kinto, euren aitalen edo nagusia ikusi gura nebala, eta aren txabolarako argibideak emon egidazala eskatu neutsan.

Andik laster, ate-ondoan jesarrira, Kinto ikusi neban, eta alboan kokatzen nintzakiola, berbetan asi gintzazan. Nirekiko oso amultsua azaldu izan zan beti ijitoen aitalena, eta egun aretan be, ni ikustean aurpegia alaitu egin yakon. Berez doa ez zala jakintza andiko gizona, baiña bai zentzuz beterikoa, eta beretarrek maite-maite eben. Asi nintzakion ba, nire asmoa astiro ta zeatz aletzen, eta aurrera niñean-ala, agiri zan bere zudua ta adorea gero ta andiagoak biurtzen yakozala. Ordubete bi emon nebazan berarekin, zertzelada guztiak astiro ta sakon aztertuz, eta alkarrizketea amaitutzat emon genduanean, Kinto'ren begietan adorearen argia ikusi zeitekean. Alkar agurtu genduanean,

– Orduan, Kinto –itaundu neutsan–, benetakotzat artu dagiket zure menpekoek zintzo jokatuko dabela...?

– Bai, Txomin, nire berbea emoten dauzute.

– Oartu al-zara, Kinto, asmoaren garrantziaz...?

– Ez naz oartuko ba...? Asmo orrek ondo joko ba'leu, niretzat egundoko zoriona izango litzake.

– Ederto, Kinto; biar bertan ekintzeari emongo dauzate, eta onen ostean jakitun ipiñiko zaitut. Agur, eta urrengorarte.

– Agur, Txomin, Jaungoikoak onetsi zagizala.

Urrengo egunean, urizainburuaren bidez entzunaldi bat eskatu neutsan alkateari, eta ozta-ozta iru egun igarorik, Alkate Txit Agurgarria ni artzeko gerturik zala, jakiñerazo eustan urizainburuak. Entzunaldia biaramoneko ordu batetan izango litzake. Aurre-aretoan nintzan ordulariak berbaturiko ordua jo ebanean, eta andik laster, ate andi ederra zabalduz, areto-morrori batek,

– Sartu zaitezala –esan eustan adeitsu–, diño alkate Jaunak.

Sartu nintzan, eta kaobazko mai ederraren bestaldean jesarrita, alkate Jaunak irribarre zabalaz artu ninduan, eta bosteko niri emonez,

– Kaixo, Txomin, aspaldiko ori –esan eustan txeratsu–, jesarri zaitez, eta berba egin dagigun aurrez-aurre.

Begirunez eta eskerronez gaiñezka jesarri nintzan, eta berak txokor andi bateri mustada luzeak emotsazala, auxe esan eustan amultsu:

– Atsegin yat, benetan, zu barriri ikustea, Txomin, nondik ibilli zara aspaldi onetan...?

– Alderdi Zaarrea jarduna nozu betiko lanari lotuta, batzutan goizean, bestetan arratsaldean.

– Garaia da ikusi zagidazan. Esan, zerk zakaz neugana...?

– Ara, Jauna... laguntza eskatzera natortzu, ez niretzat, ezagun batzuen alde baiño.

– Nortzuk dira ezagunok...?

– “Txakur Errena” txabolategiko ijitoak.

– Ijitoak...! Ez niri esan, gero, jende orrekin arremonak dozuzala...

– Bai, Jauna, azaltzeko luzeegia litzaken alanbear batek nai izanda, ango ijito batzuk ezagutu dodaz, baita giza-azpitiko bizi diran baldintzetan be. Berrizan eta zikin-keria nagusiak dira latatzko txabolategi orretan, eta are txarragoa dana, gaizkille-ikastola dozu jasaten daben gabezia edo ezeukia. Arratoitzar kutsugarriak jaun eta jabe dira nonai. Euria danean, zenbatu-eziñeko itogiñakaitik, barruko guztiari ezotasuna dario, biri-gatxak sortuz. Sendiak naaste iguingarrian bizi dira, eta lekuri-ekzak gizaki asko ekintza nazkagarriak egitera bultzaten dabe. Auzo ori, kutsutegi-unea biurtu da, uriburu au amaika kutsuagaz zemaituz. Txirotasunak gaizkille-ikastola biurtu egin dau txabolategi ori, eta sarri askotan, irautzeko, bearrekoena ostutera beartuak dira. Zaila da, Alkate Jauna, ango bizimodua asmatzea, baiña antxe bertan ordubete asko emonda gero, abereak lez bizi izaten dirala esan dagiketsut. baiña gizakiak diran aldetik, zori-txarragoak, adimena daukie-ta.

Isildu nintzan une batez, eta gero berak,

– Eta guzti orretan zelako errua dot, nigana etorri zaitez...?

– Iñongo errurik ez, alkate Jauna, baiña uri onetako erritarrek emon dautsuen aalmen andia dozu, eta beraz, zuzan datza arazoaren giltza.

– Zer itarantzuten daustazu, Txomin, uri onetako ostatu bikaiñetara udalaren pen-tzuan kokatu dagidazala...?

– Ez, Jauna, baiña unetxu batez aurrera jo dagidan lagaten ba’daustazu, nire egitasmoa azalduko dautsut. Ara... “Txakur Errena” txabolategiaren aurrean, udaleko jabetasuna dan landa zabala edatzen da, eta onen zati baten auzo barria eraiki daiteke...

– Auzo barri bat diñostazu...? Oartzen zara, ori egiteko bear izango litzaken diruketea...? Ez dogu orretarako beste dirurik, ez urrik emon be...! Eta onezaz gaiñera, zenbat sendi bizi dira an...?

– Berrogei bat, alkate Jauna.

– Orrenbeste egiteko ez dogu dirurik.

– Diruketa andirik ez da bear. Ara... udalak etxe barriak eraikiteko, oiko gaiak, au da, buztinbarriak, teillak, espaloia, abeak, zura, igeltsua, ate ta leioak, ur-odiak, tximistariak eta abar, duan emongo ba’leuz, auzokideok, eurok, etxeak egingo leukiez, eta olan, esku-lana duan izanik, eralguntza askozaz txikiagoa izango litzake.

– Ez niri esan, gero, Txomin, “Txakur Errena”ko ijitoak eraikilari edo arkitektoak jaijo diranik.

– Ez, Jauna, baiña Udal Txit Agurgarri onek, euren aukeran eraikilari bat ipiñiko ba’leu, onen agindupean etxeak egingo leukiez, baita pozik be. Ara, ango aitalen edo nagusiarekin mintzatu naz, eta egitasmori ezagutzean, bere agindupean auzokide guztiak buru-belarri jardungo leukiela itz emon daust.

Isillune bat sortu zan, eta alkateak eraikintzaren aurredomu ariña egin ondoren,

– Damu dot, Txomin –esan eustan goibel–, baiña udal onek ezin dau ijito ganorabako orreintzat, orrenbeste dirurik eralgi. Badira uriburu onetan, beñiñagoak diran beste bearrizan batzuk.

Itzok entzutean, atsekabearen-atsekabez gela biraka asi yatan buruan, eta une batez zer esan ez nekiala irauan neban. Bapatean, baiña, gogora etorri yatan, alkate andinai ta ospe-gura zala, eta lengoan erabilli neban koipekeria, orain be erabiltea otu yatan, eta mintzo eztsuz auxe esan neutsan:

– Alkate Jauna, zeuk egiñiko zenbakiak ez dodaz zalantzan ipiñiko, zure eginkizuna ondo ezagutzen dozula gauza agiria dalako, baiña ez dakit gogoan artu ete dozun asmo orrek ekarriko dauzan ondoreak. Uriburu onen ospea azal eta zabal ibilliko da nonai, eta udal onen on-egitea bazterretan eredutzat aipatuko da. Gaurregun, gizartearen alde egiten diran obakuntzek jendearen adikunea erakarten dabe, eta izan be, uritarrek ez dabe olakorik ate-atzean botako, ez orixe...! Ekintza andiak gizon andiai dago-kiez, ez erdipurdikoak diranai. Orra or, arruntakeriaren gaiñetik bereizten diran gizan-diai eraikitako soin-enborreko irudigintzak. Baiña laga dagidan alde au, zu, alkate Jauna, guztien zorionerako, ezerezkeri orrekin gaiñetik bizi zareana gauza ezaguna da-ta. Alkate on batek, uri on bat, garbi, eder, eta osasuntsua merezi dau, eta onaiño eldu naza ezkeri, badiñotsat nire buruari, nork izango zeuk beste eskubidea guztien oneritxia erakarteko...? Begira, Jauna, uria ondo ezagutzen dabenak urizaiñak dira, eta urizaiña nazan aldetik, esan bearrean naz, emengo uritarrek ez dirala oraindiño oartu, zelako alkateak euren arazoak darabilezan... Tamala, baiña olantxe da. Noiz elduko da eretia, baiña, zure bikaintasunari ordaindu dakiona...?

Itzok esanik, itxura naigabetuaz aulkitik jagi, eta urtetekoa egin neban; agurtzeko zorrian nintzala, baiña, alkateak keiñu batz gelditu ninduan, eta abots oldozkorraz,

– Edozelan be –esan eustan–, diruketa andia ta guzti, autortu bear dautsut, merezi dauan ardurea emongo dautsadala arazoari. Zuur jokatzuz, gaien balioa gitxitu daiteke... Bestaldetik, badira diruaren gaiñetik jari bear diran beste gauzak, eta onein artean, uritar guztien on-izatea dogu. Begira, Txomin, udaleko eraikilariarekin berba egingo dot, eta aurre-domu zeatza izan dagigunean, orduan udalbatzari aurkeztuko dautsat, eta ikusiko... Baietzean, dei egingo dautsut. Agur, Txomin.

– Agur alkate Jauna.

Pozik urten nintzan alkate-gelatik, eta arazoa ijitoen alde erabagia izan ez arren be, alkateagan ikusiriko azken aldakuntzak, itxaropena emostan. Arrezkero, egunoroko zeiko zaintzaldian, Txoro'k nire asmoari buruz itauntzen eustan, eta "Txakur Errena" txabolategian jendea adoretz irakiten aurkitzen zala lanen begira, iñostan. Zer jazoko be, baikorregi ez izatea esaten neutsan, asmoa aurrera atarateko ziurtasunik ez gendualako, eta onezaz gaiñera, udaleko ekintzak astirotsuak izan oi dira.

Alkateari aurpegia artu neutsanetik astebete bi igarorik-edo, dei bat artu neban beragana joateko. Onen idaztegi bikaiñera sartu nintzanean, alkatearekin uriko eraikilaria ikusi neban, eta biok agurtu ondoren, alkateak,

– Begira, Txomin –esan eustan–, jakiñerazo bear dautsut, araiñegungo batzar nagusian, ontzat emon dauala udalbatzak "Txakur Errena" txabolategia ezereztea, eta onen aurreko landan, etxe barriak eraikitzea. Jakiña, txabolak lurreratuko dira egoitza barriak egin daitezenean. Arazo oneri dagokionetan, gure eraikilariak aginduko dau, eta beraz, ez dot uste iñongo eztabaidarik sortuko danik. Arrerantzean ba, goi-agindua nirea izan arren, emen dagoan On Gorka eraikilariak eskubide guztiak izango ditu. Argi dago...?

– Bai, Jauna –poz baten esan neutsan–, eta ango auzokideen izenean eskerrik asko.

– Orain joan zaitekeze zuek biok, eta ekiozue lanari. Bearrak eskatu dagianean, zu Txomin, urizain-jardunetik jaregiten zaitut, bete-betean asmoari ekin dagiozun. Agur ba.

Alkatearen idaztegitik urteteen, On Gorka'k bere lan-gelara eroan ninduan, eta mai zabal baten gaiñean egozan eraikintza-marrakzi batzuk erakutsi eustazan, auxe iñostala:

– Berrogei bizi-leku edo egoitza egingo doguz, launako amar sailletan. Onetariko bakotxak, beraz, lau bizi-lekukoa izango da. Egoitza guztiak, sukalde-jatoki zabalaz gaiñera, iru lo-gela ta txirriodun (dutexadun) irola izango dabez, danak kale-sestran; augaitik ba, ez dira zurubirik izango. Gela guztiak leio zabalen bidez kalea ikusiko dabe. Zer deritxazu asmoari...?

Une batez marrakziak adi-adi begiztatu nebazan, eta gero barruko zarrastada andi batek eraginda,

– Nire ustez –erantzun neutsan–, eurontzat jauregiak izango dira.

– Asmoak arrakasta andia lortu dagian, baiña, arau estuak jarriko doguz, egoitzek beti garbi ta txukun iraun dagien, eta orretarako erantzule bat izendatuko dogu. Nor izan leiteke...?

– Egokiena, nire ustez, Kinto, aitalena edo nagusia izango litzake. Danek begirune andia dautsoe, eta berak esandakoari beste barik men dagitsoe. Zentzun argikoa da, baita zintzoa be, era batean.

– Biar bertan beragana joango gara zeu ta biok.

Urrengo egunean txabolategira joan gintzazan. Eldu orduko, Kinto gure begira

genduan. Berarekin auzokideak kemenak artuta ikusi genduzan, eta On Gorka'k marrazkien bidez egitasmoa azalduta gero, auxe esan eutsen:

– Zuen esku-lana dala-ta, etxe onein eralguntza erdia izango da, eta auxegaitik, udalbatzak egitea erabagi dau. Zuen laguntza, beraz, bearrekoa izanik, ezin dausku utsik egingo. Gogoan artu, zuentzat izanez gaiñera, bizi-mailla duiñagoa ekarriko dautsue, eta benetako gizakitzat bizi izan aal izango zariela.

An batutako auzokideek aaleginduko litzakezalako berba emon eutsoen, eta bataz beste egunoro ogei ta amar lagunek jardungo leukiezala. Onen ostean, On Gorka ta biok udaletxera biurto ondoren, banandu gintzazanean, berak,

– Aizu, Txomin –esan eustan–, asmoak arrakasta jaritsi dagian, bearrekoa da iji-toen adoretz azkeneraiño iraun dagiala.

– Baietzean nago, euren onerako izango da-ta.

– Biar goizean "Txakur Errena" auzora argin-maisu bikin joango naz oiñarriak zeazteko, eta jarraian aitzurketea asi daiten.

Eraikilariaren noizbeinkako ardurapean, eta argin-maisuen eta arotz maisuaren egunoroko zaintzapean, auzo barriaren eraikintza asi zan, txabolategiko auzokideen adoretz eragin andia emotsala. Onen ondorioz, iru illabete igarorik, auzo barriko teillatuetan adarrak agertu ziran, eta beste lau illabeteen ostean, kanpo ta barrutik etxeak amaituta, altzariak bestalde, auzo barria amaitutzat emon zeitekean.

Errediza, baiña, garrantzi andikoa da, jendea ezeukia danean batez be, orain jazoten zan lez. Auzo barriari uriburuko mezubideak zabalkunde andia egin eutsoen, txitean pitean ari buruzko txostenak agertzen zirala "jarraitu bear zan eredutzat" aipatuz, eta augaitik, alkatearen garrantzia gora andia artzen asi zan, eta auzoa amaitu zaneko, uritarren eritxian alkateak gizandi baten nortasuna jaritsi eban. Ainbeste zabalkunde ta aipamen zirala-ta, alkatea lako andinai ta ospe-gura bateri, neurritz gaiñeko norberekeria iratzarri eutsan, bere burua lurraldeko ardatz edo ipartzat jotzen ebala.

Auzo barriaren altzari-arazoa aurkeztu zanean, ospe-bidean beste mailla bat igon nairik, mezubide guztiak ustiatuz, uritarren eta erakundeen sorospena eskatu eban, danen artean "Txakur Errena" auzoko beartsuak etxeko altzaria lortzeko lagundu egitsien. Eta eskaria sendotzearen, guztitariko argazkiak erakutsiz, mezubideetan alkarrizketak alkate Txit Gorenekin etenbarik agertzen ziran. Aintza gorenako aspaldi onetan, arazoa "eskuko amabost" urten yakon alkateari, eta illabetea barik, bearreko altzaria lortuta, auzo barriko apaintasuna agirian ipinten eben mezubideek.

Ez zan arritzeko, beraz, uritarren ustez, Alkate Txit Gorenak uriburu baten ardurariak jaritsi dagiken maillarik ederretsiena lortu egian. Azal eta zabal ebillen nonai, laster ospatuko zan Aldundirako auteskudean, uriburuko alkate Jauna, lendakari-gai izango litzakela.

Atan-orretan, auzo barria ikertzen neban bein baten, Kinto etorri yatan esanez, laster erabilli izaten asiko zan auzo barriari, zelako izena egokituko litzakion.

– Begira, Kinto –esan neutsan–, eskertzen dautsut niganako zure begirune ori, eta

auzo barriak zure jendeari ekarriko dautsan egoera barria gogoan artuta, zer deritxazu "Itxaropena" izenari...?

– Oba ez, Txomin –poz baten erantzun eustan–, izenaren ederra...! Gure auzo barriari emon nai dautsagun izena aukeratu dagigula, eskatu dausku udalak, eta orixe izango da gure auzorako izen-autapena.

Eta noizbait, auzoaren askunde-eguna etorri zan. Jaiegun onetan, eretirako oltza batetik, sendi-buru bakotxari etxeko giltza emongo leuskio Alkate Txit Gorenak, eta jarraian, an bertan, uriburuko gizakirik ospetsuenek inguratuta, ospakizunari egokion itzaldia egingo leuke. Aurreko amabostaldian, jaiari egokiozan deiak igorri ziran, eta niretzat deirik ez arteak arritu ninduan. Ez nintzan ezer uriburuan, eta au ondo nekian gauza zan, jakin be, baiña arazo aretan esku-sartze andia izana nebanez, begirune apur bat zor eustan alkateak. Nire arrenkurak baretzearren, On Gorka eraikilariagana joan, eta menperatzen ninduan arritasuna azaldu neutsan. Begiztatu ninduan une batez, eta gero burua ezezkotan astinduz,

– Ez zaitu aztu –esan eustan–.

– Orduan zergaitik...?

– Begira, Txomin, alkateak ekintza guztien dizdira berarentzat osorik gura dau iñorekin zatitu barik. Etziko askundean, uriburu onetako andikiek nagusien oltzan urizain txatxar bat ikusiko ba'lebe, onen egotearen zergaitia alkarri itaunduko leuskioe, eta orduan, ekintza orretan dagokizun garrantzi osoa emon bearko litzakizu, eta gure Alkate Txit Gorenak ez dau alboan gura, bere anditasuna gandutu dagian iñor. Augaitik ez dautsu dei egin, ezta dei egingo be.

Ez dakit zelako itxura erakutsi neban une aretan, auxe esan eustan-eta,

– Tamal dautsut, Txomin, baiña oba da egia ezagutzea, aiko-maikotan ibilli baiña.

– Baiña, On Gorka, zelako kalte ekarriko leuskio neuk lako urizain ezezagunak...?

– Nork ezagutuko gizaki baten barruko sakontasun ezkutua...? Edozelan be, nire ikuspegia azaldu dautsut, eta barriro be, tamal dautsudala esango dautsut, baita auxe jakin dagizula be nai dot: oso-osorik zurekin nozula, Txomin, eta zeuk egiña benetan ederresten dodala.

Eskerrak emonda, andik urten nintzan, nire buruari niñotsala zelau zeitekean gure artean jazotakoa jazo ondoren, Alkate Txit Gorenak olan erabilli nindegian...? Nire bityaldiko lenengo atsekabe andia zan. Geroago ikasiko neuke, baiña, olako makurrek norberari umotasuna dakarkioela, arimaren indarra andituz, eta nortasuna osotuz. Edozelan be, askunde-jaiara joatea erabagi neban, eta eguna elduta, an nintzan oltzaren alboan, ikusleen artean galduta.

Goizeko amabiak emontxuetan, aurretik uriburuko ereskontaldea etorrela, berebillel jarraigo luzean, Alkate Txit Gorenak andikiekin eldu zan. Ikerle ospetsuak oltzan egokitu, eta ereskontaldea isildu zanean, alkateak berrogei sendi-buru bakotxari giltza ta jabetasun-agiria emon eutsazan. Onen ostean, barru-eragintzak sututa, itzaldi zaratatsu baizen utsa, osteari jaurti eutsan, mintzo aizun eta arranditsuaz. Zorionez, laburra

izan zan, eta onen ostean, nonbait itxarokien asebate bikaiñak urdaillean kili-kili egitsela, berebilletara abiatu ziran. Bapatean, eragin bakanak menperatuta, alkatearen berebillelaren ondoan jarrita, itxaron neban. Agintza-makilla eskuan, eta andikiek inguratuta, baetorren berba jakintsuak ezker-eskoi bananduz. Berebillelaren ate-ondoan nengoan ezker, nai-ta-ez ikusi bear izaten ninduan. Une batez nire aurean gelditu zan, eta begietara so egiñez, buruaz agur-keiñua egin neutsan; berak, baiña, ez-ikusi egiñez, arro ta ardurabako albotik saiestu, eta ereskiñaren soñu-arteon berebil bikaiñera sartu zan.

Zailla yat orduan oartu neban azaltzea, baiña asarre ta gitxiespen biziaren naaspilla izan zala esango neuke, eta andik alde egiñik, "Itxaropena" auzo txukunera bideratu nintzan, menperatzen ninduan atsekabea nire kolkorako pairatuz. Askundera, osaba-izekok, On Yulen eta onen emaztea etorriak ziran, eta ospakizuna amaituta, Txoro'ren etxe barrian danok alkartu gintzazan bazkari ederra izateko. Eldu nintzanean, On Yulen'en emazteak opari egindako zamau-zapiñoak sukaldeko mai-gaiñean ipinten ebazan, eta izeko Garbiñe'k opal dutako ordularia, ormatik eskegiten ziarduan Txoro'k. On Yulen'ek banazean artu ninduan, eta bere arritasuna ni oltzan ez ikusi-gaitik adierazo eustan. Aren zergaitia azaldu neutsanean,

– Arren, On Yulen –eskatu neutsan–, gaur alaitasun-eguna dan ezker, ez aipatu olakorik. Izan dagigun bazkari atsegiña, auzo barriak merezi dauan beste. Egia esateko, adiskide ori, niri egiñiko laidoa ta guzti, gaur egun zorionsua da, eta ames egiñiko auzo barria egi biurtuta ikustean, ez da ezerk oartzen dodan poza laskitu dagistanik.

Eta olan izan zan. Egun aretako sukaldaritzan Mari aalegindu zan, baita arrakasta andiaz be, eta maiazkentzat nik ekarritako gozopil andia txastau genduan. Kafe ta edari biziak artu aurretik, lege andia eustan Kinto'ri etorteko mezua igorri neutsan, eta janzkirik ederrena ta eskuan aginte-makilla erabillezala, maipuru jesarri zeiten eskatu geutsan. Atsegiñez dizdiratsu, baiña, bere aurpegian zimur antzeko zerbait agertzen zan, auxe esaten asi yakunean,

– Egun zorionsua, benetan, geu lako baztertuak jauregi antzekoak diran etxe barrien jabe billakatzean; alkateari, baiña, ez dautsat barkatuko, gure Txomiñ'eri egindako gitxiespena...

Ez neban gura, baiña, egun aretako zeru aratzean ezetariko odeirik eguzkia itzali egien, eta eten egin neutsan onetaraxe:

– Barkatu, Kinto, baiña niretzat, zuentzat beste egun zorionsua da, eta orregaitik, arren be arren, olako txikikeria alde batera utzita, "Itxaropena" auzo polit eta txukunaren askunde ospatu dagigun. Orain, beiñena dator, eta auxe alegia: gaur baizen eder eta garbia iraun-erazo degizuela betirako. Emengo nagusia zanean aldetik, zeugan datta menpekoai auzoa gaur baizen garbi ta atsegiña iraun-erazotea, orretarako, bearreko agintza ta auzokideen begirunea badozuz-eta.

Isildu nintzan une batez, eta gero,

– Begira, Kinto –jarraitu neban–, auzo onetako askok, auzo-gintza onetan argin-maisuen eta arotz-maisupean jardutean, ogibide bat ikasi dabe, eta ereti au ustiatuz, On

Gorka'ri esango dausat, udaleko lanetan, auzo onetako jendea gogoan artu dagiazala, eta aal dagianetan, zure bitartez lana emon dagitsela. Zer deritxazu asmoari...?

– Oba ez...! –pozez gaiñezka erantzun eustan–. Olakorik jaritsiko ba'zendu, orrek lan eta ziurtasuna lekarkigukez. Ez dakit zelan eskertuko neuskizun, esku-sartze ori...!

Atan-orretan, arratsalde zoragarria emon genduan, eta illundu aurretik etxerakoa egiteko banandu gintzazan. Osaba-izekoai erri-berbilleraño lagundu neutsen, eta eguraldia ederra izanik, oiñez jatsi nintzan uriburura. Alkate Txit Gorena'k niri egiñiko destaiña ez ninduan lengo beste mintzen, eta arratsbeerako bakean, iñoizkorik bizien Mintxu'ren oroitzat etorri yatan, neurribako pozez beteten ninduala. Mutiko baten eriotzaz eta urizain baten arduraz, ijito-talde ezain bateri "Itxaropena" auzo barri txukuna ekarri izan eutsan aduak. Zeru gardenean zear laster agertuko ziran izarrak, eta kilkerraren egoakaz jantziriko aingeru batek, arein loa zainduko leuke...

Urrengo egunean, uriko Alderdi Zaarrean oi neban zaintzari emoten neutsala, langaillu indartsu batek "Txakur Errena" txabolategia lurreratu eban, lagatako orubean baratz atsegiña egiteko asmoz, inguruko erritarrek egurastegi atsegiña izan egien.

Andik egun batzutura, On Gorka'rekin alkarrizketa luzea izan neban, eta onen ondorioz, udaleko lanetan "Itxaropena" auzoko ijitoai jardunak eskiñiko leuskiezala agindu eustan. Jardun oneik Kinto'ren bitartez bananduko litzakez, eta egiari zor yakon begirunez esan bear dot, udaleko eraikilariak bere agindua bete ebala zintzo-zintzo.

Egunak alkarri erraikioen, eta egutegiko orriak orbelak bai'litzazan jalgiten zirala, etxetiko mezu bat eldu yatan. Amagandiko deia zan, aalik lasterren Urrexola'ra joan neinten, aitita txarto ikusten ebalako. Zarrastada andipean, egun batzutarako baimena eskatu neban, eta beste barik dana lagata, jaiotetxera joan nintzan.

Udagoiko arratsalde urreztatua zan etxera eldu nintzanean. Etxekoak agurtu ondoren, amak geisoaren gelara lagundu eustan, eta aitita ikustean, biotz-ikara batek burutik beatzera astindu ninduan. Oean zetzan, eta azur-azalak baiño ez zan, erkinduriko aurpegian eriotzaren aztarna agirian ebala. Begiak soillik erakusten eben oiko bizitasuna, eta ezpanetan irribarre txeratsua marrazten yakola, auxe esan eustan:

– Ongi etorri etxera, Txomin; aspergarri izango yatzun, dana lagata ona etorri bear etxeko agurea ikertzearren, baiña ez dakizu noraiño irrikatzen neban zu ikustea...

Burusi-gaiñean eban esku bateri oratu neutsan... Eskuaren argala...! Laztandu neutsan bigun-bigun neureen artean, eta,

– Begira aitita –mintzatu nintzakion–, ez yat bape aspergarri zu ikustera etortea, eta zeuk nire ikerraldia irrikatzen ba'zenduan, nire guraria ez zan makalagoa.

– Baiña zure jardunari bertanbera eten bear onek, diru-irabaztea moztuko dautsu.

– Bost ardura niri...! Baneban yoran bizi-bizia etxera etorteko, eta nire oporraldia oraindiño artu barik izanik, atsedean artzea erabagi dot orain, eta emen nozu, aitita, lengo aldi zoriotsuak gogora ekarteko gerturik, ezta aitita...?

Irribarre aulaz erantzun eustan, eta uriburuko nire jardunari buruz itaundu eustanez, nire gora-beerak autu-gaitzat artuta, guztitariko argibideak emon neutsazan. Apaltzeko sukaldera jatsi nintzanean, mai-inguruan, ama, Tomas, eta Pantxike nire begira egozan, eta,

– Zer diño osagilleak...? –itaundu neutsen–.

– Gauza onik ez –erantzun eustan amak–. Biotza uts-egiten asi yako, eta edozein uean gelditu daitekio. Orain illabete batzuk gatx orrek eraso eutsan, eta arrezkero, osasunak beerakada andia jasan dau. Ez dau jateko gogorik, eta zeozer artu dagian gogor egin arren be, dana alperrik. Augaitik-edo, gero ta erkiñago ikusten dot, orioa urri billakatu yakon krisailluaren antzera. Niri esan ez arren be, bere ondoan nai zinduzan, eta augaitik, luzaroago itxaron barik, eratorri zaitut.

– Ondo egin dozu, ama. Betseiñak lez maite nau berak, eta etxe onetatik joan nintzanetik, gogoan izan dot beti. Augaitik ba, bere azkena arindu aal izateak bake andia dakarst.

Gero, aititaren zaintzeari ekin geutsan. Bere ume bien ardurea Pantxike'k eban ezkero, eta Tomas iraketa betean izanik, geisoaren zaintza ama ta bion gaiñera etorriko litzakigula erabagi zan. Gau osoa nire ardurapean izanik, egunez amak zainduko leuke.

Eta olan, beraz, gau aretan bertan, gau-beilari emon neutsan. Lo-itzarrik iraun neban gau osoan zear eta orduak astiro ta amaibageak igarorik, noizbait, eguzkia agertu zanean, eta geisosa lo zetzala ikusirik, gosaldu ondoren, oeratu nintzan, eta arrats-beeran itxartuta, zeozer janda gero, ama ordeztu neban.

Aititaren lo-aldia urduri ta ariña izanik, miñak jota zanean, aringarriak emoten neutsazan, eta atzarriunetan, auxe niñotsan:

– Oroitzen zara, aitita...?

Eta jarraian, guztitariko zertzeladakaz lagunduta, lengo aldietako jazoeraren bat gomutara nenkarkion. Bazirudian, gomutakiok bizi-nai barriak emotsazala, eta aurpegia irribarre bat azgituta nenkusanean, oroimenean aztertzen neban barriro, beste autugaia idoroteko.

Gau baten, oiko aringarria emon ondoren, lo-zorrotik senetara itxarrita ikusi neban. Udazkena izanik, ego-aizearen putz epelak egapeari ta urrezaturiko zugaitzai eresi ta uluak erauzten eutsezan. Alako baten nire eskuari eutsita,

– Entzuten daustazu, Txomin? –itaundu eustan–. Larogetak urte bizi ondoren, berekin joan naiten eskatzen daust aize-ulukak. Lurra begira dot nire soñia besarkatze-ko, eta Jaungoikoa nire arimeaz jabetzeko, berea da-ta. Nire begira oartzen dot eriotza, baiña ez dausat bildurrik, orrek bizitza barria dakarkidalako...

Isildu zan une batez, eta gero,

– Zertan nenbillen...?

– Bizitza barria begira dozula, aitita.

– Bai, bide-mugan ditxarokigun betirako bizitza barria. Zu, Txomin, udabarri be-tean zagoz, eta ondiñokarren bidegite luzea ibilli bear zango dozu...

Isildu zan barriro, eta bere baitan bilduta gero,

– Gaur, nire geisoaldian bitargi bat egin da, eta eretia ustiatuz, luzarorako ez naz izango-ta, zuretzat garrantzitsua dan arazo bateri buruz, berba egin gura daust: ezkontzea, izan be. Emazte artzeko garaian zagoz, eta au oso ardurazkoa izanik, burubide batzuk emongo daustudaz... Entzuten daustazu, Txomin...?

– Bai, aitita.

– Ara... Jaungoikoaren otseintzara dei egiña ez danari, ondoen dagokiona ezkontzea da, baiña ez uste, gai au edozelakoa danik, ez orixe..! Sendia sortzen asten dan eta erioztaz amaitzen dan alkartasun au beñena da, eta onetan txulut egiten dauana, bereak egin dau. Aizu, Txomin –aririk saiestuz jarraitu eban–, burkoaren gaiñetik jagi nagizu, noizean bein menperatzen nauan itopena arindu dakidan...olantxe...! Emazte ta umeak gizonaren urloa dira, eta ekaitza orruka itxarten danean norberaren oreka edo dendua zemaituz, benetako maitasunean oiñarritutako sendiak alkartua ba'dirau, gaiñetik urtengo da.

Barriro be isildu zan, eta gero,

– Egunen baten, neskatilla zoragarri baten begiak arimearen sakoneneraiño oartuko dozuz, eta orduan, zorionak zure biotzaren atean oles egiñik, joran itzali-eziñaz jota, arekin eta arentzat bizi nai izango dozu betirako, eta izango dozuezan kimu barriek, adore ta itxaropena emongo daustuez, bizitzaren aldapan gora jarraitzeko.

Keiñu bat az ura eskatu eustan, eta edaten emon ostean,

– Bizitzan ze arko bidegite orretan gaiñetik urteteko, senar-emazteek sendoak izan bear dabe, norberaren arima-indarrak dakarren sendotasunaz bere buruaren jabe izateko, biguneri, alperkeri, eta aragikeria garaitzeko. Au ez da erraza, inguratzen gaituana erakarren lilluragarriaz atsegiñetara dei egiten gaituelako, baiña aulkeri orreik menperatzeko aalegintzen danak, bizitzeari aurre egiteko bearreko sendotasuna jaritsiko dau, eta azkenean garaille urtenda, dagokion saria artuko dau.

Nekearen-nekez isildu zan une batez arnasa baretu ekion, eta gero,

– Erraza da bigunekerira jotea, eta norberari atsegin yakonaren atzetik ibiltea, azken baten bere griñaren jopua izateko, eta jausi dan lokaztegitik urteteko indarge. Euren burua anditzat aldarrikatuz munduan zear doazenok gizonkeri orreik egiteko gai diralako, ez dozuz besterik, txingote ezaiñak baiño keru guztiek menperatuta. Bizitzaren bidegitean zear benetako gizona gertau zaitezala aalegindu naiatzu, eta ez dakit noraiño lortu dodan ori, baiña baietz egingo neuke, ezta Txomin...?

– Aitita –esan neutsan–, zeuk irakatsia gogoan izan dot beti.

– Badakit, Txomin, eta uste onek nire azkena arintzen daust. Maitasuna... maitasuna begietatik sartu, eta biotzean kokatzen da. Edertasuna aldiaren bidean, igatzen, moteltzen da, eta maitasunak iraun dagian, barruko euspina dan alkarrekiko begirune ta oparia bearrekoak dira, norberekeriari uko egiñik. Ona emen ezkonkideen zoriona, eta sendi alai, alkartua, sortzeko giltza. Bizitzaren garapenean ekaitzak jasango dozuez, baiña barruko sendotasuna daben senar-emaztek garaille urtengo dira, eta benetako batasun ori seme-alabakan islatuko da, bizi izatea atsegiñago biurtuz.

Ona elduta, mintzoaren erlastasuna arintzeko, ura eskatu eustan, eta gero,

– Begira, Txomin –jarraitu eban–, gaurregun ezkontza-lokarri asko eten egiten da, gazteen artean batez be, izandako umeentzat egoera larri-larriak sortuz, ezetariko errurik ez dabenek gurasoen arinkeriak ordainduz. Olakuok ez dabe aintzakotzat artzen ezkontzaren agindua dan: “eriotzak banandu dagiazan arte”. Eta ez dabe aintzakotzat artzen, Jaungoikoa siñistu ezean, euren norberekeria baiño, beste nagusirik ez dabelako onartzen. Olan ba, lenengo oztopoak sortzen diranean, emoteko gerturik ez diralako aurkitzen, bai ostera artzeko, euron arteko lokarri makala eten egiten da... Ori, bizitzan zear etorri daiteken blaustadarik larrienetakoa da, eta orixe bera jazo ez dakizun, aukuratu egizu neskatilla burutsu, Jaungoikozale, eta maratza. Ez begiratu aren diruari, ontasun eta barruko indarrari baiño... Begira, Txomin, zure anai Tomas'ek Pantxike'gan olako emaztea aurkitu dau, eta bion artean, umeak eta Urrexola etxaldea, bizitzaren itsasoa aldeko aizeaz zeartatzen dabe...

Oneixek izan ziran il aurretiko aititaren burubideak; bai, maisutat izan nebanaren azken aolkuak, eta auxegaitik, arek esan eustana urrezko izkiakaz nire gogoan irarri neban. Baekian berak bizitza parrastaka iges egiten yakola, eta augaitik, Goiniz'eko abadea astero etorren Urrexola'ra aitita autortu ta Jauna emotearren. Miñak erasoten eutsanean, aringarriak emoten geutsazan, eta zentzu-argialdietan, uriburuko nire gora-

beerak edesten neutsazan, guztiz atsegin yakozan-eta. Sarri askotan, oiko lo-kuma batetik bere eñera biurtuta,

– Aizu, Txomin –iñostan–, esaidazu onen eta onen ostean zer jazo zan...

Eta urrengo lo-kumaldirarte, berak eskaturiko edeskiari ekiten neutsan. Emon nengikeon atsegin bakarra zan, eta augaitik nire gora-beerak aalik eta bizien edestu oi neutsazan. Laure'kin jazo yatana, eta "Itxaropena" auzoari buruzkoa, amaika bidar edestu arren be, ostera entzuteak atsegiña ekarkioen.

Aititaren azkena, baiña, urrats geldieziñaz urreratzen zan... Astebete bi-edo etxean nintzala, oi nebanez aititarekin gaba emon ostean, goizean oeratu-barri nintzala, arin baten ama etorri yatan, eta,

– Txomin, Txomin –iratzarri ninduan–, zatoz beingoan, aitita azkenetan da-ta...!

Arrapalada baten aregana joan nintzan. Orduko, etxeokak oe-inguruan batuta egozan, eta esku bateri eutsi neutsan. Ezpanen artetik eriotzaren zurrungea iges egiten yakon. Alako baten, begiak edegita, irribarre-antzeko bat azurpegi argiturik, amaitu zan betirako...

Amak eta Pantxike'k il-jantzi bitartean, lo egitea eziña yatanez, etxetik urtenda, onen osteko intxaurrondopean jesarrita, negar isil, etsi bateri emon neutsan. Maite-maite ninduan irakasle bikaiña galdu izan neban, eta oarpen onek, neurri baten umetzurtz izatearen atsekabea ekarstan. Goiz garden aretan, banan-banan aititarekin bizi izandako ainbat eta ainbat jazokizun aztu-eziñak gogora etorri yatazan. Alako baten etxetik dei egin eusten, eta urreratu bitartean, nire buruari zin egin neutsan, egunen baten umerik izango ba'neu, aititaren irakaspenak emongo neuskiezala. Gizon bakuna, baiña bere baitan erraldoi baten barru-indarra kokaturik, apal eta esanekoa, Irasleagana joana zan egokiona artzeko.

Goiniz'en eta aldameneko errietan bizirik dirauan oitureari jarraituz, illuntzean abadea etorri zan etxera, eta agurtza esan ondoren, gorpu-mezea emon euskun. Jarraituz eta ekanduz, ospakizun onetara erritar asko etorri oi dira, emakumezkoak batez be. Etorritako oste andiarentzat barruan lekurik ez izanik, aldarea atadian jarri zan, eta etorritakoak etxe-aurreko talde andian bilduta, mezeari jarraitu eutsoen.

Ospakizuna amaitu zanean, jendearen samin-agurrak gogaikarriak yatazanez, etxetik zeozer baztertua egoan arrizko aulki baten jesarri nintzan, eta nire oiñazeari emonda buru-makur nengoala, mintzo eresintsua aditu neban auxe iñostala:

– Aizu, Txomin, etxera etorri zaitezau bialtzen nau zure amak, ezagun askok agurtu nai zaitu-ta.

Itzok entzutean, burua jaso, eta nenkusanak zur eta lur eginda utzi ninduan. Nire aurrean, asmatu daiteken neskatillik ederrenak, ezpan gorri samurrak irribarreka, begi andi argiakaz begiztatzen ninduan. Une batez, aingeru baten aurrean nintzala begitandu yatan, baiña gero gomutamenean arakatuz, gogora etorri yatan Landagoiti baserriko Gurutze. Neskatoa zan urizaintzat jarduteko erritik alde egin nebanean, eta orain pipil ederra biurtuta ikusten neban.

Jagi nintzan, eta bere aurpegi zoragarritik nire begiak kendu eziñik ibilli genbiltzala,

– Landagoiti'ko Gurutze zaitut, ezta...? –lilluratuta itaundu neutsan–. Asiera baten ezagutu be ez; lan egitera etxetik joan nintzanean, mukitzua baiño ez zintzazan-eta.

Koskabiloen soiñuaz barre egin eban, eta,

– Oraindiño, Txomin –esan eustan begi argitsuak nireetan josita–, ez dausut adierazo nire samin-agurra, baiña gurean atsekabe andia artu dogula esan gura dausut, zure aitita benetan ederresten gendualako. Aitak diñoanez, zure aitita burutik beatzera Jaun osoa zan.

– Eskerrik asko, Gurutze. Izan be, orixe bera askori entzun dausat.

Alkarren ondoan giñoazala, saietsetik begiztatu neban, eta neskatillaren aurpegi-ebakun zoragarria ikustean, nirekiko esan bear izan neban, nik ezaguturiko neskatillarik ederrena zala, eta areago orain lez illuntzeko bakean, aizeak aren billo zirikotsu gaztainakaz laztantzen ebazanean. Zeozer esan gura neutsan, baiña barruko lotseak eragozten eustan. Noizbait, auxe otu yatan:

– Esan, Gurutze, ze adiñekoa zara...?

– Amazortzi urteko.

Atan-orretan etxera eldu gintzazan, eta irribarre sorgingarriaz ni agurtu ondoren, ikerleen artean ostendu zan. Luzaro barik, etorritakoak banan-banan joan ziran, eta apari ariña artuta, gau aretako eguraldi epela ustiatu, sapailloko eskudelan besoak kokatuta, aitita gogoratzeari emon neutsan. Eleizkizunak ospatuta, barru be etxetik joan bear izango neuke, baiña biurtzean, aititaren irribarre maitetsua ez ninduke artuko. Gau a, etxean emongo neuken azkena izango litzake, eta augaitik, bein eta barru aitita gogora ekarri nai neban, baiña gauza bakana...! gomutara ekarri baiño ez, bere ondoan Gurutze zoragarriaren aurpegi gandu-artean ezkutaturik somatzen neban. Asarez, nire buruari niñotsan, aitita il yatanetik ozta-ozta ordubete batzuk igarorik, barka-eziña zala beste iñoren irudia gogora ekarte, eriotza ta bizitza naspilduz. Baiña Gurutze'ren irudi zoragarria nigandik uxatu nai arren, ostera be aren begi argitsuak nire gurariak aurka agertzen yatazan. Mendien atzetik jagita, illargi betearen izpi esne-tsak Goiniz'eko ibarra laztantzen asi ziran, eta orduantxe nire gogoan be, illundia ezabatzen asi yatan...

Izango ete...? Izango ete, il-osteko aititaren emokaria...? Bizitzan zear ibilli bear izango neuken bidegiterako, berak itarantzuniko emaztegai zintzo, maratz eta indartsua...? Orduantxe, gau-kolkotik nire ta aititaren gogoak iñoizkorik estuen alkar besarkatu eben, eta eriotza gaudituz, berak laguntzen jarraituko leuskidalako ziurtasunak, bake ta itxaropenaz bete ninduan.

Biamoneko eguberdian illetak ospatu ziran. Oste andi-andia etorri zan eretirako, eta beekaldea ta korua mukurru bete egozala, Goiniz'eko erriak azken agurra emon eustan. Gero, obitegi baketsuan aitita lurperatu ondoren, etxeokak Urrexola'ra biurtu gintzazan, eta ozta-ozta bazkaria izanda, illetara etorriak ziran osaba Lon eta izeko Garbiñe'rekin uriburura biurtu nintzan.

Eta olan, amabost egun aititaren ondoan igaro ostean, oiko jardunari emon neutsan, egunoroko zeregiñek barruko atsekabea arintzen laguntzen eustela. Ogei ta zazpi urteko

nintzan, uriburuan lau urte urizaintzat jardun ondoren. Eta egunek aldakuntza andi barik alkarri erraikiela, nire etorkiari eragin andia ekarriko leuskion gertakizuna jazo zan. Ara...

Bein baten, mezu bat bialdu eustan amak, Goiniz'eko udalaren idazkariak nirekin izketaldi bat izan nai ebala jakiñerazoz. Abagune bat ustiatuik ara joanda, aspaldiko adiskide neban idazkaria ikertu neban. Berau zan uriburuan oraingo jarduna lortzen lagundu izan eustana, eta augaitik oso ederretsia neban.

– Kaixo, Txomin, aspaldiko ori...! –agurtu ninduan–.

– Egunon, Jauna. Nirekin berba egin gura zenduala esan daust amak.

– Bai, eta zuretzat garrantzi andiko arazoa izan daitekeana, izan be.

Au esanik, etenaldi laburra egin eban zigarrotxuari must egiteko, eta jarraian,

– Begira Txomin, lengo baten arazo bat zala-ta ikustera joan nintzakionean, adiskide dodan Artzuri'ko alkateak arrenkurapean aurkitzen zala esan eustan. Ango urizainburua zaarsaritu-barri izanik, jardun orretarako gizon egokia billatzeko lagundu nengiola eskatu eustan...

– Barkatu, Jauna –eten egin neutsan–, baiña nire ustez ez dau zerez kezkatu bear. Oraingo urizaiñen artean nagusia izateko egokiena aukeratu, eta kitto.

– Orixe bera esondu neutsan, baiña dirudianez, zeuk aipatzen dozun urtenbidea egokiena iruditatu arren be, ez da orren erraza, antza. Nik ez dakit arazo onen azpian zer egongo dan, baiña alkateak niri eskaturikoa orain beteten dot zu jakitun ipintean. Ez dakit zelako ikuspegia izango dozu etorkirako, baiña nire ustez, ez zenduke gauza andirik galduko, angu alkatearekin alkarrizketa bat izango ba'zendu.

– Bai, zuzen zagoz.

– Eta burdiña goritu bitartean jo egin bear danez, emen zagozan ezkeru, urrutizkiñez deituko daustat eguna ta ordua emon dagiskun, zurekin bearreko alkarrizketa izateko. Zer deritxazu orreri...?

– Ondo derist, Jauna.

Goiniz'eko idazkariak une batez Artzuri'ko alkatearekin berbetan iraun eban, eta entzungaillua eskegitean,

– Aizu, Txomin –esan eustan–, etzi amabi-amabietan, udaletxean begira izango dozu. Ondo yatortzu...?

– Jardun-eguna da, baiña egun osorako baimena eskatuko dot Artzuri'ra joatearren.

– Ederto, Txomin, baiña gogoan artu auxe: zu ez zara autagai bakarra izango. Berak esan daustan lez, badira jardun orretarako aukera-gai batzuk, eta oneikin alkarrizketa bana izan ondoren, alkateak berak autapena egingo dau. Auxe esan bear daustut, baiña: uriburuan zuk emondako lau urteotan, lana menperatuz gaiñera, Jaun baten jasa ta nortasuna jaritsi dozuz, eta oneik gora andia egiteko laguntza emongo daustue. Agur, Txomin, urrengorarte, baiña gogoan izan auxe: zarean lez agertu zure burua, aalegindu barik zarean baiño geiago agertu naiez, onek sasi-nortasunaren itxurea emongo leuskizulako. Artobero usaiña darionari, ez yako jaramon andirik egiten-eta.

– Bai, Jauna –biotzez esan neutsan–, eta eskerrik asko nire alde egiñagaitik.

– Ez daustazu eskerrik emon bear. Ori ta geiago zor daustat zure aitita zanari.

Uriburua biurtu nintzan, eta urizainburuari Artzuri'ko alkateak izendaturiko egunean baimena eskatuta gero, eretia elduta, erri-berebilla goizean artu, eta ordubete bateko aurrerapenaz Artzuri'ra elduta, uri polit andi samar onetatik (gure barrutiko burua zan-eta) osteratxu laburra eginda, eleizearen joaleak amabiak joten ebazanean, udal-terera sartu, eta angu morroi bateri alkatearekin berbatua nintzala ordu aretan esan neutsan. Andik laster, idaztegi zabal eta argitsura sartuerazo ninduan. Mai apain baten atzekaldeko besaulki eroso baten, berrogeitsu urteko gizon garaia ikusi neban, eta jesarri neinteneke keiñua egiñik,

– Zu zaitut, urrean –adeitsu esan eustan–, lengo egunean Goiniz'eko idazkariak itarauntzunikoa, ezta...?

– Bai, Jauna.

– Ze izena dozu...?

– Urrexola'tar Txomin.

– Zure izena ezagutu ondoren, zuzentzat joten dot, nirea ezagutu dagizula. Erramun izeneko naz, eta alkarrekiko aurkezpena eginda, eskertuko neuskizu, uriburuan beteten dozun jardunari buruz, aalik eta zeatzen jakitun ipiñi nagizula.

Berak eskatuta lez, aal neban zintzotasunik andienaz, nire jardunari ta uriburuko zaintzari buruz jakitun ipiñi neban. Berak ez erakusan ifiongo iradurik, eta niñotsana ardura andiaz entzuten eban, noizean bein zeatzen bat argitzearren eten egiten eustala. Eta olan, fara-fara ordubete ta erdiz iraun neban, ordu batak eta erdiak zirala alkateak oartu arte. Orduan, jagita,

– Arraio...! –esan eban–. Arin be arin igaro da aldia, eta oartu orduko, otordua egin yaku. Esan daustazuna oso entzungarria izan da, eta aria ez galtzearren, goazen "Arratiarra" jatetxera, eta an alkarrizketeari jarraituko daustagu.

Udaletxetik urtenda, esandako jatetxera joan gintzazan. Zurubian gora igotean, burua etorri yatan mutikoa nintzala leku aretan aitari iges egiñiko korrok zaratsua, eta oartu barik ezpanetan irribarre bat sortu yatan. Bazkaldu bitartean, alkateari edesten jarraitu neutsan niri buruz berak jakin gura ebana, baita eretia izan neban era batean bere nortasunari buruz zerbait ezagutzeko be. Aitu baten, gizon zentzudun eta erriko arazoak aintzakotzat artzen ebazana begitandu yatan.

Atan-orretan, mai-azkenak artuta, kafea txastatzen genduanean, barruan yabildana luzaroagorik ezin isilduz, auxe galde egin neutsan:

– Alkate Jauna, itaun bat egin dagiketsut...?

– Bai, Txomin, aurrera.

– Alkate Jauna, ez neuke nai izango lotsabakotzat artu nagizula, baiña urizainburua zaarsaritu danean, zergaitik nagusitzat ez aukeratu bertoko urizaiñen artetik, kanpotiko bat ekarri-bearrean...?

Txokorrari mustada luzeak emon ostean, itxura kezkatiaz,

– Begira, Txomin –esan eustan–, gure urizaiñen taldea kutsatuta dago.

– Zerez kutsatuta...?

– Alperkeriak eta nakartasunak. Orain zaarsaritu dan urizainburua belaxka izanik, bigun-bigun erabilli dau taldea, eta onen ondorioz, gure urizaiñak erriko apain-garria baiña ez dira, buruan txapel gorria ta eskuan makilla egurastuteko, uri onetako ikusgarriak bai’litzazan. Adierazgarri bat emongo dautsut oraingo egoerea ondoen ulertu dagizun. Bein baten, ondikotz...! udalbatzako ziñegotzi batek urizain bien utsunea beteteko, bere loba bi esondu eustazan, eta nik beste barik ontzat emonda, lanean asi ziran. Baiña onartu ba’nebazan onartu nebazan...! Manutxu ta Perutxu izeneko urizain barriak, asmatu daitekezan langillerik lotsabako ta amarrutsuenak billakatu dira. Ulertu dagizun zelakoak diran, jazokizun bat edestuko dautsut. Ara... bein baten uriko etxe bat sutan asi zan Manutxu ta Perutxu ate-aurretik igaroten ziranean, eta badakizu zer egin eben...? Patxadarik andienean etxe guztia erre arte an irauin eben ezer egin barik, ondapenak eurokin zer ikusirik ez bai’leuan. Asarre bizian euren alperkeria egotzi neutsenean, su-amatatzailleak ez zirala esan eusten, uri-zaintzarako ziarduela, eta su-amatatzailleak mugonez eldu ez ba’ziran, or konpon Mari Anton...!

– Ez zenduzan salatu...?

– Bai, udalaren izenean urizaintzatik bota nebazan, baiña eurok auzitegira jo, eta barrero be onartzera beartu ginduzan epaikariak; onezaz gaiñera, lan ez egiñiko egunen lansaria ordaintzeko aginduz.

– Ez dira makalak ba, diralako Perutxu ta Manutxu. Oraindiño, udalean diardue...?

– Bai, eta ez dakit noiz arte, txaplasta itsaskorrek dira-ta. Udalari txiklearen antzera itsasi yakoz, eta ez dago joaten eragin dagitsenik...

– Urizainburu barriak ez dau lan makala izango ba...!

– Orregaitik kanpoko bat nai dogu, esku irmoz urizain-taldea erabilli dagian. Eta onaiño eldu garean ezketiño, urizainburu orreri emoteko gerturik gagozan lan-saria, auxe izango da...

Jarraian aipatu eustan lan-sariak arritu ninduan, orain irabazten nebanaren bikotxa zan-eta. Baeban onek beste itxura bat, eta auxe alegia: Artzuri’ko urizainburu barriak buruauste galanta begira ebal. Ez neban, baiña, naikoa astirik oldozkun oneri emoteko, gure autua amaitutzat emonez, alkatea jagi zalako, eta gaiñera, etxerakoa egiteko ordua urreratzen yatan. Kalera urten gintzazanean, alkatea niri bostekoa emonez, berba oneikaz nigandik agurtu zan:

– Orain arte iru autagai aurkeztu dira, eta ez dakit besteren batzuk agertuko ez ete diran. Edozelan be, jarduna zuretzat izatekotan, Goiniz’eko idazkariaren bidez jakitun ipiñiko zaitut. Agur, Txomin.

– Agur, alkate Jauna, eta eskerrrik asko bazkari onagaitik.

Erri-berebillez uriburura biurtean, nire buruari niñotsan oraingo jardunaz, au da, urizain arrunta jarraitzeaz oba izango ez ete, Artzuri’n begira neban matazara sartu barik, emen itxarokidan lan-sari bikotxa ta guzti... Edozelan be, autagai batzuk izanik, jardun barrirako ni aukeratu izatea, ez zan gauza erraza.

Andik egun batzutara, oiko nire jardunari emonda, Artzuri’ko urizaiñen nagusitza

gogotik ezabatzen asi yatan, eta astebete bi igarorik, aztu egin be. Aduak, baiña, ez ninduan aztutzat emon gura, eta illabetea-edo igarorik, Goiniz’eko idazkariak, Artzuri’ko alkateagana joan neinteneko mezua igorri eustan, eta goiz baten, arrenkura andipean bertaratu nintzan.

Amultsu abetaldu ninduan alkateak, eta alkar agurtu ondoren, lengoan lez “Arratiarra” jatetxera dei egin eustan, eta bazkaldu bitartean, Artzuri’ko urizainburutzat bost leikideen artean aukeratu izan nintzala jakiñerazo eustan. Ainbeste autagaien artean ni aukeratu izateak arritu ninduan, eta olan adierazo neutsan alkateari. Orduan onek,

– Begira, Txomin –esan eustan–, lenengo, jardunaren ezagutza eskatzen genduan; bigarren, gazte samar izatea, au da, adiñekoen trikimaillu barik; irugarren, eta au bai garrantzitsua, zentzuduna, zuurra. Autagaiak banan-banan aztertu odoren, baldintzok zeugan aurkitu dodaz, eta augaitik, uste on guztia zeugan ipiñi dot.

– Eta zure uste on orrek txulut egingo ba’leutsu...?

– Nire aukerea ustel urtengo ba’litzakit, ez genduke gauza andirik galduko, zure izendapena bein-beiñekoa izanik, sei illabeteko epea udalbatzaren eskuan izango da jardun orretan zu sendotu, ala beste egokiagoren bat billatu. Esan bear dautsut baita be, euren burua aurrerakoiki ta jakintsutzat dauan ziñegotzien taldeak, zure aukerapena ez dauala onartu, eretirako bere usteko beste aukeragai bat ebalako, baiña geiengoa nire ustekoa izanik, aukeratua zara.

– Eskerrrik asko alkate Jauna.

– Ez da zergaitik, Txomin; izan be, udalaren ona elburutzat izanik, zure alde erabagi dot. Esan bear dautsut, zure jarduna ez dala erraza izango, erri onetako udalzaingoa zitaldur dalako, baiña edozelan be, udalbatzaren euspina alde izango dozu zeregin orretan. Datorren illeko lenengo egunean lanean asiko zara, eta onenbeste lan-saritzat artuko dozu. Bitartean ostatu ona billatuko dautsut. Itanuen bat...?

– Ez jauna. Argi dago dana, eta esandako egunean emen izango nozu. Agur.

– Agur, Txomin.

Erri-berebillez etxerakoa egiten nebala, ezin nengikean menperatzen ninduan arrenkurea nigandik uxatu. Artzuri’n begira neban eginkizuna, ostopoz beterik izanez gaiñera, ez-ezagunari dautsagun bildurrak, zaillagoa biurtean eustan. Edozelan be, eupada bat zan, eta gaiñetik urteteko neugan egoan onena arloan ipiñiko neuke.

Iru astebete peitzen yatazan uriburuko jardunari uko egin eurretik, eta epe orretan ezagunakandik agurtu nintzan. Arazo batek kezkatzen ninduan oroz gaiñetik: “Itxaropena” auzoaren etorkia, eta augaitik, arlo oneri garrantzi beiñena emon neutsan.

Bazirudian, auzo barrian gauzak naikoa ondo joiazala, baiña badaezpadan, ezaguna neban auzo aretako abadeak ijitoen arima-zaintzari ekingo leuskiolako agindua emon eustan, eta astero auzoari ikerraldi bat egingo leuskiola, baita sarriago be, bearreko izatekotan.

On Yulen larritu zan nire egoera barriaz jakitun ipiñi nebanean, baiña itz emon eustan, berak be astean bein auzoa ikertuko leukela, ango biztanleai duan laguntzeko.

Laure atso begikoari be agur esan neutsan, eta aldegitari mingostasuna kentzea-

rren, eretirako gozoki-pillo andia eroan neutsan, baiña olan eta guzti be, azken agurra alkarri emotean, matraillen beera malko lodiak eriozan.

Zeiko saltzailleai, Elene'ri batez be, nire azken agurra emon neutsen, eta azken onegandik lortu neban, Txoro'ren alde aaleginduko litzakelako agindua. Emakume ona zan, benetan, Elene, eta ziur nintzan emondako berbea beteko leukela.

Enparantza Barriko ikastetxeko mutikoez be, beste iñora joango nintzakela jakin ebenean, tamal andia adierazo eusten, eta arein naigabea arintzeko nenkarkiezan gozokiai ez eutsien jaramon andirik egin. Ez dakit, mutikoen atsekabea zelakoa izango litzaken, baiña neurea andi ta sakona izan zan.

On Gorka eraikilaria jakitun ipiñi nebanean, onetaraxe zoriondu ninduan:

– Tamal dautsat zure joateari, baiña ziur naz onerako izango yatzula, eta orain dartzun abaguneak merezi dozun maillara eroango zaitu. Artzuri'n lan gogorra izango dozu, baiña zure onerako, izan be. Erramun, ango alkatea ezagutzen dot, eta gizon zuzen, zintzotzat daukat, eta noizean bein alkar ikusten dogunez, zutzaz mintzatuko natzao. Barriro be, Txomin, artuizu nire zoriona.

Uriburuan emoteko neban azken eguna Larunbat izan zan, eta nik dei egiñak mai baten inguruan, lagun-miñai bazkari ederra eskiñi neutsen. Olan ba, Kinto, Txoro ta Mari alabatxuarekin, On Yulen eta beronen emaztea, eta osaba-izekok alkartu gintzazan. Kinto'ren agindupean "Itxaropena" auzoko arazoak polito joiazan ezkerro, gora andia emon neutsan bere eginkizunari, eta adoretu neban asitako bidetik jarraitzeko. Bazkaria alkarrekiko maitasunez oretua izan arren be, nire aldegitik itzal eta kadeneko sentipena jarri eban guztiakan, eta alkarregandik agurtzeko orduan, emakumeen begiai malkoak eriezan. Mari'k besarkatu ninduan, eta negar-zotiñen artean,

– Agur Txomin –esan eustan–, Jaungoikoak onetsi zagizala. Nire senarrak eta biok ezagutu zinduguzanean, gure txabolako atzekaldeko leio batetik bearrizan gorriak iges egin eban, eta aurreko atetik zoriona sartu yakun. Gau oro, Mintxu nire semetxu zanari, zoriona ekarri dagitsula eskatzen dautsat. Gure ume maite aztueziña...!

– Ez al-dakizu barri bat, Txomin...? –esan eustan On Yulen'ek– Ara... Mari azur barritan dago, eta ezaugarrien arauz mutiko izango da.

– Olan ba'da –esan neutsan Mari'ri–, zerbait arrenkatuko neuskizu...

– Zer, Txomin...?

– Orain gitxi dala il egin yatan nire aititaren izena emon dagiozuela.

– Zein izen...?

– Braulio.

– Zin dagitsut, Txomin –esan eustan Mari'k–, izen ori emongo dautsagula.

Esatekoa esana zan, eta azken besarkadea guztiai emonda, nire malkoa ezkutzearren, alde egin neban, uriburuan zear nire azken egurastua egiteko.

Urrengo eguneko bazkalostean, osaba Lon'ek eta izeko Garbiñe'k lagunduta geltokira joan nintzan, erri-berebillez Artzuri'ra joateko. Ez genduan berba askorik egin, bearrekoa ez zan-eta. Osaba-izekok atzean eskuz niri agurtuz azkenengoz ikusi nebanean, saman korapillo bat kokatu yatan, lau urtebetez gurasotzat izan nebazan-eta.

Iluntzean eldu nintzan, eta udalak niri aurkitutako ostatuan kokatu nintzan. Semelabak etxetik joanda, bakarrik geraturiko senar-emazteak ziran nire ostalariak, eta etorteko zan urizaiburuarentzat udalari gela bat eskiñi eutsoen. Ederra ta zabala zan, txoko baten idaz-maiatz ornatua. Lenengotik atsegin yatazan senar-emazteak, eta aldiaren joanean, etxekotzat billakatu nintzan, txit ondo alkartzen gintzazala. Berbatua zan ostatu-sariaz, gelaz gaiñera, eguneroko iru otorduak emongo leuskidez, eta izan be, janari etxekoi, gozo, eta mamintsua azaldu zan.

Eldu ta urrengo egunean, udaletxera joan nintzan, eta egokidazan idaz-gelaz eta agintza-makillaz jabetu nintzan, alkateak guztitariko argibideak emostazala. Andik laster, udaleko joskillea etorri zan, eta neurriak artu eustazan janzki bi egiteko. Bata, egunorokoa, eta bestea jaietarako. Onen ostean alkatea joanda, nire idaz-gelako liburuak, irarkiak etabar aztertzen jardun neban. Eguberdian, alkateak dei egin eta auxe esan eustan:

– Bidezkoa ta bearrekoa da argibide batzuk emon dagitsudazan. Urizaintaldea, nagusiaz gaiñera amar lagunekoa da, eta oneitariko bakotxak egunean sei orduz lan egiten dau, goiz eta arratsalde aldizkatuz. Igandetan erdiak soillik diardue. Orduen araua auxe da: goizean zortziretatik ordu biak arte, eta arratsaldean ordu bietatik zortzirik arte. Uria bost zatitan banandua da, eta zati bakotxa urizain baten ardurapean izanik, egun osoan babestuta dago. Gaur, arratsaldeko zazpiretan urizain guztiak emen batuko dira, alkarrekiko ezagutza edo aurkezpena egin dagizuen. Orain joan zaitezke bazkaltzera, eta aipaturiko ordurarte egitekorik ez dozun ezkerro, aske zara urian zear oster bat egiteko, zure jardun-barrutia ezagutu dagizun.

Alkateak agindutakoa egin neban, eta bazkalostean, astiro egurastuz, Artzuri'ko zertzeladak ezagutzen asi nintzan. Zortzi milla inguruko uritarreko zan, atsegin eta txukuna, izan be. Eleiza ederra uri-erdian eraikia zan, zugaitz sendoek eta aulki ero-soek apaindutako enparantza zabalaren aurrean. Emendik, gora ta beera guztitariko dendak ebazan kale nagusia edatzen zan, onen saietsetatik albo-kale estuagoak nonai sakabanatzen zirala. Enparantzatik ur samar, mailla bikoa zan zein edo merkatu garbi ta ondo ornatua, beste enparantza txikiagoaren aurrean egoan, eta emendik, lantegi batzuk ikusi zeitekezan uriko aldamentan. Alde batetik eta mako zabala eratuz, ur nagia, baketsu, eta garbitako ibaia igaroten zan, eta onen ertz baten, nire ustez Artzuri'ko bitxia zana edatzen zan: bedarrez, zugaitz tantaiez, aulkiz, eta sigi-sagaka joiazan bidexkaz

apaindutako egurastegi bikain, ederra, eta osasuntsua. Bataz beste, uri atsegin, polit, eta garbia begitandu yatan, eta arratsalde aretako egurastua amaitu nebanean, Artzuri aukera ona izan zala, nire buruari autortu bear izan neutsan.

Zazpirak jo aurretik udaletzeko nire idaz-gelara biurtu nintzan, eta irarki, txatal, eta urizaiñen agirien bidez urizaingoa zelán erabilten zan ikasten nebala, alkatea sartu zan, eta berbaturiko ordua izanik, alboko urizaindegira eroan ninduan. Areto ederra berau, erdian aulkiek inguraturiko mai zabala egoan, ormen luzean urizain baktxaren janzki-kutzak lerro-lerro edatzen zirala. Sartu gintzazanean, nire menpekoak zutundu ziran, eta orduan alkateak baktxaren izen-abizenak aipatu eustazan. Lenengoz entzuten diran izenak, gomutean tinkatzea zailla da, baiña laster ikasiko neban, jakin be, baktxaren izenaz gaiñera, zelako nortasunekoa zan. Aurkezpena eginda, alkateak onetaraxe jarraitu eban:

– Emen aurkeztu dautsuedan Urrexola Jauna zuen nagusirik urrenena izango da, eta berak esanikoari buru-belarri men egingo dautsazue, nerau izango bai'nintzan. Azal eta zabal dabil, uri onetako udalzaingoa, ez dala bear baizen eginkorra, eta au, baita beste uts batzuk be, zuzentzeko gerturik dator zuen nagusi au, uri ta udalaren aipu onerako. Eta au esanik, berak zeozer esateko izango daualakoan, banoatzue nire zeregiñetara.

Alkatea joan zanean, nire menpekoai jesarteko agindu neutsen, eta onetaraxe asi nintzakien:

– Lagunok, oso ondo alkartuko gareala uste dot, zuek danok betekizuna egiteko gai zarienik ez dot zalantzan ipinten-eta. Len irakurri dot urizaiñen araudia, eta...

Ona elduta, gazteenak ziran, eta lotsabakoak zirudien Perutxu ta Manutxu, euren artean txutxumuka asi ziran. Bapatean jagi nintzan, eta eurokana joanda, zutundu zeitezen agindu neutsen, eta gero,

– Dirudianez, udalzaingorako arazo garrantzutsua darabiltzue, eta olan izanik, eskertuko neuskizue, guztien onerako azaldu dagizuela zuen autu-gaia.

Arrituta, ez ekien zer esan, eta oiñetakoen muturrera begiratzu geratu ziran. Une batez itxaron neban, eta gero,

– Agidanez, nire aldetiko sasi-arrenkurea izan da. Esan bear dautsuet, jaunok, nagusi batek berbetan diarduanean, menpekoek isillik irauñ bear dabela, baiña zeozer isil-eziña ba'lebe, orduan itz egiteko baimena eskatu, eta emongo yake. Ulertu dozue...?

Berba egiteko gauza ez izanik, baietzeko keiñua egin eben. Orduan maipurura biurtu, jesarri zeitezela agindu, eta lengo aria birrartuz, onetaraxe jarraitu neban:

– Urizaiñen araudia buruz ezagutuko dozuela niñotsuen, baiña baten batek aztu egin ba'leu, barriro be irakurri dagiala eskertuko neuskio. Dalako araudian noiz eta zelako zigorrak aipatzen dira, baiña ziur naz, olako bideak ez dirala bearrekoak izango, adiskideen artean batez be, nik neuk adiskidetzat zaituet-eta.

Une batez isildu nintzan, eta gero,

– Egunokaz, ez dot benetako agintaritzat jardungo, uria, udal onen oiturak, eta ni-

re jardunari buruzko beste gora-beerak ikasi arte. Edozelan be, zuetariko baten batek nirekin itz egin nai izango ba'leu, idaztegian bere aukeran izango nau. Besterik ez, adiskideok, urrengorarte.

Onen ostean alkateagana jo neban; eguneko zeregiña amaituta, nirekin autu bat izateko gerturik egoala esan eustan. Eretia ustiatuz, auxe esan neutsan:

– Barkatu egistazu, alkate Jauna, zugana etorri izatea etxera joateko zorian zarea-
nean, baiña urizaiñen lengo aurkezpena, arin eta irazean izan danez, aztu egin yataz izen abizenak. Onezaz gaiñera, baktxaren nortasunari buruz jakingarria dana esan dagitzazula eskertuko neuskizu.

Isillik irauñ eban une batez, oldozkunak taiutzeko, antza, eta gero,

– Ondo dakizunez –asi zan–, urizaintaldea amarreko da. Onetariko bost, oikoak dira, arruntak, eta bataz beste egitekoa ondo beteten dabenetarikoak. Beste bostak, ordea, baktxa bere duiñean apartekoak dira, eta ez udalaren onerako. Gomutan izango dozu, urrean, len aurkeztu dautsudazan urizaiñen arteko, aurpegi gorrixka biribileko bat, ezta...?

– Bai, gogoan daukat.

– Orreri Pototo esaten dautsoe, eta Marondo basetxeko Markel izenekoa izan arren, izengoiti orren bidez ezagutzen dabe guztiek. Izatez ona da, baiña loti izela izanik, eguneko edozein ordutan, bazterren baten lotan aurkituko dozu, baita zurrungaka be, gau bete ba'litzan. Alperrik da akar egitea, edo illeroko sariari zati bat kentzea; jasapenik andienaz artuko ditu zigorrak, baiña urrengo baten oster a be lo betean arrapatuko dozu...

– Gabaz zer egiten dau ba...?

– Lo egin be. Etxekoek diñoenez, loti andia izan da beti, eta osagilleek ez dakie zeri egotzi dalako joera, osasun aldetik akatsbakoa da-ta. Bere jardun-agiria (expediente) uts-egitez beterik agertzen dan ezkerro, erraza izango litzakit urizaingotik jaurtitea, baiña gurasoak geisorik ditu, eta etxeko euspenea izanik, orretara ez naz azartzen.

Isildu zan barriro, eta jarraian,

– Bigarren katramilla edo buruaustea “Oillarra” esaten dautsoen Erremiji izeneko gazte garai eta ante onekoa da. Adats baltza itsaskiaz ondo orrazturiko, eta aurpegi baltzaranekeoa da. Ez dakit nongoa dan, baiña uriburutik-edo etorri dala uste dot. Dalako “Oillarra”k bere burua On Juan lilluragarritzat dauko, eta jardunaldi betean ortik dabil neskatillen atzetik, bere eztekeriaz nor atzituko begira. Sarri ikusiko dozu uriko edozein ate-ondoan neskatilla batekin txutxumuka, dagokion betekizunari uts-egieñez. Askotan, bere ardurarik-eza aurpegira jaurti dautsat, baiña berak diñoanez, uri onetako neskatillak bere atzetik ba'dabiltz, orren errua ez dautsagu berari egotzi bear, aduari baiño, soin-doiakaz jantzi daualako. Zer ba, urreratzen yakonetan erremuska bat az uxatu bear ditu...?

– Ez dozue –eten egin neutsan–, jardun bereizirik saiatu neskatillakandik urrun...?

– Bai orixe...! Aspaldi batez, zaar-saridun asko dabiltzen ibaiaren ondoko egurastegira bialdu genduan, eta zer jazo zan...? Ara... ez gintzazan oartu dalako egurastegira

ume asko doazela, eta onein aur-zaiñak "Oillarra"ren doi zenbatu-eziñek erakarrira, gure urizain gaixoa ez eben bakean uzten. Olan esaten eban gure "Oillarra"k, baiña benetan ez dakigu nor noren atzetik ebillen, baiña aurren gurasoek salatuta, edertasun-doi bereziakaz jantzitako urizain ori beste iñora igorri bear izan genduan.

– Nora...?

– Uriko zeira, eta emen darrai oraindiño. Edozelan be, berak diñoanez, ez dago jardun-lekurik, neskatilen biotzak apurtu ez dagiazan, edo-ta aren atzetiko joateari uko egin dagioen.

Ona elduta, aurpegian irribarre maltzurra agertu yakon alkateari, auxe iñostanean:

– Sarri askotan burura yator, eleiz-aurreko enparantzan, oiñarri baten gaiñean gure "Oillarra" ipiñi, barruti onetako neskatillek aukera betean begiztatu dagien. Olan ba, kanpotiko txangolariek irabazte polita ekarriko leukie Artzuri'ra.

– Eta euria ba'litz...?

– Orduan udaletxeko atadira ekarriko genduke, txapel gorria, edo gangarra busti ez dakion.

Barre egin genduan, eta oiko benetasuna irabazita, Erramun Jaunak onetaraxe jarraitu eban:

– Udal onen beste burukomin edo korapilloa, Mauri, edo "Lukainka" ez-izeneko urizaiña da. Gogoan dozu lengo aurkezpenean, berrogei bat urteko lagun argal luze-luzea...?

– Bai, Jauna. Gomutamenetik ezabatzen ez diranetakoa da, eta gaiñera, igelaren itxurea damotsoen begi urtenak gogoan dodaz oraindiño.

– Orra or, ezerezkeriaren beste bitxia edo eredia. Bere burua gogolari (pensador) eta olerkari anditzat dauanez, an-emen egurasten ikusiko dozu begiak urrutira zuzenduta, gogoeta sakonai emonda, bere inguruan jazoten danari jaramon egin barik. Beste batzutan, aulki baten jesarrita, asmamen edo jeñu argiari parra-parra uriol geldi-eziñaz dariozan gogoeta bardinbakoak eta olerki goi-argituak, txatal baten idazten ikusiko dozu, bere asmamenaren bitxiak edo ekarriak gizadiak eta zibilizaziñoak betirako gorde dagiezan.

Ona elduta, isildu zan une batez, eta gero betosko illunaz,

– "Lukainka"ren beste bereiztasuna –jarraitu eban Erramun'ek–, itzaldiak idaztea ei'da, gero udalbatzako batzar nagusietan... Baiña laga dagidan arazo au beste eretirako, eta ekin dagiodan Perutxu ta Manutxu'ren nortasunari.

Zigarrotxua piztuteko isildu zan zatitxu baten, eta gero,

– Anaiak doguzan gazte oneik –jarraitu eban–, udalbatzeko lagun baten lobak dira, eta ziñegotzi onek ekin eta ekin urizaingora sartu ebazan. Sartu ba'ziran sartu ziran...! Eurok beste alperrak ez da uri onetan egundo ezagutu, ezta ezagutuko be. Bein-beiñekoak diran lenengo iru illabeteetan polito jardun eben, baiña saio-aldi ori igarota gero langille beteak billakatu ziranean, nagikeri ta lotsabakokerien marra guztiak birrindu dabez. Zaar-saritu barri dan lengo urizainburuak oso bigun artu oi ebazan menpekoak, eta onen ondorioz, araubideak lazoturik, Artzuri'ko urizaingoa buruz-beera

dabil, bakotzak gogoak emoten dautsana egiñez. Eta ondapen osora jausi ez ba'gara, beste bost urizaiñak langille ta zintzoak diralako da, bestelan gureak egingo eban...!

– Baiña, alkate jauna –eten egin neutsan–, ez al-da izango bideren bat lotsabakuok urizaintzatik jaurtiteko...?

– Oraingo lan-arauak dirala-ta, langille bat jardunetik-at jaurtiteko oso zaila da, eta oartu zaitez, adibide bat emongo dautsut. Ara... lengo baten esan neutsun uri onetako etxe zaar bat sutan asi zanean, andik igaroten ziran Perutxu'k eta Manutxu'k etxeko ondapena ikusirik, ez eutsuen iñongo sorospenik etxe ta etxekoai emon, eta su-amatatzaillak etorri ziraneko, dana galdu izan zan.

Jazorikoaz jakitun ipiñi niduenean, asarre baten anai biok dei egin, eta nigandik entzutekoak entzun ondoren, eurok su-amatatzaillak ez zirala patxadarik andienean esan eusten. Suminduta, urizaingotik jaurtiteko agindua emon neban. Baiña jaurti ba'nebazan, jaurti nebazan...! Uriburuko lan-auzitegira jo egin eben, eta andik iru illabetera, anai biok birrartzea agindu euskun epaikariak, eta onezaz gaiñera, iru illabeteotako lan-sari osoa emoteko...!

– Siñizteziña da...!

– Bai, eta ortik dabilz lotsabakuok gure lepotik barre galantak egiñez. Arrezkero, zor nai lor, bideren bat billatzeko aalegindu naz Perutxu ta Manutxu begiz galtzeko, baiña alperrik... Olakorik lortu dagianari, enparantzaren erdian oroitarri bat eraikiko leuskio uri onetako udalbatzak...!

Isildu zan une batez, eta gero itxura eskaritsuz,

– Uste dozu, Txomin –itaundu eustan–, gai izango zareala, orreik udalzaingotik uxatzeko...?

– Ez dakit, Erramun Jauna, baiña olakorik jazoko ba'litz, oroitarriarena barkatuko neuskio Artxuri'ko udalbatzari.

Barre egin genduan, eta gero jagita,

– Astebetea igarorik, zure jardun-jantziak gerturik izango dira, eta anartean, uri onetako auzoak eta ikusgarriak ikertu egizuz urizaingoaren agindua artu aurretik. Biar ordu onetan zatoz ona, eta udal onen erabiltearen gora-beerak emongo dautsudaz.

Ostatura biurtzen nintzanean, nire kolkorako niñoan, Artzuri'n begira neban jarduna, ez zala gaberdiko auntzaren estula izango.

Alkateak itarantzunikoari jarraituz, uriko auzoak eta onein ikusgarriak ezagutzen emon neban astebetea, baita nire menpekoen jarduna be, alkateak urizaiñai buruz niri emondako eritxia zintzoa zala egiztatuz.

Epe onetan, ez neban urizainburutzat jokatu nai izan, ikasi ta aztertu baiño besterik ez nebala egiten. Areitariko arratsalde baten, Erramun Jaunak, dei egin eta auxe esan eustan:

– Aizu, Txomin, gaur astirik dodan ezker, on deritxat gure udalari buruz jakitun ipiñi zagidazala.

Une batez isillik iraunda gero,

– Udalbatz au –jarraitu eban–, amazortzi ziñegotzikoa da. Geiengoa abertzalea

da, eta alkatetzat aukeratu ninduan. Iru ziñegotzi ez dira iñongo alderdikoak, au da, margobakoak doguz, eta noizbait lau, "Haurrerakoi" alderdikoak. Jakin bear dozu, aurrerakoi itzelak diran aldetik, "H" a erabiltea erabagi dabe, gain-gaiñeko ikurtzat artu iran dalako, euren burua zeozertzat ederresten dabenen artean...

Ona elduta, ezin izan neban nire barregurea menperatu, eta orduan alkateak,

– Zerez egiten dozu barre, baiña...? – itaundu eustan. "H" ori ergelkeri utsa da, eta barregura baiño, negargura eragiten daust.

– Begira, Erramun Jauna: izki ganorabako ori aipatzean, nire aitita zanak iñoana gogora etorri yat. Aren eritxiz, euskeraz "H" a erabiltea txirrioa (dutxa) soingaiñekoaz edo euritakoaz artzea lez da. Esan eroian baita be, izki zentzumbako ori lepo-gaiñean eroan bear dan kintaleko arri andiaren antzeko dala... ezertarako gauza ez dan zama aspergarria. Lerrenak eginda, nekatuta, batetik bestera idazleek eroan bear daben lor ganorabakoa, "Sanedrin" batek olan agindu daualako...

– Esan bearrean naz zure aitita zuzen egoala. "Sanedrin"ekoek, euskeraren batasuna lortzeko sartu dabela diño, baiña egia esateko, lortu dabena bitasuna da. Jarraitu dagiodan, baiña, gure udalbatzaren buruzkoari. Udal onetan, besteetan oi dan lez, lana, sail bakotxerako izendaturiko ziñegotziak egiten dabe, baiña illean bein, azken egubenean izan be, gure Batzar Nagusia (pleno) ospatzen dogu. Abertzaleak eta margobako edo askeak txit ondo alkartzan gara, baiña "Haurrerakoi" taldekoekin gureak eta bost jasaten doguz.

Jagi zan alkatea, eta idaztegiko leio bat edegirik, enparantzaren erdian ikusten zan arnabar-zutoin batetik erion lau arradadun iturri ederra eskuaz erakutsirik,

– Orra or, uri onen ederrenetariko bitxia. Iturria egiteko ala ez erabili genduanen, "Haurrerakoi" taldeak ezetz, estoldak barrizatzea oba zala. Eta ostera, andik illabete batera, estoldak atontzea erabagi ebanean geiengoak, eurok ezetz, Goikaleko arribillak atontzea beiñena zala. Geiengoa, udaletxeko aurrekaldea margoztutearen alde azaltzen ba'da, eurok ezetz, erriaren onerako oba Urigoiti'ko bidea barrizatzea, etab, etab. Noizean bein, badakarre onartzen dogun esondapenaren bat edo beste, baiña au gitxitan, eta alabearrez. Orain asko ez dala, auxe emon gura euskuen burutara: gudarostea ezeztatuz, ONU'ra urrutidazki bat bialtzea; berez doa geiengoak zapuztu egin ebala. Beste baten, uri andietan erregaien kutsupena uxatzearen, "taxi"ak erabili-bearrean, oinpekoakaz eragindako orgatxuak, Jaurlearitzari esondatu gengiozala, Asia'ko lurralde batzutan oi danez. "Herri" itza edo "populua" etenbarik darabille; euren aburuz, erriaren alde aalegintzen diran bakarrak dira, eta aren onerako diardue; erriaren benetako ordezkari, esku-garbiko ta jatorrak doguz, orain ainbeste ta ainbeste lagunek, arazo zikiñetan murgildurik buru-belarri diarduenean. Eurok dabe egiaren jabetasuna, eta euren esanetara makurtzen ez dana berba egitea be ez leukie utzi bearko. Olakoak dira gure "Haurrerakoi"ak. Laster ezagutuko dozuz, baiña... Ara, udal onetan jarraituz eta ekanduz urizainburua Batzar Nagusietan entzun-ikusletzat egoten da, eta zeuk, beraz, illean bein gitxienez, ziñegotziak ezagutzeko eretia izango dozu. Zer deritxazu orreri...?

– Ondo derist, Jauna. Benetan esateko, lagungarria da urizainburuak udalaren erabagiak ezagutu dagiazala, bere zeregiñak aalik ondoen betetearren. Luzeak izaten ete dira Batzar Nagusiok...?

– Ori, zelan dan. Geientan lau ordubeteko izan oi dira, Baiña "Kontxo" ez-izeneko "Haurrerakoi"en eritxi-emoilleak arlo garrantzitsua darabillean, orduan sei ordubetetik gorakoa billakatu daiteke. Baiña au aipatu dodan ezkerero, gauza bitxi bat esango dautsut...

Irribarre maltzurra ezpanetan, onetaraxe jarraitu eban:

– "Kontxo"ren itzaldiak, beste batek idazten ei'dautsoz, eta badakizu nor dan gogalari bikain ori...?

– Nor...?

– Nor eta "Lukainka", zure menpeko arrigarria...!

Au entzutean, zur eta lur geratu nintzan alkateak iñostana siñistu eziñik.

– Ez niri esan, gero, "Haurrerakoi" taldearen adimen-maisua edo jeiñua, itxura otzaneko "Lukainka" danik...!

– Bai, Txomin, olantxe da, eta egunen baten zerorrek egizatutoko dozu ori... Baiña laga dagigun gaurko gure alkarrizketea, berandu samar egin yaku-ta. Beste urrengo baten ariari jarraituko dautsagu.

Atan-orretan astebetea igaro zan, eta nire zaintzaburuaren janzki biak eskuratuta, egokidan jardun barriari emon neutsan. Jardunetik-at janzkia erabiltea gogokoa ez yatanetz, idazgelara sartzean, kalekoa kendu, eta jarduneko jantzitea erabagi neban, eta bardin, lana amaituta, kalekoaz etxeraten nintzan. Nire janzkia menpekoen lakoa zan, baiña gai ta egituraz ohea, eta urre-antzeko galartzaduna mauka-barrenetan eta txapelean. Onezaz gaiñera, makil bikaiña zidarrezko eskutillaz eta gingil gorriakaz apainduta. Nire ostalariek iñoenez, itxura ezin-obeak erakusten neban, eta izan be, Artzuri'ren duiña. Aldiaren bidean, onetaraxe arautu neban nire jarduna:

Goizean, menpekoen txostenak irakurten nebazan, eta jarraian, urian zear osterata egiten neban, bidebatez, sakabanatuta egozan bost urizaiñak banan-banan ikertuz, eta onein esatekoak, oarrak, etabar entzunda, eguberdi-irian udaletxera biurtzen nintzan, kaleko soiñekoa ipiñi, eta bazkaltzera. Arratsaldean, goizean lez beste bost urizaiñak ikertu, eta uria ondo aztertuta gero, kaleetako osterea (trafikoa) batez be, idazte-gira biurtzen nintzan. Emen, goizeko urizaiñen txostenak, isunak, oarrak eta udaleko agiriak aztertu odoren, etxera biurtzen nintzan. Arratsaldeko urizaiñen txostenak urrengo eguneko lenengo orduan aztertzen nebazan. Udalak ez eutsan iñongo mugarik ipiñi nire jardunaldiari, baiña ez neban eguneko lana amaitutzat emoten, nire egitekoa ondo ta zeatz bete arte. Artzuri'n, osterea (trafikoa) oiko argiakaz arautua zan ezkerero, urizaiñak aske ziran beste zeregiñetan jarduteko, au da, kaleetako garbitasuna, zarama-berebillen ustuzamaketa, dendetako edegi-itxi orduak, eraikintza-lanak, uritarren giza-jokabidea, ziurtasuna, etabar zaintzeko.

Egunen joanean, eta nire betekizunean sakondu-ala, Artzuri'ko urizaingoak iru buruauste ebazala, oartu nintzan. "Pototo", "Oillarra", eta "Lukainka", izan be. Perutxu ta Manutxu, buruauste baiño, izurria ziran, eta aipu berezia egokien ezker, beste atal baten aintzakotzat artuko dodaz.

"Pototo", baserriko semea zan, etxe txiro batekoa, izan be. Gurasoak ezinduak izanik, etxeko euspina zan, eta bere lanaren ekarriaz irurok bizi aal izaten ziran, begiratutxuan, baiña bearrizan gorria jasan barik. Lodikotea zan "Pototo", eta aurpegi biribil gorritzak ontasunaren eredia emoten eban, irribarrez eta amultsu, iñoiz asarratzen ez zanetarikoa. Baeban "Pototo"k baiña, akats bat eta ez txikia: etenbako lo-gurearena. Ez dakit gabaz zertan jardungo leuken, baiña naiz goizeko naiz arratsaldeko otseintzan, lo-gurak menperatuta irauan. Nire ustez, zailla baiño, ezintzat izan dot beti, zutunik lo egitea, baiña "Pototo" ezagutu nebanetik, nire uste ori ezereztu izan da.

Kale nagusiko zaintza egokion bein baten, oiñak zabalik, denda bateko erakusleio (escaparate) baten aurrean ikusi neban, eskuak makillaren gaiñean jarrita. Egoera ez-oitua iruditu yatan, eta isil-ostuka urreratu nintzakionean, lotan zala oartu nintzan... Ezin nengikean siñistu, baiña bere zurrungek adierazoten ebenez, egia zan. Une batez "zeri nakio" geratu nintzan, nire buruari niñotsala, "eziña egiña" ikusten nebala. Bane-kian, anka bitako maiak ezin dauala zutunik iraun, baiña irugarrena ipinten yakonean, orduan erraza biurtzen da, eta "Pototo"ren irugarren anka edo zutoiña, urizaiñen makilla zan. Olan ba, "Pototo"ren lo egiteko antze bikaiña ederresten nebala, okerkeri bat otu yatan, eta bapatean makillari ostikada indartsua emon neutsan.

Ondorioa itzela izan zan... albo-alboka ibilliz, jausteko zorian, lur-ikara baten oparia zalakoan-edo, "Pototo"k noizbait, dendua irabazi eban, eta begi ikaratuakaz ingurura begiratu, ikusi ninduean,

- Egunon, Jauna -tartailoka esan eustan-
- Baita zeuri be, Markel. Zer jazo yatzu, Baiña...?
- Ez dakit, Jauna, baiña ustekabez jausteko zorian-edo oartu naz...
- Txarra da ori, Markel, eta areago Morfeo'ren besoetatik jausten danarentzat. Abo-zabalik begiztatu ninduan une batez, eta gero,
- Barkatu, Jauna, baiña nor arraio da Jaun-edo ori...?
- Loaren erregea da. Aizu, ordu batetan, jardunaldia amaitu aurretik, igaro zaitez

nire idaztegitik. Orain ibilli zaitez azkar kalean gora ta beera, jasandako ikaraldia baretu dakizun.

– Bai, Jauna.

Agindutako orduan idaztegiari agiri batzuk aztertzen nebazala, sartzeko baimena eskatu eustan “Pototo”k, eta baietza emonda sartu zanean,

– Jesarri zaitez, Markel –agindu neutsan–, zeuk eta biok arazo bat argitu bear dogu-ta.

Isildu nintzan une batez, eta gero, danbada baten antzera, auxe jaurti neutsan:

– Aizu, Markel, azaldu nai daustazu, zaintza-bitartean zergaitik zengozan lotan denda baten aurrean...

– Ni lotan, diñostazu...? –mintzo totalaz berak–.

– Lo betean, baita zurrungaka be, Markel.

Gorri-gorri eginda, oartu zan, urrean, oba litzakiola zintzo izatea, eta orduan abots eskaritsuaz,

– Begira, Jauna –esan eustan–, sarri askotan zaintzan diardudanean, ezustez, lo garaiteziñak menperatzen nau, eta orra or...

– Egundoko lo-gurea izan bear, zutunik lo egin aal izateko, eta gaiñera jausi bari; auxe bai arrigarria...!

Aurpegia irribarre atsegiñaz piztu yakon, aurkitu ebalako, noizbait, bere trebetasun arrigarria ederresten ekiana. Orduan bere antzez arrotuta,

– Ori ez da erraza, Jauna, baiña ekiñaren-ekiñez, eta makilla irugarren ankatzat ustiatuz, orduan ba...

Bere uts-egitea autortzeko eban xalotasuna oartzean, nire onetatik urtenda,

– Uste dozu, baiña –orruka esan neutsan–, Artzuri’k ordaintzen dautsula, zure zaintzaldian lo egiteko...?

Gorritu zan barriro, eta mintzo erabetiz,

– Ez, Jauna, baiña ezin naitekio lo-gureari jarki.

– Aizu, Markel, zer egiten dozu ba etxean zagozanean...?

– Ara, orain etxera biurtu naitenean, gurasoai jaten emongo dauset eta neuk be janda gero, gure beia alatu bitartean, soloan jardungo dot etxeko ortuariak jorrazteko.

Gero aparria atondu, eta gurasoak oera lagundu ostean, beia jatsi, eta ni be lotara...

– Barkatu, Markel –eten egin neutsan–, baiña ondo lo egiten dozu...?

– Buru-belarri, Jauna; iratzarle madarikatuaren txirriñak iratxartu arte.

– Eta orduan...?

– Gurasoai gosaria emon, aulkian jesarri zaitezen lagundu, eta zortzitarako udal-txean, nire jardunari emoteko gerturik.

– Baita lo egiten jarraitzeko be. Esan, Markel, gabaz orren ondo lo egin ondoren, zergaitik zaintzaldian lo egin be...?

– Ez dakit, Jauna, baiña bapatean erasoten daustan lo-gura ori, nire naimena baiña indartsuagoa da. Ezustez yatort, eta ezin naitekio jarki.

Nire gogoetak beste norabide batera nindaroan, eta,

– Aizu, Markel –itaundu neutsan–, eta zuk lanean jardun bitartean, zelan konpon-tzen dira zure gurasoak...?

– Auzoko neskazar batek orduka zaintzen ditu, ni etxera biurtu arte.

– Eta zure alogerak orrenbesterañio emoten dautsu...?

– Begiratutxuan bizi izaten gara, eta gaiñera, soloko ortuariak eta beiak, etxekoak janaritzeko beste emoten dauskue. Eralguntza beiñena, auzoko emakumearena da, baiña nire gurasoek ori ta geiago be merezi dabe.

Au entzutean, “Pototo” beste ikuspegitik epaitzen asi nintzan, eta zigortu-bearrean lagundu bear neutsala oarturik, auxe esan neutsan:

– Begira, Markel, gaurkotz ez dausut zigorrik emongo, baiña itz emoidazu, gaurkoa azkenengoz izango dala.

– Olan gura izango neuke, Jauna, baiña batek-baki... Aaleginduko nazalako berba emoten dausut, besterik nik ezin ziurtatu...

– Agur, Markel, eta urrengorarte.

Etxera biurtzean (ostatuari olan esaten neutsan, etxekotzat artzen ninduen-eta), ezin nengikean “Pototo” burutik kendu. Arratsaldeko jarduna amaitzeko zorian, azken agiri ta txostenak aztertuta gero, besaulki-gibelean jarrita nengoala, barriro be “Pototo”ren arazoa gogora etorri yatan, eta korapilloa zelan askatu buruan nerabillela, ezustez, urtenbide bat bazala begitandu yatan...

Udalaren pentzuan bagenduan urizaintzako lagunak, osagille bat gure aukeran bearreko zanean. Biaramonean dei egin neutsan, eta etorri zanean, “Pototo”ren lo-guraz jakitun ipiñita, auxe esan eustan:

– Soin-azterketa egitea onena litzake. Orretarako, nire azter-gelara etorri daitela arratsaldeko 5’tatik 7’rak arte.

– Olan aginduko dausut.

Iru egun igarorik, idaztegiari nintzala, osagillea azaldu zan, eta,

– Ondo ta zeatz aztertu dot zure menpekoa –esan eustan–, eta onen ondorioz esan dagiketsut, gingil edo gurenetao gatxa dala. Osasunerako ez da gauza larria, baiña lan egiteko akats andia, aalegin gitxiko jarduna egiten dauanean batez be.

– Atontzerik ba ete dau gatx orrek...?

– Bai, badira pildu batzuk orretarako egokiak, eta oneik artuz gaiñera, oso ona izango litzakio etenbako soin-iñarkuna egitea, esaterako ibilketa azkarrari emotea, edo antzeko iñarkunari.

– Ederto, osagille Jauna. Ikusiko dogu zer egin dagikegun.

– Agur ba, eta zure aginduetara.

Joan zanean, ausnar sakon bateri emon neutsan, eta noizbait ekinbide bat bururatu yatan. Arratsaldeko zaintzan jarduten eban “Pototo”ri idaztegiari dei egin neutsan etxera joateko ordua zanean, eta,

– Aizu, Markel –itaundu neutsan, gauza bat jakin nai izango neuke, eta auxe alegia: ortuko lanai gogor ekiten dautsezunetan, lo-gurarik etorten yatzu...?

– Ez, Jauna, orduan ez. Bai ostera, “zeri nakio” nagoanean.

– Entzun egistazu ondo auxe: osatuko zara pildu batzuk artzekotan, baiña soiniñarkunaren bidez batez be. Orretarako, barruko indar andia erabilli bear izango dozu. Gerturik zagoz...?

– Bai, Jauna.

– Orduan entzuidazu...

Jarraian, nire asmoa azaldu neutsan, eta berak onartuta, astirik galtzeke indarrean ipintea erabagi genduan. Ona emen egitasmoa:

Kale nagusia, “Pototo”k ziarduan kaleetariko bat, uriko luzeena zan, bosteun metrokoa inguru. Lo-gurea etorriko litzakionean, kale onen joan-etorria zortzi miñutotan egingo leuke, eta olan jarraituko etenbarik gora ta beera, lo-gurea zearo ostendu ekion arte. Onen ostean, oiko zaintzari emongo leuskio, urrengo lo-guraren eraso arte. Orduan, ostera be arinketea birrasiko leuke, etabar.

Ontzat emon eban “Pototo”k egitamua, eta amaitzean, auxe esan neutsan:

– Begira, Markel, lanean jarraitu gura ba’dozu, akats andi ori garaitu dagizula ezin bestekoa da. Udalak ezin dau ordaindu, lan egin-bearrean lo dagianari. Bearreko naimen-idarra erakustekotan, lanean jarraituko dozu, bestelan, badakizu begira dozuna...

– Jauna, ziñez diñotsut arteztuko nazala, bai ortan...!

– Ederto, egitamu barria biar asiko dozu, eta biotz on...!

Egiari zor yakon begiruneagaitik esan bear dot, ordutik “Pototo”ren jarduera gain-beera aldatu zala. Noizean bein, oi neban zaintzaldia ustiatuz, Kale nagusira niñoan, eta “Pototo”gana joanda,

– Zer diñostazu, Markel...? –itaundu oi neutsan–.

– Ederto, Jauna, gaur lo-gurak erasota, iru ostera egin dodaz kalean gora ta beera, ibillera azkarraz.

– Ta, zelan oartzen zara...?

– Ondo baiño obeto, Jauna, izan be, gero ta itxartuago.

Sarri askotan kuku egiten neutsan Markel’en jardunari, eta arrezkero ez neban bein be lotan ikusi.

Illabete bat-edo igarorik, egun baten urreratu yatan, eta,

– Jauna –esan eustan–, eskertu bear dautsut, zuk esonatuak beste gizon bat biurtu naualako. Orain banaz gai lo-gura barik jardunaldi osoan zear irauteko. Bizitza beste aldetik ikusten asi naz, atsegiñago biurtu yatalako, kirolzale izateraiño, izan be. Orain pildurik ez dot artu bear, iñarkuna naikoa da-ta.

Irribarre egin neutsan, eta pozaren-pozez,

– Aurrera jo ta ke. Zure onerako jarraitu asitako bidetik. Esan bear dautsut baita be, gazteago emonez gaiñera, kirolariaren itxurea artzen asi zareala, bai, urizaiñen erdua esan bear dana...!

Poztu zan Markel, eta irribarre zabala aurpegian zear edatzen yakola, txairo ta azkar kalean gora ostendu zan. Egia zan: nire menpekoen arteko onetariko bat billakatu zan, eta beragan nire uste osoa ipiñi neban. Itxureari buruz, obakuntza andia jasan ebala agiri zan. Lengo itxura lodikote ta astiña ostenduta, orain mutil garai, giartsu,

malgu ta azkarra zan, alde guztietatik kirolari jatorraren irudia parrastaka eriola. Eta guzti au gitxi bai’litzan, urtebetea igaro barik, Artzuri’ko kirol-taldean onartu izan zan benetako izartzat. Bai, urian esaten ebenez, ariñeketa-saillean, ez eban leikiderik, Artxuri’ko kirolzaleen itxaropena biurtzen zala.

Barri onek poztu ninduan benetan, baiña geien poztu ninduana, bere guraso ezinduak, zintzo ta maitetsu zaintzen jarraitu ebalako barria izan zan. Eta biotz-biotzez Jaungoikoari eskertu neutsan, Markel’en arazoa atontzen lagundu eustalako.

X X X

“Oillarra”... ona emen nire bigarren buruaustea. “Pototo” baizen apala ta esanekoa izan ba’litz...! Baiña bere buruaren edertasunaz kutsututa dagoana, zailla da zentzunera ekarte.

Erramun alkateak esana eustanez, egurastegiko aurzaiñak bakean uzten ez ebalako (berak iñoanez, areik ziran bere atzetik ebiltzenak), uriko zeira edo merkatura aldatu izan zan, baiña sartagiñetik urten eta txingarretara jausi izan zan. Emen be, aren erakparren jarki-eziñak menperatuta, saltzailleme gazteak, eta egunoroko janari-erosketea egitearren etozen neskameak zirala-ta, gure “Oillarra”k ez eban bere eginkizuna beteten. Saltzaillemeren baten ondoan, oiko lelakeriai emonda ikusten ez zanean, bere adimen urtenaren lorak neskameai jaurtiten ikusi zeitekean. Noizean bein gelditzen zan, eta txapel gorria kenduta, bere adats baltz, koipez dizdiratsua, “begien egarri” igurtziten eban, eta gero aurrera, biotz-birrintzeari jarraitzeko.

Amaika bidar esana neutsan neskatiñak bakean uzteko, eta bere egitekoari emon egitsan, udalak orretarako ordaintzen eustan-eta. Berak, baiña, betiko leloa erabillen, esanez, eurak zirala bera bakean uzten ez ebenak. Bein baten, nire gaitzespenak asperuta, urrean, onetaraxe erantzun eustan:

– Begira, Jauna, ez dot iñongo errurik, daukadan itxuraz amak mundura jaurti nindegian. Naikoa ta lar da, nazan baizen jazarria izatea.

– Egia esateko, Erremiji, ez dozu txarto emoten, baiña ondo etorriko litzakizu zentzun apur bat.

Soiñak jaso ebazan, eta andik laster neskame bikin berbetan ikusi neban. Onezaz gaiñera, baiña, bazan beste alde itsusia, eta auxe alegia: jardunaldia amaituta udaletxera biurten zanean, sarri askotan besapean lotuki bat eroian, saltzaillemeren batek ederespen-ezaugarritzat emonikoa, urrean. Zertzelada au txartzat emonda be, ezin nengikean galazo, gero ta gero be, nire agintza-gaiñetik egoalako. Edozelan be, arazoari ondo ez neritxanez, beste leku batera bialtzea erabagi neban, eta au nire aalmenaren barrutian izanik, eleizaren atzetik edatzen zan alderdi zaarrera bialdu neban. Banekian, emen be, gonon artean sarri ikusiko neukela, baiña Eleizpe izeneko auzo onetan, galzarpeko lotukia ez litzakio ikusiko.

Oiko ikerraldia egiñez auzo onetatik igarotean, “Oillarra”k neska batekin ziardua-

nean, bertanbera uzten eban, eta bere ibillaldiari jarraitzen eutsan. Ezin nengikeon, baiña, etenbarik kuku egin, eta andik laster, ni beste iñora joanda, banekian ostera be beste neska batekin jardungo leukela. Eta olan jazo zan aspaldi luze batez “Miesa” kalean iragarki bat agertu arte.

Bein baten, dalako kaletik oiko ikerraldia egitean, “Andra Apaiña” izeneko dendan, iragarki auxe irakurri neban: “ogipeko bat bear dogu”. Denda au aipu andikoa zan, bere duiñean onenatariko gaiak saltzen ziralako, eta euren burua zeozertzat eben andrak, denda onetako bezeroak ziran. Iragarkia irakurri baiño ez, tximista baizen azkar burutapen batek jo ninduan, eta barruratu nintzan. Jabeak ikusi ninduanean,

– Kaixo, urizainburu Jauna –itaundu eustan–, zerk zakaz ona...?

– Or, erakus-leioan ipiñitako iragarkia ikusi dot, eta ondo etorriko litzakizun us-tez, emen nozu ogipeko on-ona zuri eskintzeko asmotan.

– Nor da bera...?

– Nire menpeko urizain bat, eta denda-morroï bikaiña billakatuko litzakena.

– Damu dot, urizainburu Jauna, baiña nire denda onetan, ez dogu egundo be muti-lik erabilli, neskak baiño.

– Baiña Aurelio Jauna, egirik izango ete ori...? Emakume-gaiak saltzen diran denda baten mutillak erabilli-bearrean, beste emakume bat ekarri...? ori ez da saltoki apaiñetan gaurregun erabilten dan oiturea, esaterako, Paris'en, Madrid'en, etabar. Begira, denda erakarkorra esan bear dana lortzeko, au da, emakumeak parrastaka erosi dagien, saltzailletzat mutillak erabilli bear dira, eta gaiñera ez zeingura, begikoak, ederrak, adeitsuak, baiño.

– Uste dozu...?

– Begira, Aurelio Jauna: emakume bat, gazte danean batez be, erakus-maiaz bestaldean, mutil txairo, begiko, irribarretsu bere aukeran ba'dau, dendara suur-zapiño bat erosteko asmoz sartu ba'da, urtetean, zapiñoaz gaiñera, soingaiñeko ederra eroango dau, eta bardin, esku-zorroak erostekotan sartu ba'da, andik joatean, esku-zorroak, kappel bikaiña, eta zirikozko euritakoa etxeratuko ditu, bere buruari zin egin ezkerro, edozein atxakiaz laster biurtuko dala.

Burua txorkatuz, oldozkor geratu zan dendaria, eta gero,

– Benetan esateko, itarantzuten daustazuna ez da ergelkeri utsa, eta bestalde...

– Bestalde –eten egin neutsan–, ez dozu gauza andirik galduko iru illabeterako baldintzaz artzen ba'dozu, eta ikusien gaiñera erabagi.

– Bai, ez deritxat txarto orreri, gero ta gero be, nire burua lotu barik izango dan ezkerro... Bai, bialdu egistazu mutil ori, eta gero ikusiko...

– Ederto, baiña orren aurretik jakin bear dot zure menpekotzat asteko gerturik ete dagoan bera, eta baietxean, etzi-edo ekarriko dautsut. Agur, Aurelio Jauna.

– Agur, urizainburu Jauna, eta eskerrik asko zure arduregaitik.

Oiko azterketeari jarraitu neutsan, eta arratsalde aretan “Oillarri”ri zaintzaldia egokionez, Eleizpe auzora abiatu nintzan, eta auxe bai arrigarria...! bere alboan ez neban gonarik ikusi. Urreratu nintzakion, eta,

– Zer da barri...? –itaundu neutsan–.

– Gauza andirik ez, Jauna. Dendari baten aurkako salakuntzea barruko saramea kalera botateagaitik, eta beste bat, “Txistularien” kaleko emakume bateri azpioiala edo lanpasa sapailotik astintzeagaitik. Besterik ez, Jauna.

– Ondo da. Aizu Erremiji, illuntzean jarduna amaituta, zatoz nire idazgelara, zudu andiko zerbait esan bear dautsut-eta.

– Bai, Jauna, geroarte.

Berbatua lez, illuntzean etorri yatan, eta On Aurelio'rena azaldu neutsan. Amaitzean, berak,

– Uste dozu, Jauna –itaundu eustan–, jardun barri ori nire onerako leitekidanik...?

– Ori zerorrek ikusi bear dozu. Joan zaitez Jaun orregana, entzun bere baldintzak, eta gero erabagi. Jakiña, iru illabeteko epea jarriko dautsu, eta onen ostean, menpekotzat onartuko zaituan ala ez, jakingo dozu, baiña zure aldetik jardun orretarako gai zereala erakutsi bear izango dozu, esaneko, zuur, eta zentzunekoa azalduz.

– Eskerrik asko, Jauna. Aitu baten atsegin yat jardun barri ori, baiña dendariaren baldintzak entzunda gero ebatziko dot.

Astebetea igaro barik, idaztegira etorri yatan Erremiji, eta aurpegia pozezko irra-barre batek argituta,

– Datorren astetik, “Andra Apaiña” dendan bein-beiñeko ogipekotzat lanean asiko naz. On Aurelio'k jarritako baldintzak bete dagikedazala uste dot. Saria, emengoa baiño andiogo da, eta bataz beste nire onerako izango dalakoan nago. Orretarako, baiña, badaezpadako iru illabeterako lan-uzte baimena (excedencia) emon dagistazula nai dot.

– Baita pozik be emongo yatzu. Zatoz biar ordu onetan, eta dagokizun agiria izenpetuko dogu.

Olan ba, “Oillarri” Artxuri'ko onenatariko denda baten lanean asi zan, dirudiane zuztien pozerako. On Aurelio, neskatiillak dendara etorkiozalako euliak eztiara lez; Erremiji, len baiño geiago irabaziz gaiñera, emakumeekiko arremonak izan egi-keazalako ezetariko muga barik; uriko urizainburua, beste buruauste bat ostendua zalako.

Bein-beiñeko iru illabeteok igarorik, lan-saria andituta, “Oillarri” ogipeko osotzat onartu izan zan. Aldiaren joanean, On Aurelio'rentzat utzi-eziña billakatu zan, eta noizbait, egun zoriontsu baten, alkarrekiko loturea sendotuta, ugazabaren alaba liraiña ta Erremiji betirako buztartu ziran. Eratsi bear dot baita be, aitagiañarraba-suiñen ardurapean, “Andra Apaiña”k gora andia egin ebal.

X X X

Irugarrena “Lukainka” zan... Ona emen beste buruauste bat. Lanerako gizon gel-

do ta ardurabako au, ezgauza zan bete bear izaten eban jardunerako. Bardin zan edo-zein lekutatik agertu zeiten ala ez, arazorik errazena atontzeko gai ez zalako. Sarri askotan gogoan nerabillan zein beste jarduna emon nengikeon, baiña ezin berarentzat betekizun egokirik aurkitu, ezertarako gauza ez zan-eta.

Luze baizen ezgauza zan urizain au, txitean-pitean ikusi zeitekean egurastegiko aulki baten jesarrita, ingurrazti-idaztekoak eskuetan, nik ez dakit zelako idazteari emonda. Olerkari izanez gaiñera, miin gaiztoek iñoenez, bera zan udaletzeko Batzar Nagusietan, “Haurrerakoi” taldearentzat atontzen ebazan erderakadaz beteriko itzaldi ganorabako ta zaratatsuak. Idazten ez ziarduanean, soin luzanga makurtuta, begiak urrutira zuzenduta eta kolkorako txutxumuka, bere asmamen bardinbakoaren olerkiak-edo aletu oi ebazan. Mutiko barrabesek “zeri nakio” egozanetan, atzetik ebilkiozan bere eskuketak itxuratuz, guztien barregarri.

Artxuri’ko urizaingoa artuta laster, “Lukainka”ren jokaera arrigarriaz oartu nintzan, eta bein baten, amaikagarrenez egurastegiko aulki baten bere maisutasunaren ekarriak idazten nenkusala, zerbait egin bear izango neukela erabagirik, isil-ostuka urreratu nintzakion, eta aalik sendoen,

– Euuup...! –oiu egin neutsan–.

Biurtu zan, eta igelaren antzeko begi urtenakaz, zer egin ez ekiala ezpaitu begiztatu ninduan. Orduan, asarre-antzean oiuka,

– Zutunik...!

Jagi zan baldar, eta itxura arrituaz begiztatu ninduan, zer jazoten zala ulertu eziñik, antza.

– Ez al-dakizu, nagusiak berba egiten dauanean, zutunik entzun bear yakola...?

– Bai, ba... –zutunduz esan eustan–.

– Bai, Jauna, esan bear daustazu, besteek egiten daben lez.

– Bai, Jauna.

– Esaidazu, Mauri, zer zabiz or idazten...?

– Ba... gauzatxu batzuk...

– Ez al-dakizu, Mauri, udalak ordaintzen dautsula, egurastegi eder au zaindu dagizun, umeak batez be...?

Bisigu baten itxuraz begiztatu ninduan, et gero mintzamina irabazita,

– Begira, Jauna –nigana makurtuz esan eustan–, ez zaitez arduratu orregaitik, gero ta gero be, ori aurzaiñen egitekoa da-ta.

Lelokeri au entzutean asarratu nintzan, eta abots irmoaz,

– Zu zara –esan neutsan–, egurastegi onetan, aurrak, aurzaiñak, agureak, atsoak, txakurrak, katuak, arateak, zugaitzak, landarak, eta bedarra, “gero ta gero be”, zaindu bear dituana, entzun...? Barriro be badiñotsut, udalak orretarako ordaintzen dautsuala, eta ez or jesarrita egoteko nik ez dakit zelako “gauzatxuak” idazten...

– Barkatu, Jauna –itxura minuaz esan eustan–, baiña idazten dodazanek ez dira orren txarrak.

Une batez isillik iraun neban, “gero ta gero be” gure “Lukainka”k umorearen sena

baebala, nire kolkorako autortuz. Jarraian, bere antza ezaiñak, baldarrak, zelanbait errukituta,

– Aizu, Mauri –agindu neutsan–, jardunaldia amaituta, nigana aurkeztu zaitez.

– Bai, Jauna.

Arratsalde aretan “Lukainka” etorri yatanean, erretolikaren trikimaillu guztiak erabilliz, aren burutara emoten aalegindu nintzan, bere jokaera agiriak eredugarria izan bearko leukela, bestelan neurri egokiak artuko ziran. Luzaro samar berbetan jardun ostean, onetaraxe amaitu neban:

– Argi dago, beraz, aurrerantzean zure jardunari bete-betean emon bearko dautsuzula, eta zure egunoroko eginkizunetan, ez zareala jesarriko ezertarako be, eta zintzo-zintzo egurastegiko bideetatik ibilliko zareala, aurrak, aurzaiñak, agureak. etabar, bear diran lez jagotearren, ezta...?

– Bai, Jauna, berba emoten dautsut.

– Agur ba, Mauri, eta zoaz ondo.

Egiari zor yakon begiruneagaitik esan bear dot, “Lukainka”k bere agindua aalik ondoen bete ebala; aurrerantzean, ez neban iñoiz jesarrita ikusi, baiña len baizen ezgauza azaldu zan, andikorik ortikora ebillela, begiak urrutian galduta, berekiko aletuz, urrean, buruz ikasiriko olerkiak, inguratzen yakonari ardurarik txikiena be emoteke. Edozelan be, urizaingoa zeozer irabazi izan eban, menpeko bat bere lanaldian jesarrita ikustea, ez dalako eredugarria.

Alde onetatik Artxuri’k zeozer irabazi ba’eban, bestetik, udalbatzeko Batzar Nagusietan, oztopo edo akats andia azaldu zan, eta ona emen zergaitik:

Egurastegiko aulki baten “Lukainka”k idazten ebana, txorien txintak, ibaiaren suzmurrak, aizearen laztanak, eta umeen barre errubakoek edertua izaten zan; orain, baiña, etxeko estugunean lau ormek inguratuta, bere asmamena, arrano bateri egoak moztutea lez billakatu zan, eta lengo batzarretan “Haurrerakoi” taldeko eritxi-emoilleak izketan ziarduanean, aspergarri, lo-eragillea azaltzen ba’zan, orain, “Lukainka”ri asmamen-egoak moztuta, alamen izugarri gertatzen zan. Izan be, nire buruari niñotsan, oba izango ez ete zan, len lez egurastegiko aulki baten “Haurrerakoi” taldearentzat itzaldiak eroso ta nasai idazten uztea...

Adibidetzat, ona emen arrezkeroko batzar-agiri batetik artutako “Haurrerakoi” taldeko eritxiemoillearen itzaldi-zatia. Artxuri’n, antxiñatik, eleizako joale nagusiak, orduak, laurenak, eta erdiak joten ebazan. Soiñu biguna, samurra, eta eresintsua zan, neugan beintzat, esan-eziñeko atsegiña eragiten eustana. Bein baten, baiña, “Haurrerakoi” taldeak jote orren aurkako eragintza aurkeztu eban Batzar Nagusi baten. Jarraian, emen doaz “Kontxo”ren burubideak:

“Artxuri”ko alkate Jauna, eta ziñegotziok: “Haurrerakoi” taldearen izenean, honorea daukat, mozio bat korporazio honetara presentatzea, eta hauxe alegia: eleizako kanpaiak orduak-eta jo ez ditzatela herri honetako parrokoari exijitzea, hori hatraso handi-handia dalako. Kanpaiek mediohuebo edade opresorako hanbientea dakarrelako, au da, populoa aplastao zaneke epoka lamentablekoa. Horretarako etorri ete zan Erre-

boluzio Prantzesa...? Non zagoze, Errobespierre, Danton, Marat, Desmoulins, Mira-beau, eta hainbat prozer errekoragarria, kanpai hopresoraren toke insoportablea entzutean, zuen sepulturatatik burua ez haltzateko...? Zibilizazioaren kontrako ofensa hori “de una vez pa siempre” erradikau behar dugu, progresoaren ilumiñazioa edo faroa, gure ziudadetan brillau daiten...”

Batzar-agiriak emen etenaldi laburra aurkezten dau, txutxumuka batzuen otsa baretu arte, eta gero onetaraxe jarraitzen dau:

“Zertarako kanpanada horiek...? Ez dira ezertarako, populuari lo-gurea ahuientatzeko baiño, gure herri pazifiko, trankiloari, lo-egitea permititzen ez diona, eleizaren pregoi hodiosoak edonon martirizatzen gaituana, abade ta prailleok euron pregoi haterakoia, lau haizeetara lanzau dezaten. Populu soberanoa...”

“Ona elduta, alkate Jaunak eten egiten dautso “Haurrerakoi” taldeko eritxiemoi-lleri, onetaraxe:

“– Zein da populu soberanoa...?”

“– Gu ta gutarrak, au da, Haurrerakoiak,

“– Eta enparauok...?”

“– Horreik doazela hartaburuak urkultzera...!”

“– Ezkertzekoa da, bizirik jarraitzen uzten gaituzuela.

“Eta gero, etenaldi laburraren ostean, alkateak barriro,

“– Idazkari Jauna –agindu eutsan–, agirian jarri egizu, udalbatzaren geiengoaren eskerrona, “Haurrerakoi” taldeak bizirik jarraitzen lagaten gaituzalako.

“Eta onen ostean,

“Haurrerakoi” taldeko eritxiemoilleak jarraitu dagitsala bere itzaldi bikaiñari, danok berantetsiak gaituz-eta.

“Urruma batzuk egin ondoren, eritxiemoilleak,

“– Zein akabo gloriosoago emon kanpai opresor horiei, derretidu edo fundidu baiño, oskurantismotik aterako gaituezan erremintak eta zientzigailluak egiteko...? Horra hor akabo ezin aproposago, populu opresatzen duan oskurantismoaren sinboloentzat, eta mediohuebotik heredau ditugun hatrasoaren medioentzat. Artzuri’ko populu soberanoaren izenean, “Haurrerakoi” taldearen izenean, gure ziudadanoek merezi duten errespetuaren izenean, korporazio munizipal honeri parroko kanpaiak isildu ditezen agindua solizitatzen diot. Eta egunen baten, egun handia gero...! ilustrazioko hargi erresplandezienteak gure herriko bazterrak ilumiñau ditzanean, orduan, hau gure satisfazioa... Kanpai hodiosoak derretidu edo fundidu daitezen exijiduko dugu. Gora populu...! Gora Herria...! Gora haurrerakoiak...! Beera klerikalismoa...! Beera iñorantzia...! Beera oskurantismoa...!”

“Haurrerakoi” taldearen eritxiemoillearen berbaldia amaituta, alkate Jaunak autarkiak emotea agindu eban, eta amalau aurka ta lau alde azalduta, eragintza baztertu izan zan”.

“Haurrerakoi” taldearen eritxiemoillearen esondapenak txulut egin arren be, Errobespierre’k, Danton’ek, Marat’ek etabarrek, euron lurpeko atsedenetik, poz andia artu-

ko eben, Artzuri’ko “Haurrerakoi” taldearen gurari sendoa ezagutzean, eta ainbat areago, egunen baten gure ilustrazio-kumeek joaletegiko kanpaiari eriotz duiña emoteko gerturik egozala jakitean...

Ezin dagikegu aztu, baiña, egun aretako “Haurrerakoi” taldeak udaleko agiri-liburuan idatziz lagatuko “El Batua”ren maisu-lana, “Lukainka”ren jeñu edo asmamen bikaiñari zor yakola, eta askozak bikaiñagoa izango litzakean, bere gelatxuko estugune landerrean idatzi-bearrean, egurastegi ederreko bakean, ibaiaren suzmurraz, txorien txintakaz, eta aizeñoaren eresiakaz inguratutik idatzi aal izango ba’leu. Orduan, ezpai-barik, berak atondutako itzaldiak, Errobespierre, Danton, Marat etabar, euron obietatik jagi-erazoko ebazan...

Artxuri'ko antxiñako ardau-biltegia (alhondiga) aspalditik utsik egoan, udalak zelako erabiltea emongo leuskion begira. Gau baten, itzetik-ortzera, erriko mutil batzuk euren kabuz, ate kolokaren morroilloa autsi, eta sartu ziran euren "Gaztetxea" biurtuz. Arrezkero, leku zikin eta zaratatsua billakaturik, auzokide batzuk salakuntza gogorra aurkeztu eben udaletxean, zikinkerri, zarata, arratoi, eta erion kiratsagaitik ostera gogorra egiñez.

Bein baten, udalak aginduta, dalako "Gaztete"ra joan nintzan, eta ango mutillai adeitsu esan neutsen, gizontsu jokatu egiela, bestelan, udalaren izenean urizaingoak neurriak artu bear izango leukezala. Nire itzaldiak, baiña, ez eban iñongo arrakastarik jaritsi, eta "Gaztetxea"ren korapilloak len baizen gogaikarria jarraitu eban. Gau berandu baten, urizain bik lagundutako argin bat bialdu eban alkateak, eta olezko atea kenduta, orma batzorde izan zan. Badaezpadakoan, urizain biokin ate-zaindari geratu nintzan urrengo egunerarte, eta beste barik arazoa amaitutzat emon eban udalak.

Alkatearen aspaldiko asmoa zan, lengo ardao-biltegia uriko Aguretzea biurtzea, zaarsaridunek-eta jolastegia izan egien, nora joaterik ez eben-eta. Arazoa erabilteko, Batzar Nagusi bat izendatu eban alkateak. Asmo bi aurkeztu ziran: bata Aguretzea egitea, eta bestea "Haurrerakoi" taldeak babestutakoa zana, Gaztete izaten jarraitu egian. Batzar Nagusi guztietara joateko agindua alkateak emon eustanez, ereti aretan ospatu zana, oso naasia izan zala baieztu dagiket.

Udalbatzaren aldetik, alkateak berak erabili eban arazoa, eta oltza baten jarritako marrazkien bitartez, argi ta zeatz egitasmoa azaldu eban. Onen ostean, "Haurrerakoi" taldearen izenean "Kontxo"k irakurri eban, eta onen egituraz eta berbakaz, baietz idazki onetan "Lukainka"k esku-sartze izan ebala egingo neukean. Onen ostean, alde ta aurkako itzaldi batzuk izan ziran, eta eztabaida amaitu zanean, alkateak autapena egiteko agindu eban, eta onen ondorioz, Aguretxearen alde amalau autarki, eta aurka lau azaldu ziran. Jarraian, Aguretzea biurtzeko lanak aalik lasterren asiko litzakezala, iragarri eban alkateak, baiña onen ondoren sortu ziran didar eta aiñenak abobetekoak izan ziran. "Haurrerakoi" taldearen eritxiemoilleak alkateari zuzenduz,

– Ori –oiu egin eban–, populuaren kontra joatea da. Anzianoak etxera...! Zertarako errompekabezak izan, lau egun solamente biziko diranen alde...? Gaztedia dugu herriaren esperantza, populuaren mandoa biar artuko dutenak. Zer egingo dabe koitzeduok, iñora joaterik ez dutenean...?

– Barkatu “Haurrerakoi” Jauna –erantzun eutsan alkateak–, baiña gazteok euron-
tzat beren-beregi eraikitako Kiroleta ederra egin-barri dau udal onek, guztitariko soin-
iñarkunai emon dagikiezan, toki garbi ta osasuntsuan, leku itxi ta zikin baten alkartu-
-bearrean.

– Guzurra...! Kiroleta ez da asanblada egiteko zentro aproposa, eta horregaitik
exijitzen dugu merezi duten foroa, au da, Gaztetxea. Bihar herriko mandoa hartuko du-
tenek, populuaren problematika diskutitzeko kapaz izan ditezten.

– Lenengo ta bein –erantzun eutsan alkateak–, gazteok, esaneokak, eta gizontsu
ibiltzen ikasi bear dabe, bestelan, nekez izango dira “kapaz populuaren problematika
diskutitzeko”. Esan bear dautsut, baita be, Artxuri’n mandorik ez dogula. Ondo jakin-
go dozunez, antxiña baten, uriko saramea eroateko gurdiak eta mandoak bearrian la-
ga-ezin orretarako erabilten ziran, baiña orain...

Esan ba’eban esan eban...! Alkatearen berba orreikaz mindutako “Haurrerakoi”
ziñegotziak batean jagita, Artxuri’ko udaletxean iñoiz ez entzuniko astrapala sortu
eben. Ango gordinkeriak, angu oiñ ta aiñenak, angu orru zaratatsuak...! Bazirudian os-
tikurtika ta irrintzika, benetako mandoak batzar-aretoaz jabetu izan zirala... Noizbait,
joaleiñoa erabilliz, alkateak batzarra amaitutzat emon eban. Egun aretako batzar-agi-
rien liburuan auxe irakurri daiteke: “...Didar eta aiñen gortugarrien artean, alkate Jau-
nak joaleiñoaren bidez batzarra amaitu izan zala adierazo eban.”

Aretoa ustuteko zorian, “Haurrerakoi” taldearen eritxiemoillea idaz-maiaren gai-
ñean zutunik, eta neuk, urteteke agindua adeitsu emoten neutsala, auxe aldarrikatu
eban: “Ofendidu duzute populuaren errepresentante lejitimoak, baiña nik herriaren ize-
nean juramentua egiten dut nortzuk garean jakingo duzutela, bai por sierto...!”

Onen ostean, eta zapa-lapikoaren lurriña lez, “Haurrerakoi”ai asarrea gora egiten
yakiela, euren bidezko amorrua adierazoteko, urrango Igandean arratsaldeko zazpire-
tan, “populuaren manifestapen” bat iragarri eben, “egindako atropelloaren kontra”.

Dalako agiriketea kale Nagusian zear ospatu zan, eta alkateak niri dei eginda, be-
rak eta biok idaztegiako leio baten atzetik begiztatu genduan. Larogei bat laguneko
izan zan, eta kopuruaren urritasuna orekatzeko, agiriketariak ukabillak jasota, egun
aretako leloa oiñ bizitan aldarrikatu eben onetaraxe:

Riau, riau, riau,
alkatea botau...!

Riau, riau, riau,
alkatea atrasau...!

Riau, riau, riau,
Herriak beti ganau...!

Riau, riau, riau,
Herriak beti honrau...!

Oiñ bizitan agiriketariak ostendu ziranean, alkateak,

– Txomin –itaundu eustan–, zer deritxazu orreri...?

– Nire aitita zanak esan eroian lez, “Urrutiko intxaurrak amalau, ara joan eta lau”.

– Egi andia benetan. Lau katu baiño ez diranean, oiñen arauz edonork uste izango
eban, erri guztia kaleratu dala.

– Edozelan be, Erramun Jauna, kale Nagusi’ko solairua dizdiratsugo azalduko
da.

– Bai, oiñetako azpiakaz kalea marrazkatzeko, mutillak dira gure Haurrerakoiak.

Illuntzean, urian zear egurasten niñoala, “Lukainka” urreratu yatan, eta mintzo
arroaz, auxe itaundu eustan:

– Jauna, zer iruditu yatzu, lengo “manifestapena”...?

– Gain-gaiñekoa, Mauri; adierazoten eban gogo-sakontasunagaitik, leloa batez be
oba-eziña begitandu yat, eta zer esanik ez, leloaren oskidetza...! Agiri izan da or, gogo-
lari ta olerkari bikain baten eragin maisukoia.

Pozak eragindako itxura dizdiratsuz begiztatu ninduan, bere buruari itaunduz,
urrean, Artxuri’ko urizainburua “Haurrerakoi” biurtzen asten izango ez ete... Eta ge-
ro, ortzian agertzen ziran izarrai begiraturaz, ibillera arranditsuz, kalean beera ostendu
zan.

Zoritxarrez, baiña, arazoa ez zan amaitu emen. Urrango egunean udaletxera urre-
ratu nintzanean, onen aurrekalde ederra guztitariko idazkun zantarrakaz margotuta iku-
si neban, gaztetxeari buruz udalbatzak artutako erabagia berba zikin eta lotsabakoakaz
gaitzesten zala. Asarre gorriak artuta une batez gelditu nintzan, eta gero sartuta, alka-
teagana joan nintzan. Ni baizen asarre, Erramun Jaunak auxe esan eustan:

– Arazopetuta nozu orain urrutizkin-deiai erantzun emonez, eta beste ziñegotzie-
kin mintzatuz. Zatoz ona ordubete bien buruan, eta orreri buruz berba egingo dogu.

Nire idaztegiara joan nintzan, eta an asarrea ostendu-ala, adimen argiangoaz urten-
bide baten billa, oldozkun sakonetan murgildu nintzan. Luzaro samar olan niarduala,
uriko parrokoak nirekin berba egin gura ebala iragarri eustan, eta sartuta,

– Zer nai dozu, Illari Jauna...? –itaundu neutsan–.

– Nirekin eleizeara etorri zaitezala gura dot.

Astirik galtzeke joan gintzazan, eta eleizpeko orma erakutsi eustan. Emen be, or-
mea udaletxean lez esan-eziñeko berba zantarrakaz loituta agertzen zan. Negar egiteko
zorian, On Illari’k auxe esan eustan:

– Begira, Txomin, kare-arritzko orma bikain au, orain gitxi dala Gotzaingoak
aginduta, maillukatua izan da, eta lengo edertasunera biurtuta, orra or zelako ondapena
egin dauskue. Illabete bateko lan arduratsua, une baten blindiblaust...! Ez dakit Gotzai-
ñari zelan iragarriko dautsadan jazo dana... Zer egin geinke...?

– Begira, Illari Jauna, udaletxeko aurrekaldeari bardin egin dautsoe, naigabe itze-
lak artuta gaituzuzala, zer egin ez dakigula... Edozelan be, gure erabagitzaz jakitun ipi-
ñiko zaitugu.

Udaletxera biurtu nintzan, eta ibilli nenbillela, ezustez, nire adimenean asmo bat

garatzen asi yatan. Eldutakoan, arratsaldeko seiretan nirekin alkarrizketa bat izan gura ebalako mezua igorri eustan alkateak Ondo yatoridan epea nire asmoa osotzeko, eta bazkalostean urian zear egin neban zaintza-ibillaldian, asmoari buru-belarri emon neutsan. Agindutako orduan, alkateagana joan nintzanean, itxura kezcatsuz artu ninduan, eta,

– Itzela da, Txomin –esan eustan–, “Haurrerakoi” taldekoek eta beronein kumeek udaletxeko aurrekalde txukunari egin dautsezan kalte ta iraiña. Margotu dabezan zantarkeri ta gordinkeriak, biar bertan barriro estalduko doguz, eta sortutako eralguntzea “Haurrerakoi” taldeko ziñegotziak ordaintzeko beartuko dodaz...

– Ez dabe gogoz ordainduko ba –eten egin neutsan–.

– Ori ondo dakidan gauza da, baiña ziñegotzizat udalak emoten dautsen ordaintzatik zati bat kenduko dautset, kaltea kittatu arte. Zer deritxazu orreri...?

– Ondo derist, orreik biotza zizkuan dabe-ta. Edozelan be, udaletxeari egiñikoa birmargoketa batez atondu daiteke, baiña ikusi dozu eleizearena...?

– Bai, emekoa baiño askozaz larriagoa da, eta gaiñera, parrokoak ezin dau, udalak lez nondik kendu egilleai dagokien kalte-ordaintza.

Une batez isillik iraun genduan, eta gero alkateak,

– Arrenkuretan nozu, Txomin –esan eustan–, egindako kalteak atondu ondoren, ostera be bardin egingo ez ete dauskuen denganiñuok.

Orretarako, baiña, gerturik nentorren, eta orduan alkatea nire asmotzaz jakitun ipiñi neban. Entzun-ala, Erramun’eri aurpegia argitzen yakon, eta amaitu nebanean,

– Egitamuari ondo derist, baiña zuretzat ez al-da izango neketsua...?

– Ondo urtetekotan, ez daust ardura. Beiñena, baiña, auxe da: ertzainburuarekin zuk berba egiñez gaiñera, burutara emon dagiozula gure alde jokatu dagian. Au lortzen ba’dozu, korapilloa berez askatuko da.

– Noiztik asiko dogu egitamua...?

– Udaletxeko aurrekaldea margoztu ta bereala.

– Ederto, Txomin, eta eskerrik asko zure burutapenagaitik.

Andik iru egunetara udaletxeko aurrekaldea birmargotu zan, eta orduantxe nire asmoa egi biurtzen asi nintzan. Gaba elduta, udalbatzako abertzale-taldeko ziñegotzi bikin, udaletxe-barrutik kuku egiteari emon neutsan. Gutariko bakotzak iru ordubeteko begirialdia egitea erabagi genduan. Jakiña, au ezkutuan egiten genduan. Gau bako-txean ziñegotziak aldizkatzen ziran, baiña nik gauoro niarduan. Astebeta-edo igarorik, alako baten, kuku egiten eban ziñegotziak, astindu ninduan auxe iñostala:

– Itxartu zaitetz, Txomin, etorri dira-ta...!

Lotan nengoan besaulkitik jagi, eta leioan zear isil-ostuka begiratu neban. Egia zan: ontzi bete margoki ekarrela iru mulko urreratzen ziran, eta ate nagusira elduta, ontzia lagata, euren zitalkeria birregitera gertatu ziran. Berbatua lez, barruko irurok isillean jatsi, eta bapatean ate nagusia edegi genduan. Saltsaren erdian ezustez artutako iru margolariak begi-zabalik eta zer egin ez ekiela geratu ziran. Areitariko baten zurdakiari margoki-tantoak eriozan. Inguratu gintzakiezan, eta,

– Kaixo, mutillak –esan neutsen–, zer, margolariak uts egindakoak zuzentzera zatoze-ala...?

– Bai ba... –areitariko gazte katek tartailloka esatea lortu eban –.

– Nork uste izango –esan eutsen ziñegotzi batek- erriarekiko maitasun utsaz, loaldiari orduak ostuz gaba emongo zendukela erti-lanak egiñez.

– Artu egizue margoki-ontzi ori –aginkor esan neutsen–, eta zatoze gurekin.

– Nora, baiña...?

– Laster jakingo dozue.

Eta geurok inguratuta ertzaindegira eroan genduzan. Andi samar izanik, Artxuri’n ertzaindegi-adar bat egoan. Udalak legez ezin egikean iñor espetxeratu, baiña ertzain-tzak bai, eta orduan indarrean egozan legeen arauz, iru egun geienez lege-ausleak atxillotu egikeazan. Iru egunok igarorik, beartua zan ertzaintza epaikariaren aurrera gaizkilleak ekartera, askatasuna emon ala espetxera sartzea agindu egian dalako epaikariak. Gure alkatea mintzatua zan ertzainburuaz, eta onek arek eskatutakoari baietza emon eutsan, zor nai lor, egindako basakeria barriro jazo ez zeiten. Ertzaindegira eldu gintzazanean, eta nik salaketea idatziz egin bitartean, ertzain bat nagusiaren billa joan, eta au aurkeztu zanean,

– Urizainburu Jauna –itaundu eustan–, zer jazo da...?

– Ara...

Eta jarraian, lentxuago gertaturikoa edestu neutsan. Amaitu nebanean, ertzainburuak atxilloai

– Orduan –esan eutsen–, saltsaren erdian artu zaituez, ezta...?

Buru-makur mutillek ez eben txintik be atara. Onen ostean, ertzainburuak auxe esan eutsen:

– Legearen arauz, emen iru egunez atxillo iraungo dozue, eta onen ostean, uriburuko epaikariagana eroango zaituet, zuek aske utzi, ala espetxera sartzea erabagi dagian.

Alkateak eta ertzainburuak aurretiaz erabagi izan ebenez, tartetu nintzan onetara-xe:

– Begira, ertzainburu Jauna, larregi deritxat orreri, iru eguneko epea luzea dalako, eta areago gazte izanik. Niketz, baiña, egindako salakuntzea ezereztuko neuke, iru gazte oneik, eleizpeko orman jarritako zantarkeriak, mailluka ezabatuko ba’lebez.

– Nire aldetik –erantzun eustan ertzainburuak–, ez dot iñongo oztoporik jarriko zure eskintzeari. Au dala-ta, gazteok gaba emen igaroko dabe, eta biar erabagiko dogu, bietariko zein bide aukeratu.

Ateraiño lagundu euskun ertzainburuak, eta eskertu ondoren, ziñegotziak eta irurok etxera biurtu gintzazan gau beranduan, loaren atsedena izateko. Etxera urreratu bitartean, ertzainburua benetako adiskidetzat azaldu izan zala gogoan nerabillen, eta emondako laguntza zelan edo alan, lenengo eretian ordainduko neuskiola.

Biaramonean, idaztegira sartu baiño ez, ertzain bat aurkeztu yatan, eta irribarre maltzurraz auxe iragarri eustan:

– Urizainburu Jauna, gau zoragarria gure “ostatua”n emon ondoren, atxilloek eleizpeko gordinkeriak ezabatzeko gerturik azaldu dira abo batez. Ate-ondoan berantetsiak doguz arloari buru-belarri ekiteko.

Ertzaiña joan zanean, argin-maillu bana eroiela eta urizain batek lagunduta, iru gazteak eleizpera bialdu nebazan, ango ormak lengora biurtu egiezan, eta nik neuk euren lana ontzat emon arte, aske ez litzakezala izangoko baldintzaz. Noizbait, illuntzean ormak euren eiñera biurtuta, eta Illari Jaunak lengoratzeari baiezkua emonda, iru gazteak aske joan ziran. Lana amaitu ezean gaba emoteko ertzaindegira biurtu bear izango baekienez, lerrenak eginda jardun eben. Etxera joan aurretik, auxe esan neutsen:

– Urrengo baten, olako beste zantarkeririk jazoko ba’litz, badaezpadan atxillo izango zarie, eta gero ikusiko...

Arramuska ta lerrenak eginda, etxeko babesaren billa alde egin eben. Egun aretan pozik oartu nintzan, eta ostatura biurtu aurretik, eskerrona zelán adierazo ez ekiala, parrokoaren onespenak eskubete artu nebazan.

Arazoa, baiña, ez zan beste barik amaitu. Urrengo Batzar Nagusian, “Haurrerakoi” taldeak bere asarrea agirian ipiñi eban, eskubide guztien aurka “Herriko esperantza ziranak” orren zitalki zapaltzeagaitik. Luzaro ta aspergarri jardun ondoren, oi neban lez antxe nengoan-eta, alkateari baimena eskatu eutsan “Kontxo”k niri itauntzeko, eta baietza emonda, eritxiemoilleak auxe itaundu eustan:

– Nor zara zu, herriko mutillik onenak olan zigortzeko...?

– Uriko zaintzaburua naz, eta nik ez dodaz zigortu, eurok, eurenez, aukera bien artean egindako kaltea ezabatzea erabagi eben.

– Zu, “patxista” andia zara. Ez al-dakizu, mutillok biotz “inmejorablekoa” diranik...?

– Olan izango da zeuk diñozun ezkerro, baiña ziñez diñotsut, mutil orreïn biotzek ez dabela iñongo zigorrik artu, ez orixe...! Mailluak erabiltean mazkuriren bat-edo...

Asarre-bitsetan purrustada itzelak nire aurka bota ebazan, zelako “dejeneraziñoak” artuta egoan Artxuri’ko “txibato” nagusia esanez etabar... Eritxiemoillea baretu zanean, duintasunez gaiñezka jesarri aurretik, “populu soberanoak beste mobilizaziño bat” egingo leukela, udalbatzari iragarri eutsan.

Andik egun batzutara, “Herri-mandoek” atondutako “manifestapen publikoa” ospatu zan kale Nagusian zear, oiñetako azpiakaz dizdira atara bitartean, oiko lelo ganorabakoak eurrez aditzen zirala.

Arrezkero, baiña, Artxuri’n ez zan beste margoketarik ezagutu, eta iru illabete igarorik, udalbatza tarteko izanik, Illari Jaunak bedeinkapen gogoangarriaz, Aguretegiari askuntza emon eutsan. Ordutik, agureek badabe non alkartu, eta non musean egin, bitartean, euren gaztediko ekintzak alkarri edesten dautsoezala. Aguretegiak jarritako arrakastaz eraginda, andik laster atsoak be etorten asi ziran, euren biziko briska-jokaldiak ospatuz, baita Artxuri ta onen inguruko jazoera nabarmenenak alkarri ezagutuerazoteko be.

Ordurarte, anai bion korapilloa askatu-eziña billakatu izan zan niretzat. Lengo urizainburuak erabagita, jardunaldi berean lan egiten eben. Laster oartu nintzan au kaltegarria zala, sarri askotan, udaleko arauak zapalduz, alkarrekin txutxumuka ikusi zeitekezalako, oinkarien lepotik barreka, eta euren eginkizunari uts egiñez. Baziran uritar asko, anai bion jokabideak nazkatuta, egokiezan salakuntzak aboz aurkeztu izan ebezala udaletxean, baiña idatziz eta izenpetuz egitea eskatzen yakenean, orduan bildurrez, edo auzi batera lekukotzat joateak buruausteak baiño besterik ekarriko ez leukezalako, olakoari uko egiten eutsoen. Erriko etxe bat erre zeitela utzi ebenetik, su-amatatzailetzat jardutea euren arazoa ez zalako, agiri zan Artxuri’n ez zirala begi onez ikusiak, ezin beste zerritarrek jasaten ebezala.

Artxuri’n nire jarduna artu baiño ez, lotsabako bion jokabideaz laster oartu nintzan, eta ozta-ozta amabost egun igarorik, abotik eskura banandu nebazan, batak goizean, eta besteak arratsaldean jardun egien aginduz. Ez dot esan bear, arrezkero gogokoa ez nitzakiela, nire aurka guztitariko guzurak eratsi eustezala. Erramun alkateak bildur andia eutsen, eta asko emongo leukean udalzaingotik-at ikusteagaitik, baiña lenaipaturiko auzia udalak galdu ebanetik, ardurarik andienaz jokutzen eban, eta berak niri esan ez arren be, uste osoa neugan ipiñi izan eban ori jaritsiko neukelakoan.

Banandu nebazanetik, argi azaldu zan udalzaingoak zeozer irabazi izan ebala, baiña olan eta guzti be, gazte bion erruz eredugarri izatetik urrun ebillen. Urizain gazte bion jarduna zelatatzeke nekeak artzen nebazan, eta ezustean edozein txokotik agertu neintekiela oitu izan ziran, baiña edozelan be, euren eginkizuna ardura barik eta nakar bete oi eben, eta augaitik, uriko auzorik urrutienetara bialtzen nebazan. Arratsalde baten, Galarreta auzotik niñoala, Anjela izeneko atsoa urreratu yatan, eta,

– Arrastion, Jauna –agurtu ninduan–.

– Olan ekarri, Anjela.

– Begira, Txomin Jauna –abopean esan eustan–, orain parroko bederatziurrenena noa, eta lagun etorriko ba’zintzakidaz, zeozer esango neuskizu...

Alboratu nintzakion, eta eleizarantz giñoazala, onetaraxe asi zan:

– Ara, Jauna, zuri esateko ala ez, arrenkurak artuta bizi izan naz aspaldi onetan, baiña araiñegun nire senar Amantzi jakitun ipiñita, beingoan zuri esateko agindu eustan. Ona emen ba, egunokaz ikusi dodana: Galarreta auzo onetan, Perutxu’k eta Manutxu’k diardue, batak goizean, eta besteak arrastian. Dakizunez, nire etxeko atzekal-

deak ibaira emoten dau, eta lengo baten, arrastiko zortziretan inguru leiotik begira nen-goala, ertzeko mimenen artean, isil-ostuka ebillela Manutxu'ren txapel gorria ikusi neban, eta suzmo txarrak artuta, adi-adi begira geratu nintzan. Badakizu zertan ebillen...?

– Zeuk esango, Anjela.

– Ara... mimen lodi baten soka bat lotu, eta andik amar bat metrora egoan beste baten, sokearen beste muturra. Onen ostean, bestela-baitakoan, eskuak prakaren sakeletara sartuta, txistuka ostendu zan. Zer dan-eztan ernai ibiltea erabagi neban, eta urrengo goizeko zaintzaldia amaitzean, Perutxu ikusi neban, eta bakizu, urizaiñek dabiltzen txapela oillarraren gangar gorri lakoa izanik, ba... baiña nondik nenbilen...?

– Perutxu ikusi zenduala.

– Bai, Perutxu ikusi neban zorrotxu bat eskuetan mimenen artean arakatuz... Bai, aurreko arrastian Manutxu'k sokea lotu eban lekuan, eta zer uste dozu jazo zala...? Iru arrain lodi, eder, amuetan untzatuta atara ebazan, eta dzast...! arraiñak zorrora sartuta, pozaren-pozez kantari urrundu zan. Arin baten kalera jatsita, Santi'ren jatexera sartzen zala ikusi neban. Iru egun geroago, Manutxu etorri zan barriro arrastiko zortziretan, eta sokea beste leku baten lotu eban, eta biaramonean beste arrain eder bi atara ebazan Perutxu'k, eta Santi'ren jatexera ostera be. Zer deritxazu orreri, Txomin Jauna...?

– Lege-auspenea dala. Artzuri'ko barrutian arraintza galazota dalako, eta areago urte-aro onetan.

– Eta gero apaldu... elegante jaten dabez orreik biok...! Lengo baten gabeko amaretan Santi'netik igaro, eta barrura begiratzean, ganorabako biok ikusi nebazan jan da jan bonbil bete ardao baten aurrean, egundoko barre-santzoak botaten ebezala. Ez da arritzeko, orren lodi ta ederrak azaldu daitezela. Bear gitxi ta jan-edan ugari, orra or errezeta elegantea edonorentzat. Ikustekoak ikusi bear be...!

Atan-orretan eleizpera eldu gintzazan. Anjela'ren edeskiaren arauz, agiri zan arraintza astean birritan egiten ebela anai biok, eta orduan,

– Entzuidazu ondo, Anjela –eskatu neutsan–, etxetik Perutxu ta Manutxu'ren arrainketea ikusi dagikezun ezker, urrengoan arrain-sokea mimenen artean jarri dagienean, jakiñaren gaiñean ipiñi nagizu. Egingo dozu...?

– Bai, Jauna.

Aldegin neban, eta etxera bidez, nire egitamua atondu neban. Leku ezkutu bate-tik, isil-ostuka kuku egin bearko neuskie, eta orretarako ezin egokiagorik atsoaren etxea baiño. Iru egun geroago, Anjela'ren mezua eldu yatan, Manutxu'k illuntzean so-kea jarri ebala niri jakiñerazoz.

Biaramonean, eguberdian Anjela'ren etxera joan nintzan, eta sukaldeko leiotik, Anjela, Amantzi, eta irurok barrandari jarri gintzazan. Ordu biak emontxuetan, ibai-ertzetik irudi bat urreratu zan. Laster ezagutu neban Perutxu, eta lekuko bat nai neban ezker, nirekin etorteko eskatu neutsan Amantzi'ri. Baietz esan eustan, eta etxetik jatsita, Perutxu egoan lekura bestela-baitakoan urreratu gintzazan. Bere ekintzeari buru-belarri emonda, ez ginduzan ikusi; une aretan zaparda (barbo) bat amutik jaraitzen

ziarduan, eta beste bat zorrotxu-barruan buztankada bizitan iraulkatzen zan. Ikusi ginduzanean, zur eta lur eginda kokoloaren itxuraz begiratu euskun, aurpegia zurbiltzen yakola.

– Zer zabiz or...? –itaundu neutsan zorrotz–.

– Emen ba, begira....

– Bai, begira atzo arrastian Manutxu'k jarritako amuek, arraiñak zelan arrapatzen dabezen, ezta...?

Mintzamina galduta, une aretan Perutxu'k ergelkeriaren itxurarik zintzoena eskintzen eban, tartailloka zeozer esan gura, eta berbak uts egiten eutsala.

– Ez al-dakizu –itaundu neutsan–, uri onen barrutian, arraintza galazota dagoa-nik...?

Begiak lurrean josita, txintik atara barik zirauan. Orduan nik,

– Artuizuz arraiñok, eta jaurti egizuz uretara.

Olan egin eban berak, eta orren ostean,

– Orain zatoz nirekin eta Amantzi'rekin udaletxera –agindu neutsan– zure ta Manutxu'ren aurkako salakuntzea idatzi dagigun.

Udaletxera elduta, ango morroi baten laguntzaz salakuntzaren agiria bete ondoren, Amantzi'k, Perutxu'k, Manutxu'k, eta laurok izenpetuta, alkateari bialdu neutsan.

Arratsaldean, alkateak niri dei eginda, eta jazotakoaren gora-beera zeatzak entzunik, auxe itaundu eustan:

– Zer deritxazu orreri, Txomin...?

– Arazo larria da. Legeak gorde-bearrean uriko zaindariok eurok austen dabez, auspen bi egiñez.

– Urizaingotik-at jaurtitearen alde nozu. Zer deritxazu orreri...?

– Ondo ta bidezkoa derist. Edozelan be, ziurtzat emon bear izango dozu, auzitegi-ra joko dabela.

– Bai, badakit LAO (Langilleen Alkarte Orokorra)ren bidez, auzi bat aurkeztuko dabela udalak erabagiaren aurka, baiña orixe da gure eginbearra, eta gaur bertan jaurtiketea idatziz aginduko dot. Edozelan be, Txomin, epaitegira joten ba'dabe, Gernika'ko auzitegira dei egingo dautsue lekukotzat agertzeko.

– Bai, eta olan ba'litz, Amantzi be lekukotzat agertzeko gerturik azaldu da.

– Oraingo onetan, alper ganorabako bi orreikandik aske billakatzen ez ba'gara, ikuspegitik ez doguz iñoiz galduko.

Aurretiaz somatua lez jazo zan. Urizaingotik-at jaurti ziranean, auzi bat aurkeztu eben Gernika'ko auzitegian anai biok, eta andik illabete bitara, ospatu zan. LAO'ren bidez lortutako legegizon jagolea amarrutsu azaldu zan, aal eban trikimaillu guztiak erabilliz. Argi zan beronentzat anai biak errudun zirala, eta au gogoan arturik, aalegin guztiak erabilli ebazan, gazte bakun, tolesbakotzat aurkezteko, eta errudun izan arren be, mutillen burutapena baiño besterik ez zala, eta ez ebela merezi, beraz, jardunetiko jaurtiketaz zigortu izatea, eta are gitxiago, eurok irabazitako alogera bear-bearrekoa zanean gurasoai laguntzeko.

LAO'ren jagole amarrutsuaren jokabidea eraginkorra azaldu zan, eta epaikariak illabete biko jardun eta alogera-ezaz zigortu ebazan, doi-doi urizaingotik jaurtita erabillitako aldia. Irribarre maltzurraz urten ziran Perutxu ta Manutxu. Udaletxera eldu baiño ez, Alkatearekin alkartuta, jazotakoaren barria emon neutsan. Erramun ni bai-zen suminduta azaldu zan, eta areago gogoan arturik, alper ganorabako zital areikandik jareitzeko aukerako eretia izan zana, ustel urten izan yakula. Lur-jota, Erramun'ek,

– Barriro be –esan eustan–, denganiñuok urizaingora biuruko dira gure lepotik barre galantak egiñez, eta len baiño lotsabakoagoak azalduko dira, iñor ez dala euren jarduna uzteko eragin dagitsenik egizatzean. Siñistu egidazu, Txomin, etsiak artuta nozu. Ederra emon eustan “Haurrerakoi” taldeko ziñegotziak, bere lobak udalera sar-
tzeke burutan ipiñi eustanean...

Neu be apurtuta aurkitzen nintzan, eta iñoizkorik asarratuen alkatearen idaztegitik urtenda, buruan nerabillen, mukitzu lotsabako, alper bien opariak gintzazala. Egun aretan eta urrengoetan, batetik bestera ibilli nintzan azpitik urtendako oarpen mingotsa nigandik kendu ezin. Aspaldi luze batez ames egin neban mutil areitzaz, eta gau baten, eurok udalaren nagusiak biurtuta, agintaritzatik jaurtiten ninduela, baita Artzuri'ko kaletan zear barregarri erabilli be.

Baiña oartu ez arren be, neugan asmamena lanean asi yatan, eta noizbait, lana biderik onena zala burutara emon eustan alanbearrak. Une aretatik bertatik, urtenbide baten billa niarduan etenbarik, eta bein baten, iradokiak (inspiraziñoak) argitxu bat jarri eustan illundutako asmamenean, eta egitasmoa ondo ausnartuta, alkateagana joan nintzan. Arratsalde berandutsua zan, eta Erramun Jaunak ni ikustean,

– Kaixo, Txomin –itaundu eustan–, zerk zakaz nigana, joateko zorian nazeanean...?

– Ara... lengo asteko Batzar Nagusian, “Haurrerakoi” taldeko eritxi-emoilleak txarto gomutatzen ez ba'naz, itzez-itzez auxe esan eban: “Artzuri, inguru-mari oneitako uririk atzeratuena dala esan lei, kulturari buruz dagokionetan. “Atrasu” au “ebidenzia-tzen” ebala batez be, liburutegi “publikorik” ez izateak. Gaztetxea kendu, bai, horretarako mutillak dira “kapitalismuaren” “lakaioak”, baiña orren orde “kultura” zabaltzeko lekuri ez, eta bizi garean “atrasutik” urteteko aalegin gitxi. Zelako “esperantzaz” “afrontatuko” dugu “Herriaren futuru”...?

– Bai, gogoan dot –erantzun eustan alkateak– eritxiemoille orrek esandakoa, eta egia esateko, oraingo onetan ez da guztiz oker ibill orixe aspaldian buruan yabildan kezka dalako. Udal onek gauza asko egin ditu, baiña egiari zor yakon begirunez esan bearrean naz, uri onetako gaztediak ez dauala bearreko erri-liburutegia ikasketak biritze ta astia emoteko, eguraldi txarra danean batez be, eta garaia da zeozer asmatu dagigun...

– Orrexek nakar ba, zeugana, Erramun Jauna.

– Zeuk esango...

– Ara... dakizunez, Asentzi indianoa il zanean, etxean bilduta eban bere liburutegi

bikaiña udalari laga eutsan, ogei milla alekoa dana, izan be. Orduan leku egokirik ez izanda, udaletxeko soto edo etxepea bein-beiñean ipintea erabagi zan, erabilte egokia aurkitu arte.

– Bai, olantxe da –baiezte eban Erramun'ek–, baiña oraindiño ez dogu leku egokirik liburuok ipinteko. Dakizunez, lengo gaztetxeaz birjabetu gintzazanean, liburutegia ala aguretxea biurtea erabilli genduan, eta azken baten aguretxearen alde azaldu zan geiengo.

– Bai, olan da, baiña badogu erara datorkigun beste leku eder bat...

– Zein leku...?

– Emen berton, udaletxean. Udaletxe onek mailladi bi ditu: bata, nagusia, orain erabilten dan bakarra, ederra ta zabala berau. Bestea, estuagoa, sototik goiko irugarren maillaraiño doana, bere garaian urizainburuaren etxera igoteko erabilten zana. Lengo urizainburua zaar-saritu zanetik, dalako bizilekuak utsik dirau, eta nik uste, atonketa txiki baten bidez, liburutegi bikaiña biuruko litzake, legor eta ondo argitua dalako. Oraingo sotoan, ostera, Asentzi indianoak jarauntsizat laga euskuzan aleak, aldiaren bidean ezotasunak ondatuko ditu...

Arrituta begizatzen ninduan alkateak, eta gero bere atsegiña luzaroagorik jabetu eziñik, didar baten auxe jaurti eustan:

– Suurraren aurean egon be, eta oartu ez...!

Kezka batek artuta, baiña, isildu zan, gero jarraitzeko,

– Eta egunen baten, bizilekutat leku ori artu nai izango ba'zendu...

– Begira, Erramun Jauna, naikoa astirik bizi izaten naz udaletxean, egoitza be biurteko. Askozaz egokiagotzat joten dot, beste uritarrak lez, neronek aukeraturiko etxean bizi izatea. Edozelan be, garrantzitsuagoa da uriko liburutegia, udalzainburuaren bizilekua baiño.

– Urtenbidea ur egon, eta ikusi ez...! Nork esango, begien aurean izan, eta oartu be ez...? Urrengo Batzar Nagusian asmoa aurkeztuko dot, eta oraingo onetan, nik uste, abo batez onartuko da, eta jarraian, egokitze-lanak egiñik, liburutegi bikain-bikaiña erritarren aukeran izango dogu. Baiña esaidazu, Txomin, zelan otu yatzu liburutegiarena...?

Une batez isillik iraun neban, eta oldozkunak taiutu ondoren,

– Egia esateko, Erramun Jauna –erantzun neutsan–, ez naz orra eldu jakintzeari dautsadan maitasunez, ez urrik emon be...! Alper, denganiño bikote bat udalzaingotik jaurtiteko gurari utsaz baiño...

– Ez niri esan, gero –eten egin eustan alkateak–, Perutxu ta Manutxu udaletik jaurtiteko bidea idoro dozunik...!

– Ez dakit ori jaritsiko dodan ala ez, baiña lotsabako orreik eragin dausten asareak, orretara eroan nau...

– Zer ikusi dau, baiña, liburutegiak alper bi orreikin...?

– Ezer be ez, jakintza ta denganiño orreik atzez-atze dagoz-eta, baiña alper barentzat gorrotagarriena, lan egitea da. Lodiaren-lodiz azken aspaldi onetan batez be,

gazte bion eperdia ez yake praketan sartzen, ezer egin barik aloger polita irabaztera oitu diralako. Ortik ikusiko dozuz gora ta beera, inguruan jazoten danari jaramonik egiteke, eta iñoren lepotik barreka, LAO edo dalako ori, euron aldeko aalguztiduntzat dabelako.

Ona elduta, alkateak barreka,

– Barkatu Txomin –eten egin eustan–, baiña badakizu orain gitxi dala, adiskide batek esan eustana...?

– Zer.. ?

– Dalako LAO'ren (Langilleen Alkarte Orokorra) len-izkiak bestera artu bear dirala, eta onetaraxe izan be: Langilleen Atsedean Orokorra.

Barre egin genduan, eta gero alkateak,

– Jarraitu, arren, zure esatekoari, guztiz zudugarria da-ta.

– Ara... anai biok jaiotzatik nagiak jota dagoz, eta etorri daitekien atsekaberik andiena, lan egitea da, eta ainbat areago bakotxa ogei erraldeko dala gogoan artzen ba'dogu. Augaitik, ba, liburutegia gerturik daitenean, Asentzi indianoaren semea il zanean, udalari jarauntsizat lagatako 20.000 liburuak, orain dagozan etxepetik, goiko liburutegiraiño lau soru-mailla izanik, arazoa ez da gaberdiko auntzaren estula. Nire us-tez, bataz beste egunean anai bakotxak berreun bat ale igon bear ko ditu, au da, bion artean laureun ale. Onak esan gura dau, asteburuak jai diran ezker, illabete bi bear izango dirala lorketa osoa egiteko.

– Ez al-deritxazu arlo gitxi dala, bakotxak berreun ale igotea egunean...?

– Ez, eta ona emen zergaitik: urteak dira liburuok udaletxeko sotoan dagozala, eta aldiaren joanean, kale-sestran dagozan leiatilletatik, auts ugari sartu da. Gora lorratu aurretik, liburuai banan-banan autsa kendu bear yake, eta gero esku-zorro baten sartuta, gora eroan. Emen, aurretiaz zeaztutako lekuan jarri, eta beera barriro, beste lorketa bat egitearren. Jakíña, Perutxu'k goizean ba'diardu, Manutxu'k arratsaldean egingo dau, gora ta beeraka orreitan alkar oztoporik izan ez dagien. Auxe da lau itzetan, alkate Jauna, nire egitasmoa, Artxuri'ko udalari dagokion liburutegia sortzeko.

– Uste dozu, Txomin, beste barik denganiño orreik makurtuko dirala orretara...? Ez ete dabe igesbideren bat asmatuko lan ori lepotik astintzearren...?

– Otu dakiezan trikimaillu guztiak erabiliko dabezala, ziurtzat jotzen dot, baiña guri ustel urten arren be, besteak beste, zeozar egin bear dogu.

Une batez oldozkor iraun eban Erramun'ek, eta gero,

– Zuzen zagoz, Txomin –esan eustan–, eta aurrera. Liburutegiaren asmoa urrango Batzar Nagusian aurkeztuko dot, eta abo batez onartua izango dan ezker, zure asmoa egi biurtzeko gertau zaitez.

– Bai, Jauna, eta lekua gerturik, aleen lorketea egingo dogu.

Asmatua lez, Batzar Nagusiak ontzat emon eban asmoa, eta urrango egunean egokitze-lanak asita, andik iru illabetera, liburutegi argi ta ederra, bere jarleku, mai, eta apalak gerturik, aleen begira ikusi zeitekean. Eldu izan zan, beraz, lorketea egiteko garaia. Goiz baten, Perutxu ta Manutxu eratorri nebazan, eta guztitariko zertzeladak

emonda, biaramonean, udaleko morroi baten agindupean, eta lana ondoen egiteko, Perutxu'k goizean, eta arratsaldean Manutxu'k jardungo leukiela iragarri neutsen. Euren aurpegiko itxuraz agiri zan, dalako zeregiña atsegin ez yakela. Joan ziranean, udaleko morroia banazean artuta, bere egitekoari buruz jakitun ipiñi neban, au da, jardun bitartean anai biok ikuspegitik ez galtzea batez be.

Urrango eguneko goizeko zortziretan Perutxu elduta, udaleko morroiak etxepeko leiatillak edegita, lumadi-gangar (plumero) bat emon eutsan, ale bakotxari autsa astintzeko, eta esku-zorroan sartuta, irurogei bat biltzen ziranean, gora eroan, eta berak agindutako apaletan lerro-lerro ipiñi. Etxepekotik liburutegira lau soruko bitartea egotan ezker, liburuai autsa astinduta, gora igon, lerro-lerro ipiñi, eta beera barriro beste lorketa bat egitearren, aspergarri ta neketsua azaltzen zan. Idaztegi-morroiak anai bakotxari jarritako arloa, egunean berreun liburukoa zan, baiña lorketea egin aurretik, ale guztiak banan-banan autsa astindu bear yaken ezker, aitu baten zirudian baiño askoz azunagoa zan. Lenengo eguneko arloa trinkili-trankala bete aal izan eben Perutxu'k eta Manutxu'k.

Urrango egunean, baiña, nire idaztegiara eldu-barria nintzala, sartzeko baimena eskatuta, anai biok azaldu ziran, eta,

– Begira, Jauna –esan eustan Perutxu'k–, “protesta” bat egitera etorri gara.

– Zelakoa...?

– Ara... gu udalera urizaiñak izateko sartu gintzazan, eta ez autsa irusteko, ezta eskillarlan gora ta beera ibilteko be.

– Barkatu, baiña gure aruak gogoan izango dozuezala, baietz egingo neuke. Ara, zer diño 17'gn atalak...?

– Orain ez yatorri gomutara.

Araudi-liburuxka artu neban, eta auxe irakurri neutsen:

– 17'gn atala: “Lanak eskatu dagianean, udalak urizaiñak erabilli dagikez udal-txe-barruko zeregiñetan”.

Abo-zabalik, eta zer erantzun ez ekiela geratu ziran. Andik laster, Manutxu'k,

– Liburuai autsa astintzeak, estula ta usiña eragiten dauskuz.

– Zergaitik ez dozue erabilten, arnas-artzeko mozorroa edo irazkia... Zuen aukean ipinteko agindu neutsan idaztegi-morroiari ba...!

– Bai, baiña nekagarria azaltzen da mozorroa edo ori.

– Autsa irazteko asmatu izan da, eta ez ba'dozue erabilli nai, or konpon. Zer besterik...?

– Ezer ez, Jauna.

– Orduan, Perutxu, joan zaitez etxepera atzoko lanari jarraitzeko, eta zu Manutxu, arrastirarte atsedean artu egizu, gure uriak bear dauan liburutegia, lenbailen bere aukean izan dagian.

Lanari ekin eutsoen anaiok, eta gitxi gora-beera beste berreun ale apaletan kokatu ziran egun aretan. Autsa astintzea gogaikarria azaltzen ba'zan, ogei kiloko ingurukoa zan esku-zorroa laugarren sorurairiño lorratzea, ogei erralde inguruko gazte lodikote, as-

tin, eta belaxka batentzat, neurritz gaiñeko aalegiña biurtu zeitekean, eta areago berez nagia danarentzat.

Urrengo egunean, baiña, goizean idaztegiara eldu nintzanean, Perutxu ez zala azaldu esan eustan idaztegiako morroiak. Eguberdiari errian zear osterata bat egitetik biurtzean, mai-gaiñean anai bien geiso-agiriak osagilleak izenpetuta aurkitu nebazan. Asarre gorriak artuta, abopeka, arein aurka asto baltzarenak jaurti nebazan. Gero, nire eñera biurtuta, mintzo ezkutu batek: "Baiña zer uste zenduan iñuzente orrek, olan, beste barik, denganiño orrek zure esanetara ekarriko zendukezala...? Bai zera...!"

Zeozter egin bear, eta luzaro samar ausnar egonda, zirt edo zart, egiteko zana erabagi neban. Arratsaldeko zortziretan osagilleagana joan nintzan, eta bereala artu ninduan. Zeozter somatzen eban, antza, artega ta urduri ikusi neban-eta.

– Zerk zakaz nigana...? – itaundu eustan–.

– Ara, osagille Jauna, nire menpeko bien geiso-agiriak artu dodaz, eta jakin nai izango neuke, zelako gatxak artuta aurkitzen dira.

Urduri ta oldozkor, eskuak alkar igurtziz,

– Begira, Txomin Jauna –erantzun eustan–, autzagaitik-edo, arnas-bideak kalte andia artu dabe.

– Benetan...? Orduan arnas-irazkia saldu euskuanak ziria sartu dausku, berak ziurtatuta, olako makurrak eragiten ez ebelakoan erosi genduzan-eta. Augaitik ba, saltzailleagana joko dot, baita barruti onetako osagille nagusiagana be. Ezin dagikegu osasun-aurkako marrokeririk onartu, ez orixe...!

Jagi nintzan, eta aterantz joatekoa egitean, osagilleak itxura kezkatuaz, geldi-erazo ninduan, eta,

– Egia esateko, urizainburu Jauna –esan eustan–, mutil orreini makurra oso ariña da, eta nik uste, luzaro barik osatuko dira.

– Edozelan be, etzirako osatuko ez ba'ltzaz, arnas-irazkien egillegana, eta gero osagille nagusiagana joko dot, udalari dagokion salakuntzea egiteko, irazkirik onenak ziralakoan erosi genduzan-eta.

Alkar agurtzean, osagilleak barriro,

– Ez larritu, Jauna –esan eustan–, gero ta gero be, mutil orreini gatxak ez dirudi gauza larria-ta.

Ettxera biurtzean, nire kolporako niñean, osagillearen itxuraz eta esanagaitik, Perutxu ta Manutxu euren eñera laster biurtuko litzakezala, eta izan be, aurreteritxi ori egi biurtu zan. Irugarren egunean, idazgelara sartzean, mai-gaiñean, denganiño bien osatze-agiriak ikusi nebazan, eta egun aretan bertan liburu-lorketeak jarraitu eban.

Arrezkero, gazte bion jokaereagaitik agiri zan leiaketea galdu izan ebela. Lur-jota, liburuen lorketeari jarraitu eutsoen, egunean arlotzat jarritako berreun aleen kopurua beteten ebela, baiña oraingo onetan, ezpanetako irriño ziñosoa ostendu izan yaken, sumiñak ordeztuta, burrukea galdu daben oillarren antzera. Eta noizbait, itxaroten nebana etorri zan, etorri be.

Ozta-ozta iru astebete arloan ziarduela, bein baten idaztegiara sartzeko baimena emonda, Perutxu ta Manutxu azaldu ziran, eta,

– Jauna –esan eustan Perutxu'k–, uri onetako zaingoari uko egiten dautsagu, eta beraz, zor yakuna kitatu nai dogu.

– Zatoze biar ordu onetan, eta dana gerturik izango dozue.

Joan ziranean, arin baten ogasun-saillera igonda, gazte biai zor yakena kitatzeko, eta bide batez ukapen-agiriak biaramonean gerturik izatea agindu neban.

Biaramoneko goiz beranduan sartu ziranean, zor yakena eskuratu neutsen, eta ukapena izenpetu ondoren,

– Zertan jardungo dozue orain...? – itaundu neutsen–.

– Uriburuko egurastegi nagusian zaindaritzat jardungo dogu. Ango udalean diarduan aitaren ezagun batek, lan ori eskiñi dausku, eta orain alagala yatorkun ezkerro, onartu dogu.

– Ezagutzen dot dalako egurastegia, eta toki ederra da, benetan. Iruron artean gora-beera batzuk jazo dira, eta egiari zor dautsadan begirunez, alperrak eta zakarrak izan zariela esan bear arren be, azken baten zuen egoereari urtenbidea emon dagiozuela, pozgarria da niretzat. Ondo ezagutzen dot angu udalaren erabiltea, urte batzutan urizaintzat jarduna nozuelako, eta zuen onerako auxe esan bear dautsuet: benetako zaindaritzat jokatu egizue, goikoai begirunez, eta jendeari maitasunez erabilten. Lanaren lanez eta txeratsu azalduz, gure ogia egunik-egun irabazi bear dogu, eta zaarren lepotik barre egin-bearrean, amultsu izan zakieze, areikandik asko ikasteko dozue-ta. Ez naiaztue aspergarri izan gura, eta joanak joan, auxe esango dautsuet: egunen baten lagundu aal izan ba'neutsue, jo egizue nigana. Eta orain, ondo ibilli zaitezela nire gurari bizienakin batera, orra doatsue nire bostekoa.

Eskuak alkarri emon geutsozan, eta isillik urten ziranean, une luze batez oldozkor geratu nintzan, eta orain gaiñetik urtenda oartzen nintzanean, gurendaren ezti gozoa txastatzeko abagunea yatordean, gazte areik buru-makur joaten ikustean, esan-ezin alako zarrastada latzak menperatu ninduan, eta etorkia aldeko izan ekien Jaungoikoari eskatu neutsan.

Gazte bi arein joatea, gure urirako onuragarria azaldu zan, eta andik laster, utzitako utsunea, bertoko gazte batez eta Goiniz'eko beste batez ordeztu genduzan. Urizain barriok esaneko ta maratzak azaldu ziran. Goiniz'ekoa, Urrexola'tik ur samar egoan etxe batekoa zanez, ondo ezagutzen neban, eta nire bitartez, guztien pozerako jardun barria lortu eban.

Andik laster, etxepeko idaztiak gora aldatu izan ziran, eta egun zoriontsu baten, Artzuri'ko liburutegi bikaiña uritarrentzat edegi zan, eta jai onen ostean, Erramun Jaunak, "Arratiarra"nean bazkari bikaiña izatera dei egin eustan udalbatzari, ni tartekoa izanik.

Bazkaria amaitu zanean, egosketeari laguntzearen, alkateak eta biok osteratxu bat egin genduan. Ibilli genbiltzala, alkateak,

– Orain liburutegizaiña idoro bear dogu –esan eustan–, ainbat idaztien eta irakurleen ardurea artu dagian, eta izan be, ez da erraza izango jagole ona aurkitzea.

Bapatean, burutapen bat etorri yatan, eta ibilteari eten egiñik,

– Zer deritxazu, Erramun Jauna, “Lukainka” jardun orretarako...?

Une batez, burutik eginda nintzalakoan begiztatu ninduan, eta,

– Baiña, Txomin, uste al-dozu, ganorabako, txolin ori, orretarako gauza izan dai-
tekenik...?

– Ez dakit, baiña ziur-ziur gauza ez dana, urizain izateko da. Ez dogu Artzuri’ko
apaingarria baiño, enparantza nagusian txorimalo bat jarri bai’genduan. Edozelan be,
eta oraingo jardunerako gai ez dala jakiñik, zergaitik ez dautsazu liburutegi-zaintza es-
kintzen, bein-beiñeko jarduntzat...? Gero ta gero be, gai azalduko ez ba’litz, ez gendu-
ke asko galduko: lengo betekizunera aldatu ta kitto.

Une batez ausnar egon zan alkatea, eta noizbait,

– Ez deritxat txarto zuk itarantzunikoari, eta gauza andirik galduko ez dogun ez-
kero, aukera ori emongo dausat.

Pozik onartu eban “Lukainka”k alkateak eskiñitakoa, eta andik laster, lan barriari
emon eutsan. Luzaro barik, “Haurrerakoi”en gogolariak alor onetan lengoan baiño ga-
nora andiagoa erakutsi eban, eta iru illabeteko saio-epea igarorik, liburuzain beneta-
kotzat izendatu izan zan, eta lengo bere jardunean erriko mutil zintzo bat izendaturik,
urizaingoko edestian, Artzuri arorik onena ezagutzen asi zan.

Artzuri’n lanean asi ta urtebete batera-edo, auzo barri bat eraikitzea erabagi eban
udalak. “Bakea” izeneko auzo barria, uriko erdigunetik zerbait urrunduta, eguraste-
giaren ondoan eraikiteko zan, ibaitik ur, izan be. Atsedeen-toki zoragarri arek asiera
batetik zirikatu ninduan, eta aurretasmoa eskatuta, marrazkiak aztertu nebazan.
Etxeok, bosteun metroko baratz batek inguratuta, beeko soruan, sukalde, areto-jatoki
ederra, eta berebiltegi zabala egozan. Goikaldekoan, lau lo-gela irol bikin. Auzo ba-
rria ogei ta bost etxekoa zan, eta aukerea galtzeko bildurrez, areitariko bat eskatu ne-
ban. Udaleko jardunekoa izanik, eta alkateak begi andia eustanez, eskaturiko etxea
emon eusten.

Ain zuzen be, orduan ez neban etxerik bear, ostatur bizi izaten nintzalako, eta
gaiñera, senar-emazte ostalariek, ondo baiño obeto ninderabilen, baiña ezkontzeko
adiñekoa izanik, zer jazoko be, etxe bat jabetzea erara yatordan eta astirik galtzeke, be-
raz, udaletxean eskaerea aurkeztu neban.

Etxe baterako eskubidea izateko, aurretiaz eskaturiko diruketa bat emon bear zan,
eta gero ille-sari bat. Olan ba, urtebete biko epea igarorik, jabetasun osoa jaristen zan.
Uriburuan emondako urteetan, osabaizekoai ostatu-saritzat emondakoa gitxi izan za-
nez, Artxuri’ra aldatu nintzanean, diruketa politaren jabe billakatur nintzan, eta sarre-
ratzat eskatua baiño askozaz geiago izanik, beste barik aurre-ordainketa au egin aal
izan neban. Onen osteko ille-saria ez zan niretzat iñongo buruausterik, urizainburutzat
irabazten nebanak orretarako ta geiagorako be emoten eustalako. Eta orra or, noizbait,
Artxuri’ko lekurik baketsuen eta ederrenean, landetxe politaren jabe billakatu nintzala.
Orduan, ogei ta zortzi urteko nintzan, baiña kabi txukun eta eroso nori eskiñi ez ne-
ban, nire biotzak irrikatutakoa ostendua zalako...

Bai, Artzuri’n lanean asi nintzanean, Goiniz’etik ur samar izanik, askotan Urrexo-
la’ra niñoan, jaiegunetako arratsaldeetan Gurutze ikusteko gurari ezkutua, baiña nes-
ka-mutillak alkartzen ziran tokiak ikertu arren be, nire biotzekoa ez zan iñondik azal-
tzen. Bein baten luzetsia, itzuli-inguruka amari itaundu neutsan, zer billakatur zan
Landagoiti’ko Gurutze, ez neban ikusten-eta. Ez ekiala, baiña laster jakingo leukela
agindu eustan amak. Urrengo ikerraldian, nire atsekaberako, uriburuan neskame ziar-
duala esan eustan.

– Baiña, ama –itaundu neutsan–, uste dozu Landagoiti’n orren estu bizi izaten di-
reala, alabea neskame sartu bear izateko...?

– Landagoiti, ez da Goiniz'eko etxerik aberatsenatarikoa, baiña polito bizi izateko beste etxaldea dozu, eta nire ustez, laster ezkongai izango danez, etxe bateko erabiltea ondo ikasteko, uriburura igorri dabe, bere garaian etxe erabiltea ikasi dagian. Baiña, esan seme, orrek ze ardura emoten dautsu...?

Iges-berbakaz erantzun neutsan, nire biotzeko ezkutua ez neutsan iñori zabaldu gura-ta, baiña barri onek lur-jota utzi ninduan, eta aspaldi luze batez atsekabeak jota aurkitu nintzan, zer egin ez nekiala. Gurutze'kin arremonak izatea ezin nengikean ezkerro, oba litzakela korapilloa berez askatu zeitela, nire buruari esan neutsan, eta etorkiak zelan edo alan arazoa erabagiko leukela. Jaiegun geienetan etxeokak ikertzeko atxakiaz, ama batez be, Urrexola'ra niñean, eta bazkalduta gero, arratsaldean Goiniz'eko enparantzara jaisten nintzan, eta ezagunak agurtu bear neukezala-ta, gaztedia alkartzen zan lekuetara niñean, bein bederik Gurutze ikustearren, baiña nire maite kutunaren aztarnarik ez. Bazirudian, uriburuak iruntsita, betirako ostendu izan zala, eta illuntzeko orduan Artxuri'ra biurtzean, iñoizkorik atsekabetuen oartzen nintzan. Etxeko oiturea zan, gau guztietan gure ildakoen alde otoi bat esatea, eta aititaren alde eskatzean, Gurutze maitia ekarri egidan, irrika bizian eskatzen neutsan, baiña egunak joan egunak etorri, ikusteziña zirauan.

“Bakea” auzoko nire etxe barriaren giltza artu izan neban jabetasun beteaz, baiña egi-egitan, onek ez eustan poz andirik ekarri, eta arrezkero, kabi-miñez utsari begira ta begira zetzan, aztu egindako maite kutuna bai'litzen.

Baiña bein baten... bein baten eguneko jarduna amaituta etxera niñoala, biotza bu-larraren kaiolan txori zorotua lez pil-pira zoroan asi yatan... Bai, nigandik ez urrun amak lagunduta, lora baizen liraiña, eta iia lako txairoa Gurutze etorren. Zirkin egiteko gai ez nintzala, zur eta lur eginda gelditu nintzan. Neuganaiño eltzean, Martiñe eritxan Gurutz'en ama galditu zan, eta,

– Ene bada –iges egin yakon–, nor eta zeu, Txomin, emen ikusi bear.

Noizbait, isillune baten ostean mintzamina irabazita,

– Bai, Andrea, emen nozu –esan neutsan– lana amaituta, etxerako bidean.

– Baten batek, urizain-edo emen iñarduzula esan eustan.

– Bai, emengo urizainburua naz.

– Kontxo, ori ez da gaberdiko auztaren estula...! Egia esateko, Txomin, janzki orren barruan “gobernadorea”-edo emoten dozu.

Barre egin neban, saietsez Gurutze begizatzen nebala. Nire soak beragan jarrita oartzean, aurpegia lotsa-gorri zoragarriaz estaltzen yakola begitandu yatan, ala nire irudikeri utsa izango ete...?

– Alagala zatozkigu, Txomin –jarraitu eban Martiñe'k–, onentzat “Titarea” izeneko joste-ikastolaren billa gabiltz, eta non dagoan ez dakigun ezkerro, aren gora-beerak emongo ba'zeunskiguz, eskertuko geunskizu.

– Baita pozik be. Zatoze, neronek lagunduko dautsuet.

“Titarea” joste-akademi edo ikastola, Kale Nagusiko albokale baten egoan, eta ara joan bitartean, berba-zaletasunari jarki eziñik, Martiñe'k auxe iñostan:

– Bakizu, Txomin, ezkontzeko garaia yatorkenean, etxeokandra maratza izateko, neskatillek etxea ondo erabilten ikasi bear dabe...

– Barkatu Andrea –estu ta larri eten egin neutsan–, baiña ez nekian Gurutze ezkontzeko dala.

– Ondiñokarren ez dakigu noiz, ezta nogaz be, baiña ogei urteko izan, ba... bakizu ori etorteko da.

Au entzutean, pozaren-pozez biotza ikotika asi yatan, bere burua itoteko zorian ikusi ondoren, bizirik eta onik ertzera eltzen danaren antzera.

– Bai –jarraitu eban Martiñe'k–, etxea ondo erabilteko, neskatilla batek etxe on baten jardun bear dau, gora-beera guztiak ikasi dagiazan–, eta abagunea etorri dakio-nean, gai izango da berea etxeokandra arduratsutat erabilteko, ezta...?

– Bai, Andrea, zuzen zagooz.

– Auxegaitik ba, urtebete bi uriburuko etxe on baten neskametzat jardun ezkerro, orain josten ikasi bear dau, etxe baten erabilte osoa menperatu dagian. Zer deritxazu orreri, Txomin...?

– Bai ortan...! Ama guztiak zure ustekoa izango ba'litaz, beste kuku batek joko leuke ainbat eta ainbat etxetan.

– Ori esaizu...! Ganorabako ugari ikusten da orko bazterretan, eta bakizu zergaitik...? Gurasoen ardura-ezagaitik. Bai, oba da buruausterik ez artzea, eta gero etortekoak etorri. Eta, etxeokak ondo, ezta...

– Bai, Jaungoikoari esker; lengo Domekan etxean izan nintzan, eta danak osasuntsu ikusi nebazan.

– Ori bai, diruz ordaintzen ez dana...! Ordua da, Kattalin, zure amak atsedean apur bat artu dagian, ain gogor bear egin ezkerro, batez be. Orain badau etxeok ugalak nori emon, Pantxike, etxeokandra gaztea maratz eta zentzun andikoa dalako. Eta au egiztatzeko, ez da besterik umeak zein garbi ta apain darabillezan ikustea baiño. Etxekoandrea fiña...! Eta Tomas zure anai nagusia...? Ori da bat...! Ondo daki orrek, jakin be, Urrexola lako etxalde zabala zelan erabili bear dan, aiko-maikotan ibilli barik, berak bakarrik etxeok lan guztiak eutsirik.

Atan-orretan, “Titarea” joste-ikastolara eldu gintzazan, eta araiño lagun joategaitik Martiñe'k bere eskerrona emostala, ama-alabak atadian zear ostendu ziran. Nik, baiña, ez neban eretia galdu gura, eta andik larregi urrundu barik, arein agerpenari itxaron neutsan, Gurutze'ren edertasuna gogotik kendu barik.

Ordu erdia-edo igarorik, ama-alabak “Titarea”tik urten ziran, eta albo-kale batetik urtenda, ezustekoa egin neban.

– Zer, etxerako bidean, Martiñe Andrea...?

– Bai, dana atonduta gero, bagoiaz Goiniz'era.

– Pozik...?

– Baietz esan bear ko –erantzun eustan Landagoiti'ko etxeokandreak–. Onek as-tean iru egunez, au da, bitik bein, lau ta erdietatik zazpi ta erdietararte, josketa-ikaste-ari emongo dautso. Ikaste-saria apur bat karutxua begitandu yat, baiña tira...! Gauza

onak merkerik ez. Gero ta gero be, ondo etorriko yakola kontuan arturik, ba azkenean bat etorri gara.

– Goiniz'eraiko erri-berebilla artzera ba'zoaze, lagunduko dautsuet, bidebatez ya-tort-eta...

Guzurra ondo urten yatan, eta Martiñe'k,

– Olan izatekotan, zatoz gurekin.

Martiñe'ren albo baten niñoala, eta Gurutze bestean, kalean beera asi gintzazan, eta emakumeek oi daben jakingureari jarki eziñik, etxeoandreak,

– Zein adiñekoa zara, Txomin...?

– Ogei ta zortzi urteko.

– Ezkongai, ala...?

– Oraindiño ezkondu barik nozu, Andrea.

– Ezkontzeko asmotan zaitugu...?

– Ez dakit egunen baten-edo, baiña ondiñokarren ba... emen nozu "zeri nakio" na-goala.

– Zure adiñera ezkerro, zirt edo zart, eleizgizon ala ezkondua izan bear. Mutil zaa-rak kokoloak ez ba'dira, orduan berekoiak. Esan, Txomin, zein asmo dozu...?

– Egunen baten neskatilla ona ezagutzeko aukerea izango ba'neu, orduan ba...

– Polito irabaziko dozu, eta areago urizainburua izanik, ezta...?

Une aretan gorri-gorri eginda, Gurutze'k eten egin eutsan,

– Arren, ama, ez olakorik itaundu...!

Lotsa-gorri aren pean neskatilla zan liraiña...!

– Begira, Andrea –erantzun neutsan itaunari garrantzirik emoteke–, bizi izateko beste ta zeozer geiagorako, baietz esango neuke.

Erantzun ganorabako onek baretu eban, antza, Martiñe'ren jakingurea, eta isillune baten ostean,

– Alogeran artutako etxe baten bizi izango zara, urrean, ezta...?

– Ez, Andrea. Ostatz bizi izaten naz, umebako sendi batenean.

– Ondo zarabillez...?

– Oso ondo artzen nabe, mizkez esango neuke, guztitariko palagutan narabillela, "zer gura ta a" izan be. Egia esateko, etxean ez nindukie obeto erabilliko. Askotan ba-diñotset ainbeste bigunkeriz ondatuko nabela, baiña dana alperrik, zekor baten antzera gizendu nai nabe.

– Ez dozu orren lodi emoten ba...

– Ez. Zorionez, urian zear ibillaldi luzeak egiten dodaz, eta onek argal samar irau-erazoten nau.

Orduko, erri-berebillen geltokira eldu izan gintzazan, eta itxaron bitartean, abope-ka, alabeak entzun ez egitsan-edo,

– Eskertuko neuskizu, Txomin –isil-misilka esan eustan–, noz edo noz, eta goize-tik illuntzen danean batez be, urrundik izanik be, Gurutze jagon dagizula. Badakizu ze-lako lotsabakoak or bazterretan dabizen-eta...

Alagala yatordan Martiñe'ren eskakizunak poztu ninduan barru-muiñeraiño, eta zoriona ozta-ozta meperaturik,

– Nasaitu zaitez, Andrea –esan neutsan–; ziurtzat emon dagikezu, zure alabeari ez yakola ezetariko okerrik jazoko.

– Eskerrik asko, Txomin; nire uste ona zeugan ipinten dot.

Une aretan erri-berebilla eldu zan, eta ama-alabak sartuta, ikusmenetik laster gal-du nebazan, zorion betea ekarkidan Gurutze'ren azken begikada argitsua, neugan un-tzatuta neroiala. Etxera biurtzen nintzala, nire kolkorako niñoan, nor aren begien jabe betirako billakatu, eta ordurarte iñoiz ez oarturiko ezbai ta zorion bakanen naasketea nitzaz jabetu zan.

Urrengo estetik joste-ikasketak artzen asi zan Gurutze. Goiniz'etiko lauretako erri-berebillez etorren, eta lau ta erdietan "Titarea"n zan. Asiera baten, ez neritxon on-do nire burua arduratsuegi azaltzeari, eta ikastaldia zazpi ta erditan amaituta, noizean bein ezustekoa egiñez, geltokiraiño lagun niñoan, oiko arrunkeriak autugaitzat artuta, au da, eguraldia, etxeoak, josketan egiten ebazan aurrerakadak etabar. Orretarako arratsaldeko zazpiretan udaletxean janzkiz aldatuta, astiro-astiro egurasten niñoan Gu-rutze'ren billa, eta agertzen zanean, oiko agurra alkarri esanda, Goiniz'eraiko zortzire-tan urtetan zan erri-berebilleraiño laguntzen neutsan.

Laster, baiña, maitasunak eraginda, astean ziarduan iru egunetan itxaroten asi nintzakion, ordu erdiko epea unetxu bat begitantzen yatala. Gurutze ez zan barritsua, eta are gitxiago asiera aretan, baiña zentzuduna izanik, nirekiko begiko ta lotsatia azaltzen zan era batean. Asteko iru ordu erdiko epea gitxietsirik, jaiegun guztietan Urrexola'ra joaten asi nintzan. Bazkalostean, Goiniz'eko enparantzara jatsita, neska la-gunekin agertzen zanean, alkartzen nintzakion, enparantzatik osterata batzuk egiteko, eta gero, onen inguruko akeitetxe baten, askaria izaten genduan.

Gero ta maiteago neban, baiña, eta irugarren illabetea igarorik, bein baten, jabe-tzen ninduan arrenkura bizia menperatu eziñik, nire maitasuna autortu neutsan. Autor-pena entzutean, gorri-gorri eginda, begiak beeratu ebazan, eta gero, arimaren izarrak ziran betseñiakaz laztantzen ninduala,

– Neuk be maite zaitut, Txomin –suzmur baten txeraz esan eustan–.

Zoragarria izan zan arrezkeroko aspaldia. Ez neukean egundo uste izango ain zo-rioritsua izan zeitekeanik, egun osoa amesetan emoten nebala, noiz etorriko alkar ikus-teko orduaren begira. Agiri zan, berak be maite ninduala, eta olan, ezkontzaurreko aro maitagarriaren egunak alkarri erraikiola udabarri betean, lenengo urtebetea igaro zan, eta garaia zala ezkontzeko uste izanik, gerkuna egitea erabagi genduan. Orduko, diru-keta polita aurreztu izan nebenez, lengo urtean erosirikó etxea erakutsi neutsan, eta onen gaitasunak zur eta lur eginda,

– Txomin –esan eustan–, ez neban iñoiz uste izango, onen etxe ederraren jabe zintzakezanik, ez urrik emon be...! Zelan jaritsi dozu, baiña, olako etxe zoragarria...?

– Zu zara, Gurutze, etxea erosten eragin eustana. Ez dakizu...?. Aitita il zaneke eguna zan, eta alanbearrak olan nai izanda, egun aretan agertu zintzakidazanean, ezagu-

tu barik nik ames egindako aingeruaren aurrean nengoala oartu nintzan, eta gero, gau aretan zure irudia nigandik kendu eziñik zabaldia ta izarrak begizatzen nebazala, ezustean, aititaren azken emokaria zindudazala begitandu yatan, eta arrezkeroko gau guztietan aititaren alde otoi egitean, nireztat gorde zengizan eskatzen neutsan. Ordutik, ia lau urtebete igaro dira, baiña nire maite kutuna zintzakidan ori, egunoro izan zaitut biotzean.

– Badirudi mirari andia...

– Bai, eta ona urizaintzat lan egitera nidekarren ziorik andiena, zeugandik ur egotea zan. Ezin dagikezu asmatu zelako atsekabea artu neban, uriburuan neskame sartu izan zintzazala jakitean. Orduan, zu galtzeko zorian uste izanik, jaritsi-ezintzat joten asi nintzakizun... Aitita izango zan, urrean, naigabetik indarra ataraten eragin eustana, eta zer dan eztan, etxe au erosteia erabagi neban... Eta bein baten, galdutako aingerua joste-ikastola baten billa joiala, agertu yatan, eta jasandako gau luzea ostentzen asi yatan goizalde ederrak ordeztuta... Enparaua, Gurutze maitia, neuk baizen ondo ezagutzen dozu...

– Ez dakizu gauza bat, Txomin...? –begi ederrakaz begizatzen ninduala eten egin eustan berak-. Egun aretatik, zure aitita il yatzunetik ikusi zindudazanean, sarri askotan gomutara zentorkidazan, eta nik oartu barik, nire biotzean leku bat artzen asi be... eta egun aretan amarekin niñola agertu zintzakiguzanean, biotzaren pilpira arindu yatan, eta arrezkeroko, benetako zoriona zer dan jakin dot...

“Bakea” auzoko nire etxea erakutsi ondoren, auxe esan neutsan:

– Begira, Gurutze, etxea barrutik utsik dago, eta zure aukeran osotu dagizula nai dot. Augaitik ba, joste-ikastaldia ez dozun egunetan, zatoz arratsaldean, etxeko erredizak-eta aukeratu dagizuzan, eta au egiñik, zure etxera joanda, nire amak mandatua egingo dau ezkontza-eguna erabagiteko. Zer diñostazu, maitetxu orrek...?

– Oba ez...! Ez neban iñoz uste izango olako etxe batera ezkonduko nintzakela, eta leku zoragarrian egonez gaiñera, baratz ederrak inguratuta. Bai, txori ta lorakaz inguraturik bizi izango gara, eta garrantzitsuena dana, senartzat izango zaitut. Batzutan, baderitxat zorionez ilteko zorian nazala...

Nigana erakarri neban, eta aren billo zirikotsuetan apa-laztan maitekorra jarri neutsan, auxe niñotsala:

– Erredizak-eta ipiñi dagiguzanean, ezkonduko gara. Augaitik ba, astirik galtzeke arindu gaitzen.

– Etxea barrutik jantziteko diruketa andia eralgi bear izango dozu, eta oba izango ez ete dan nago, orren arin ez joatea.

– Ez orixe...! Orretarako ta geiagorako be, badot aurreztuta.

Eta Gurutze'ren arrenkurai jaramon egin barik, etxe-apainketeari emon geutsan, eta andik illabete batzutara, etxea jantzita agertu zan. Eretia zan, beraz, Gurutze'ren etxera joan eta mandatua egitea. Larunbat baten, amarekin Landagoiti'ra joan nintzan. Arratsaldea zan, eta eguraldi ederra izanik, zabaldia amaika usain gozoakaz et txorien abestiakaz edertuta agertzen yakun. Landagoiti basetxea ez zan aberastasun andikoa, baiña ez erdipurdikoa be. Anton etxekojaunak seme nagusiari laster lagako leuskion

etxeko erabiltea, bizkor eta adoretu oraindiño lanean ziarduan irurogetak urteko izan arren be. Anton'ek eta Martiñe'k bost seme-alaba izan ebezan: seme nagusia; uriburuan arotz ziarduan beste bat, eta iru alaba. Oneitariko bi zaarrenak beste basetxetara ezkondu izan ziran, etxeko kutuna Gurutze izanik.

Etxe-aurretiko solotik giñoazala, Anton eta beronen semea lanean ikusi genduzan, eta une batez agurtzearen gelditurik, Martiñe etxean begira egoala esan euskun etxekojaunak, eta oiko agurrak alkarri esanda, etxera eldu gintzazan ama ta biok. Gure olesari erantzunik, Martiñe azaldu zan, eta etxeko aretora dei eginda, aulki banatan jesarri gintzazan irurok, eta orduan etxekoandreak,

– Itxaroten neban –esan euskun– zuen etorrerea, Gurutze'k iragarri daust-eta.

– Bai ba –erantzun eutsan amak–, onek, Txomiñ'ek, bazala garaia mandatua egiteko esan daust, eta emen gaiatzuz.

– Bai, ezkontzea bizitzaren agindua da, eta aal izatekotan, oba goizetik berandu baiño.

– Ori ezaizu, Martiñe...! Gazterik umeak izateak alde andia egiten dau, orduan norbera edozetarako izaten da-ta. Au ogei ta bederatzi urteko laster izango da, abagune egokia ezkontzeko, izan be.

– Ezta goizegi be. Gurutze gure kutuna ogei ta bateko da. Neu be adin orretan ezkondu nintzan, Anton egei ta zazpiko zala.

Autu-gai arruntak amaituta, isillune bat sortu zan, eta jarraipena emotearren, Martiñe'k auxe esan eban:

– Gurutze'k esan daustanez, Artzuri'ko etxe barri polit baten bizi izango dira. Ikustera joateko ta joateko badiñost berak, eta au dala-ta, datorren Domekan arrastian ikustera joango gara.

– Bai, etxe elegantea erosi dau onek, eta izan be, ezin obeto erabilli egiñiko aurrezkiak. Orain erredizak-eta osoturik, ezkondu gura dabe...

– Geuk be –zeozer pipertuta eten egin eutsan Martiñe'k–, zezozer ipiñiko dogu. Ez gara Goiniz'eko aberatsenatarikoak, baiña bai gure alabeari dagokion arrioa emoteko beste ta geiago. Etxeak bear dauzan izarak, burusiak, buruko azalak, zapiñoak, zamauiak, illazkiak, azpioialak, sukaldeko tresneria, leio-errezelak etabar, ugari eroango dauz, baita onezaz gaiñera be, diruketa polita, umeak ba'letoz bearreko eralguntzak egiteko, eta...

Ona elduta, autua nireztat aspergarria zanez, eta Gurutze ikusteko irrika biziak artuta, jagi, eta etxekoandrai mintzatuz,

– Zuek, arrio-ta erabilli bitartean, ortik osteratxu bat egingo dot.

Au esanda, eta emakume biek ezkontzeari ekiten jarraitzen eutsoela, urten nintzan, eta soloan ziarduan Anton'egana joanda, nondik ebillen Gurutze itaundu neutsan.

– Aor, iturri-ondoan –esan eustan berak–, bogadea egiten ikusiko dozu.

Etxe-atzetiko iturrira joan nintzan, eta an ikusi neban nire maite kutuna maukutsik ikuztarri-gaiñean makurtuta, etxeko bogadeari emonda.

Urreratzean, irribarre egin eustan, eta aren begien txera argitsuak laztanduta,

– Zer da barri, Txomin...? –agurtu ninduan–.

– Ezer ez, nire maitetxua; etxean geratu dira etxeoandrak, gure ezkontzeari buruz diarduela.

Esku-zapi bat azaldu eskuak igurtzi ebazan, eta nire ondoan jesarrita,

– Zelan darabille gure arazoa...? –itaundu eustan–.

– Saltzaren erdian utzi dodaz.

– Eta...?

– Bat etorriko dirala uste dot. Zure amak zeozer kezkatua dirudi, arrioa dala ta ez dala, baiña ori gora-beera, gurea aurrera eroango dogu.

– Nire arriok zeuk ipiñitakoaren eifnean izan bearke ba'leu, orduan bat etortetik ez genduke.

– Begira, Gurutze, gure zoriona orren gafiñetik ipinten dot...

– Baiña zure amak nire arrioa-ta gitxietsiko ba'leu...

– Kattalin ez dozu ezagutzen. Nire zoriona ez leuke salduko Urrexola'ko etxeoandreak diruagaitik, ez orixe...!

Arrenkura baten itzalak illundu ebazan Gurutze'ren begi yaukalak, auxe itaundu eustanean,

– Eta bat etorriko ez ba'litzaz...?

– Orduan buruz-buru ezkonduko gintzakez, au da, arrioa ta dirua aipatu barik.

Baiña arren, maitetxu ori, alaitu bedi zure aurpegia, geurea ondo urtengo da-ta. Orain biurtu gaitezten etxera, etxeoandreak zer erabagi daben jakiteko.

Suil zabal baten bogadea ipiñita, bion artean eroan genduan etxera. Arratsaldeko seirak izango ziran orduko, eta eldu gintzazanean, etxeoandreak begitarte alai azartu ginduzen. Gurutze besarkatuz, auxe esan euskun nire amak:

– Poztu zaitezte, danetan bat etorri gara-ta. Orain zuei dagokizue ezteguaren eguna ta beste gora-beerak zeaztutea.

Atadian, mai baten gafiñean, Martiñe'k eta Gurutze'k egundoko askari edo arrastioa atontzen ziarduen, eta Anton etxeo semearekin etorrita, andik laster, mai-ingurua jan bitartean, aldarerik onenean, ezteguaren gora-beerak erabagi genduzan. Iru illabete barruan Goiñiz'eko eleizan ezkonduko gintzakez, Irailla'ren 14'ganean, au da, Gurutz Deunaren egunean. Eztegu-bazkaria Erriko Taberna'n ospatuko genduke. Jarraian, nortzuk izango ziran ezteguakoak eta beste zertzeladak eztabaidaturik, aldarerik onenean askaria amaitzeko zorian zala, asperen luzea jaurtita, Martiñe'k,

– Euren duiñean onenatarikoak –asi zan–, nire aldiatiko ezteguak ziran... Ara, ezkondu gintzazanean, gomutan dozu, Anton...? Nire arrioa eroateko lau gurdi bear izan genduzan, eta ikustekoa zan gurdien jarraigoa aldatz-beera etorrela, galgen kirrinkaz lagunduta. Iru kilometrotik aditzen ei'zan dalako zaratea. Lenengo biak nire neba biek eroiezan, eta beste biak Azillona'ko lengusuek. A zan ikustekoa, gurtesiak lertu agiñean, ainbat eta ainbat gauza ekarrezala, eta gero erriko enparantzara elduta, jarraigoa lotu bear izan eben, an egoan oste andiak arrioa ederretsi egian, eta gero aldatz-gora, Landagoiti'raiño, gomutan dozu, Anton...?

– Ez dot gomutan izango ba...? Larri nintzan non sartuko gurdiek ekarrena, baita artuko genduzan nekeak ustuketa-lorketak egiteko be.

– Nik, beintzat –jarraitu eban Landagoiti'ko etxeoandreak–, gaurko eguna bai'litzan gogoan daukat. Ara... aldi aretan ogei urteko nintzan, eta Anton, Landagoiti'ko etxaguna ogei ta seiko. Lenengo gurdian oe bi etozen, illazkiak, oeburukoak, burusiak, eta guzti. Bigarrenetan kutxa eder bi, sukaldeko tresneri osoaz. Irugarrenean, lanabesak, au da, eskutillak, laiak, aitzurrak, igitaiak, baita bearreko otzarak. Laugarrenean, janzkiak, oialak, izarak, esku-zapiak, suur-zapiñoak etabar.

Isildu zan une batez Martiñe lengo aldiak gogoratzean, eta gero,

– Bai –jarraitu eban–, ederra izan zan nire arrioa, ezta Anton...? Eta idiak...? ezin apaiñago etozen, burusiak mendel gorriakaz apainduta baita idiburukoak gingil gorriakaz be, eta gafiñera, zelako idi ederrak...! Euren duiñean onenatarikoak, arri-narrakzetan txapeldun izateko beste, bai orixe...! Luzaro samar berba egin zan Goiniz'en, Landagoiti'ko etxeoandreak ekarritako arrioi buruz. Eta eztegu-bazkaria...? Martzeliño'ren jatetxean izan genduan, eta gaur lez gomutan dot jakien zerrendea: mai-aurreko batzuk; gero indiaben eta garbantzen lapikokoak aza egosiaz; gero lebatza saltzan, eta saieski eder lodiak; mai-azkentzat, intxaur-saltsa, eta arroza esneaz egosia. Eta jakiña, ardao gorria, kafe, txola ta txokorra.

– Eta eztegu-bidegitea nora egin zenduen...? –itaundu neutsan–.

– Ez oraingo moduan, bai zera...! Uriburuko ostatu baten astebetean emonda ozta-ozta, eta Landagoiti'ra, soloko bearrak eta abelgorriaren zaintza gure begira genduzan eta.

Atan-orretan berandutxua zan orduko, eta Urrexola'raiño bide luzea izanik, Gurutze'k lagunduta, bide-zabaleraiño jatsi gintzazan, eta emen alkarri agur esanda, amari etxeraiño lagundu neutsan, eta gero astirik galdu barik, berandu zan-eta, Artzuri'ra biurtu nintzan.

X X X

Lendik erabagia lez, Irailla'ren 14'ganean, Gurutz Deunaren egunean izan be, Goiniz'eko eleizan ezkondu gintzazan, egun gogoangarria benetan. Gurutze iñoizkorik zoragarrien agertu zan, kaleko janzki polita erabilera. Izan be, lora batek ez dau iñongo apainketarik bear, eta egun aretan, Goiniz'eko larrosarik ederrena emaztetzat artu neban. Jaia biribiltzeko, eguraldi gardeneko eguna izan genduan. Ezkontzea amaituta, enparantzara urten gintzazanean, txistu-jote alaiaren artean, erritar gazte batek aurrekua guretzat dantzaren egin eban. Onen ostean, Artzuri'tik berariz etorritako ospe andiko ertilari batek, guztitariko argazkiak egin euskuzan, eta jarraian, Erriko Taberna'n egundoko eztegu-bazkaria izan genduan,

Taxi batek uriburura eroan ginduzan, eta amabost egun iraungo leuken eztegu-bidegite zoragarria izan genduan, Euzkadi'ko uriburuak ikertzen genduzala. Noizbait,

arratsalde baten, eguzkia Artzuri'ko egurastegiko zugaitzen atzetik itsasorantz makurtzen zanean, gure kabia izango litzaken etxera eldu gintzazan. Irailla'ren azken eguna zan, eta zeru gardenpean bedar garbiaren artean kokatuta, gure etxea zuri-zuri nabarmentzen zan.

– Gure etxea dan ederra...! –burua nire bularrean kokatuta, suzmurka iges egin yakon Gurutze'ri–.

Eta gero,

– Bakizu, Txomin...? Uso bat emoten dau...

– Ori esaizu, Gurutze...! Zelako izena gure etxeari emotea burua urratu dot alpe-
rrik aspaldi onetan, eta orra or, eskutik abora, ustekabez, izena bururaten yatzula...
“Usoa”, zer deritxazu izen orreri...?

– Oba ez, Txomin...! Eta gaiñera, ez dozu aditzen aizearen suzmurra zugaitzen ar-
tetik...? Badirudi, benetan, urru ta urruka dabillen uso baten lazтана.

Illuntzea zan, eta Gurutze'k bide-zorroak arasean egokitzen ebazala, sapaillora urten, eta aulki baten jesarri nintzan. Arratsbeerako azken argia Goiniz'en aldera ostentzen zan, eta ustekabez aitita gomutara etorri yatan... eta biotzaren sakonetik, beraganako oroitz bizi-biziak laztan baten antzera inguratu ninduan... Une aretan gomutara etorri yatan, berak niri esandako auxe: garbi iraun nengiala, egunen baten nire begira egongo litzaken maite kutunari, garbitasunaren emokaria eskiñi nengikeon. Eta olan jazo izan zan... Eztegu-gau aretan maitasunaren goraldian besarkatuta, alkarri emon geutsan gure garbitasunaren lorea, ezerk erosi ezin dagiken benetako maitasunaren izarra, eta eurek jakin ez arren be, ondorengoai damotsen duintasuna.

Banan-banan nire bizitzaren egutegitik urteen orriak jalgi dira, eta zaar-saridun billakatu nazanean, astia emoteko, jasandako gora-beerak idaztea, biderik onena dala bururaturik, egunak joan egunak etorri, zartzaroaren aringarria dan arlo oneri ekin dausat, eta gaur azken atala idaztea dagokit.

Bearreko derist, baiña, neu lez zaar-saritu diran menpeko batzuen barri emotea, neroni dagokidana asi aurretik.

Marondo'ko Markel, Pototo ezizenez. Artxuri'ko kirol-arloan seme ospetsua billakatu zan. Iñarkunaren-iñarkunez, berezko nagikeriari gaiña artu eutsan, eta bein baten, Euzkadi'ko txapelketan, arinlaritzat urrezko domiñea lortu eban. Onen ostean neskatillan kutuna biurturik, oneitariko batek biotza ostu eutsan, eta ezkondata, biok Marondo'n bizi dira. Orain, Markel'en guraso erbalek, il surretik euren azken egunak arindu dagitsezan etxeoandre maratza ezagutu dabe.

Erremiji, bere garaian Artxuri'ko apaingarria izan zana, “Andre Apaiña” dendan lanean asita gero, etxeko alaba bakarrekin ezkondua zanean, aitagiañarrabak dendaren erabiltea emon eutsan, eta seme-alaben aita ederretsia biurtuta, dendeari abiada onuragarria emon dautso.

Mauri edo “Lukainka” azken urteok uriko liburutegian arduraduntzat emon ondoren, adiñez lanari uko egitea etorri yako be. Sarri askotan ikusten dot, egurastegian zear eskuak atzekaldean ipiñirik, eta begiak ortzi urrutirantz, bere olerki-senak eraginda egurastu bitartean iradokia billatuz. Ameslari au begiko dodan ezkerro, atsegin yat noizean bein berarekin berba egitea. Orain, baiña, oroimena kamusturik, ez dau “Haurrerakoi” taldearentzat itzaldirik idazten. Badirudi, bere maisu-lanek ez dabela taldekoek nai eben beste “Hatxeak”, eta onezaz gaiñera, “El Batua”ren bitxiak diran: “nazi-nala”, “espero”, “gonbidatu”, “independentzia”, “frogatu”, “bulego”, “greba”, “eskola publikoa”, “Sopela”, “orquestra Sinfonikoa”, “abantaila”, “unibersitatea”, “aireportua”, eta beste olako altisteak ez dituala bear beste erabilten. “Lukainka”ren alde esan bear dogu, baiña, aipaturiko edertasunak ez dituala erabilten, bear dan beste erdera ez dakialako. Augaitik ba, “Haurrerakoi”en “esperantza” dan gazte batek ordeztua izan da, eta askoen eritxiz, luzaro barik “Herri-mandoa” billakatuko dana.

Irakurleren batek jakin gura izango dau, urrean, zer billakatu diran Perutxu ta Manutxu. Ara... bein baten uriburura joan bear izanik, lendik ezagutzen neban ango baratza eta lorategien zainburuari, anai bioi buruz itaundu neutsan, eta nire poz andirako, lan-

gille ta zaindari arduratsuak eta umeen adiskide andiak zirala autortu eustan. Etxera biurto aurretik, eta onen pozean, nire aldez agurtu egiazala eskatu neutsan.

Bost seme-alaba emon daustaz Gurutze'k, iru mutil ta neskatilla bi, izan be. Mutil nagusia osagille billakatu da, eta gaur uriburuan ezkondu, erri-geisotegian diardu, guztiek ederretsia.

Bigarrena, orain urte batzuk abadetu zan, eta orain erri txiki baten diardu. Bein baten, amazapi urteko zala, bigarren maillako ikasketak amaituta, abade izan gura ebala esan euskun, eta pozik be pozik, Gurutze'k eta biok baietza emon geuntsan. Emen, Artxuri'ko eleizan mezakotu zan, iñoiz aztuko ez yatan egun eder baten. Sagaratzean gure semeari eskuak dardar egiten eutsoen, eta malkoai ezin eutsirik, Gurutze negar baten asi zan, eta nik biotzaren sakonenetik Jaungoikoari eskertu neutsan, ainbat etxetan sendiko lokarriak kili-kolo dabiltzenez, eta abadetzeko goi-deiak ain urri diranean, nire semetariko bat berarentzat aukeratu izateagaitik. Mundu onetan ordaintezina dan zorion au Gurutze'k eta biok etenbarik daroagu biotzean.

Alaba bietariko bat, Artxuri'n ezkondu zan dendari zintzo batekin, eta polito bizi da, bere umeak sarri askotan ikertzera datozkigula. Bigarren alabea, Artxuri'ko lekai-metxe baten ikasketak amaituta, lekai-mixiolaria billakatu da. Lurralde urruntsu batera joan yaku, Gurutze'ren eta neure atsekabea izanik, baiña barrutik, seme abadeaz jazo yakun lez, Jaungoikoaren aukeratuak oartzen gara, eta gure otoitzetan iñoizkorik alkartuen be, urrutira joan yakun alaba kutunarekin.

Boskarren kimua, Braulio dogu, aititaganako oroitzez onen izena emon geutsala. Ikastaldi naikoa sakon egin ostean, orain asko ez dala, udaletxeko urizain sartu yaku, eta polito ikasiaz gainera, adimen urtenekoa izanik, oraingo urizainburua zaar-saritu daitenean, gure semeak aren jarduna artuko dau. Mutil ona, langille, eta esanekoa da Braulio guria, eta beste seme-alabai lez aititaren ikuspegiak irakatsi dautsaguz. Badirudi, Goiniz'eko neskatilla maratz eta onakin arremonetan asi dala, eta etxean gurekin bizi dan seme bakarra dogun ezker, Gurutze'ren eta nire asmoa da, gure azken urteak lagunduta igaroteko, ezkondu daitezenez, "Usoa'n bizi izatera geratu daitezela.

Orain amabost urte, Gurutze'k eta biok zidar-ezteguak ospatu genduzan, etxeok eta adiskideek inguratuta. Nire emazteagan norbaitek geien ederrestu dagikeazanak aurkitu dodaz: maitasuna, zuertasuna, eta bere buru-ukapena. Neu be aalegindu naz, arek niri emonikoa zelanbait ordaintzea, baiña berak niri eskiñitakoa neurribakoa izanik, zaila yat, benetan, berarekiko dodan zorra kitatu dagidan. Edozelan be, gizakiak zorionaren bidean asekaitezak gara, eta orain urrats geldieziniaz bizitzaren neguko ateetara urreratzen nazanean, azken zati onetan be, bidekide izan dakidala eskatzen dautsat Jaungoikoari, Gurutze barik, bizi izatea ez litzakit orain baizen maitekorra izango-ta...

A M A I A

EGILLEAREN BESTE LANAK

1975 – OROITZAK	Erri-izparkari baten iruzkiñak
1979 – GALDU	Txakur baten gora-beerak
1984 – BIDETIK AMESETAN	Olerki-txorta
1986 – BORDAZURI	Gudaldiko gora-beerak
1987 – BIDEKO IPUIÑAK	Mota guztitariko ipuiñak
1989 – MORROIA	Basetxe bateko morroi baten ekintzak
1989 – IZADIKO PITXIAK	Gure zabaldiko abere batzuen gora-beerak
1990 – PLORENTZI	Oillar baten gora-beerak
1991 – YANOZ	Naparra'ko Erreiñuan jazotakoak
1991 – AMESEN ILDOTIK	Olerki-txorta
1992 – MENDEKUA	Zuzengabekeri baten oparia
1993 – PATXI	Umezurtz baten gora-beerak
1994 – ERROTAZAR	Erailketa baten ondorioak
1995 – BASAMORTUKO SEMEA	Erromatarren aldietako elebarria